

Manuel Lasarte

BERANDUKO LANAK



10267

BERANDUKO LANAK

(Bizitza eta bertsoak)

Auspoaren Sail Nagusia

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Manuel Lasarte

BERANDUKO LANAK

(Bizitza eta bertsoak)

Auspoaren Sail Nagusia

© Manuel Lasarte Arribillaga (Orio - Gipuzkoa)
© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzaile: Cometip fotocomposición, S.L. - Pamplona
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN: 84-7158-158-2
Depósito Legal: NA. 228-1992



Manuel Lasarte Arribillaga

SARRERA

1/ Maitatzea euskera
eta aberria
ez da izango gauza
arrigarria.
Ase dezan batzuen
bertso egarria,
irikitsera noa
nere iturria.
Au det jatorria,
berez etorria,
liburu berria
det martxan jarria;
zuri eskeintzen dizut,
Euskalerria.

2/ Ez dakit liburu au
nola dedan jantzi,
edo izango duen
zerbait garrantzi.
Nere bizitza ere
det zerbait idatzi,
erriak jakin dezan
biar edo etzi.
Amaseitik zortzi
edo bederatzi,
ortik gora gutxi,
det nik erakutsi;
beste gaiñontzekoa
gordean utzi.

- 3/ Irakurle, zurekin
zorretan nenguan,
kezka neukan.burutik
ezin kenduan.
Zuk liburu bat ona
merezi zenduan,
ez dakit nere onek
balioko duan.
Ikusi orduan,
nai dezun moduan,
nere liburuan
ea zer daguan;
ezer onik badago
jaso goguan.
- 4/ Liburuen bizitza
dala illezkorra,
esaten ari zaigu
jende pizkorra.
Al dana egitea
degu derrigorra,
biziko bada gure
izkuntza jatorra.
Au da lan gogorra,
badakigu sobra;
asitako obra
bukatu det orra,
ordaintzeko zueri
nizuten zorra.

5/ Euskera, gu zurekin
kezketan gabilta,
indartu nai ta ezin,
au da langintza!
Batzuek zuregandik
urruti dabilta,
eta zu, gaixo ori,
supritzen zabilta.
Sartu da ekaitza,
au da zorigaitza;
euskaldun bakoitza
euskaldun balitza,
zoriontsu litzake
zure bizitza.

6/ Nere sentimentuak
nai ditut azaldu,
gure erriarentzat
naiz urrikaldu.
Aspaldian ez degu
geiegi goraldtu,
oitura zelebrea
baidira zabaldu.
Lengo zarrak galdu,
berriak ugaldtu,
erderari eldu,
euskera zapaldu;
gure izkuntzak ori
mereziz al du?

- 7/ Ustez ez det itzegin
iñoren mingarri,
ortarako gogoa
beti det urri.
Jakin nai dunak nere
bizitzaren berri,
ar beza liburu au
eta irakurri.
Zerbait oroigarri
gerorako jarri,
naita oso larri
ibili naiz sarri;
obe, balitza danen
atsegingarri.
- 8/ Egin dedan liburu
koxkor onen bidez,
ez bedi beintzat iñor
bete naigabez.
Ni gizon ezjakin bat
nola naizen nerez,
ezin det erabaki
txarra dan edo ez.
Sendo kantidadez,
argal kalidadez
baldin bada berez,
barkatu mesedez;
dakienak juzkatu
lezake errez.

ITZAURREA

Euskaldun irakurle maiteok: zuei eskeintzeko liburutxo bat antolatu nai nuen, eta osatu det au ere nola edo ala. Bi eratara gaiñera, ain zuzen: zati bat itz lauz darama, eta beste gaiñontzekoa bertsoz.

Nik alegin guztiak ontantxe erabili ditut, baiña ez da batere errez norberak ez daukana besteri ematen.

Gure bertsogintza bat-batekoa izan da beti. Ori ez dakien bertsozale gutxi egongo dala derizkiot, Euskalerra zabalean ainbat txokotan kantatuak geranez. Gertatzen dana da bi lan oso desberdiñak dirala paperean bertsoak idaztea eta plazetan aotik aorako saioak burutzea.

Agian norbaitek uste lezake etxeko maiaren gaiñean moldatutako bertsoak ez dutela balore aundirik. Ori ere entzun gabeak ez gera. Baiña ni ez nintzake ausartuko orrenbeste esaten. Biak ixtimatu bear genituzke, bakoitza bere neurrian noski.

Badakigu bat-batean kantatzeak meritu geiago duela. Baiña lengo bertsolari zarren bertsozik gaur etzuen iñork jakingo, idatzita utzi ez balituzte.

Orain sei urte gutxi gora-bera, bertsolari gazte batek onela esan zidan:

–Lasarte, nik bertso liburu asko irakurri ditut, errimak eta beste gauza geiago ikasi naian.

–Orretarako berebiziko aukera daukazu –erantzun nion.

Beraz, ikusten degu garbiro bertsoak idaztea ez dala alperrikako lana, batzuen onerako baizik.

Ni neu garairik onena pasa ta gero ontaratua naiz, lagun zarren eskabidez. Nere kasa sekulan ez nintzan asiko, seguru asko.

Len erriz-erri ibili giñan kantari luzaroan. Orain artarako gauza ez eta denbora pasa bertsoak jarri. Orixe da egin dedana.

Gaizki edo ongi, nola jardun naizen ez dakit, eta dudan nago. Xelebrekeria dirudi, baiña gizon ezjakiñaren kezak orrelaxe dira. Nai bezela ezin jantzi alegia.

Ortik aparte, berriz, beste au ere aitortu dezadan: bertsogintzan, gairik geientsuenak pasa samartuak dauzkagu, eta berririk billatu ezin, nai dan modukorik beintzat.

Ala ta guztiz, era askotara saiatu naiz, bada ez bada ere. Erriaren gogozko biurtu al balitezke, poz ederra artuko nuke.

Nere bizitzari buruz ere idaztea pentsatu nuen. Baneukan zer kontatua, eta orri mordoxka bete azkenerako. Dana agertzeko geiegi iduritzen zitzaidanez, pusketa bat gordean geratu da, lengo leku berean.

Erri batzuetan egin ditugun ibillerak, eta entzun da ikasitako pasadizo zarrak ere aipatzea komeni. Ainbeste oroipen baineuzkan buruan.

Beraz, onenbestean bukatzen dira nere pozak eta penak. Irakurle, zure eskuetan uzten det liburutxo au, ongi artuko dezulakoan.

NERE BIZITZA

FRANKI BASERRIA

Ni naiz 1927'garren urteko abenduaren 16'garren egunean jaio nintzana Leitzako Franki baserrian.

Gu zortzi senide giñan guztira, Frankin jaio ta azi giñanak; eta ni nintzan zortzietatik gazteena, ala bearrez norbaitek bear zuen-da.

Nere aurreko arrebatxo bat an il zan, Joakina, zortzi urte zituelarik. *Menigitis* edo gaitz gogor batek menderatu zuen gaixoa.

Beraz, zazpi senide gelditu giñan bizirik eta aurrera jarraitzeko geure gurasoekin Franki baserri zarrean: Tomas, Juan, Jose Migel, Katalina, Migel Jose, Eusebio eta ni, Manuel. Orain bizi geranak, Katalina, Eusebio eta ni.

Franki baserri ura baserri aundia da berez soroz; eta belar zelaiak ere aundiak ditu. Erreka txulo batean dago, bi mendiren tarteko sakontxo batean, erle eultza bat bezela, tentaziorik gabeko bakardade paketsuan.

Etxearen ingurutik asi ta gora, zugaizti izugarriak ditu, nola aritz, nola pago, ala lizar ta gaztaindi saillak ere bai. Ta urkia ta altza, berriz, asko zegoan an. Urritza ere ugari, gu an bizi giñan garaian beintzat.

Euskalerriko zugaiztiak, izan ere, bai aberatsak zirala! Guk ume denboran ezagutu genituenak, batez ere. Leitzako erriak berak mendi sail ikaragarriak zituela esan oi ziguten guraso zarrak.

Ango basoetan zenbat animala mantentzen ote zan belarrez eta ezkurrez, nola ardi ta beor, ala txerri ta bei, iñori ezeren gasturik eragin gabe? Noizean bein bakoitzak bereak ikusiko zituen nundik nora zebiltzan, da lasai etxeratuko zan bolada baterako.

Ardiak emango zioten lanik txarrena. Aiek maizago bixitatzea komeni, ta iges egin da banaka zebiltzanak berriro taldera bildu gaiñera. Orretan zintzotasun aundia zutela badakigu ango artzaiak.

Leitzari bizibidea azken urte auetan *Sarrió* papelerak eman diola ez dago

ukatzerik. Langille mordoska enpleatu izan dan fabrika da ori, eta errian bertan ogia irabazteak ez du gutxi balio.

Len, garai batean, nekazaritzari ta mendiko ganadueri esker bizimodua ateratzen zuten geientsuenak, kale aldean ez baizegoen beste etorkizunik.

Gazte jendeak, berriz, baso lanera Irati partera ere joan oi ziran batzuek udaran. Gero, negua zetorrenean, ordea, etxera itzuli bear ekaitzaren bildurrez. Erri barruko oianetan zebiltzanak ere neguan jai artuko zutela esanda asmatu genezake noski.

Ta Frantzira edo mugaz beste alderako joerak gaur oraindik jarraitzen du. Amar illabete urtean pasatzen omen dituzte an baso lanean. Mutillak baliteke emen baiño diru geiago irabaztea, guk jakin ez arren.

Lengo jendearen izakeraz konturatzen bagera ere, ez degu oso eroso ikusiko, guztiz neketsua ta tristea baizik. Sorterrian ezeren itxaropenik etzeukatenak, Ameriketara aldegin igoal, txanpon batzuen billa. Jokaera xelebrea!

Gure familikoak iru osaba bai omen ziran, da joan da sekulan onuntza etorri gabea aietako bat beintzat, aita zanaren anaia. Lenengo ango ganadero baten morroi izana; ta gero bere kontura asi ta zearo aberastu noski gizona. Nagusiak jarri omen zuen bere tokian, mutil zintzoa zalako, ta besteri ongi etorri.

Gure Franki baserrian, lizar ostroa asko biltzen zuten gure aitak-eta. Negurako ardien janaritzat izaten zan ura. Bi urtetik bein ebakitzen zitzaizkion lizarrari adarrak aizkora txiki batekin. Udazkenean, ostroa berde zeukan bitartean, kendu; eta gero eguzkitan legortu. Zimeltzen ziran garaian, beren adar ta guzti sorta koskorrak egin, da gari lastoz egindako lokarriz lotu, eta ganbarara edo gutxienez ere legorpera sartu edo jaso, alperrik galdu etzitezzen, gero negurako.

Eguraldi ona bear izaten zuen, lan oiek egiteko. Lizar ostroa, kanpoan busti ta sartzan bazan barrura, lizundu ta usteldu egin oi zan, da gero janari txarra. Baiña ondo tratatua izan ezkeru, ardientzako oso ona, neguan danak bear izaten dira ta.

Elur da jelateak ziran garaian, olako denborale txarretan batez ere, ardiak larrean erabiltzerik ez. Etxean mantendu bear izaten ziran, da etziran gaizki etortzen udazkenean zimeldu ta jasotako lizar ostro aiek.

Neguak gogorrera jotzen duenean, etxean ganadu asko dauzkanak miatzen ditu ganbarak eta sapaï zuloak, arranek ezik. Ez da orrelako mutillik garbitasuna egiteko. Ez orixe!

Ta an, Franki inguruan, gure gazte-garaian, elur bildurgarriak izan oi ziran, da orma edo jela oietakoak ere bai ugari. Negu latzak, itz gutxitan esateko.

Gogoratzen naiz: gu, mutil koskorak, elurra noiz ikusiko zai egoten giñan. Orduantxe gozaten nunbait bestela baiño geiago. Txori eizean-da ibiltzeko amorratzen beti. Zepo txarren batzuek inguratzen genituen, da galbai zarren bat edo beste ere bai. Aiek tranpan jarri ustez, al zan modurik egokienean, galbaia alde batetik gorago zala. Baiña orretarako, makilla mutur bat erabiltzen genduen, soka edo lokarri luzea erantsita.

Lenengo, elurra kendu. Lurmena egin, alegia. Eta gero jarri, diodan galbaia, bere azpian arto ale batzuk zituela. Txoriak jatera sartzen ziranean, guk ezkututik tira sokari, tranpan arrapatzeko asmoan. Baiña laister oartzen ziran. Geienetan aldegiten ziguten.

Ukulluko atearen aurrean antolatzen genituen orrelako zirkoak. Ume denborako kontuak. Era orretantxe ibiltzen giñan ganbarako artotik txoriak mantentzen, sugur azprietan muki galantak zintzilik genituela, otzak il bearrean, jateko ere astirik artu eziñik bezela, edo artara ere inguratu nai ezik, sarritan etxeko danak errietan zirala. Ala ta guztiz ere, pozik, geure gustoko lana zalako.

Baiña bestek aginduta egin bear izan balitz, etzan noski ain gozoa eta ederra izango. Azkarrago aspertuko ote giñan esango nuke nik, batere zalantzarik gabe. Baiña sasoi artan, nolako adiña alako zentzuna. Orixe zan gertatzen zitzaiguna, seguru asko. Urte aiek joan ziran betirako, onak edo txarrak.

Dana dala, Franki baserrian lurreko sua zan len, gu an bizitu giñan denboran, beste toki askotan izan oi ziran bezelaxe. Beko sua esaten zitzaion oietakoa, alegia. Gure gazte denboran baserririk geienetan edo danetan alakoak zirala ongi dakigu. Egurra ere aukeran baizan erreka zulo aietan.

Gure etxean su-aldi ederrak egin oi zituzten, neguan batez ere. An erretzen ziran egur pillak erosi bear izan balira!... Mendian ikatz-egilleak txondorra bezela kargatzen zuten len aipatu degun lurreko sua, ta gu ere antxe gozaten giñan illunabarretan.

Gauero danbolinkada aundi bat gaztain erretzen genduen, famili guztia

bilduta su epel goxoan jateko. Negu osorako naiko gaztaiña bazan Franki-basoetan urterik urrienetan ere. Udazkenean ongi bildu ta legorpera sartzen alegindu ezkerro, an gendukan nai zanerako. Ortik aukera bazala aitortu bear, beste gauza asko faltako baziran ere.

Zugaitz-klase ori ugari ezagutu genduen lurralde artan, da oso emankorra gaiñera. Danak jasotzeko geiegi ta kanpoan gelditzen zitzaigun erruz, zenbait urtetan beintzat.

Baiña etzan alperrik asko galduko noski. Ardi ta txerri ta oietatik sail aundiak ibili oi ziran baso aietan, da billatuko zituzten lurrean zeudenak dotore asko. Ardia bera gaztain-zale purrukata da, ta txerria zer esanik ez. Oso gustoko janaria dute ori. Ezkurra ere bai. Orbel tartean edo azpian daudenak somatzen dituzte. Mutturra sartu ta ateratzen badakite.

Batzuetan, bear baiño geiago janda, aizatu ta lertu izan dira ardiak. Gure etxean gertatu ziran orrelakoak. Penagarria da alde batera. Baiña libre dabillen animalia zaintzen ez da erreza, norberak nai duen modura, ta kalteak etortzen tarteka.

Pertsonarentzat ere oso janari sanoa ta goxoa da gaztaiña. Baiña jenero aizetsua.

Gure gaztetako alimentuak auek ziran. Esateko lotsetan ezin egongo gera. Len pobreak usatzen genituen jateko klaseak, gaur aberatsak eskatzen dituzte kapritxoak egiteko. Noizean bein ez dira gaizki etorriko, neurrian ordea. Eguzero asiko balira, ez ote lirake aspertuko? Dana dala, asko lezakeanak edozer gauza egiten du.

Gure mantenua onela zan: goizean, gosaltzeko, taloa ta esnea geienetan. Beti esanda ere, oker aundirik ez noski. Ama zanak nekaldi ederrak artzen zituen taloak erretzen, gaixoak. Famili aundia giñan da maikada osatzen asiko zan, erre aiñean bakoitzari ematen; da giro izaten zan gurekin, sabelak bete samartu bitartean.

Taloak erretzen denbora bear da. Guk, berriz, danok batera nai, ta zoratu bearrean erabiltzen genduen ama. Lanik asko izaten zuen familia ase eziñik. Berari gosaltzeko txanda etziztaion berealakoan irixten. Askotan, gosea pasa ta gero. Guk jan-aldi bat egindakoan jarlekutik altxatzen giñanean, ala esan oi zigun:



Franki baserria.

–Berdindu al zerate, mutillak? Gaur egun guztikoak janak izango al dituzute orratik!

Baiña berriz ere, iru edo lau ordu barru, inguratzen giñan bazkaltzera, len baiño gose aundiagoarekin. Ez baigenduen egun guztirako ainbeste goizean jaten nunbait; eta, ortik aparte, eguerdirako egosten jarritako babarrunak an egongo zirala bagenekigun, da aieri ere eman egin bear ba beste marruskatu bat.

Goizean oetik jeiki ta lenengo lana orixe zan jeneralean gure ama zanarena: sua piztu ta lapiko aundi bat bete babarrun jarri egosten.

Geienetan edo beti, bera altxako zan aurrena; eta, gaiñontzekoak jeikitze-rako, kafe bero pixka bat egin da prest edukiko zuen su epelean. Andik emango zigun bakoitzari txurrua bana baraua austeko.

Ura artutakoan, aitik aginduko zigun zer lanetan asi bear zan edo nora mugitu. Ganaduen gobernuak-eta egin bear izaten ziran. Andik ekin lenengo. Ta gero, aien goraberak zuzendutakoan, biltzen giñan sukaldera gosaltzera; ta, len genion bezela gosaritan talo jan aundi baten bidez ase ondoren, batzuek mendira ardi zai edo aiek ikustera, eta besteak beste zerbaitetara ta abar. Danentzako inguratzen zan zer egiña. Baserrian lana gauza ugaria izaten da, edozeiñek dakien gisan.

Bazkaria, berriz, egunero jakiña. An etzegoen kartarik aukeratzeko. Goizean egositako babarrunak, txorixo, odolki ta oietakorik gabe, baiña bestela ongi gozatuak. Andik jan-aldi eder bat; eta, gaiñetik beste zerbait baldin bazan, kontentu jartzen giñala ezin ukatu. Postrerik, berriz, ez genduen ikusten. Erriko pestetan bakarrik. Bizio ta dotorezi gutxi.

Merienda edo arratsaldekoa ona, orixe bai. Sardiña zarrak izaten genituen askotan, da aiek ere osoan ez. Osoan geitxo zirala ta erditik zatituta. Iñoiz anaiak erdi asarre ibiltzen giñan, batek pusketa aundiagoa zuela besteak baiño, ta alaxe.

Ez jaki geiegi zutelako, baiña bakoitzari bana osorik emanda gastu aundia egiten omen zan. Modu orretan itzegin oi ziguten guri gurasoak. Galga artan zegoela segi bearra. Bestela, famili ugarian, arratsaldeko meriendak galesti jotzen zuela alegia, ta gauzari begirutzen ikasi bear genduela.

Guk ere, beraz, bizitza zurraren jabe gaztetandik egin giñala esan genezake, ez da gezurra ta. Geroztik ikusi ditugu emen aldakuntza galantak gutxiagora ta geiagora. Guretzat geienean gauzak neurtu samarrak baziran ere, sortu degun

pixkari ongi kontu egiñez ibili gera, alperrik asko galdu gabe. Pobreak, zintzoa ez bada, jai dauka, nere ustez. Len genionez, gure baserrian ere etorkizun urria baizan.

Beste jenero au erabiltzen genduen oparo antzean sarritan: ardi-esnez egindako gazta ona. Ez da nolanaiko janaria uraxe bera ere. Etxean artalde dexentea edukitzen, da orrek asko esan nai du. Azokan erosi ta eramandakoa baiño merkeagoa izaki. Kosta gabea etzan izango; ori badakigu. Baiña diruaren truke kanpotik etxeratu bear dan jangaiax ditu zailtasunak askotan.

Gazta itxurazkoak alimentu izugarria du. Zoragarria da benetan, naiz ogi pixka batekin da bai talo errearekin ere. Inor ez du gogaitu edo aspertu araziko. Gutxiri egingo diola kalte uste det nik.

Gure aita zanaren jokabidea onelaxe zan: ardiak umatzen ziran garaijan, etxe aldetik erabiltzen genituen, soroetako belar gozoak jan araziaz ta abar, al zanik ongien tratatuaz. Ederki garbitzen zituzten baztarrak. Zaintzen lana pran-ko eman ere bai.

Gero, udaberrian, aurrerako azi bear ziran arkumeak, berriz, onenak auke-ratu, isatsak moztu ondo samarretik eta belarrietan seiñaleak egin, errezago ezagutzearren alegia. Bestela galtzeko arrixkuan aurkitu baizitezkean mendian, ainbeste artalde zebiltzan tokietan. Ala, artzai bakoitzak bere seiñalea nola zuen, arkume arrotzik sartzen bazitzaion taldera, bereala konturatzen omen zan, da jabeari abisatu edo entregatu zintzo asko.

Gure aita zanak ixtiluak erabiltzen zituen sarritan. Azitzeko gai bear zuten arkume urrusak aukeraterakoan, besoetan artu ta igurtziaz.

–Au berez ama onarena dek, eta itxura ederrekoea gaiñera. Bildots galanta egingo dana, sano baldin bada –alaxe jardungo zan izketan gustora, ta arek isatsa moztutzen ziona etzan txarrena izango noski.

Ardi mordoxka bat bialduko zituen beraien umeekin udara guztirako Aritz-malkor deitzen genion mendira.

Diodan ori Leitzako terrenoan egon bear du, baiña Goizueta inguruan. Oso larre aberatsa dala esan oi dute angoa. Janari fiña, alegia. Auskalo zenbat artalde mantenduko ziran Aritz-malkorren. Bordak ere bertan zeuzkaten artzai leialak: bakoitzak berea.

Lentxeago nion bezela, batzuk ara eramanda, beste gaiñontzekoak etxe

aldeko basoetan zaintzen genituen guk, goizean da illunabarrean, esnea ematen zigutenak. Arkumeak saldu ondorengo kontua da ori.

Gure ama zanak eskuz egiten zituen gazta onak egunero, ardiak antzutu bitartean, da ara nola: balde zabal batean gatzagia nastu ta jarriko zuen esnea suaren aldemeneko epelean, berotasunaren bidez mami biurtu zedin. Bazekien noiz irixten zan bere galgara, ta orduan gazta egin. Gero, gazura egin. Irakiten asten zan garaian, karaitz arria sartu ontziaren barrura. Ala gusto ohea izaten omen zuen gazurak. Bazitekean; guk pozik edaten genduen beintzat.

Dana dala, goazen aurrera. Ardi esnedunak, illunabarrez, errapean zeukaten kendu ta basora larratzen, da urrengo goizean komeri latzak, danak billatu eziñez.

Gure anai batek zuen kargu ori; ta, goizago oetik jeiki arren, kostatzen zitzaion etxera eramaten. Geienetan faltako ziran bat edo geiago. Ardia ibilkari amorratua baida. Gauzez bidea errez pasatzen daki. Aritz-malkor aldera joan nai izaten zuten jeneralean, beste lagunetara, eta batzuetan billatu eziñik nundik nora zebiltzan.

An zebiltzanak, berriz, udazkenean etxe ingurura bildu bear, ekaitz gogorak artzen asi baiño len, al bazan. Bestela, mendi altu aietan etzegoen deskuido txikirik, eta kontuz. Eskarmentatzeko aiña motibo bazan Franki baserrian. Orain esango det zergatik, eta gero berriro sartuko naiz ardien saillera.

Beti gogoan dedan kaso xeblebre bat adieraztera nijoakizu, irakurle, sinisteak ere lanak dituen arren. Gure aita zanak, aberezale purrukatua izanik, ni artean ume edo mutil koskorra nintzala, elurteak jo ta emezortzi beor ta zaldi nasian etxeratu zizkigun, ederki kostata. Ura zan bikaintasuna, begira egoteko! Ama batenak amazapi, ta bera bizirik artean. Frutu pranko eman zuen, alperrik galtzeko. Arek etzuen antzu luzaroan iraungo noski.

Gure ama zanak, pozez beterik, onela esan zion beor zarrari:

–Bejondaizula! Zuk ere probatu dezu, gaixo orrek, famili aundia azitzea zer lan dan, nik ez-ezik.

Ala, Franki baserriak, gaur ez dauka, baiña len bazuen etxeari erantsitako estalpe aundi bat, eta an pasatzen zuten gaua legorpean, eta egunez egutera aldeko otadian ase edo gosea kendu. Beor ta zaldia otea errez jan oi dute alako giroan, indarrean daudenak batez ere.

Ekaiztea arindu ordurako, igo ziran berriro mendira danak. Aitak noizean bein bisitatzen zituen. Ongi zebiltzala ta pozik gizarajoa.

Baiña laster sortu, ordea, naigabe beltza. Urrengo neguan, elurte ikaragarri batek arrapatuta, an utzi zituzten ezurrak. Beor zarra bakarrik bizirik etxeratu. Beste amazapiren arrastorik etzuen iñork atera.

Ta, azkenean, bera Plazaolako trenak jo ta garbitu, ta kito. Batere abererik gabe geratu goizetik gauera.

Denbora asko pasa genduen alaxe, ta gero noizbait Tolosan erosi ta erama-na zan Leitzatik Aiara ekarritako zaldi txiki bat.

Beraz, sartu nadin len neraman arira. Ardia berez egonarri gutxiko animalia da. Oso aldakorra ta janari goxo zale utsa. Begi argiak dituenek, urrutira ikusten daki beretzat moduko mokadu egokiak nontsu dauden, eta aiek bazkatzera joan nai izaten du, egunez galerazten bazaio gauez, batez ere illargitan edo giro itxurazkoan. Ez da nekearen bildur.

Guk Leitzan probatu genduen ori. Geientsuenak zintzarriak erabiltzen zituzten, eta eskerrak aiei. Bestela, nork antzeman nondik nora zebiltzan?

Nik Leitzako piñu sonatuak gazte askorik ezagutu nituen, anai zarragoa ta biok an taldetik galdu edo iges egindako ardien billa genbiltzala. Ori bertsoz ere aipatzen det. Joera nabarmena baizuten alde artara.

Orain iru urte izan nintzan azkeneko aldiz mendi alde aietan. Emen Orion bazeuden ango piñu zugaitz aundi sonatu aiek ezagutu naiean batzuek; eta goizean bi kotxetan joan da ikusi zituztenean, arrituta gelditu ziran erabat. Ez baida gutxiagotarako.

Eguraldi bikaiña egokitu zitzaigun, da giro atsegiña zegoen mendian ibiltze-ko.

Urruti antzetik begira jarrita, iñork ez luke sinistuko ain sail txikian ainbeste zugaitz ta material egon litekeanik, nere ustez.

Baiña Leitzako gizon zar batek esan zidan, igartzen asita daudela pixkana-pixkana. Len elurrik ez omen zan sartzan beraien azpira. Orain bai noski. Orrek adierazten du adarrak soiltzen ari zaizkiotela.

Landare gazteak ere badauzkate aldemenetan, galantak aziko diran itxura daukatenak. Urtetik urtera luzatzen eta loditzen dijoaz erruz. Ango lurrak

ezagun du zertarako balio duen. Dana dala, gure lagunak begiak gozatu zituzten.

Ardia etekin aberatsak ematen dituen animala klasea dala badakigu. Ainbat gazta eder jandakoak gerala ez dago ukatzerik.

Gure etxean ardi zarrak ere izaten ziran, baiña aiek kanpora saltzen zituzten. Ez, guk jango ez genituelako. Diru apur bat zerbaitekin artu nai, ordea; ta babarrunak gozatzeko zeziña urruti, zoritxarrez.

Franki baserritik urrean, bi edo iru famili. Indar-etxean zuten ogibidea gizonetzkoak; eta, ainbesteko mendi ta baso saillak zeudenez, bazituzten auntzak ere. Ez asko; banaka batzuk baiña.

Aiek, ordea, gaizki ezitako bigurri utsak. Gure soro-baratzetan jaun da jabe zirala adierazi nai izaten ziguten. Auntza zer bitxo dan, probatu ez duenak ez daki.

Aita zana bapo amorrazita ibili oi zan askotan. Inguruko bizi-lagunekin okerrik nai ez ta beti supritzen. Inoiz abixoak ematen zizkieten: nun-nai bazeukatela zer jana ta lotu edo zerbait egiteko. Noizean bein jartzen zituzten lotuta, soka luzean zutela. Baiña urrengoan aztu igoal, da berriz ere lengo martxa modua. Sagar da beste zugaitz klaserik geienak gaiñeko azala jan da igartzeko zorian utzi ere bai. Oiek zenbat gaiztakeri erabiltzen duten ez dago esaterik.

Egun batean, baratza barruan an ari zan bat, zeuden landareri ederrenak moztutzen, auntz adar aundi bat, pareta gaiñetik salto egin da sartuta. Gure anai batek ikusi zuen. Esan zigun arrapatu bear genduela. Iru joan giñan ezkutu antzetik, ura erne egongo zala ta. Ni txikia nintzan; beste biak sasoikoak.

Ala, berak nai etzuela, an erori zan lazoan. Andik aurrera bagenduen nun jolastua ta naiko pesta. Bote ederrak egiten zituen, baiña itxiturak zeuzkan da ezin atera iñora. An arrapatu zuten etsaia.

Batek adarretatik eldu zion, da tira aurrera. Besteak atzetik bultza. Era-man genduen etxeko sukalde zarreraiño. An lurreko sua zan. Egurrez beteta zegoen. Illanti bikaiñak zeuden. Brasa, berriz, aukeran, da gure anai batek pentsatu zuen auntzari ipurdia erre bear ziola, ta guk eusteko.

Ala, artu zuen tenazekin guri-guri zegoen brasa pusketa eder bat, eta bere isats motza jaso ta jarri zion ipurdian. Giro zan antxe! Isatsarekin brasa estutu egiten zuen. Orduan da geiago erretzen zion.

Libre utzi genionean, ura anka jokoa mendian gora ta aiek karraxiak!

Erriko pestetarako iltzen zuen gure aita zanak, urtero, gizendutako ardi zarren bat. Uraxe zan aren ilusioa edo gogoa.

Lau eguneko pestak antolatzen zituzten Leitzan gure gazte denboran. Urteko jai nagusiak ziran eta, diodan bezela, egun oietan etzan jan-edanaren faltarik izaten baserrietan ere noski. Ez etxe danetan berdin; baiña famili bakoitzean al zaneraño aleginduko zan jendea jaiak ongi igarotzen.

Eta nik uste det arrazoi zeukatela gaiñera. Erriko pestak ortarakoxe izaten dira, ta zerbaiten poza bear du urte guztian lanean jardun danak. Munduko bizitza onetan gaiñontzean ez legoke ezertarako gustorik.

Leitzan lagun arte atsegiña aurkitzen da. Oso giro anaikorra kanpotik dijoanak ere. Nun-nai ateak zabalik billatuko ditu, ta edozein familitan etxeko bezela artuko dute. Orrengatik, Gipuzkoa aldetik jende asko joaten da ara abutzuko San Diburtziotan.

Sartu gaitezen len damakigun arrastora. Franki baserrian artoa eta babarruna etxeko lurretan artzen ziran. Garia berdin. Gari iriñezko taloak ez dira nolanaikoak. Asegarri onak eta errez jateko modukoak.

Gaiñera, ogi erretzeko labetxo bat ere bazan etxe artan, len baserririk geientsuenetan izaten ziran bezela; eta an erre oi zituen ogi borobil batzuk iñoiz gure amak.

Baita arto borobillak ere. Baiña arto aiek lureko suan erretzen zituzten geienetan, da ara nola: lenengo, autsez tapatu ta gero brasa beroa gaiñean jarrita.

Lengo guraso zarrak lan klase oietan bazekiten ongi, larre motzcan bizitzen ikasiak ziralako; eta guk ere alatsu ikasi bear izan genduen, edo-ta okerrago bearbada.

Urte batzuetan larri ibili giñan, ez ogirik eta ez talorik jateko ez genduela. Etzan biziera eder bat uraxe ere. Pentsatzen nekatzerik ez du merezi.

Arto zopak jateko gozo askoak izaten dira ba. Esnetan egosi ta bai gustagarriak benetan, da kelmentsuak. Gorputzaren berogarri biurtzen diran jeneroak. Goizean gosaltzen andik sabela bete ezkerro, bazkaltzera bitartean gosearen kezka aundirik gabe gelditzen da bat. Noranai joateko moduan lasai.

Lengo janariak orrela ziran, baserrietan beintzat: patata, babarruna, arto

errea eta talo erreak, esnea, gaztain erreak edo egosiak eta abar. Edateko, berriz, ura.

Gu janari oien bidez azi giñan Franki baserrian. Etxeko zaborreriarekin tripa berdintzen ziguten, da segi aurrera goserik gabe. Orrek ez du gutxi balio.

Afaria ere sano samarra, negu partean batez ere. Lenengo, gaztain erreak, nai ainbeste. Gero, gaiñetik, taloa ta esnea. Joaten giñan oera ta gaua geiena tiroteo batean pasatzen genduen. Izaten zan an polbora-usaia. Manta zarrak berotzen ziran ederki, arranek ezik.

Erle batzuk ere etxe askotan edukitzen zituzten len, da gure baserrian ere baziran, gutxi baiña. Nik ezagutu nituen dozenaren bat edo orrela. Aita zanak oso maite zituen erleak. Etekin aberatsa ematen baidu eztiak.

Berak ez du nolanaiko alimentua. Guk ez genduen nai ainbat eskuratzen. Iñoiz amak ematen zigun ogi kozkorren bat edo beste eztitan bustita. Uraxe bai gauza gozoa izaten zala. Etzan alperrik asko galtzen. Beatz muturrak ederki miazten genituen bere kutsura.

Erle aipagarri aiek etxetik oso urrean zuten beren bizilekua, egutera aldeko arkaitz inguruan. Egurrez edo zurez egindako eultzak zituzten babestoki beren lanetarako.

Aiñarraren lorea eta alkaziarena omen ditu gustokoenak erleak ezitia egiteko. An aukera billatuko zuten aiñarretik. Alkazi asko zanik ez det uste.

Dana dala, orrelaxe joan zitzaigun guri zorioneko txiki denbora, len pran-kotan esan izan dedan bezela, Frankian bizi giñala.

Familian gazteena nintzalako, nik ibili bear izaten nuen erriko dendetatik eramane bearreko jeneroak eramaten, enkarguak egiten alegia, mutil-koskortu nintzanean, batzuetan Leitza'tik eta besteetan Berastegi'tik.

Bi erri oietara bide berdintsu samarra da Franki baserrietik. Ordubete bear du oiñezkoak bizi-bizi joanda. Denbora orixe bietan edozeiñetara irixteko; eta etxerakoan beste ainbeste gutxienez, edo sarritan geiago. Norbere antzeko lagunene batzuekin egokitu ezkeru, bidean jolas-aldi galantak igoal egin.

Guk beintzat jokaera ori genduen geienetan: edozer uskerirekin denbora galdu. Zertara joan giñan aztuta antxe, ta etxean danak gure zai ernegatzen, nun genbiltzan arrastorik gabe. Orrelaxe ibiltzen giñan baztarrak aspertu arazten.

Dendatik gauza kontuz antzean erosten zan urte aietan. Dirua urri ta juxtu-juxtuan al zan bezela pasa. Baiña derrigor bear ziranak erosi egin bear orduan ere, ta orrek ematen zituen estuasun latzak.

Enkargu edo mandatu gutxi ta ariñak ziranetan, oiñez; bestelakoan, gauza asko ta karga astunak baldin baziran, astoa edo zaldia erabiltzen genduen. Artean ez baizan autorik eta tresnarik.

Errotara joateko, beintzat, oso premizkoa zala badakigu abere oietakoren bat. Arto aletua eraman eta bueltan iriña ekarri egin oi zan errotatik; edo garia berdin da.

Len genion gisan, abereari bizkar gaiñean lotuko zitzaion errotako zakua; eta eguraldi euritsua egokitzen bazan, ardi larruarekin tapatu, al zanik ongiena. Bestela, iriña busti ezker, ore edo zapero biurtzen baida, ta legortuta gelditu buziñezko morteroaren antzera. Beraz, arreta aundia bear zan, ezer alperrik galdu etzedin. Orrelaxe saiatzen giñan urte aietan.

Errota zar bat bazan len, Urtoko mugatik bereala, Gazpillotxiki-azpiko aldaparen asieran, Leitzan bera pasatzen dan errekan. Baiña Areso aldeko partean egongo zan, dudarik gabe. Aresoko errota deitzen zitzaion beintzat.

Gure Franki baseritik pranko urrean zegoen. Bi kilometro ta erdi edo orrelatsu zirala uste det. Ni, mutil koskorretan, ara bialtzen ninduten, artoa edo garia ego bear zanean.

Irin ona egiten bazekiten orduko errotariak, ale itxurazkoa eraman ezker. Arto ezea, lizun antzekoa edo ongi eldu ta gozatu gabea baldin bada, irin txarra seguru aterako da. Ganbaran denboraren joanean bere kasa legortzen danak du gustorik onena jateko. Garia, alez txikiagoa izanik, askoz errezagoko sekatu oi da. Baiña ala ta guztiz ere, bakoitzari berea eman bear litzaioke.

Diodan errota artan, aitona txiki batek egiten zuen lana. Aresoko Ibiurkoa zan bera. Oso gizon atsegiña neretzat.

Iñoiz parean pasatzen naizenean, begiratzen diot eta oraindik txutik ikusten da txabola ura. Dexente narrastua dagoen arren, agian bertan egon litezke lengo errota arriak eta tresnak. Baiña aspaldian etzituen iñork martxan erabiliko, ta alperrik galduko ziran gauzarik baliosoanak.

An ur faltarik ez legoke, berrito jartzeko ere. Gaur baserrietan laborerik ez egiten, ordea, ta zertarako dira errotak? Ori tontoenak ere badaki noski.

Gure aurreko guraso zarrak langille artistak zirala esatea ez det uste pekatu danik. Gaur bezelako erremintarik gabe moldatzen zituzten tresna baliosoak, edozer klasetakoak gaiñera.

Errota arrien xixtima bera ere ikusgarria da. Barren aldera begira jarri ezkerro, kanal batzuek daramazkite, egurrak lantzen erabili oi ziran zepillu edo garloparen antzera. Garlopak ortzaren aurreko aldean edukitzen du diogun kanal edo zirrizku bat, eta andik gora ateratzen da egurrari kentzen dion zirbilla. Errotak orixe bera egiten duela adierazi nai nuen, alea ego ta kanpora iriña botatzerakoan.

Arriak, azpikoa ta gaiñekoa, biak, noizean bein derrigor pikatu bear izaten dute, agin-berritu alegia, bueltaka dabiltzala gastatu ta leguntzen diralako.

Artorako prestatuta dagoen errotak, ez du balio garia egotzeko. Egitura desberdiña dute batek eta besteak barrendik, kanpotik ikusi ta antzeman ez arren.

Arrien kalidadea ere ez det uste igoala danik, bakoitzari dagokion klasekoa baizik.

Barkatu, irakurle, Naparroatik Gipuzkoara pasako bainaiz une batez. Baiña aririk ez det galduko.

Orain bi edo iru urte, azaroko illean, Zarauztik deitu zidaten da joan nintzan. An ari ziran estalpe batean lanean. Kamionaren txasisa edo armazoiari, gaiñean, aritz egurrez, txabola antolatu zioten, da errota zarra bertan jarrita zeukaten ordurako, gasoillezko motorrarekin.

Nere bistan martxa eman da ikusi nuen iriña nola egiten duen. Len uraren bidez ibiliko zan, seguru asko. Baiña aspaldiko urteetan batere ez. Auskalo noiztik zegoen geldirik baztarren batean, da orain karrozan, alajaiña, erakusgarri artean.

Bear bezela bukatzeko asko falta zitzaiola esan zuten. Al izan ezkerro, Santa Luziatan Zumarragara eramañ nai, ta gero Santo Tomasetan Donostira.

Artoa erretzeko, edo taloak berdin da, sua moldatua bazuten, ixtimazio galanta emango zion jendeak errota zarrari, ainbat janariz aspertuta dauden askok zerbait berria probatu nai dute ta. Berriro lengo gauzak modan jarriko ote zaizkigun errezelotan nago.

Diodan errota au orrela antolatu zuena, Antonio Iburguren degu. Ogibidez

kontratista da; etxegintzan jarduten dana. Zarautzen bizi arren, Aiako Mante-rola baserrian jaiotako semea. Manterola deitzen diote geienak.

Baiña sartu nadin lengo arrastora. Ibilirako ez genduen erosotasun geiegi izaten garai artan. Bizikletak ere urri ziran, oso etxe gutxitan, da anak astintzen zituen jendeak alde batetik bestera aldatzerakoan, arrokeri askorik gabe noski.

Alaxe ikasten da bizitzen. Umetan ongi oitzen danak, gero ere aukeran nai izaten du, ta beti ez da erreza deseoa dan guztia eskuratzen emen.

Guk, soiña apaintzen ere, ez genien gastu izugarritzorik eragiten ba gurasoci. Erabiltzen genituen erropa txar nolabaitekoak etziran bakoitzari neurriak artu ta txukun jositakoak izaten. Anai batenak igoal besteak jantzi ta segi aurrera lotsa gutxirekin sarritan, txikiegi edo aunditxo nola zeuden begiratu gabe. Auzokoak igerriko zioten noski. Baiña gurea bakarrik ez izan, ordea, gertakizun ura. Beste batzuk ere alamoduz ikusi oi ziran. Biziera pobrea zan benetan ordukoa familiarik geienetan.

Oiñetakoak, berriz, ortik onerakoak: abarka gomazkoak ustel utsak; zaku zarrak autsi ta aiekin egindako bartanak edo azmantarrak jantzi oi genituen anketan, da bapo geure ustetan noranaiko. Ortatik pentsatu leike nolako zapata aukera genduen, gutxi gorabera.

Amak eskuz moldatzen zizkigun artillezko galtzerdi lodiak, al zuenean edo denbora zeukanean. Eskerrak aieri. Baiña guk berealaxe urratu edo txikitzen. Alamoduzko tratamendua ematen genien da ez da arritzekoa.

Gazteak ez du jakiten geldirik egoten. Ezta bear ere. Iñora mugitu ezin danak seiñale txarra du. Oso sano ta ongi dagoen mutikoak saltoka ibili bear du.

Gure aitak etzituen guk bezin azkar austen oiñetakoak eta soiñeko erropak, lan geiago egin arren. Ura ez baizan korrika ta borrokan jolasten. Gaztetasunaren bolada izaten da guk gendukan ori orrelakoxea. Burua arin dagoen bitartean, anak ere pizkorrenak; eta gero, ortik aparte, berriz, ajola gutxi.

Lengo zarrak gauzari kontu egiten zekiten. Bearra da emen erakusten duena. Guri ere ori esan oi zigun aitak: bizitzak estuasunak emango zizkigula; nekez ekarrirako pixkari eutsi egin bear zitzaiola; arreta geiagorekin jokatu, alegia.

Arek illunabarrean, ganaduen lanak egin da etxera edo sukaldera biltzen

zanean, oiñetako bustiak kendu ta legortzen jarriko zituen su inguruan, urrengo egunerako gertu egon zitezen; eta zarrak edo erdi autsiak izango baziran ere, legorrak jantzi anketan. Zer oitura bikaiña!

Guretzako eginkizun astuna ote zan, ala derizkiot. Ezinēzkoa seguru asko. Amaika bider entzun genion, abarkak eta galtzerdiak erantzitakoan, jartzeko tximini-baztarreko kakotik txintxilik sekutzen. Alperrik, ordea. Batzuetan egin arren, sarritan aztu ta kito. Geuretzako kalte.

Gero konturatzen giñan, goizean. Oetik jeiki ta jazterakoan, bezperan utzita bezela egoten baiziran, freskura ederrarekin geienetan. Errezkeritik zetozen gauza narratsak.

Amak, udazkenean erosi ta ekarriko zizkigun bakoitzari abarka pare bana, ta bere ustez negu guztirako pakea egiten zuen. Baiña etzuten luzaroan iraungo gurekin. Laster izango zan zuloa edo etena, mutur aldean ez bazan, saietsean edo orpoan.

Berri samar zeuden bitartean gustokoak bagenituen ere, bein aberiak asi ezkerro galdu egiten zan aienganako maitasuna, eta esaten genion amari abarkak autsi zirala ta berriak ekartzeko. Ernegatu arazi ta errietan jartzen genduen gaixoa, ta orduan etsita gelditzen giñan etzizgula berririk eramango ta lengo zarrekin jarraitu bearko zala.

Izan ere, orduko goma ustel negargarri aiek nik ez dakit zer ziran edo nolako materiala zeukaten. Illabetean etzuten osorik irauten. Lokarriz eta alandrez josi edo konpontzen genituen. Ura ta lokatzaren faltarik ez genduen erabiltzen andik aurrerakoan anketan.

Gerora beste abarka klase batzuk agertu ziran, da ixtimazio izugarria izan zuten gaiñera bolada batean. Autoen kubiarta zarrez moldatzen zituzten. Oiñetarako gogorak eta baldarrak. Baiña nekez urratuko zituen aiek, geiena zebille-nak ere. Iraupen aundia zuten, beraz.

Orrelaxe ziran gaztetako gure goraberak aldi batekoak. Danak ez dago esaterik. Bestela, asko idatzi bearko nuke.

Dotriña ere etxean ikasi genduen. Gure amak bazekien buruz nik gaur baiño obeki, ta berak erakutsi zigun. Aztutzeko denborarik izan al zuen? Ni baiño emezortzi urtez zarrago zan gure anaietan zarrena, ta arekin asiko zan dotriña kontuan, da nerekin amaitu. Azkarrago aspertuak bagera banaka batzuk.

Arentzako ez dakit mesederako zan. Baiña nik beintzat poz ederra artu nuen buruauste ura bukatu zitzaigunean, arranek ezik. Egunean bi jardunaldi izaten genituen, bat goizetik eta bestea arratsaldean. Ikasi ordurako, berriz, aztu igoal sarritan, da kito. Ez baigiñan tiragoma ta txori zepoekin bezela saiatzen.

Dotriña, orduan ere, askok eskolan ikasiko zuten. Ara joaten ziranak, adibidez. Gu ez giñan urreratzen da etxean ikasi bear nola edo ala.

Amak zenbat supritu ote zuen guri erakutsi eziñik? Ederki amorrazita ibiliko zala dudarik ez dago. Umeak gurasoengana konfiantza geiegi artzen baidu, ta bildurra edo errespetoa galdu errez, ta kaso gutxi egin entzuten duenari. Adin orretan, arritzekoa ez danez, ezagueraz osatu gabe egoten da. Nik neregandik pentsatzen det beste askorena zertsu izan litekean.

Lenengo Jaunartzea edo Komonioa egin aurretik, egunero Leitzara joanez ibili giñan dotriñara, illabete batean edo orrela moduzko denboralditxoan. An bazan apaiz bat. Arek galdetzen zigun, da ez genekiena erakutsi. Komoniorako prestatzeko edo gertu jartzeko izaten zan ura.

Estuasun latzak igaro genituen antxe ere, apaizaren galderei erantzun eziñez. Artean oso gazte geunden. Zazpi urterekin zer nai dezu, ba, adiskide? Emen, dakienik ez da jaiotzen iñortxo; ta gu esku berritan aurkitzen an, Leitza-ko elizan, ezertarako patxada ta lasaitasunik gabe.

Erriko erretorea zan aipatzen dedan apaiza. Oso serioa bere izatez. Berri-keta gutxiko gizona, alegia. Arek banaka artzen zituen mutil koskorak. Dotriña galdetzen asten zanean, zorrotza. Jendeak belarriak tente ta erne. Etzizkion bakoitzari galdera asko egingo. Baiña aietan utsegiten zuenari, onela esango zion:

–Eseri zeure eserlekuan, da biar goizean nola erantzun dakizula etorri neregana.

Urrengo egunean berriro galdera berdiñak zenduzkazun aregandik; eta ongi erantzuten bazenion, orduantxe pozik.

–Eskerrik asko –erantzungo zizun–. Oso ederki erantzun diozu nere galde-rari. Orrelaxe alegindu bear da ikasten.

Guk bezperan bagenekizkien gauza aiek. Gertatzen zitzaiguna zan, apaiza-ren aurrean jartzen giñanean, lenez gaiñera geure burua estutzen genduen, da

iñondik iñora ezer asmatu ezinik gelditzen. Ni beintzat, galtzetara txixa egiteko zorian. Nerez nerbiosoa ta bildurtia izaki ta tratu txarrak artzen nituen.

Gu, baserritarrak batez ere, lotuak edo kezkatia ginalako, asko supritu bear. Kaleko umea beti trebeago agertzen da. Ortxe dago alde aundia.

Garai artan, Pazkoazkoa egingo bazan ere, txartela bear izaten zan, da norberak joan bear billa gainera apaizarengana. Dotriña galdetzen zuen apaizak lenengo, txartela ematerako; ta orrek bazuen bere kezka edo bildurra askorentzako.

Aurrez ibili bearra izaten zan, aurreneko txartela eskuratzeko. Bestela, berandutu ezker, gabe gelditzen zan, da azkeneko orduan Tolosara joaten ziran batzuk, eta andik eraman.

Gero, aitortza egin da Jauna artzerakoan, lenengo txartela an utzi ta berria artu, beste kolore batekoa. Bat kendu ta bestea eman egin oi zuten elizan, agiri bat bezela.

Guk era orretan ezagutu genituen gauzak Naparroako Leitzan, da beste tokietan ere berdintsu izango ziran noski, nik uste dedanez. Gu Leitzatik Gipuzkoako Aiara bizilekuz aldatu gainean, oitura igoaltsuak aurkitu genituen, txartel kontuan-da beintzat, artean.

Geroxeago asi ziran beste aldakuntza batzuk, eta aspalditxoko urte auetan ez da txartel bearrik izan. Dotriñarik ere ez du iñork galdetzen, ta pakea alde ortatik. Lengo ura estuegia zala esan genezake, oraingo au ona baldin bada.

Ni neu, dotriñez eta eskolaz, bietara berdin samar gelditua izango naiz: eskolarik ikasi ez eta dotriña, berriz, aztu.

Eskolan oso gutxi ibili nintzan. Batere ez esanda gezurra litzake. Baiña ortik gora gutxi. Emen danak ez dute aukerarik, irakurle.

Franki baserritik errira sei kilometro baziran, da ori geitxo ere bada. Urrutitxo jartzen zan egunero joateko, batez ere neguko denborale bigurri aiekin ibiltzeko. Udaran beti ere errezago da. Eguna luzeagoa ta giroak ere askoz obeak, eta alderdi on ugari izaten du udarak berekin.

Baiña beste gauza bat ere esan bear degu, ontaratu geran ezker: garai artan eskolarako arreta geiegirik ere etzuen jendeak. Gurasoengandik etzan gaur bezelako bultzadarik. Etzitzaioten iduritzen eskola ain bearrezkoa zanik nunbait, edo ez dakit zer gertatzen zan.



Franki baserria.

Baserrietan beintzat, zenbatek ikasiko zuten ba eskola itxurazkoa? Erri txikietan-da, esate baterako, oso gutxik, nere iritiz. Erri aundietan beste jokabide bat izango zan orduan ere noski. Baiña, dana dala, pasatakoak ez du erremediorik eta orrela bearko du gureak.

Nik neronek, aukera emanda, bei-zai edo ardi-zai ibili naiago izaten nuen, egia aitortzekotan, eskolara joan baiño. Batere ez nuen gogorik, eta gure senide taldean besteak ere ez. Iñor etzan eskolaturik. Gero konturatzen da zer falta dan. Nik utsune ori beti nabaitu det nere bizitzarako.

Baiña emen aipatzen dedan gisan, gogoz kontrako lana dana izaten da txarra ta penagarria. Seiñale kaxkarra du orrek asko ta errez ikasteko. Entzuga beak ez gera batzuegandik bear ainbeste etzutela ikasi. Ez da xamurra izango ere. Batek ez baidaki zenbat bearko duen. Ori jakitera iritxiko bagiña, aleginduko giñake gaztetan burua nekatzen.

Amaika mutil joango ziran len, garai batean, lurralde auetatik Afrikako puntaraiño soldadutzara, beren firma egiten etzekitenak eta erderaz itzik ulertzen etzutenak. Lasaitasun ederra erabiliko zuten aiek, iñoiz etxekoei diru pixka bat eskatzeko edo abar. Idazten jakin ez eta kartaren bat bidaliko bazan, ura besteri egin arazi bear. Ara nolako xixtima polita. Pentsatzen jarri ezker, pobreza ikaragarria da ori.

Baiña jende euskaldunak badu sena, ta lagunak bereala egin oi ditu dabilen tokietan. Berez sana ta garbia dalako, beste batzuen konfiantza irabazten du. Esaera dan bezela, edozer lanetarako, berriz, beti gertu egoten da. Borondate ona ikusten zaio benetako euskalduna danari.

Beraz, berriketa aldi au ontantxe bukatuko det, beste karril batean sartu nadin.

GERRA

Aspaldiko esaera zar batek adierazten digu garbiro pakerik txarrena ohea dala gerrarik onena baiño. Ori, ongi probatu zuen norbaitek esana dala dirudi.

Guk lendik ez genekigun kanpoko berririk, eta lo zorroan sarturik bizi giñan, beste lurraldeetan pakea zegoelakoan. Gaur, berriz, egunkariz bezela irrati bidez eta telebistaz, ematen dizkigute mundu guztiko albisteak.

Baiña nolakoak! Negargarri utsak. Inñun ez dago alkartasunaren usairik. Ori da konpondu eziña ta baztarrak txikitu naia. Nazio aundiak bata bestearen bildurrez daudela entzuten degu, leporaiño armatuta. Umanidadea ain ugari aipatzen dan urte auetan, oiek al dira aurrerapenak? Lastima! Ez da zorion osorik komeniko nunbait. Gauzak ala du itxura.

Zenbat mutil gazte-eder iltzen ote dira ezeren errurik gabe, gizon batzuen setakeriz? Inñoiz telebistan ikusten ditugun soldadu taldeak, tiroz edo bonbaz jo ta bizia galduak, lurra betean. Esplikatzen ez da batere erreza. Tartean suerte txarrez erasoak arrapatzen dituen aur gaixoak eta pertsona edadetuak, berriz, ozkia eman bear derrigor biotzik duenari.

Iran eta Iraken arteko gerra ere txukuna izango zan. Alamoduzko kontuak entzuten genituen. Zortzi urte luzetan borrokaldi latzak erabili ondoren, pakea egin zuten, entzun genduenez, ainbat ondasun desegin da gero. Pixka bat lentxeago konturatu balira, mesede ederra bazuten biak ere. Pertsona askoren bizitza salbatuko baizan. Orain berandu da aientzako. Ildakorik ez dago berriro piztutzerik. Zenbat famili ote daude naigabeturik, bururik jaso eziñez mixeri gorrian? Da, ortik aparte, zer ondamen izan diran nork jakin lezake? Inñork antzik eman ez, seguru asko.

Ori naikoa ez balitz bezela, ondorengoa izan da ortik onerakoa: Irak'ek norteamerikano eta beste batzuen aurka izan duen txikizioa.

Gerrak bi kalte batera ekartzen dituela esan oi da: gastu galantak eragin da ezer produzitu ez, lanerako jendearen faltaz. Gero noizko konpondu oker

bildurgarri oiek? Gorrotoak ez du gauza onik, eta nazio askotan omen dabilta klase ortan. Penagarria benetan.

Ain urrutira joan gabe, guk ere ezagutu genduen sekulan aztuko ez dan txikizio bat emen bertan: 1936'an asi zan gerra, Urton ain zuzen. Gipuzkoa ta Naparroa antxe mugatzen dira. Gure Franki baserritik bi kilometrora, gutxi gorabera.

Erreka edo ibaia dago tartean, da zubiaren alde bietan mikelete etxeak ziran len. Naparroakoa bota ta kendu zuten aspaldi samar. Gipuzkoakoa ere desegiña nabaitzen degu orain. Iñork kasorik egin ez eta bearbada bere kasa joko zuen lurra.

Diodan gerra ura uste gabeko garai xelebreaan lertu zan noski. Gu belar ontzen ari giñan. Etxearen gaiñeko aldean bada zelai aundia. Andik ederki ikusten genituen Berastegiko mendiak euskal gudariz beteta zeudela aurreko egunetatik.

Alaxe, bezperan belar mordoa ondu samartua utzi genduen meta txorroketa jarrita. Euriak arrapatuta ere, nekez bustitzen ditu. Baiña urrengo goizean, eguzkia indartsu ta bero izugarria zanez, aitak esan zigun:

–Gosaldu dezagun segituan. Meta txorroka aiek askatu ta pixka bat astintzen baditugu, ordubete barru gozatuko dizkik giro onek. Bazkal aurretik gurdikada bat ona etxeratuko diagu, ta arratsaldean bestea.

Alaxe joan giñan, da belarra mugitu utsarekin kizkurtzen zitzaigun. Artaraiñoako bero galda, ta aitak orduan onela dio:

–Goazen biok, Manueltxo, beiak eta gurdiaeren billa azkar.

Ni, mutil koskorra, pozik, gero gorakoan gurdi gaiñean ibiltzearren. Gaur tasisean baiño geiago gozaten bainintzan. Esanda bezela, eguerdirako gurdikada belar galanta etxera sartuta, lanak menderatuak ustez.

Arratsaldean joan da berriro beste biajea kargatzen ari ziran denboran, ni aritz adar ostodun batekin beieri euliak kentzen jarri ninduten. Etzioten pakerik ematen, da an nenbillen atzera ta aurrera, abanikua astinduaz.

Ta, alako batean, tira dizkigute Berastegiko menditik iru edo lau tiro. Ez noski jotzeko asmoan. Mutil gazteak izaki ta gu toreatzen ibiliko ziran, da bai bildurtu arazi ere bapo. Gurdia ta belarrak bertan utzi ta laister aldegin genduen, beiak artuta, etxe aldera. Ura zan estuasuna! Aitak onela zion:

–Oiek jolas arriskutsuak dituk, mutillak, eta kontuz. Tiroa uste gabeko tokira joan leikek.

Ala, urrengo eguna etorri zan. Eguraldi bikaina zegoen, baiña gu ezkutu antzean geunden; da, inor oartu baiña len, sartzen dira Naparroako soldadu tropak Urto ingurura, ta an gordeta jarri. Nun-nai pareta zarrak zeuzkaten babesteko, ta aietaz baliatu dotore ta besteak zaindu bide batez.

Gipuzkoa parteko mikelete etxearen atarian, mai moduko batzuetan jaten omen zuten alde ontako gudariak, edo agintari jendeak batez ere; ta eguerdian, bazkaltzeko ordua iritxi zala adierazteko korneteroa jotzen asi zanean, napar menditik bakarren batek tira tiro bat eta seko bertan kornetero gizarajoa.

Andik aurrera kontuak. Bazkaria aztua izan bear zuen ederki. Ura zan tiroteo bildurgarria arratsalde artan, illunabarrera bitartean. Ildakoak, berriz, amazpi bai ote ziran zabaldu zan otsa ondorengo egunetan.

Garai xeblebre ura ta Urtoko gerraren asiera gogoan ditugunak ez gera orren zale. Orduan ere, eskarmentuz jantzi gabeko gaztedi mardula arrapatu zuen lazoan zoritxarreko nasketa pobre arek. Ni gogoratzen naiz, artean umea izan arren, gertaera askorekin; baiña orain kontatzera nijoan ontaz geienbat.

Igande goiz batez, gure Franki baseritik gora igo ta ardi bordak bazituzten artzaiak, eta aietako bateri irten zaio figura gaiztoko pertsona bat sasi tartetik bidera, soldadu jantzia bere gorputzean zeramana, ta poxpoloak eskatu.

Ez dakit eman zizkion edo ez. Baiña artzaiak zer egin du? Zearo bildurtu ta errira joan segituan parte ematera, ta bereala jakin genduen gauza orren berri.

Bazkalondoan an dijoaz, gure etxe ataritik gora, lau goardiazibil, fusillak bizkarrean zituztela, ta beste gizon sail bat eizeko eskopetaz armaturik, danak ikara bizian seguru asko.

Dana dala, arrapatu dituzte bi soldadu izeneko, mendiko borda bakarti batean gordean zeudenak, eta badatoz Plazaolara, beraiek aurrean artuta.

Leitzaraiño eraman bear, baiña artean sei kilometro falta irixteko, ta soldaduak gauza ez ainbeste bidean oiñez joateko. Plazaolako estazioan kantina nola zan, an gelditu ziran, da atarian arri gaiñean eseri, zutik iraun ezinda.

Alaxe, bertako andre zarrak katillu aundi banatan kafesne zopak eman zizkioten. Etziran asarre. Ura jateko postura! Tragatu egiten zuten.

Batek buruan tiroa artua zeukan dudarik gabe. Ez dakit balazkoa edo

perdigoizkoa; bietakoren bat bai beintzat. Azaletik pasako zitzaion noski, baiña odol asko botatzen zuen.

Andik ezkutatu ziran, esku gogorretan erori ondoren; da bakoitzak bere zigorra jasoko zuen. Guk ez genduen geiago ezer jakin. Len ere etzidan mesede aundirik egin planta artako pertsonak ikustekak neuri. Auskalo noiztik zebiltzan mendiz-mendi igesi. Ordurako, gerra suturik urtebete baiña geiago zala bada-
kit.

Soldadu erropak, kapoteak eta danak txikituak zeuzkaten. Ille zarrak, berriz, beorraren isatseko zurda baiña luzeagoak; eta bizarrez aurpegiak zearo estalirik. Etzuten itzik esaten. Ez dakit nungotarrak izan zitezkean. Etzitzaioten antzik ematen euskaldunak edo bestelakoak ziran.

Ni, mutil koskorra, antxe begira, ta ezurretarañoko bildurra sartu zidaten. Ez egun artan bakarrik, baita gerora ere, sentitzen nuen kezka ikaragarri bat, batez ere gau illunean. Aiek ikusiko nituela iduritzen zitzaidan, da ori oso txarra da umearentzat. Bizitzarako lasaitasuna galdu arazten baidu.

Izan ere, garai aietan sorgin kontuak zebiltzan modan familietan. Kontu kontari asitakoan, zerbait esan bear, ta gure etxean gurasoak saltsa ortan sartu oi ziran sarritan; da auzoetan ere potaje berdintsua erabiltzen zutela badakigu. Ta nik, beintzat, entzundako guztiak sinistu –nola ez?–, eta gero galanki supritu. Naiz-ta ixillean pasa, tratu estuak ematen nizkion neure buruari.

Franki baserrian ura bakarrik zan edari. Baiña anaietako bat bagenduen ardo zale amorratua. Edozein garaitan bialtzen ninduen Plazaolako kantinara ardo billa.

Beingo batez, oroitzen naiz, diodan anai au gerran zebilela, illabeterako permisoarekin etorrita gendukan; da, dibertitzeko arrazoirik aski zeukanez, Leitzako errian ez bazan, Plazaolako kantinan sartu ta noiz irten etzekiela bertan egongo zan. Da arrats batean, afaldu ta oeratzeko asmoan geundela, an dijoakigu etxera ta amari galdetzen dio:

–Ardorik bai al daukazu, ama?

–Ez orixe. Falta dek ba emen.

Orduan neri agintzen dit:

–Joan kantinara ta ekarri bi litro azkar, Manueltxo, oraindik zabalik zegok eta.

Aitak esan zion:

–Baiña, Joxe Migel: ordu auetan ume ori bialdu bear al dek ardo billa?

–Bai. Dijoala.

Nik geroztik pentsatu izan det biotan umerik aundiena bera ote zan. Dana dala, eraman nizkion eskatu zituen bi litro ardo aiek kantinatik, eta gustora gure mutilla. Etzekien asko neri zenbat kosta zitzaidan joan-etorri ura.

Gerra denboran Naparroako Leitzan bizi giñan artean, da orduko goraberek esaten ari naiz. Gure etxean bazan negarra, tristura ta naigabe pranko bolara kaltegarri artan, beste tokietan ez-ezik. Lau anai arrapatu zizkigun bete-betea zalako eraso edo borroka negargarri arek, eta koñadoa ere bai. Beraz, bost antxe ibili ziran frentean tiro tartean. Naiko kastigu ez al da etxe baterako? Famili guztia aretxek nastu arazi zuen.

Gure anaietan zarrena, andrea bi ume txikirekin utzita joan zan gerrara. Animo ederra eramango zuen noski berekin, da poltxikoa ere bero antzean erabiltzeko moduan. Eguneke bi erreal edo orrela irabaziko zituen; da, aiek kobratzean, andreari bialtzen zizkiola sarritan entzun genion. Geiago ez dago eskatzerik gizon bateri. Len Afrikan egiña zan bere soldadutza, baiña pakean da itxuraz. Azkeneko orrek eman, ordea, pasada latza gizarajoari.

Anai bigarrena, berriz, gazterik Urnietara etorri ta or ari zan lanean, ganadu perratzen ikasi zuen etxe berean. Nagusiarekin ongi konpontzen omen zan, da gustora. Ura euskal gudarietan zala bagenekigun. Baiña nundik nora zebillen arrastorik ez, ta gurasoak irakinda zeuden, errezelo txarrez beterik.

Alako egoera penagarrian geundelarik, abiso bat iritxi zitzaigun Ernani-mendin il zala. Orduantxe ederki jarri ginduzten lenez gaiñera. Guk errez sinistu. Nola ez? Zerbait jakin naiean batera ta bestera ibili ziran aita ta ama. Alperrik, ordea, aletin danak. Etzuten inñundik ezeren sustrairik atera, eta illa zalakoan erabat etsita. Gauero errosario luzea aren animaren alde errezatzen genduen afalondoan, oeratu aurretik.

Urtebete edo geiagoan artan ari giñala, egun batez postal bat iritxi Leitzako udaletxera. Laister abisatu ziguten Franki aldera, ta arreba joan zan errira, ta ekarri zuen zalako postal mixteriotsu ura. Ustez galdutzat zeukaten semearen albiste artu zuten gure gurasoak. Etziran asarre orduantxe. Postalak azalcan bere argazkia zekarren, da bizi zala aditzera eman zigun.

Baiña gero berriz ere inñundik ezere arrastorik gabe jarraitzen zan, eta urrengo abixoa prisionero arrapatu zutela ta kartzelan zegoela, Palentzian uste det. Gure ama zanak zenbat buelta egin ote zuen errira, semea nola edo ala kartzelatikan kanpora atera naita? Baiña pauso guztiak alperrikakoak gertatzen, ezin danean.

Geroxeago, aita zana ta arreba joan ziran, Iruñen bizi zan gizon izen aundiko bat laguntzaille artuta, kartzelan ikusiko zutelakoan. Etzuten lortu al izan, da triste asko etxeratu zitzaizkigun. Leitzan, udaletxean, txapela gorria jantzita joateko agindua eman omen zion sekretarioak gure aitari. Bestela, etziotela barrura sartzen utziko. Alaxe, txapela gorria eraman zuen buru gainean, da zer serbitu zion?

Bost urte ta erdi pasata itzuli zan diodan anai ura Frankiko sukalde zarrera, bere zorrak ongi ordainduta noski.

Lau anai auetan gazteena, Migel Joxe, emezortzi urte osatu baiño len eraman zutela badakit. Eta zazpi urte igaro arazi zizkioten. Bada zerbait, nere ustez.

Ta bolara mingarri artan ama gaixotu zitzaigun. Nola etzan ba gaixotuko, ainbeste disgusto ta naigabe tragatzen ari zan guraso pobre bat? Gure ama bere izatez emakume sendoa ta sasoi aundikoa zan. Pizkor amorratua gainera. Kanpoko lanetan gizonezkoak bezin trebe. Edozer gauzetan ikusten genduen, da etxean berdin. Aren eskuetan bazan gatza. Baiña gaitz txarra arrapatu ta bajatu zan ederki gaixoa. Ezer jateko ere almenik gabe gelditu azkenerako. Auskalo noiztik zebillen ura supritzen ixillean, inñori esan nai ezik, medikutara joateko bildurrez.

Lengo zarrak orrelaxe baiziran amarretik zortzi. Ez daukat aien akatsak agertu bearrik. Ni neu ere naiko zabarra izan naiz gai ortan. Perezosoa benetan, gure ama zanaren antzera.

Egun batez, aitak onela esan zion:

–Izugarri planta eskasa artzen ari zera, ta obe dezu lenbailen medikuarengana joatea. Agian gerorako utzi ta berandutu diteke.

Orduantxe dudatik irten, da arratsalde berean prestatu.

Zaldiaren gainean jarri zan, nik zaldia sokatik artu ta mantxo-mantxo joan gainan Leitzara. Baiña kostata. Bidean bein baiño geiagotan gelditu bear izan

genduen, ondoezak egiten zitzaizkion da. Ala ere garaiz iritxi, ordea, bazkalondoan bereala mugitu giñalako. Medikuaren etxera sartzerakoan lagundu nion, da gero kanpoan itxogin, amak alaxe agindu zidan da.

Denbora asko pasa zuen barruan. Ni pixka bat aspertu nintzan zai egoten. Noizbait irten zanean, berriro zaldiaren gainean jarri ta etxe aldera gentozela, nik zerbait jakin nai ta «Zer esan dizu medikuak, ama?» galdetu nionean, onela erantzun zidan:

–Tolosara joan bear dedala sendatzeko esan dit. Ez dakit sendatuko naizen. Zu lasai egon, Manueltxo, mutil aundia azitzeko.

Urrengo egunean presaka eraman zuten Tolosako klinikara. An operazio gogor samarra egin omen zioten. Aje zarra edukiko zuen seguru asko, ta garai aietan gaur bezelako aurrerapenik ere ez. Bizirik irten, baiña juxtuan da nolabait. Geroztik etzuen sekulan zorionik ezagutu beregan gaixoak.

LEITZATIK AIARA

Oiek guztiak gutxitxo ziralakoan edo ez dakit zergatik, etxe aldean zeukaten beste arazo klase zelebren bat. Gu Franki baserrian maiztar giñan, da nagusiak pentsatu zuen etxea ta terreno saillak erdibitu ta beste maiztar bat jarri bear zuela gure aldemenean. Abixo ori ematera joan zitzaigun egun batean, goizetik gaiñera.

Ateraldi ura entzunik, aitak esan zion ea len famili bakarra bizi ezin zan tokian bi jarri bear al zituen. Lau seme an ibiliko zerala gerran. Berak bazekiela ori, ta aiek bizirik etxeratzen ziran edo ez ikusi bitartean itxogiteko mesedez.

Ontzat artutako itxuran aldegin zigun egun artan gure nagusi aundiak. Kilo mordo galanta bazeukan, eun da berrogei igoal, ongi pixatu ezkerero. Dana dala, ixil antzean ezkutatu zan, naiko buruauste utzita Franki aldean. Ara kezka berria. Uraxe bakarrik falta genduen guztiz osatzeko.

Ala, denboralditxoia igarota baiña berriro an dijoakigu, ta lengo jokabide berdiña daramaki berekin. Ni antxe nenbillen aitaren inguruan, da entzuten nituen bien arteko kontuak. Atarian zeuden gizonak; eta amak nagusia, pixka bat aldatu arazi naiez edo orrela, gonbidatu. Toki ederrean zebillen, gero ikusi zanez. Gure amak zeukan baiño azukre geiago bear zan ura gozatzeko. Ala ere, saiatu beintzat. Onela esan zion:

–Joxe Migel, nik zerbait prestatu det. Pasa zaitezte barrura. Alkarrekin bazkalduko degu.

Pozik sartu zan sukaldera, ta bapo sabela bete. Kontu zarrak berriitu zituzten. Gure aitak erderaz etzekien tutik, baiña euskeraz ederki itzegiten zuen. Arrazoi bikaiñak eman zizkiola uste det Joxe Migeli.

Adiskide bezela gelditu ziran orduan, da bolara batean etzitzagun azaldu. Baiña bildurrez aidean zeuden gure gurasoak. Ura berriz ere agertuko zala entzuten genion aitari. Ala gertatu ere azkenean. Etxea bi zati egin da an etzegoela bizitzerik, eta ustu bear izan zan, beti gogoan degun Franki baserria.

Berrogei urtetan errenta ordaindu zuen maiztarrak edukiko zituen bere eskubideak derrigor. Baiña gure gurasoak sekulan ez omen ziran joan legegizonetara; eta orduan ere ez. Nagusiari burua makurtu, ta kito.

Alde batera obe. Gauzak okertzen errezago da, gero bide zuzenera ekartzan baiño. Ta bein konfiantza galdu ezkeru, ez dago zer egiñik. Gorrotoan ezin liteke bizi.

Ala ere, gerra bukatu edo zaparradarik aundiena pasa bitartean, Frankian jarraitu genduen. Garai berean, gure koñadoak Aian perratokia artu zuen; da ni, mutil koxkorra, or ibiltzen nintzan berari laguntzen. Astelen goizean etorri ta larunbat gauean joan Frankira. Orixe egiten genduen. Bizikleta baten gainean moldatzen giñan biok, ni aurreko palankan eserita jarrita. Ipurtezurra ederki minberatzen zitzaidan, da aspertu ere bai.

Baiña ibillera gogorra zala ikusirik, aspertu egin zan koñadoa ere. Etxera ezkondua zan gure arrebarekin, eta orduantxe erabaki zuten danen artean Aiara bizitzera etortzea.

Etorri giñan, baiña etzuten gure gurasoak zorion geiegirik izan andik aurre-rakoan. Aita zana an ganadu tartean oitua, eta ardiz eta ganaduz gogoratzen zan izugarri. Ametsetan ere aietxek zituen buruan, nere ustez. Izketan asi orduko, nabaitzen zitzaion etsi ezin bat bezela. Beti baserritarra izanik, gero kaleko bizitza artu eta etzitzaion grazitan erori.

Ama ere berdintsu sentitzen genduen. Frankiko sukalde zarra ezin zitzaion bein ere aztu, eta samintasun orrek kalte egin ziola uste det lenez gainera osasunean ere.

Beraz, zartzaro tristea pasa zutela ez dago dudarik. Gazteak edozein tokitan errez artzen du lurra. Baiña zugaitz zarrak aldakuntza onik ez du bein ere, nere ustez. Eta, zoritxarrez, gure gurasoak ortantxe bukatu zuten munduko bizitza.

Lenengo, ama il zitzaigun, irurogei ta bat urterekin. Urrenge, aita, irurogei ta amabostekin. Berez gizon pazientzi aundikoa zan. Baiña bakardadea sentitzen zuela entzuten genion. Alako batean, zoritxarrez, perlesiak jo zuen, eta irugarren atakean eraman zuen mundu ontatik. Nere deseorik aundiena auxe litzake: biak zeruan gerta ditezela, betikotasun osoan.

AIA

Gero, famili guztia Aiaratu, nunbait bizi bear ta. Baiña garai txarrean. Or kale gorrian jarrita, etzegoen galanki supritu beste erremediorik. Ikusi genituen geureak eta asto beltzarenak. Franki baserrian, gala aundian jaten ez bazan ere. goserik etzan izaten; da orrek etzuen gutxi balio. Baiña Aian pasa genduena zertaraiñokoa zan adierazteko nik ez det itzik.

Gerra ondorengo urte pobre aietan, ura zan mixeria! Ta gu bakarrik ez giñan ala. Geientsuenak probatu zutela uste det. Gaur aiña pertsona gilbor aundi etzan ikusten baztarretan. Gerri alde argalagoak erabiltzen zituen jendeak.

Ostatuetan ere, ardoa edateko, piko onduak ixtimazio izugarria zutela badakigu. Ta abellanak besteak. Zakukadak ekartzen zituzten. Mai gaiñak eta azpi aldeak azalez beteta gelditzen ziran, igande gauetan batez ere. Eskobarentzat mauka ta emakumezkoentzat lana garbiketean. Orduko izakeraz nola aztu? Ez da erreza, neretzako beintzat.

Ogi egilleak gazta itxurako borobil batzuk labean erretzen alegintzen ziran. Ez dakit aiek zer material klase zeukaten. Itxas ondarra bezela birrindu edo apurtzen zitzaizkigun eskuetan, da ustel usai bildurgarri bat botatzen zuten, urrutitik antzemateko modukoa.

Gure etxean, danak gosez amorratzen egon arren, etziran atrebitzen jaten. Nik, berriz, zerbait derrigor bear ta al zan guztia sartu barrura, naiz neure kalterako izan, da antxe zearo galdu urdailla. Zortzi egunean, gorputzean jela jarrita eduki ninduen Aiako medikuak.

Latzak ikusi nituen orduantxe, ta geroztik ere ez det izan egundaiño zorion osorik urdailletik. Makiñatxo bat buruko min pasea naiz; ta, autobusean edo trenean sartzen nintzan bakoitzean, barruan neuzkanak kanpora bota bitartean iñun deskantsurik ez. Ori okerrena.

Urdailleko ondo ezak burura jotzen du, gogor gaiñera.

Baita nerbioak ere sutan jartzen dizkio pertsonari. Ortik supritzen duenak umore txarra sarritan izango du berekin; da aurpegi tristea, bekoki illun antza, kolore zurbilla ta berriketarako gogo gutxi. Oraindik denbora asko ez dala, adiskide batek onela esan zidan:

–Ni ere operatu ninduten, Lasarte. Zu bezin gogor ez, baiña gaizki aurkitzen nintzan. Ultzera baineukan, da beti oiñazez ta nolabait, iraun ezinda. Medikiak obe nuela operatzea zion ezkeru, egin da pakea. Orain gustora nago.

–Ederki. Daukazu animo orrek berak lagunduko dizu –erantzun nion.

Baiña ezagun zuen aren aurpegiak etzala len bezelakoa. Urdaille da bizidun bakoitzaren errota. Orrek ego ta gozatu bear du janaria gorputza alimentatze-ko; ta, gaizki dabillean, dotore erakusten badaki nun dagoen.

Eguraldiaren aldaera datorrenean, aurretik abisatzen du, nere onek beintzat. Kalendario segurua daukat oso. Ainbat biderrez, gaua oean bueltaka ametsetan da inñun kabitu eziñik pasata, goizean jeikitakoan sukaldeko leiotik Ernio mendira begiratzen det. Ura diztiratsu ikustean, badakit zer dan: egoaizea. Ta esan ere bai:

–I al intzan or dantzan orain ere? Nik aiñako sasoia badekela uste diat.

Orrek tornillo danak mugitu arazten ditu.

Auek dira 1936'garren urtean asi zan gerra bildurgarri arek utzi zizkigun propinak.

Dana dala, gauzak pixka bat aldatzea komeniko da noski, ta Aiari buruz zerbait geiago itzegin dezadan. Erri ixtimatua izan det beti, bein ezagutu nuenetik gaurdaino bitartean. Ori ez daukat ukatzerik inñolako moduz. Bestela, nortasun gutxi erakutsiko nuke.

Gazte garaiko lagunak ere ortxe ditut, inñoz aztutzen etzaizkidanak; eta, noiz edo noiz bakarren bat ikusten dedanean, pozik jartzen naiz oso. Batzuk Oriora maiz etortzen dira gaiñera azoka egunetan. Da, txekorrak salgai daukatenean, arakiñengana ta abar. Bizimoduko martxak bere jarraipena eskatzen baidio bakoitzari.

Aia erri aipagarria juzkatzen dute gizon jakintsuak, eta goi maillan jarri ere bai, merezi duen bezela. Kalez txikia da ta ez dauka lantokirik, inñor enpleatzeko bertan. Orixe du moztasuna, errian alegia.

Baiña baillaretan badauzka fabrika batzuk, emen Altxerri aldean da Santio

errekan asi ta San Pedro baillara bitarteko sakontxo orretan, azken urte auetan zutituak geientsuenak. Ez dakit oietara zenbat jende sartuko zan goiko kale ta baserrietatik.

Guk len ezagutu genituen batzuk Orioko frantzes fabrikan lanean ibiltzen ziranak, goizean etorri ta illunabarrean joan. Baiña ez autoan edo bizikletan; oiñez mendiz. Kamioz baiño bide laburragoa atajuz. Ala ere, ordubete bear du gizonak Oriotik Aiako kalera irixteko. Uste det aien jornala ederki kostata irabazia zala. Udar an eguraldi itxurazkoak sarritan da obeki moldatuko ziran. Negu beltzean, ordea, asko moduzko giro bigurrietan pasada latzak artuko zituztela dudarik ez dago.

Familiari ogia emango dion gurasoak zama astuna berekin darama. Dijoa alde guztietara, ez dauka lasai bizitzerik, berez ardura gabea edo zabarra ez baldin bada beintzat. Zintzotasunaren bidez saiatuta eskuratuko du zerbait.

Nik Aian ezagutu nuen adiskide xotil bat. Martin Karteroa deitzen genion. Gizon suabea ta fiña benetan. Sekulan arrazoi txarrik etzitzaion entzuten. Izketan txukun aparta. Errian ostatu bat bazan plaza barrenean, *Panaderokoa* izenekoa. Ango nagusia esne karretoan ibili oi zan, Aiatik Donostira, auto txiki batekin; da Martin Kartero au goizero ekartzen zuen Orio gaiñeko bide gurutze-raiño.

Or utzi ta aurrera bere martxan. Orduari begiratuko zion arreta aundiz. Ortan zuzena genduen diodan ostalari au ere. Julian zuen izena. Donostiko bezeroak zai edukiko zituela ta presaka antzean joan bear derrigor.

Martin Karteroak, berriz, Sui gaindik Zarautzerako bidea oiñez pasatzen zekien kamioz. Aiatik Orio gaiñeko bide ori aize freskoa artzeko egoki zetorkion. Txoferrak beretzat aiña toki juxtuan erabiltzen baizuen. Gaiñontzean, autoa beti leporaiño beteta esne marmitaz, ta ara nola konpontzen ziran: autoak atze partean atea zeukan, da aren koskan anak katiatu, goiko parrillari esku biekien eldu ta zutik jetxi oi zan gure Martin. Ez barruan eserita bezin ongi noski, baiña ala ere kontentu. Kotxeak aldapa bera asko korritzen da bereala irixten, diogun bide gurutze orretara.

Gero, Zarautzen, korreosetan zeuden enkarguak, pakete koskorak, kartak eta abar artu ta zuzenean bere errira abiatuko zan, alperrik denbora galdu gabe. Larruzko boltsa edo kartera aundi bat erabiltzen zuen bizkarrean, bi tiranteren bidez loturik. Ala, besoak eta eskuak libre gelditzen zitzaizkion.

Zarauztik Aiara kamioz-kamio igotzen omen zan oiñez, egunero udara ta negu. Eguraldi txar ta on, danetik ikusiko zituen. Amabi kilometro daude erri batetik bestera, ta eguerdi beranduan etxeratzen zala badakigu. Orduan bazkaldu ta arratsaldean karta banaketa egingo zuen, bakoitzari bere etxera entregatuaz zintzo asko.

Orrelaxe ezagutuak gera Martin onen bizitza. Ez dakit, seguru esateko, zenbat urte pasako zituen karterotzan. Baiña asko nolana ere, berrogei igoal, soldata txikia irabaziaz gaiñera. Gaur nor ote litzake kapaz postura ortan ibiltzeko? Iñor ez, nere ustez. Ez da legezkoa ere ta.

Trenik igarotzen ez dan erri oietan, gauzak nekosoago izan oi dira jeneralean, da Aiak falta orixe du berekin. Orain etzaio ainbeste antzemango, autobusak eta kotxeak aukeran daudelako.

Baiña lengo garaietan irteera eskasak zeuden. Astelenetan, Asteasuko Agoteren autobusa zan serbizioa zeukana, baserritarrak Tolosako ferira eraman da bueltan ekartzeko. Ta txoferrak Aian gaua pasatzen zuen, astearte goizean berriro emakumezkoak Billabonako azokara eramaten baizituen, da eguerdian ekarri.

Oietaz aparte, berriz, larunbatetan Tolosan egin oi zan azoka inportantea. Zenbat jangai gozo ta eder biltzen ote zan Berdura Plaza deitzen diogun artan? Aiatik ere autobus aundiak bapo kargatuta joaten bazekien, nola emakumez ala jeneroz. Salmentarik onentxoena antxe billatzen; da zerbait erosi bear izan ezkeru, berriz, nun aukera ohea Tolosan baiño?

Bakoitzari berea aitortzekotan, Aiari buruz balegoke izketarako biderik aski. Norbaitek pentsatuko zuen, kanpotik joanda, erri koxkorra dirudiela, ezagutzen ez duelako. Baiña ez da orrela. Kalez txikia, baserriz aundia. Gipuzkoan ez dira bere parekoak eta aundiagoak ugari izango. Oso kontatu errezak, esaten dutenez.

Nik entzueru dedanez, Gipuzkoan oso aurreko puntan agertzen omen da erri au terreno edo saillez. Ortan izugarria dala badakigu. Emen, Orion, itxas ixkiñeraiño sartzen omen da. Trenaren estazioa edo geltokia deitzen dioguna ere, Aiako partean aurkitzen da; ta biderako ematen dituzten txarteletan, «Aia-Orio» irakurtzen degu.

Beste aldera jota, berriz, Zarauztik gora igo ta Elkano baillara an dauka. Urdaneta ere bai. Ta Altzola, Pagoeta mendiaren atzean ezkutuan gelditzen da.

Diodan baillara ontan, nekazaritza indarrean ezagutu genduen guk gazte garaian. Baiña oraingoz ez det uste ala dagoenik. Diotenez, etxe asko utsik daude, familiak alde egin da abandonatuta bezela edo gisatsu artan. Penagarria benetan.

Urdanetan ere ez ote da orrelako zerbait gertatu? Bai, seguru asko.

Laurkin baillara bestea. Au Diputazioaren eskuetan egongo da, geiena beintzat, aspaldiko urte auetan.

Aian baserri eder asko ziran len, da ganaduz ongi ornituak. Ogei burutik gora edozein etxetan mantendu zitezkeala esanda, ez nuke utsegite aundirik egingo noski.

Zer adierazten digu orrek? Bakoitzak bere terrenoak garbi ta txukun edukitzen zituela. Zoragarrizko ukullu aldeak ikusten genituen.

Nik, perratzaillea nintzalako, batetik bestera ibili bear izaten nuen sarritan, ganaduren bat erren zegoelako ta abar. Ortik dakit Aiako berri.

Errotak ere nun-nai bazituzten erri ontako nekazariak. Asi Santio errekan, da San Pedro baillara orretan batez ere, txori kabiak bezin ugari, uraren bidez erabiltzen ziranak. Kanean bertan ere bi baziran, argi indarrez antolatuak. Oso irin ona egiten zutenak gainera.


Baiña orretarako, gaia nolakoa dan, ortxe dago alde izugarria; ta Aiako artoa ta garia apartak izaki nunbait.

Gaur oraindik ere, baserriren batzuetan jarraituko diote agian laboregintzari. Ez len aiña, ordea, lanerako jendea falta baida. Ta, ortik aparte, etorkizun gutxi. Ori okerrena.

Aipatu ditudan errota zar gaixoak alperrik galduko dira. Merezi luteke ba kaso egitea. Gerorago erakusgarri politak biurtu litezke, kontserbatu ezkerok. Emendik ogei edo berrogei urtera, nork daki zenbat balioko duten oiek?

Bizi lagunez urri antza zan Aiako erria len, gure gazte garaian, da ea gaur gutxiago dauzkan. Bai, seguru asko. Ortik kanpora aldegindako familiak dextente ziran bolara batean, da aiek ustutako etxeak nork beteko zituen? Zailla da ori.

Baiña, ala ere, soro ta belardieri probetxua aterako diote auzotarren bazuek. Ortan ez nuke batere dudarik jarriko. Sarritan entzuten det baserri asko



Aia.

ustu dirala azken urte auetan, da sekulan baiño ganadu geiago azitzen dala orain.

Orrek badu bere esplikazioa, ta ulertzeko erreza. Begiak itxita ikusteko modukoa. Baserritarrak laboregintzari utzi zioten, da ganaduak ordutik ugaldut izugarri. Esnea ere bai. Len lantzen ziran lurretan, belar azia erein da janaria galanki jarri etxe jiran eroso asko. Ortik zegoela etorkizunik onena oartu baiziran. Askoren iritziz, jokabide itxurazkoa da ori gaurko bizimodurako, ta jendea erne dago baztarretan zer ikusiko. Denbora berean kezkatu gaiñera, gerokoaren bildurrez. Ez da arritzekoa ere, noski, urtetik urtera nabaitzen ditugun mudantza auetaz konturatzen bagera.

Aian nekazaritza indar ikaragarrian ezagutu genduen. Garia bildurgarri artzen zuten lengo guraso zarrak. Saillak erdizka erabiltzen zituzten: urte batean artoa ta babarruna zan soro edo alor bakoitzean, urrengoan garia ereinda. Orrelaxe, txandaka moldatu oi ziran.

Danetarako lur klase baliosoak izaten ez da erreza, baiña Aia aldekoak ala ziruditen. Artoz eta babarrunez jantzita zeuden garaian, ura zan edertasuna, edozein sorori begiratzean! Ongi zaindu ta ongarritzea da bearrezkoena, lurra berea emango baldin badu. Ori ez dago utsarekin engaiñatzerik. Zuk nola tratatzen dezun, ala ordainduko zaitu.

Aian baserri aundiak asko dirala badakigu. Baita txiki samarrak ere, beste erri guztietan bezelaxe. Nekazarien bizitza bietan da neketsua, nere ustez. Belarra ta janaria sobre dauzkanak-edo zenbat ganadu mantendu lezazke? Ta zer gertatzen da orduan? Ukulluan tokirik eduki ezkeru, ferira joan da esne-bei berriren bat erosi ta etxera eraman. Len naiko lana ta andik aurrerakoan geiegi sarritan. Presaka ta nolabait ibiltzeko ezin bide oberik aukeratu.

Baserri aundian, naiz-ta erreztasunak jartzen alegindu, ezertarako astirik gabe ta lagun arteko gozotasunez aztuta bizi diranak ezagutzen ditut nik. Eta txikian, berriz, zer dago, beti aztarrika jardutea besterik? Ala ere, famili bikain askoak azitzen ziran edozein etxetan. Etzeukaten meritu makala orduko gurasoak.

Orain ganaduak larrera bialtzeko oitura dauka jendeak, eta ez nuke esango txarra danik, kanpo librean dabilzanak sanidade geiago izango dutela baizik. Etxe barruan, bat gaixotzea aski da, besteak kutsatzeko ta kalte galantak ekartzeko.

Ni gogoratzen naiz: Aian *ankamiña* deitzen zioten; beste batzuek, berriz, *naparmiña*. Dana dala, oso gaitz gogorra ta sendatzen zailla. Baserriren batean sartzen bazan, auzoetara laister iritxiko zan. Euliak erabiltzen zuela batetik bestera entzuten genduen. Ez dakit, baiña ganaduak ankak pasmatu ta zornea zeriotela larri egon oi ziran. Mingaiña ta aosapaia ere zearo sarnatu edo babatu, ta mokadurik jan eziñik.

Albaiteroak ere etzuten gaitz orren kontrako erremediorik asmatzen inñundik inñora, ta perratzailleak ibiltzen giñan baserriz-baserri kurak egiten. Azkazalak pixkana-pixkana bota bitartean etziran sendatzen. Idiak uztarrirako gauza ez, eta beiak errapetik esnerik ez. Ara or etorkizun bikaiña, pobreak aberasteko.

Feriak ere galerazten zituzten. Kanpotik zetozen ganaduetan etorriko bai-zan diogun gaitz gaizto ura seguru asko.

Bi bider egokitu zitzaioten urte gutxiren barruan Aian loteri berdiña, ta kalte ikaragarriak eragin zituen baserri askotan zalako *ankamin* edo *naparmin* zikin aspergarri arek.

Garai artan, Aiako kalean bertan, bi perratoki zeuden, da batean Joxe Antonio Azpirozek eramaten zuen martxa; ta orain bere seme Joxe Marik jarraitzen du aitaren orde. Joxe Antonio au Juan Manuel Azpiroz korrikalari sonatuaren anaia zan. Lan asko egindako gizona. Illak dira biak ere.

Beste perratokian, berriz, gure koñadoak zuen kargua. Baiña gizarajoari ostatua asko gustatzen zitzaion, da antxe alperrik galtzen denbora, berak etze-kiela; ta oso zartu baiño len il zan.

Nik iru edo lau urte pasa nituen aren tokian lanean, da ongi dakit Aiako berri. Nekazari zoragarriak ugari ziran orduan diodan erri ontan. Soro ta basoak bezela, mendi saillak txukun da garbi zaintzen bazekiten. Da nolako sagastiak? Arritzeko modukoak, nun-nai gaiñera. Gobernatu ere alaxe. Artean piñurik etzan or ikusten, gerora sartu bazan ere.

Pagoeta menditik belar ederrik etxeratzen zuten onduta negurako, kale inguruko baserritarrak batez ere. Urtean bein ebakitzen zan Pagoetan belarra. Korte bakarra ematen zuen, baiña ura ona ganaduaren sabelerako. Pentsuaren pare zala juzkatzen zuen zenbait gizonnek. Zerbait billatuko zion, ori orrela esateko. Nik neuk ezin nezake neurtu. Besteri entzundakoa idazten ari naiz.

Baiña dakidana auxe da: mendi altuan sortzen dan belarra fiña ta asegarria izaten dala. Artzai jendeari galdetzea naikoa litzake, ziur jakin nai bagendu.

Dana dala, goazen daramakigun bidean aurrera. Aiak alderdi aipagarri asko ditu beregan. Jende sanoa ta biotz onekoa batetik; eta, mintzaerari begiratzten badiogu, berriz, izkuntza gozoa ta guztiz egokia aurkitu genezake. Euskera ugaria ta aberatsa. Erri txiki auetan bizirik iraun ezean, ez legoke zer egiñik. Eskerrak gure baserrietako guraso ondraduak saiatzen diran ondorengoeri erakusten.

Ala ere, etxetik kanpora dijoan gazteak arrisku galanta izango du euskera utsaren truke utzi ta erderari eltzeko, erri aundi samarrera joaten baldin bada beintzat. Pena ematen digu, baiña sare orren barruan gaude.

Nik Aian pasa nituen urte aietan, ez nion erderazko itzik iñori entzuten deskuidoz ere. Gaur agian gauzak nastuagoak egon litezke.

Orain dala urtebete gutxi gorabera, emen Gipuzkoatik joan da Arjentinan bizi dan adiskide batek bixitatu ninduen. Emezortzi urte zeramazkiela an esan zidan. Egun batzuetarako etorri zala ta bide batez nere bertso sorta baten billa. Ari etzaio euskera sekulan aztuko. Len bezelaxe itzegiten zuen, garbi ta errez. Arjentina aldean euskaldun mordo bizi omen da, diotenez. Baiña bestelakoak geiago, ta danekin tratatu bearke du. Beraz, ez litzake arritzekoa mintzaeraz aldatzea edo lengoaren indarra urritzea.

Lur batetik bestera joatean, askori gertatzen zaioten gauza da ori. Egunero erabiltzen dan artaraxe jartzen baidira belarriak eta burua. Ala ere, gaztetan ikasitako izkuntza grabatua gelditzen da; ta, benetan maite baldin badu, artaz gogoratu gabe ez du iraungo luzaroan. Emezortzi urtez eutsi dionak, ez dauka saltzeko amaren magaletik jaso zuen euskera, garbia bezin ederra. Lastima guk emen ez diogula merezi aiñako balorerik ematen. Ortxe dago aulezi nabarmena.

ERNIO MENDIAN, BASO-LANEAN

Gu Leitzatik famili osoa bizimoduz Aiara aldatu giñanean, pixka batean eskolan or ibili nintzan. Ezer gutxi, laister utzi bear izan nuen da.

Oianera, basora joan, pintxe-lanera. Ernio mendira, ain zuzen. Bertan jarraitu gaiñera urte erdian, udazkenean asita, zaldiarekin mandazaien gisan. Gure soldatak etxeok kobratzen zituzten, danen bearra bazan-da sendi bearsuan. Geroztik ere amaika aztarrika egiñak gera, sarritan galeran. Ara gure suertea.

Baso-lana oso gogorra ta nekosoa da. Ango mutillen erremintak, aizkorak, trontzak, arpanak eta orrelakoak ziran len. Gaur motosierrak dituzte ta alde ederra dago batetik bestera.

Diru gutxirekin bizitzen ikasi nuen nik, gazte askorik asita. Garai artan irabazbiderik bai al zan aukeran iñun? Nolabaiteko urteak ezagutu genituen zoritxarrez, ta al zan bezela segi, etsi-etsian, pobre ta beartsu.

Gerora jantzi zan jendea lanez emen. Mugimentu galanta sortu ere bai bolada batean. Makina zarrak astindu ederrik artu zuten baztarretan, arranek ezik. Gau ta egun ortxe borrokan, da irabaziak ugaritzeko orixe komeni, dudarik gabe.

Gu Ernio basoan aritu giñan. Negu negargarri ura det gogoan oraindik ere, aztu eziñezkoa zan da. Elurra ta jelaren faltarik genduenik ez nezake esan; da, oiek diranean, kazkabarra, euria ta lokatza derrigorrezkoak noski. Denborale bigurriak egokitu zitzaizkigun alabearrez, ta ikusi genituen ikustekoak alajaiñetan.

Amabi urterekin modu orretan asi ta mutil gazte mardula azitzeko martxa ederra izaten da ori.

Sarritan ibili giñan, goizetik bizkarra busti ongi ta egun guztian artan. Batzuetan, erropa zarrak gorputzean bertan erantzi gabe erdi legortu, ta segi aurrera. Lanean ari dan bitartean, ez da ainbesterañoko otzik sentitzen.

Okerragoa da, zerbait jan edo edan egin bear danean, arri edo egurren baten gaiñean eserita jarritakoan. Zarpa bustiak baldin badaude, orduan oztutzen da errez pertsona, geldirik dagoelako.

Ta eguna ala pasatu ta gero, gauean txabola zarrean lo eginda, urrengo goizean bezperan utzitako erropa gozo aiek an egoten dira, beren lokatz ta guzti, soiñean jazteko xuabe askoak. Orrelakoxe biziera zan garai artakoa baso-mutillena.

Iñoiz eguraldiak laguntzen badaki neguan ere, ta pozgarria dala bistan dago. Fresko antza edo otza izanda ere, or nunbait ibiltzen da, legorrera jotzen duenean.

Izotza bera ez da alaja ederra zenbait baso zulo ospeletan. Egunsentian lanean asteko bildurra ematen duena. Baiña lenengo une txar ura pasa ezker, ta gorputza berotzen danean, andik aurrera ongi jarraitu lezake gizonak. Martxa artu bitartekoa da okerrena edozer gauzetan ere. Mendian, berriz, jarduera latza izan oi da beti.

Gerra ondorengo urte pobre aietako bat zan au. Ernioetik Asteasura joaten nintzan ni goizeko sei ta erdietarako. Bi ordu inguru bear ziran.

Orduan ematen zituzten errazionamentuko bolloak. Auek izaten ziran primerakoak eta segundakoak. Pertsona bakoitzarentzat eguneko bollo bat. Bederatzietan gutxi gora-bera gosaltzen genduen Ernio basoan, eta nik garai artarako Asteasutik eramanean bear izaten nuan diodan ogi klase ori.

Baba jan aundi bat egiten genduen, bollo artatik pusketa txiki bat artuta. Gero, bazkaltzen, berriro babak. Gaiñetik beste zerbait baldin bazan, kontentu. Eta ogi pusketa txiki bat, beatz muturraren antzekoa. Gauean berriro babak. Ogiarena, bazkaltzen bezela. Urrango goizerako ogi muttur bat gordetzen zuen bakoitzak, kamaiñatik jeiki, ura aoan sartu, zatotik bi edo iru ardo trago egin eta prest lanean asteko.

Zoritzarreko ekaitzaldiak sarritan izan genituenez, oso gaizki ibili nintzan ni. Mendi artan nun-nai erreka koskorrak baziran, eta aietan zubi gisara pasoa jartzeko, egur batzuk botatzen zituzten batetik bestera, gaiñetik zotala jarri eta lurrez osatu. Nik zaldiarekin andik pasa bear, sarritan illunpe beltzean. Eta anka edo besoa zuloren batean egur tartean sartu eta zaldia amiltzen zitzaidan edozein tokitan mendian beera. Nik alakoetan pentsatzen nuen: «Akabo! Nere zaldiak lepoa autsi dik!».

Saltatzen nintzan eta zaldia aurkitzen nuen bera bueltaka joan da amilduta. Zorionez, bein ere etzuen ezurrik autsi. Ni inguratzen nintzaionean, Txiki zuen izena eta:

–Bizi al zera, Txiki? –esaten nion.

Jeikitzeke moduan baldin bazan, laister altxako zan. Eskua luzatzen nion eta txakur batek bezela miaztu egiten zidan.

Amaika negar egin nuen nik baso aietan. Uste det osasunaren zati bat ere antxe galdu nuela, artean ain umea izanik.

Jateko garaian ere, lenengo egun batzuetan gaizki ibili bear izan nuen. Nik artean almen gutxi, eta beste baso-mutillak sasoikoak nola ziran, babak ontzi batera atera oi ziran, eta aiek azkar jaten zuten. Nik, berriz, arrankerik ez artean, eta gutxi janda gelditzen nintzan. Azkenerako azkartu nintzan, ordea. Bearko, sabela beteko bazan. Eta geroztik oitura ori iñork ez dit kendu. Medikak ere beti aolku au eman izan didate: mantxo jateko, ongi ausnartuta. Baiña nik ez det ortan jakin, tragatzen baizik, naiz-eta nere buruaren kalterako izan.

Larunbat illunabarretan Aiara jexten giñan batzuetan, beti ez bazan ere. Egun batez, gogoratzen naiz, bidoi aundiak nituen zaldi gaiñean, kakoetan lotuta. Igo nintzan Zelatunera zaldiarekin, eta an ijito sail bat zegoen ardi borda batean. Abereak kanpoan zebiltzan larrean.

Ni, kasorik egin gabe, ingurutik pasa nintzan. Baiña nere antzeko mutil koskor batek jarraitu zidan atzetik. Iturriotz baiño pixka bat gorago arrika asi zitzaidan. Lenengo arriarekin zaldia jo zuen tripa barrenean.

–Geldi egon adi! –deitu nion.

Beste arri bat tira eta ni jo ninduen bizkarrean. Orduan zaldia asi zan saltoka, bildurtuta; eta nik ere salto egin nuen. Makilla neramakien eskuan. Zaldia geratu nuen. Bidoi bat lurrera erori zan. Sekulako zalapartak sortu ziran an. Ijito mutiko ura etorri zan eta zaldiari sokatik eldu zion. Nik esan nion uzteko, zaldia nerea zala ta. Baiña joka asi zitzaidan, arek eramango zuela zaldia esanez. Baita ni ere, nolabait defenditu bear ta. Beste erremediorik etzegoen eta borroka latza an egin genduen, biok alkarren kidatsuak izanik. Azkenean, makilla eskuratu nuen da zartada bat edo bi eman nizkion il-bizikoak, bero-beroak, eta antxe errenditu mutilla. An gelditu zan lurrean.

Uste nuen beste ijitoak oartu ta etorriko zitzaizkidala; ta, bertan jango

ninduten bildurrez, bidoi zarra lotu zaldiari berriro, jarri bere gainean eta trote ederrean jetxi giñan Altzu-zelaiko kamiora. Ura zan bidoi otsa ekarri genduen! Orduantxe esan nion nere buruari: «Orain seguru gaituk!».

Urrengo astelenean berriro Erniora joan bear goizago, baiña ez nintzan atrebitu ijitoak zeuden inguru artatik pasatzen. Bestela an ilko nindutela ta, Asteasutik bueltan igo nintzan.

Ez dakit nundik, baiña jakin zuten baso-mutillak zer gertatu zitzaidan; ez nik esanda. Parre ederrak egin zizkidaten.

Nik emen ezer gutxi esaten det. Gertatzen zanaren erdirik ere ez garai artakorik. Jazkerak ere kontuan bearke genituzke. Gaur erropa obeak badituzte basoan dabiltzan mutillak. Baita bear ere lan klase orretan ariko danak. Ez baida txantxetakoa. Eguna luzea ta nekosoa benetan. Jende eldua eta sasoikoa ibiltzen da geienetan, da eskerrak orreri.

Sarritan, onela esan utsarekin ez da sinistekoa ere, norberak ikusi gabe, basoko bizitza zer dan, lengo modura beintzat.

Eta ikazkintza bera zer da? Oso zikiña ta traketsa. Ikatz egilleak ez du gauez ere lo lasai egiterik izaten.

Bein txondorrek kargatu ta su eman da martxan jarritakoan, gauean ere aien goardian beti norbaitek egon bear izaten du.

Txondorra suak zulatzen badu alde batetik edo bestetik, ari orduan eskatzen duen betegarria eman bear zaio, eta azkar gainera. Suak zulatu duen tokian egur berria sartu. Gero gainetik zotalez eta lurrez tapatu ongi. Bestela, berriz ere okerra laister gertatu leike.

Batez ere egoaizea dabilenean du arrixku izugarria, suak indarra artu ta dana kixkaltzeko; ta antxe ibiltzen dira ikatzgilleak, ke tartean ito bearrean, larri. Aien txanponak kostata irabaziak izan bear.

Beraz, len esaten nuen gisan, Ernion egin genduen geure basoko pasadizoa; ta ango lanak bukatu ziranean etxeratu giñan.

PERRATZAILLE

Berealaxe ekin nion nik beste langintza bateri. Urrengoa ere etzan opizina-koa. Neretzako ain errezik eta politik ez komeni ta perratzaille ikasten asi nintzan, da artantxe jarraitu ta kito.

Lenengo, etxean koñadoarekin pixka batean. Gero, denboralditxo batean, Zumarragan egin nuen. Azkenean, berriz, Eibar aldean saio luze samarra.

Eibarren lan faltarik bein ere ez genduen ezagutu. Ortik ongi osatzen giñan. Soldata ere oso neurri juxtukoa. Jai arratsaldeak-eta etxe aldetik iñora irten gabe pasatzeko modukoa.

Sua egiteko egurrak txikitu ta amona zarrari laguntzen-da antxe ibiltzen nintzan. Amonak arratsaldeko merienda goxoa ematen zidan; da gero, kontu zarrak esanez da abar, orrelaxe joaten zitzaigun jai arratsaldea.

Gero, illunabarrean, ganadu esneduneri bildu edo jetzi, pasada eman da gobernatu. Betiko ordu moduan zuzen, ori bai, deskuidorik gabe. Ukulluko eginkizunak bukatzean, garai ederrean afaldu ta sano-sano lotara.

Jai-egunak etxe aldean pasatzen dituen mutillak, gauean lo ederki egiten du ta astelen-goizean argi egoten da ura.

Gustora ez noski, baiña orrelakoxea zan gure izaera xelebrea. Tripa betetzen ziguten da pozik esan bear alde orretatik. Garai artan, etzuen nai zuen guztiak egiten orrenbeste ere. Urte eskasak egokitu ziran oso, ta goserik gabe bizitzea zan ditxa orduan. Gerra ondorengo bolada pobre artan etzan arronka aundirik baztarretan.

Baiña, ala ere, gaztetasuna gauza zoragarria da. Orrek ez du berdiñik nerekiko. Iñungo miñik edo naigaberik ez bada, edozer gauza jan ta danak on egin. Dotore ibili. Sasoiaren edertasuna dala badakigu ori. Indarrean dagoen mutillak lanerako ere pereza gutxi izaten du. Berez oso nagia edo alperra bear du bestela.

Nik, egia esan, gustoko edo gogozko lana nuen ganadu perratzea. Ez ain txukuna zalako. Baiña gure moduko batek neke ariñeko zer egin fiñak billatzen zailla izaten du, ta parean datorkionarekin konformatzea onena.

Egun batez ala entzun nion baserritar zar bateri. Langille amorratua zan, da txukun utsa. Esku egokia gaiñera. Bera ta familia bizi ziran etxea kaxkar samarra zuten. Terreno saillak urriak alegia, ta oso ospelekoak edo laiotzak. Lurralde zekenak. Busti urterako tristeak, txarrak.

–Beste tokietan legorrarekin burutu ezin dutenean ibiltzen gera gu ongiena –esan zidan.

Zergatik galdetu nionean, onela zion:

–Aurten ganaduentzako janaria aukeran degu. Beti egoaizetara jotzen du ta edozein garaitan belar ebakitzen ari liteke. Badaukagu iñoiz baiño koska bikaiñagorik.

Gustora nabaitzen zan gizona. Emen bakoitzak bereari begiratzen dio arrazoiarekin, da amaika aztarrika egindakoa zan uraxe, gizarajoa.

Gogoratzen naiz bi txekor gazterekin perratokira nola joan zitzaigun. Txikiratuta edo irenduta zeuzkan, idiak egiteko asmoan. Ordura bitartean beti beiak erabiltzen zituen uztarrarian, da idi pare bat nai lanerako.

Jakiña, oiek esnetarako ez dute balio; ta beiak ere, uztarrarian asko nekatzean, esne gutxi ematea seguru samarra da, ta galera galanta etxerako. Base-rrian esnetara ta aragira jo bearrean aurkitzen ziran len ere, gaur ez-ezik. Ortik zeukaten etorkizuna. Bizibiderik egokiena, zalantzarik gabe.

Alaxe, diodan gizon arek oso idi pare dotorea armatu zuen bere txekor gazte aien bidez. Etxean etzirala kosta gabe azitzen, baiña feritik erosi ta ekartzeko diru mordoa bear izaten zala, ta orrelako pentsamoldeak. Bearbada, etzan buruz gaizki egongo. Botatzen errezago da, gero eskuratzen baiño.

Dana dala, asieran genion bezela, perratokira agertu zan da atez kanpotik argolletan lotu idiak, eta sartu barrura ta:

–Egun on.

–Bai zuri ere.

–Lan-giro al dago?

–Bai, bai.

Beste baserritar baten idiak perratzten ari giñan. Bereala, kanpora irten da len an zegoen gizonak, ikusi ditu txekor edo idi gazteak eta onela dio:

–Idiak erosi al dituk, Martin?

Da:

–Ez dizkiagu erosi, ez. Etxean jaio ta azi lardaskatuak dituk.

Orduan berriro besteak:

–Zertarako? Zuen baserrian idientzako nun dek lana?

Ori entzutean, Martiñen erantzuna:

–Ai, gizarajoa, ai! Ez aiz konturatzen? Gure etxean lana geiago dek, zer jana baiño.

Ara zer nolako ateraldi dotorea. Egi borobilla esan ziona, nere ustez. Martiñek bazituen orrelako arrazoi zorrotzak, eta an ixildu arazi zuen azkar asko illea artu naian zebillena. Jakin miña zeukan nunbait. Etxe txarrean, ezer gutxi jateko ta lan asko egin bear izaten da, edozeiñek dakien bezela noski.

Bakoitzak bereak ikusi bear izan ditu emen, eta gure gazte denboran ere orixe gertatzen zan: nekea pranko ta etorkizuna urria.

Zer soldata ziran ba orduan? Parregarri utsak, itz gutxitan adierazteko. Jazteko bear ziran erropa txarrak erosteko aiña diru ezin inguratuz, lanik asko erabiltzen genduen; da gaiñontzeko gauzak ere, berriz, era berdintsuan ikusten genituen, gu ibili giñan tokietan.

Min bat artzea edo bestelako gaixoren bat arrapatzea gertatuta ere, guk ez genduen bein ere eduki ez asegurorik eta ez segurantzirik ezertarako modukorik.

Bai pobre giñala urte aietan. Morrontzako aurrerapenak ara nolakoak ziran orduan.

Baiña batzuetan gerorako ez da kaltegarri. Bizitzen ikasten baida gauza gutxirekin, da zintzo jokatzten. Alegia, bere neurrian dirua maitatzen; nekez egiñari begiratzen. Pertsona langilleak ori oso bearrezkoa du, etorri txikia ta juxtua izaten du ta.

Guk orretantxe ikasi genduen umetatik. Guraso zarren erakutsira ezi giñan, da nik ez det damurik eta aietaz kejatzeke biderik.

Pobre jaio ta beartsu bizi égin degu, beste askoren gisara. Gu bakarrik izan bagiña, geiago suprituko genduen. Orretan seguru nago. Baiña, ala ere, aurrera jarraitzeko moduan geran bitartean, kontentu.

Emen bizitzak estuasun gogorrak ditu, benetan artu ezkeru. Neri eman zizkidan beintzat gaztetan ere; ta geroztik zer esanik ez.

Ezagutu genituen beste era batera jokatzten zuten morroiak. Batzuk, irabazi politak zituztenak, naiz alperrik. Artu-ala bota; zenbat eskuratu ainbeste gastatu. Orrela ibilita, ez dago zer egiñik.

Aietako batekin sarritan gogoratzen naiz. Len kalean obretan zuen bere ogibidea.

Gero baserri batera joan zan morrontzara, an gastu gutxiago zegoela ta. Itxura zanez, orreri aldegin naiko zion. Ala derizkiot.

Baiña bada aspaldiko kantu batean agertzen dan esaera zarra:

Ez du buru galduak
txapela bearrik.

Ori asmatu zuenak bazekien zerbait. Emen aipatzera noan au, larunbat gauean mutil argia ikusten zan geienetan. Asteko soldata artzen zuenean, diru pixka aiek martxan jarri bitartean etzan atsegin arekin.

Baiña ondoren illun-aldi ikaragarriak izaten zituen gizarajoak, igandea pasa ta berriz astelenera irixtean, sosik gabe aurkitzen baizan.

Astearen azkena etzizaion nai ordurako eltzen. Berrero txanpon batzuen jabe egiteko segurantzi ederra zeukan berekin. Egun batetik bestera ume biurutzen. Nortasuna galtzeraiño jextxi. Lastima! Osasunak laguntzen da ezaguera falta, zorigaitza beregan.

Alaxe, kaleko biziera narratsez aspertu zanean, etzegoela artan irauterik eta baserri batera morroi joatea erabaki azkenean. Denboralditxoa zeramala, an ere asi ordea esnatzen eta irten naiean norabait. Epe laburreko zintzotasuna izaki arena.

Illeko soldata artu zuenean, berrero lenera. Oso aberats sentitzen. Diruak poltxikoan otsa ateratzen, da azkure aundia eman gaiñera; ta berak gogoratu arazi lengo lagun artez.

Orduan, iñun kabitu ezinda, tarteka erri aldera bisitak egin bear derrigor, zeuzkan txanponak korrituan jartzeko. Ara or gure morroiaren kezka zer zan.

Nik entzun izan det, ostatuan uzten dan diruak korritzen duela geiena. Izugarrizko abaila erabiltzen omen du, ta ez naiz arritzen. Zerbaitegatik joaten da ainbeste jende ostatuetara, ta beti edo geienetan presaka, alkarri txandarik eman eziñik. Ori orrela izanik, nola etsi morroiak an, mendian?

Artean berrogeiren bat urtetik gora gutxi izango zituen. Sasoiko mutilla ikusten zan.

Bein, larunbat bazkalondoan, eman dio illeko soldata baserriko nagusiak, eta pozik noski mutilla.

Aurretik izentatu omen zituzten urrengo zetorren aste gutzirako lanak, ezeren okerrik ez bazan beintzat. Belar ontzeko garaia zala-ta, igandea izan arren, goizean bostak aldean jeiki ta belar sail bat ebakiko ote zuten galdetu dio nagusiak. Eta morroiaren erantzuna:

–Bai, gizona. Orrenbeste egingo degu. Emen giro ona aprobetxatu bear da, jaia edo astea dan begiratu gabe. Nik, biarko partez, gaur illunabarrean kalera buelta egingo det eta berdin da.

Ala, arratsaldean segak pikatu ta gertu jarri dituzte. Ganaduen janariak etxeratu ere bai, ta lanak erreztu.

Morroia, oiek danak gogoan dituela, joan da errira ta bildu da bere lagun zarretara. Bereala erabaki afaritxo batek etzuela kalterik bein ere, ta betiko tokia antxe zeukatela. Danak konforme.

Inguratu omen ziran ostatura, bapo berdindu ta gustora gizonak. Gero gerokoak. Kontentu egoteak ez du gutxi balio.

Jangelan aspertu ziranean, irten da mostradore aurrean antzerkia noski. Etzuen giro izan bear. Morroia an omen zebillen baztar guztiak txikitu bearrean, izerdi-patsetan dantzan, bere koadrillakoak txaloka zituela.

Ta, uste gabeen, nagusia sartu kafetxoren bat artzeko aitzakian. Ikusi zuenean, morroiak:

–Zu ere emen al ziñan, nagusi?

–Bai. Eginkizun bat banian da etorri nauk. I ere sasoi ederrean ago. Biar

goizean orrela jotzen badek, belar sail galanta ebakiko diagu. Badakik nola asi bear degun bostetan, da aiek bidean dituk.

Ori esanda, aldegin omen zuen nagusiak. Baiña morroia bertan gelditu. Presarik ez erretiratzeko, bere baitan pentsatuz: «Biar ez nazu ni asko izurratuko. Alperrik izango zera gogorra ta setosoa».

Ta segi lengo martxan. Alakoari errespetoa jartzen ez da erreza. Dirurik ez dutenean umillenak. Nagusiak, zor ziona ordaindu on bearrez zuzen, da bestea arrotu. Ara zer gertatzen dan.

Nik ezagutu nuen zalako morroi xeblebre ura. Tontotik etzuen askorik; pikarotik geiago. Izketan dotore zekien. Bere pasadizoak kontatzen asten zanean, jendea gozatu araziko zuen.

Esaten ari geran gau artan, afariak egarri aundia eman izan bear zion, ustez edaririk onenak erabili arren. Asko sartu ta zepelin izugarria arrapatu.

Goizeko lauretan iritxi etxera ta oean etzan, da segituan lo artu. Nagusiak deitu dio bostak laurden gutxitan jeikitzeke. Baietz erantzun, baiña altxatzeko gogorik ez, artean joan berria ta. Geroxeagoan berriz:

–Berandutzen ari dek eta mugitu adi. Bazkalondoan siesta egingo dek.

–Bai. Oraintxe jantzi ta laister naiz ni koskan. Zu prestatu bazera, segi aurretik eta asi, nere zai egon gabe.

Ori entzunda, nagusiak sega bizkarrean artu ta martxa; ta morroiak, oean jira ta lo goxo asko.

Alako ederki zegoela, jo dio etxeakoandreak gelako atea, eta esan omen zion:

–Ez al zaude ongi edo zer dezu ez jeikitzeke?

Ta morroiaren erantzuna:

–Ongi egongo ez naiz bada, etxeakoandre? Gaizki egon banintz, onezkero jeiki nintzan.

Bapo! Arek belar ontzeko kezka galanta zeukan berekin. Baiña ala ere orratik irten omen zan txokotik sukaldera oiñetakoak jaztera, ta etxeakoandreak kafe beroa patar pixka bat nastuta eman noski.

Etzala gaizki etorri uraxe bezperakoen gaiñetik; mesede aundia egin ziola

esan oi zuen. Orduantxe animatu dexente. Etxekoandrea famatzen zuen. Biotz oneko emakumea zala ura entzun genion bein baiño geiagotan. Nagusia askoz ere petralagoa arentzat.

Etzeukan alako morroia zeukanak laguntza makala etxe aldean. Ixtori politak bazituen. Orain esango dedan au ere bada zerbait.

Bere erritik urruti samar lanean ibili oi zanez, gutxik zekiten nungotarra zan, seguru beintzat. Orrelako bitxo oiek egi garbirik ez baidute esaten, deskuidatu ezean.

Kalean igeltseroen peontzan zebillela, jarri zan ostatu batean apupillo, jan, edan da lo bertan egiñez lasai. Baiña ordaintzeko presarik ez eta kontua aurre-ra.

Ostatu orretan neskazarra zan etxeokoandre bezela, ta mutilzarra nagusi. Anai-arrebak eramaten zuten martxa. Ta alako batean nagusiak artu du mutil ori estu, esanez pagatzeko ango zorra; bestela etzuela etxe artan geiago mokadurik jango.

Orduan onela erantzuten dio:

–Begira, nagusi. Badakit arrazoi dezula, ta neu ere oraintxe lotsaz beteta nago. Baiña soldatarik ezin det kobratu. Guri eman bear digutenak ere gaizki dabilta, lana egin da dirurik bildu eziñez, ta ezin itoko ditugu. Ni ez nabil zurekin aztuta. Ez al zenduke egun batzuetan itxogingo?

–Bai, gizona. Olain estu baldin bazera, itxogingo dizugu.

–Eskerrik asko. Istimatzen dizut. Guretzako beti zerbait bada ta gaur ere artu det nik abiso ederra.

Ori entzun zuenean, bertako gizonak:

–Zer da: okerren bat?

–Bai. Aundia gaiñera. Etxeko anaia il zaigu, ta joateko xentimorik ez det.

Ume bat bezela negarrez asi omen zitzaion, sekulako roilloarekin gezurretan; da ostatuko nagusiari diru mordoxka kendu ta aldegin, da geiago azaldu ez. Ara nolako martingala.

Gauza oiek orrela pentsatu egin bear dira. Bistan dago arek burua zertan nekatzen zuen. Baserrira ere etzala langillea zalako joan esan liteke.

Guk zintzoago ibili bear izan genduen morrontzan, ostatueta afari ta bazkari asko egin gabe. Dana dala, bakoitzak bere izakera du emen, eta ez dago aldatzerik.

Nik amazapi urterekin kantatu nituen lenengo bertsoak plazan, jendearen aurrean, Bizkaiko Zaldibarren. Eibarren ari bainintzan lanean garai artan.

Ain zuzen ere, ondorengo egunetako batean aldegin nuen andik, eta Aiara etorri. Gure etxean perratokia zuten, da or genituen familikoak. Koñadoa zan perratzailea. Arek gelditu arazi ninduen, bera gaixo antzean arkitzen zan da. Operazio bat egin zioten urdailletik. Beraz, ori zala-ta, berari laguntzen jarraitu nuen, soldadu joan bitarterañoan, lanean.

Bein emezortzi urte nituenerako, asi nintzan erriz-erri ugari samar kantatzen da txanpon batzuk irabazten. Etziran gaizki etortzen neretzako. Nik ez nuen bein ere dirurik eskatzen etxean gasturako. Jantzi, berriz, bertsoeri esker. Neure kontura egiten nituen erropak. Mantenu-truke aritu bear lanean sasoirik onenean, famili ura aurrera aterako bazan. An etzegoen beste erremediorik.

Soldadu egon nintzan denbora guztian ere, ez nioten xentimorik eskatu etxekoeri. Ez bainuen iñor kastigatu nai, ta al zan bezela pasa. Ara gure joan-etorriak nola ziran.

Garai artan lan asko izaten zan perratokietan. Gerora urritu baziran ere, Aia alde orretan, baserri gutxi ezagutu genituen uztarrirako idi-pare bat gabe-koak, karretaje guztia ganaduz egin bear izaten zuten da. Basoko zugaitzak ateratzeko ere premizko zirala idiak badakigu. Lurrak lantzeko berdin.

Gerora sortutakoak dira emengo aurrerapenak. Egin zituzten pistak edo bide berriak edozein tokitara; ugaritu ziran autoak. Ala bear ere, ogirik jango bada. Lengo antzera jokatuta, ezin liteke bizi.

Guk probatu genduen ederki lan nekoso-pobre ura zer zan. Goizean goiz asi ta illunabarrean nekez utzi. Egunik luzeena ere motzegi sarritan. Alaxe ibili giñan, zama astunaren azpitik irten eziñik. Gauza oien berri eman genezake pixka bat, irakurle.

Orduan galdu edo urritu ziran baserrietako idi ta gainontzeko abereak, eta perratzaileak kalte izugarria jaso zuten. Batere lanik gabe gelditu goizetik gauera, ta gero izateko itxaropenik ez gaiñera. Ori okerreña.

Idi ganaduak oraindik ere banaka batzuk egongo dira noski. Baiña oso etxe

gutxitan ikusten ote diran da nere errezeloa. Oiek mantentzen gastu aundia dute, ta jendea konturatu gauza orrekin. Gaur danari ongi begiratu bearra dago.

Gero, ortik aparte, lur lantzeko-ta ere, aukerako tresnak dauzkate nekazariak. Gasoillaren bidez lana errez menderatzen dute makinak, eta idi ganadua sobratu egin da emen. Era guztietara aldatu zaizkigu gauzak. Molde-berritu, alegia.

Len, gure gazte-garaian, lurrak aldapa samarrak edo maldak ziran tokietan-da beintzat, goldez etzuten jira nai izaten guraso zarrak geienak. Laiak obeak zirala askoz ere esan oi zuten. Malkarretan goldeak lurra goitik bera botatzen zuela. Ori zala-ta, beso indarrez egin bear, da laiarien kontu.

Egun batzuk etxe batean pasako zituzten; da, ango lanak bukatzean, bestera joango ziran. Orrelaxe, txandaka auzoak alkarri lagunduaz, udazkenean, azaroko illean batez ere, gari ereiteko garaian. Baita ere udaberrian, artobabarrunak erein bear izaten ziranean.

Giroak nola laguntzen duen da ainbat gorabera ikusten dira or kontuan artu bearrekoak. Amaika bider gauean itxura oneko eguraldia, ta urrengo goizerako erabat aldatu ta txarrera emana igoal, da beti kezketan zerura begira.

Lai berez ona dala dudarik ez. Baiña lan gogorra ere bai. Aiako baserriar bateri bein baiño geiagotan entzun genion, egun osoa laitan igarotzen bazuen, gizonak etzuela illunabarrean jolasgure aundirik edukiko. Ez noski. Or etzebillen aldrebes.

Errementariak etzuten ba lan faltarik erabiltzen. Lai berriak egin da zarrak konpondu, betiko zer egiña. Gu lan klase oietan asko jardunak gera. Aitzurrak eta gurdi kurpillak eskuz moldatzen genituen.

Gaur oraindik kontserbatzen dira jatetxe edo ostatueta. Nun-nai ikusiko dituzu argi lanparatan lengo gurdi zarren kurpillak, apaingarrizat jarriak, burniz eta egurrez osatuak. Material mota auek zeramazkiten: pagoa, zumarra, aritza ta alkazia.

Baita lerak ere, berdin egurrekoak. Baiña kurpillik ez dute izaten. Lorrean edo arrastaka eramaten dituzte, idi edo beieri atzetik erantsita.

Lera kontu au Aia alde orretan usatzen da geien bat, mendi belarrak, garo edo iñaurkiñak etxeratzeoan bezela, ganaduen janariak inguratu bear diranean.

Len, baserriarren erreminta edo tresna guztia eskuz egiña izaten zan. Zurginien eta errementarien bitartez, burniari eraskin dana sutan galdan egiten zitzaion, bero-aldi ederrak artuaz, izerdia kopetan bera tantaka zijoala. Ez, gaurko gisara, soldaduraz ta orrela.

Lan gogorrak eta baldarrak izan arren, norbaitek bear artarako ere, ta gu egokitu parean, da aurretik beste batzuk.

Orain, berriz, errerotzan ikasi duenik ez da ikusten, gazte jendearen artean beintzat. Inork ez baidiote erakutsi. Aspaldiko urte auetan beste erreztasun batzuk daude. Baita bear ere.

Aian lagun jatorrak banituen nik. Erromeri billerak nun-nai egin oi ziran baillara txikietan, da antxe ibiltzen giñan, beste askoren antzera, pozik salto ta brinko, sagardotegietan da abar.

Baiña etzan derrigorrez aietara joan bearrik sagardo ona edateko. Edozein baserri etxetan ematen zuten gogoz, ta guk edan ere bai kupida gabe. Ala komeni zitzaionak, berriz, an zeuzkan sagardoa saltzen zuten tokiak aukeran. Bolan da token dibertitzen zan gazte jendea, sagardoa jokatuaz jeneralean. Beraiek ez ote ziran jolas-aldirik goxoenak?

Emen oitura zarrak galtzen dijoaz. Ez dakit mesedetarako izan litezkean. Gaurko egunean joera desberdiñak nabaitzen ditugu. Jakiña, kotxeak ugaritu ziranetik, aldakuntzak sortu.

Guk oiñez gendukan ibili bearra ta oso urrutira ezin joan. Inoiz bi orduko ta iruko bidean bai, ta eguraldi onean kontentu. Baiña txarrean erritik nola irten? Giro itxurazkoa ikusten genduen bakoitzean, auxe etortzen zitzaigun burura: «Denborale bikaiña zeukagu. Datorren igandean onelakoxea bagen-du...».

Ara zer zan gure naia. Aste guztian erdi ipurdikoa izanda ere, ainbeste ajola ez, jaian ona egin ezkerro. Bizimoduak baiño kezka geiago ematen zigan garai artan igandeko lagun arteak.

Ortik aparte, gauza geiago ere bagenituen, buruaustea jartzen zigutenak. Erropaz ta oiñetakoz ez baigiñan ain ongi ornituak edo osatuta egoten. Orduko gure jazkerak axial samarrak izaki. Alpargatak edo espartziñak. Ez genduen zapata fiñik urratu gaztetan. Jantziko bai pozik. Baiña erosteko dirua bear ta ura falta.

Lentxeago adierazi dedanez, eguraldi ona zan guretzako ditxa, mendi erromerietan ibili al izateko. Amaika bider gertatu zitzaigun, igande arratsaldean eguzki berotan etxetik irten da gero, euri zaparrada galantak artzea bizkarretik bera. Bidean erabat busti. Zikindu ta lokaztuta, nolabait erretiratu.

Ala ta guztiz ere, ez aspertzen, ordea. Astearen erdirako jartzen giñan berriro igandearen zai. Gorputzari emandako pasada gaueko loak sendatzen zuen da segi, mutillak, aurrera!

Sasoia dan bitartean, gutxi pentsatuta ere, ongi; ta, orrek aldegingdakoan, gauzarik geienak gaizki ikusten dira. Ortxe daukagu koxka, ta berdintzen zailla.

Ez da noski gurea bakarrik izango, orain arteko zar askori gertatu zaiotena baizik. Bein adin modu batera iritxi ezkerro, ango edo emengo miña ta keja ugari. Nik naikoa erabiltzen det beintzat. Aiatik Urdanetara ta Iturriotzera-ta joaten giñanean, etzan orrelakorik.

Alperrik da. Urteak ez dute barkatzen. Oiek gero ta astunago, ta oraindik geiago pasa nai genituzke. Ezeren okerrik ez bada, naiz pixka bat supritu, balore gutxi eduki arren, danok ementxe nai degu. Goazen ba aurrera, daramakigun martxan.

Erri bakoitzak bere jokabide bereziak baditu ta goiko gaillurrean dagoen Aia orretan ez dakit lengo erara jarraitzen duten orain, baiña gure gaztedenboran bazan oitura gogoangarri bat bertan, da baillara txikietan ere berdin. Baserritarrak eta kaleko gazte danak alkartu ta ardo mordo aundi bat ekartzen zuten San Donato pestetarako.

Mutil-ardoa deitzen zitzaion orreri, beraiek alkarren artean dirua osatzean erositakoa. Jaiak bukatu bitartean, egunero nai ainbeste edan zezakean ara inguratzen zanak. Ori libre edo bere gain zeukan.

Eta ara, berriz, beste aukera polita, nere ustez: erriko zar jendeari debalde ematen zitzaion ardoa, ta kanpotik zijoanari ere bai. Nai bazan zatotik edo bestela basotik. Eskubide osoarekin, bakoitzak bere gustora edan zezala alegia. Gurasoen pozgarri izan oi dira orrelako egintzak eta gazte apalak.

Adin neurtua zan orduan koadrillan sartzeko. Seguru esateko ez dakit amalau urte edo amasei bear ziran *mutil-ardoan* parte artzeko. Gaztetxoeri etzitzaioten nai bezin azkar irixten edade ori. Aundiekin batera ibili nai ta kontuak.

Lentxeago genion bezela, ez dakit orain lengo oiturak jarraituko duten. Nik ezin nezake eman urte auetako berririk. Aspalditxoan gai oietan iñorekin itzegiteko modurik ez baidet izan, da ezjakifanean arkitzen naiz. Gero, ortik aparte, gogoratu ere ez gauza askorekin da abar.

Egun batez ala entzun nion Aian mutil zar bateri. Antxe *mutil-ardoa* banatzen zuten tokian zegoen, da danak berari eskeintzen ari zitzaizkion, eta onela zion:

–Zuek borondate ona agertzen dezute. Baiña geiago ezin diat ba edan. Guk onelako ardotik nai aiña arrapatu bagendu...

Gizarajoa! Ura ere eziña probatua izango zan noiz edo noiz. Ala zirudien arrazoi orrek.

–Zu biar ere etorri lasai ardoa edatera –esaten zioten.

–Bai, ta pozik gaiñera, nekatu-aldi bat artuko badet ere. Au etzegok alperrik galtzen uzterik.

Berez zalea danak, ixtimatzen daki orrela datorkion egokiera. Ibilpidea zeukan nolabaitekoa. Anketatik erren da gaizki. Bere sasoiaren etzuen makalaren sonarik, guk entzueren genduenez.

Beste bat, mutil zarra au ere, korrikalari bikaiña omen zan. Agustin zan aren izena, baiña *Txorro* deitzen zitzaion Aian.

Bazituen ixtori politak. Egun batez, ondoezik zegoelako, medikuarengana joan da; ta, miatu duenean, urte sail bat lenengo, gaitza bere bizkarrean da urrengo txurruta dexente erabilitako itxura.

Seguru asko, baju antxean billatuko zuen edo ez dakit ba nik. Beintzat, esan dio gure *Txorro*'ri ardoa erabat uzteko segituan; etzitzaiola komeni ardorik bateren.

Ta, ori entzunda, triste ta illun jarri gizona ta galdetu dio medikuari:

–Patarra utzi bear al det?

–Utzi bearko ez dezu ba? Ardoak baiño kalte geiago du. Txarrena ori da, nai badezu jakin. Patarrak ez du momentuko bizitasuna besterik ezertxo ere.

Ta *Txorro*'ren erantzuna:

–Orrela baldin bada, sarri-sarri artuko det –esan omen zion medikuari.

Izketan oso dotorea zan. Gure perratoki aldera edozein garaitan inguratu-ko zitzaigun. Baserritarrak ardoa ateratzeko oitura baizuten, ganaduak perratzera zijoazenean. An ibiliko zan botillerotzan gustora. Basoa erdiraiño etzuen beteko; aldiko pixka emango zion bakoitzari, ontzia ongi ustu zezan. Txukun-zalea gogotik.

Nerekin bazuen konfiantza, ta bere bizitzako gora-berak kontatzen jardun izan zitzaidan, umorean edo aldarte oncan zegoenean.

Ameriketean ere denbora gutxian, baiña egona noski. Or agiri da garbi munduko berri ikasitako gizona zala *Txorro*.

Bein korrika-apustua jokatu omen zuen naparren baten kontra kamioan, ez dakit nundik nora. Ta bestea mutil aundia; au, berriz, txikia.

Bidean zijoazela, naparrak, aurretik atzera begiratuta, onela dio noski:

–Jo, mutil! Ik neri jokoa irabazteko, anka motzegiak dituk.

Orduan *Txorro*'ren erantzuna:

–Segi lasai. Arraian neurtuko dizkiagu nork ditugun luzeenak.

Esan bezela, azkenean *Txorro* nagusi. Ara or ixpillu polita.

Lengo zarrak ateraldi aberatsak bazituzten. Gu, gazteak, pozik egoten giñan aien kontuak entzuten.

Baserritarrak, igande-goizean, mezetara joan oi ziran errira; ta gero egun pasa igoal sarritan banaka batzuek. Danak ez. Sei edo zortzi beintzat, parrandero samarrak ikusten genituen beti.

Bruxa beltzak jantzita dotore asko, elizatik irtendakoan, lenengo zimite-riean egonaldia, ta andik ostatura zuzenean sartu; ta arrantxo pixka bat eginda, bereala etxera joan bear zutela esanez eserita jarriko ziran maian, botilla ardoa aurrean zala, tragoxkadak egiñez, goxo-goxo alkartasun ederrean kontu kontari. Ta egun guztian antxe, beste iñora mugitu gabe.

Jarlekutik altxa ere ez, komonera edo orrela izan czean. Patxada bikaiñean, goizetik asita, beraien gora-berak berritzen: ango belar saillak, emengo iñaurkin edo garodiak, alako sorotako arto-babarrunak...

Modu orretantxe jardun-aldi luzearen ondoren, urrengo saltoa sagastietara: sagarraren prezio kontuan da batez ere alako etxetan zenbatsu gurdi edo karga

sagar egon zitezkean gutxi gora-bera, ta erostunak zer diru eskeintzen zuten, da bukaerarik gabeko itz-jarioan segi aurrera.

Baiña sekulan asarrerik ez. Beti ongi konpondu alkarrekin. Berak ez du gutxi balio gizarterako. Pakca gauza atsegiña baida.

Aiek aste gutzia kalerako antsian igaroko zuten. Dударik ez nuke jarriko. Alaxe bildu ta itz aspertu bat egiteko gustora sentitzen genituen benetan.

Eguerdi beranduan, beraietako norbaitek adieraziko zuen:

–Gu ari gaituk emen kontuak esanez txurrutean, baiña ni oraintxe gosetzen ere asita negok. Zuek ez al zaudete ala-edo? Obeko diagu bazkari mokadu bat egin, mutillak, nere partetik beintzat. Zer derizkiozute?

Orduan erantzungo zion bere lagunetakoren batek:

–Nik etxe aldera joan bear nian. Gaur gurean gazteak ere kanpoan edo falta dituk, eta andrea bakar samar egongo dek. Baiña egun guztirako ganaduen janariak eramanda etorri nauk, eta beingoagatik nola edo ala moldatuko al dek noski. Ez dik aurreneko aldia izango, len ere orrenbeste egin gabekoa ez dek eta. Au zabarkeria dek, baiña berdintsu biziko al gaituk. Zer arrai! Onuzkero orduak aurrera joango dituk eta tira, tira: eskatu bazkaltzeko zer bear dan edo otsegin etxeoandrecari etorri dedilla.

Ori entzunik, joko zituen bere lagunak bi edo iru txalo aundi esku baldar kallotu aiekin. Bereala agertuko zan sukaldetik etxeoandre zabala, edo bestela bialduko zuen neskaxa gizon oietara, eta galdetuko zioten:

–Zer nai zenduten?

Orduan, buruko txapelari tira ta:

–Zer nai degun? Bazkaria, ezer baldin badago beintzat.

–Jateko egongo ez da ba zuentzako? Nai dezuten klasetik gaiñera.

–Asi ba ekartzen, garaia izango da-ta noski.

Orrelaxe jarraitu oi zuten izketan txukun-txukun, da geroxeagoan sabela betetzen apetitu eder askoarekin, uraxe egindakoan erretiratu bear zutela ta. Baiña gero aztu. Antxe bertan zeudela illundu.

Ta len kontua ugari antzean izan bazan ere, bazkalondoan etzan urrituko edo askoz gutxiago nabaitzen. Kafe ta kopak artzean, ango bulla ta zarata,

aurpegiak gorri-gorri zituztela jarrita. Etzan giro aien aldemenean. Dema edo proba etzan faltako. Ango idia ta emengo zekorra!

Alaxe, utsunerik gabeko jardun batean ari zirala, berriro afaltzeko garaia iritxi, beraiek oartu edo konturatu baiño len. Ez, oso toki txarrean egon balira. Baiña gustora dagoenari errez joaten denbora.

Azkenean, ostatua ixteko ordua etorri ta aiek kanpora bialdu eziñik ibili bear ostalariak. Ara goizean presaka ta azkar etxera joateko asmoan ziran gizonak.

Alako batean, badijoaz, bidean gelditu-aldiak egiñez. Ankak errez aldatzeko ez dira gauza, ta poliki-poliki, gaizki sartuta dauden muga arriak zuzenduaz ta abar, aitona sano ta paketsu askoak. Aiek iñori kalte askorik egin gabe pasa zuten, bai, beren mundualdia.

Ni zarren inguruan pozik egoten nintzan. Bai dotore itzegin oi zutela euskeraz, baserritar izkuntza garbian.

Beraiek ere, berriz, gu gazteak noiz ikusiko zai egoten ziran. Alkarrengana bildu ezkeru, laister asiko zan norbait bertso eskean edo kantatu arazi naian. Zaleak izaki ta beti entzuteko amorratzen egoten baiziran gizarajoak. Eta geu ere alaxe gozatzen giñan. Gustora beraickin.

Egia esan, zarrengandik zerbait ikasi egiten baida, ta orrek ez du iñorentzako kalterik, nere ustez. Zar jendea bera, gazte tartean dagoenean, pozik aurkitzen da geienetan. Zergatik da ori? Gazteak alaitasun geiago izaten duelako. Ulertu erreza. Arrazoi zeukatzen orretan.

Tristura berez datorkigu bakoitzari, gutxiena pentsatzen degunean. Munduko urte bakarretan edo bizitza labur onetan ez gera atsegin geiegiren jabe izan oraindaiñokoan. Aurrerantzean ez dakigu, baiña gauza aundirik ezin espero, onenera jota ere, daukagun adiñari begirutzen badiogu.

Lengo sasoiak aldegin zigun. Ura ez dago arrapatzerik geiago, ta onenbestean amaituko det gai au. Balegoke zer itzegiña oraindik, baiña ez det iñor aspertzerik nai nere letanien bidez.

SOLDADUTZA

Orain soldadutzari buruz egingo det jardunaldi bat. Ez da atzo goizeko kontua au ere, 1948'garren urteko kintoak gera ta.

Kinto lagun asko genituen mutil indartsuak. Euskalerrian plaza-gizon sonatuak, alegia. Asi aizkolarietatik eta esan nezazke batzuen izenak ere, gogoratzten zaizkidanak beintzat. Agian norbaitena aztuta utziko banu, barkatu dezaidala mesedez. Arritzekoa ez litzake izango, ugari dira ta.

Aizkolariak: Txurruka, Yurrebaso, Gartziarena, Kortaberri, Migel Zabaleta. Onen kontra jokatu omen zuen lenengo jokoa Gartziarenak. Biak Leitzako semeak. Beste gainontzekoak gipuzkoarrak.

Nik danekin tratatu det eta mutil jatorrak iduritu izan zaizkit batere zalan-tzarik gabe. Alkarren inguruan prankotan ibiliak gera udarako pestetan erriz erri, oiek aizkoran da gu bertsotan.

Arri-jasotzailleak ere baziran onak kinta berckoak: Agerre lenengoa ta Garatxabal, Azpeiti'koak, illak biak zoritxarrez. Bertsolariak, berriz, Joxe Lizaso ta ni, Lasarte. Baita ere gure kintoa da Oiartzungo Joan Mari Lekuona apaiza. Bertsolaritzari asko lagundu dio gizon onek. Eta goazen aurrera daramakigun martxan.

Soldadu joan berrian, Lizaso-ta alkarrekin ibili giñan lenengo iru illabe-tean, Iruñe'tik urrean dagoen baillara batean, Antsoaiñen. Ain zuzen, Lizaso ta ni konpañi banatakoak, baiña batalloi batekoak baigiñan.

Aipatu dedan Antsoain artan baziran bi edo iru ostatu moduko ere. Illunabarretan ordu pare bat izaten genituen libre, ta aietan arrantxo pixka egiñez bertsotan aritu bear derrigor lagunuen aginduz. Gaur baiño sasoi obea genduen, da garai onean geunden edozertarako ere.

Zalako baillaran bazan naiko tokia soldaduentzat. Orain etxe berriz dana estalia ikusten da, baiña orduan mendi gisara soil zeuden ango saillak edo terrenoak.

Guri, bolada artan, oso denborale txarrak egokitu zitzaizkigun da ikusi genituen gorriak antxe aldi batean. Esaten genduen amaika bider ez giñala toki gustagarrira joan.

Ura ere urruti zan. Inguru aietan, ez edateko eta ez aurpegia garbitzeko etzan urik aukeran. Barril zarrekin ibiltzen giñan eramaten, agai luzeari barrilla lotu ta bi lagunek punta banatatik bizkarrean artu ta segi bidean aurrera soldaduak, basoan egur-karretoan ibiltzen diran mando zarren antzera illadan jarrita. Goizetik egin bear izaten zan lan ura.

Bezperatik zotzaren bidez erabakitzen genduen, da jakiñean nortzuk joan bear zuten. Beste gaiñontzekoak lo zeudela eramaten ez bazan, gaizki sirena jotakoan. Jendea azkar altxako zan, da aurpegia garbitzeko ura falta.

Nagitasuna utzi ta egunsentian mugitzen zanak asmatzen zuen. Bestela, berandutu ezkerro, nolabaiteko ibillera korrika ta muturka, ordurako bear zan tokira iritxi eziñik.

Ura urri zalako, barrillak betetzen denbora asko joaten zan, da batzuen zai besteak antxe egon bear tripa jaten. Azkena zebillena kezketan. Etzitzaion nai baiño len elduko txanda, ta gero kontuak, lista pasatzerako urreratzen ez bazan. Sarjentoak laister artuko zion kargu, ta orrek estutzen zituen baztarrak. An agindu zorrotzak izaten baiziran.

Orrelaxeko loturak genituen Antsoain aldean. Ara joan berrian ziran guretzako egunik txarrenak. Martxa artu bitartekoak, alegia, istruzioak ikasten da abar.

Ni gaizkiena ango teorika xeblebre arek erabili ninduen. Erderaz batere jakin ez ta ez nuen askorik ikasi. Etzan ain bearrezkoa izango noski geroko bizimodurako. Andik aldegin ezkeroztik ez dit beintzat beste iñork galdetu, ta orrenbestean bearko du onuzkerro gure teorikak.

Lentxeago esan dedan bezela, nere erderarekin etzegoen osatzerik, baiña segi aurrera. Balio ez nuela-ta, ez ninduten etxera bialdu.

Alaxe genbiltzala, bandera juratu genduen. Gero, Antsoaindik mendietako mugak zaintzera eraman ginduzten, da orduan banatu giñan lagunak alkarrengandik. Lizaso ta oiek Baztan aldean serbitu zuten. Guk, berriz, Olaberrin.

Naparroako Eugitik gora joanda dago Olaberri. Oso mendi aberatsak dira alde aietan, egurrez alegia. Nik ez det oraindik beste iñun ikusi an bezelako

basorik. Nolako pagadi zoragarriak! Eskuko beatzak bezin ugari, esate baterako.

Pagolizar tantai luzeak ziran, gu soldadu egon giñan garaian. Baiña ez iñork aldatutako landareak, ezkurretik sortzen ziranak baizik. Lurra izaki nunbait artarako apraposa, eta zugaitz bakoitzak berari dagokion oianean du indarra.

Guk an zaldiak eta mandoak erabiltzen genituen egunero, larrean jan zezaten; da, aiek zaintzen genbiltzala, oartu giñan izugarrizko balorea zegoela. Begira jarri ta arritzeko modukoa.

Baiña urruti, ordea, etekin ona eskuratu al izateko. Karretajea erruz kostatzen baida. Erri inguruetako pago ta aritzak izkutatu ziran ba betirako noski. Ez da oraintxe askorik baztarretan.

Mendian pagadia gauza atsegiña izaten da. Iñoiz, eguraldi beroa egokitzean, itzalean etzan-aldi bat egiteko ere ez da gaizki etortzen. Zugaitz klase orren azpia geienetan txukun da garbi ikusiko dezue, zalea zeran orrek. Ez, piñuarena bezela, larra ta sasia gaillen da nagusi dituela.

Nik neronek egonaldi galantak egin nituen Olaberrin, zaldi ta mandoen aitzakian joanda. Batzuetan lo artu igoal udaran, freskuran. Aiek, berriz, jenez-jenez ingurutik aldegin. Da gero, esnatutakoan, abereak falta edo nun zebiltzan jakin ez, da billatzen kosta gaiñera. Larritasun latzak pasa bear alakoan.

Danak batera ibiltzen etzekiten. Banakatu egiten ziran errez, ta edozein zulotan sartu muturrez aurrera, ta gero ixtilluak. Alperkeriak eragiten zizkigun pausoak. Errezkeriak alegia.

Menditarte illun triste ura udaran ere nolabaitekoa ta aspergarri utsa zanez, pentsatu besterik ez dago dudako giroan zer izan zitekean.

Elurte mardul askoak ezagutu genituen. Urte batean beintzat, negu gogorra ta traketsa benetan. Bildurgarrizko izotzak eta jelak bata bestearen gainetik. Eten gabeko ekaitza sei illabetean gutxienez ere, gu egon giñan erreka zulo ospel zeken artan. Ango barrakoi edo txabola zarretan etzan atsegin, gauean batez ere.

Goardia edo imajinaria beti jartzen ziguten, da otzak iltzeko zorian. Bakoi-tzak iru ordu bete bear. Gorputza kapote aundi batzuen bidez dexente salbatzen zan, baiña anketatik penagarri. Nun-naitik ura barrura sartzen zitzaioten bota pobre aiekin ederki mindu giñan amaika bider.

Egunez ere, baztar ura etzuen eguzkiak ukitzen negu guztian. Udaberrian txoriak kantari asi ziranean, etzan asarre soldadu jendea.

Bigarren negurako andik aldegin genduen, da pakea. Geroztik ez diogu bisitarik egin Olaberriari. Baiña lengo ibillerak etzaizkigu aztutzen oraindik.

An bazan kantina bat, gure egontoki bakarra. Ardoa edaten bagenekigun kupida gabe. Beste nora joanik ez ta, libre giñanetan, antxe karta jokoan da abar pasatzen genduen denbora. Norabait irten nai ta ere ez baizegoen beste inun ezer alde artan.

Lenengo erria Eugi zan, da bera urruti Olaberritik, amaika kilometrora. Apartetxo, sarritan joateko. Gero, berriz, jaialdi edo ikuskizunik etzan izaten. Guk ez genduen beintzat inoiz nabaitu.

Errixka txiki oietan gauza aundirik ezin jarri. Urtean beingo pestetan da orrelaxe bilduko da an jendea, kanpotik dijoazenak eta abar.

Bestelakoan, bertako gazte geienak Iruña aldera-ta aldegingo dutela pentsatzen det nik. Ezer nai duenak, mugitu bearra dauka andik. Gaur autoak ere ugarituak daude ta len ez bezelako erreztasunak dauzkate gazteak ibilirako, ta ala komeni gaiñera. Lengo martxan ez legoke bururik jasotzerik. Aukera izan bagendu ibiliko giñanak giñan gu ere pozik.

Aparteko eginkizunik ez genduenean, sei edo zortzi euskaldun biltzen giñan, da antxe batzuetan musean da besteetan tutean ari ziraneri begira, ta alaxe denbora pasa, ardoaren adiskide egiñik.

Orduko sasoiak edukitzearren, gaur ere soldadu joan liteke. Baiña pasatarik ez dago berriro eskuratzetik, eta eziñezko gauzaren eske astea alperrikakoa dala badakigu. Nola etorri ala joan egin oi du sasoiak. Orain artean orrela gertatu da ori. Beraz, goazen aurrera, gure soldadutzaren berri eman dezagun.

Ni, nere opizioz edo lanerako moduz, perratzaillea nintzan, da ango zaldia eta mandoak perratu, ori zan nere eginkizunik nagusiena.

Estellako mutil batek laguntzen zidan bitxo aieri anketatik eldu ta eusten, nik perratzeko. Oso pizkorra ta indartsua bere izatez, ta lendik animala klase oiekin asko ibilitakoa. Oitua, berak aitortzen zidanez.

Baiña guztien bearrean aurkitzen giñan. Ainbeste aundiko abere zarrak,

batetik; eta domatu edo ezi gabekoak, bestetik. Ongi gobernatuak, lanik batere etzitzaioten eragiten, da nork errenditu? Gozoak jartzen ziran eskuetan erabiltzeko. Gaizto purrukatuak, itz batean esanda.

Nik zaldi gaiñean ibili nai, ez jinete egokia nintzalako, baiña apizio uraxe izaki; ta artarako zerbaiten aitzakia bear.

Egun batez gogoratzen naiz. Kapitanaren zaldia perratu nuenean, montura edo bizkar gaiñekorik batere jarri gabe, muturreko lazoarekin bakarrik, igo naiz gaiñera, ta berebiziko laukoan joan kamioan gora. Ta jira eman da banator bera, ta kapitanak ikusi. Gelditu arazi ta kargu artu zidan ea zer nenbillen, aren baimenik gabe.

Orduan erantzun nion barkatzeko; zaldiak, perratu ta segituan, ibillaldi bat oso ona zuela, anketan perrak asentatzeko.

Ta esan zuen, ori orrela baldin bazan, ongi egin nuela; ta urrengoan ere erabiltzeko, baiña perratzen nuenean. Bestelakoan kontu izateko.

Zaldi ta beorrek gozoak dira geientsuenak. Baiña mando ganadua gogorra ta bildurgarria jeneralean. Ukulluan bertan ere ikusgarri politak. Naikoa du batek arratoiren bat somatu duela edo beste zerbaiten otsa entzutea. Edozein uskerirekin asiko zaio ondoan daukanari ostikoka; ta bereala danak alkar txikitu bearrean, garraxia ta zalaparta ugari. Nork gozatu, asarretzen diranean, aiek? Sarritan ikusi genituen ango eskamillak.

Aparteko barrakoi edo txabola batean egoten ziran abercak, gauez soldaduak goardian zituztela antxe txandaka. Nik iñoiz teatro xelebreak antolatzen nituen mando ostikolari negargarri batekin. Aski zan makilla luzearen bidez ipurdian pixka bat ukitzea. Andik aurrera entzungo zenduen czur ots ederrik. Aldemenekoak artuko zituzten epelak, bai berak ere.

Animali gozakaitzak, egundaiño alkarrekin konfiantzarik ez dutenak. Zenbat eta on geiago egin, orduan da okerrago. Pertsonik ere ez dute errespetatzen. Itzez ulertu ezin da egurra astindu bear derrigor. Baiña artan ere kontuz asi. Aurretik edo saietsetik atze aldera arrimatzen bazera, bateonbatek laixter emango dizkizu goraintziak. Aien jokabideak zer ziran, nere kasa parrez egon izan nintzan iñoiz.

Len genion bezela, zaldi, beor da oiek askoz umillagoak dira. Otxanagoak, alegia. Eskuetan erabiltzeko alde ikaragarria dute. Zirkoetan begira jartzen zeran orrek, zaldi ta beorrek ikusiko dituzu. Mandorik ez, ordea, sekulan. Ortik



Manuel Lasarte, gaztetan.

pentsatu zer alaja izan litezkean: setoso amorratuak eta iñori beldurrik ez dioten kankaillu utsak.

Mendian edo basoan lana egiten duten mandazaiak kontaktzen dituzte ixtori politak. Zenbat ernegazio paseak ote dira gizarajoak? Nunbait ogia irabazi nai, ta pobrearen suertea orrelaxe izaki, ta etsi-etsian segi eguneroko martxan.

Mandazaiak etzuten oporraldirik bein ere artuko, guk ezagutu genituenak, gaixoren bat arrapatu-ezean edo elurte aundiren batek bideak itxita gelditzen ez baziran. Jai ta aste atsedenic gabeko bizimodu estua zan beraiena, ta guk ere alamoduzko tokian bete genduen zalako soldadutza ura, bitxo gaiztoren tartean, abereak gobernatzen.

Neke izugarririk etzan izaten. Pentsua ta lastoa eman da kito. Garbiketa zaillagoa askoz ere. Egunero zepillatu egin bear, zaldiak bezela, mandoak; eta txukun eduki. Noizean bein makillarekin kentzen genizkien bizkarreko autsak, zartada batzuek emanda geldirik egon ezin ziraneri.

Orrelaxe, bapo pasa genduen ango denbora-aldia. Adin ona gendukan, osasuna ere bai orduan beintzat, lagun konfiantzakoak, kezkarik oso gutxi ta lotsarik ere geiegi ez, ta nun-nai lasai ibiltzeko alderdirik onenak geurekin genituen.

Garai artan, kapitan zar bat bazan. Burgos aldekoa zala uste det bere izatez, guk jakin al izan genduenez. Ta arek kantinan ardoz sarritan konbidatu ginduzen gu. Beti euskaldunetara bildu oi zan.

Euskalerria gustatzen omen zitzaion asko, ta emengo soldaduak oso onak zirala aitortzen zuen. Mutil sanoak eta biotz aundikoak. Berrogei ta amar urte zeramazkiela militar, da ongi ezagutu zuela euskaldun jendea. Makiña bat erabiliko zituen bere mendean.

Guretzako etzan gizon aldrebesa. Arek, soldaduren bat kastigatzeko, motibo gogorra beariko zuen. Oietan ere danak ez dira berdiñak. Badago alde ederra batetik bestera. Emen bakoitza jaiotzen dan bezelakoa da. Orretan ez nuke dudarik jarriko. Pertsonaren griñak ez dira aldatuko ikasketak egin arren. Agian pixka bat disimulatu bai.

Beraz, soldadutzaren gaia degu esku artean. Egunik onentxoena antxe igaro nituen nik. Alegia esan nai nuke onekin: lan gutxirekin da gorputza beartzeko moduko nekerik gabe ta deskantsuan edo atsedenean, da orixe zan ongi zetorkiguna. Lasaitasunak mesede egin oi du.

Bestela, gosea pranko pasa bear izan genduela ez dago ukatzerik, alamo-
duzko urteak ziran da. Guk, berriz, dirua urri zerbait erosi ta alimentzatzeko.
Orrekin kontu estuak. Baiña ala ta guztiz ere, sasoi bikaiña ta umore ona
genituen geurekin pozgarri. Arako geienbat balio zutenak, beste noranaiko
bezelaxe. Bi gauza izatekotan, ederrenak noski.

Egun batez egin genduenarekin ez naiz aztutzen oraindik ere, urte saila
joan arren. Aste Santua zan, ain zuzen. Lau soldadu giñan alkarrekin, jaiak
pasatzera etxe aldera gentozenak.

Arratsalde beranduan irten Olaberritik, eta Iruñen trena galdu ta bertan
gelditu bearrean aurkitu. Etzegoen beste jokabiderik. Urrengo goizean sei
erdietan gendukan lenengo trena Donosti alderako. Estazioan esan ziguten ori,
seguru jakiteko galdetzera joan baigiñan.

Alaxe, lotarako tokia nai ta jo genduen Plaza Castillo ingurura. An sartu
giñan bodega batera, zerbait jan da edateko garaia zala ta.

Ez giñan bakarrik. Soldaduak ugari zeuden an ere. Afari izeneko bat
aukeratu ta eskatu genion an zebillen neskaxari, ta erakutsi zigun nun eseri.

Aren ondoren, ea lo egiteko tokirik bai al zeukatzen. Da baietz; bi oi
bazeudela libre. Naikoak ziran guretzako. Ez gendukan binaka lo egin eziñik.

–Orain dana zuzendua zegok eta etzeukagu presaka ibili bearrik batere.

Alako batean joan giñan ba oera, ta gure lagun batek bezperan artua zuen
etxetik bialdutako paketea. Gazta aundia ta ogi borobilla zeramazkien morra-
lean. Ardoa ere bagenduen biderako eresia, goizean etxerakoan trenean gosalt-
zeko asmoan. Izan ere, garai artan jango genituen guk mandoaren perrak ere
noski. Ura zan antsia! Goseak ez dula txantxarrik esan oi da, ta orixe egia.

Lentxeago nion bezela, oeratu arren, danok gela batean da kontua ta
berriketa galanki, ta lo egiteko modurik ez. Ixildu ezin. Orduak aurrera bazijo-
zen da batek onela dio:

–Emengo gazta-usaiarekin lo artzen ez dek errez, mutillak.

Arrazoi zeukala erantzun guk, eta laixter erabaki zan segituan jatea ohea
zala. Ta altxa oetik laurok, eta antxe gelan bertan jan genduen gazta osoa, ta
ogia ere garbitu. Ardoa, berriz, zer esanik ez.

Bapo arindu zitzaion lagunari morralla, ta joan giñan goizeko trenera.

Jendeak etzuen ipurdiko otzik eraman, arranek ezik. Gau bateko loarengatik etzizun guri ajola aundirik. Sasoi betean baigunden.

Lan gutxi egiten zan an, Olaberrin. Baiña ordaintzen ziguten soldatarentzat naikoa.

Batzuetan ibili izan giñan, fuboleko kanpo berria antolatzeko edo pareta zarrak konpontzeko, errekatik arria atera ta bizkarka eramaten bear zan lekura. Baiña bizkarrean min izugarria ematen zigun, al zan arririk txikiena artuta ere, ta pausoa mantxo, gogorik gabekoa. Iñork golperik jo nai ez. Ori zan gure gaitza.

Baiña alare, askoren artean mordoxka osatzen eguna pasatzerako. Txingurrien antzera pilla bildu. Artantxe ari giñala, exeri ta egonaldiak egiten genituen boladatan, da etzizuten ezer esaten. Nola ba, agintzen zutenak gu baiño askoz ere alperragoak baiziran? Txutik zeudela nekatzen aiek.

Euskaldunak –mutil indartsuak tarteka– berebiziko arri zarrak bizkarrean artzen zituzten, da ofizialak arriturik egoten ziran aieri begira, nolatan egin zitezkean alako astakeriak esancz. Gatza zeukana nabarmena zan an ere, ta asko istimatzen zuten ori agintariak.

Gero, illunabarrean, bi edo iru ordu libreak beti genduzkan, zerbait jan edo edateko, nai genduenak. Dirua zeukana kantinara joango zan. Poltxikoa zimur antzean erabiltzen zuena, berriz, etxekoeri edo andregaiari kartaren bat idaztera. Bestela, paseatzera, gosez amorrutzen.

Orrelakoak ugari samar izaki, ta beraiek etzuten gutxi suprituko gizarajoak. Noizean beingo utsaldia bezela ez da eguneroko eskasia. Aiek artuko zituzten pozik pakete eder batzuk, eta jiroak ere berdin, obe gaiñera, eskutitzak baiño. Oiek gauza legorrak baidira.

Etxe aldeko berriak jakitea ona zan. Baiña bai ardo pixka batekin ogi bitarteko bat jatea ere, gogoia dagoenean, ongi dakigunez. Gertatzen dana da, ezin litekenean alperrik eskatzea dala, ta kito.

Guk geronek ez genduen diru aukera izugarririk. Ez daukagu besterik zer esan aundirik gai orretan.

Antxe, illunabarreko arrantxoa egiteko, txanponak sortu eziñez ibiltzen giñan; da iñundik ogirik eskuratu ezkeru, sardiña ta antxoa latakoak kantinan salgai egoten ziran da gure jokabidea onelaxe zan: goizean bollo txiki bana

ematen ziguten egun guztirako, ta ura arratsalderako gordetzen genduen, diodan antxoia edo sardiñekin jateko.

Bost edo sei soldaduren artean iru bat botilla ardo ustuko genituen errez. Lau igoal. Ardo itxurazkoa eramaten zuten Iruñe aldetik, ori bai, ta berak etzuen alimentu makala guretzako. Aretzek eutsi zigula bizirik pentsatu izan det nik prankotan, paraje pobre artan.

Gaiñontzean, berriz, andik ezin zitekean iñora irten, ala nai ta ere. Oso mendi bakartia nola zan, etzan joaten autobusik. Bestelako kotxerik ere ez.

Goarda etxe bat zegoen, da an gizonetzko bakarria agertzen zan bere serbiziara. Ortik aparte, baso lanean ari ziranen batzuk ikusiko ziran noiz edo noiz.

Udazkenean, uso garaian, bai. Orduantxe eiztariak ugari antzean. Emen, Gipuzkoa aldetik-eta, askok bisitatzen zituzten mendi aiek. Baita uso mordo galantak ekarri ere. Autoak beteta etortzen ziran. Uso leku zoragarriak bearko zuten izan derrigor. Baiña askorentzako ezezagunak. Bestela, eiztari geiago inguratuko zalakoan nago.

Oraingo berririk ez nuke emango, ez dakit eta. Gu an egon giñan garaian, asi goizean da egun osoan eten gabe nabaitzen genduen usoa pasa ta pasa. Neurtu ezindako zoramena apizioa duenarentzako.

Gero, berriz, beste gauza bat oso ona bazan baso aietan: pagadi ikaragarriak; eta bertan gelditzen ziran, gauean atsedentzeko alegia. Bearrezkoa baidute deskantsua, bide luzean egan nekatuta datozenean.

Ortaz gaiñera, zugaiztietan ezkurra aurkitzen, beraien gustoko jeneroa. Usoa ezkur zale amorratua dala entzun izan det nik sarritan eiztari zarrengandik. Janaldi aundiak egiten omen ditu noski. Biderako alimentua premizko gauza izaki, ta baso edo mendi soilletan billatzerik ez.

Orixe gertatzen da urte auetan tokirik geienetan. Pagadi ta ariztiak galdu ziranetik, asegarria falta, ta gordelekuak ere bai. Argatik uso gutxi pasatzen da emendik.

Baiña bistaratzen diran banakak entzuten dituzte tiro ots ederrak. Gaur dauden eskopetak badute indarra ta gatza. Muniziotan kastu galanta laixter egin liteke. Oiekin kartutxo on samarrak galesti joko dutela derizkiot. Baiña bakoi-tzak bere apizioa.

Goizean goiz jeiki oetik eta mendian ibillaldi bat egiteko aitzaki oberik

aurkitzen ez da errez, ta bide batez izerdia atera sendo, gorputza saneatu ta freskatzeko.

Ori baiño oitura eskasagoak badauzkagu gure artean, begira jartzen bagera. Uso asko ilko ez badira ere, denbora pasa beintzat, nork bere gustora. Ta zerbait galdetu edo jakin nai duenari, berriz, gezurra esan litzaioke lasai, lotsatu ezean. Orrela baizan lengo eiztari zarren jokabidea, ta ori galtzea lastima litzake.

Asko ezagutzen ditugu, urte guztian uso garaia noiz iritxiko zai egoten diranak, artantxe egun batzuk pozik pasatzeko. Gogoa bear du, beste edozertarako bezelaxe. Badira gizonak, urteko oporraldiak udazkenean artzen dituztenak. Jakiña dago zergatik.

Eiztari baten arrazoia: menditik etxera zetorrela, uso bakarra gerritik bera zintzilik omen zekarren, da norbaitek galdetu dio:

–Asko pasa al dituk?

Eta erantzuna:

–Bai. Au ez beste gaiñontzeko danak.

Ateraldi polita. Nik neronek ez det egundaiño eskopetarik eduki nere mende. Olaberrin baziran soldaduak, eizerako irrikitzen egoten ziranak, «Au dek giroa usotarako!» esanez.

Aiena ere nabarmen zegoen zerk ematen zioten tentazioa, ez da arritzekoa ta.

Guk, geure eginkizuna bete ondoren, pozik aldegin genduen alde aietatik. Etzitzaigun nai baiño len iritxi, espero zan egun libre uraxe. Ongi eraman zuela jendeak ango gora-bera badakigu. Baiña soldadutza bukatu zala ta etxeratzeko moduan giñala adierazi zigutenean, ez giñan asarre.

Illunabar zoriotsu batean artu zan abiso gogoangarri ura. Biaramon goizean autoa jarriko zitzaigula Iruñeraiño joateko, ta geuk ikusteko andik aurre-rakoan nola moldatu.

Pozik entzun genituen itz goxo aiek. Ez gendukan belarrietan gorreririk. Askatasuna gauza atsegiña baida. Ori eskatzen du mundu guztiak.

Gero, gaua, berriz, ortik onerakoa. Giro zan gurekin kantina aldean. Soldadu erropak entregatuta jarri giñanean, an etzan kantatzen etzuen txoririk.

Ura zalaparta! Danok saltoka baztarrak txikitu bearrean. Lo egiteko etzegoen astirik. Ala ere, urrengo goizean, iñork etzigun antzik emango arratsa zertan pasa genduen.

Andik abiatu ta etxera gentozela maleta zarrak artuta, geure buruaren jabe giñala pentsatuaz kontentu, loteri aundi bat irten balitzaigu bezela.

Al zanik azkarrena, eguerdirako Tolosara. Or bazkaldu ta berezi giñan lagunak alkarrengandik. Orduantxe gu baiño aberatsagorik ez dakit nor izan zitekean. Dirurik ez gendukan, baiña pozak aberasten du pertsona.

Ni neroni aurretik bizimoduz kezkatzen asia nintzan, da beste geiago cre ala egongo ziran igoal. Emen bakoitzak bereari begiratzen dio.

Beraz, ontantxe bukatzen dira nere soldadutzaren gora-berak.

ZARAUTZ

Une beretik ckin nion geroztikako bizitzaren arazoeri aurpegi ematen. Lenengo, etxekoeri laguntzen aritu bear izan nuen denbora-alditxoan, nere martxa zuzendu bitartean. Ni ez bainintzan bertarako, ta beste nunbait neukan ogia irabazi bearra, ta Zarautzen antolatu, ain zuzen, perratokia. Ez kostá gabe.

Lengo perratzaillc zarra zan kontra jarri zitzaidana, ta baimenik ezin esku-ratu. Baiña lortu ura ere azkenerako, ta batere segurantzirik gabeko estalpe batean asi lanean, aukerako lekurik iñun etzegoen da al zan bezela. Pobreari sarrítan gertatzen zaiona.

Nunbait txabola berria egitea pentsatuta ere, dirua Bankuan egongo zan, baiña nererik ez.

Gero, ortik aparte, egia aitortzekotan, kalean edozein lekutan perratokia jartzen etzuten ametitzen agintariak, nola langintza zikin samarra zan erri barrurako ta. Ganaduak zebiltzan tokietan narraskeria beti gelditzen baizan: ximaurre ta lokatza. Orrelako gauzak errixka txikietan errez pasatzen dira. Baiña aundi oietan geiago begiratzen diote.

Kanpotar jendea, udaran beintzat, asko ibiltzen zan orduan ere Zarautzen, da ixkiñak garbi edo txukun antzean eduki naiko zituzten, arrazoiarekin noski.

Orrek, berriz, puntu erosoan, edo gutxienez ere bide-cran beintzat, nai luke, lana ugari inguratzeko. Baserritarrak beraiek ala esan oi zuten: ganaduekin lasai antzean ibili al izateko moduan komeni zala ori.

Itxurazko gauza da, nere ustez. Zenbait idi, edo beiak berdín da, etxetik urrutira gutxitan irten ezkeró, zakar jarriko zaizkizu, ta kontuz aien ondoan, asarretzen diranean.

Zarautzen bada pasonibela edo, obeki adierazteko, trenaren burnibidea, Azken-Portu inguruan. An pasatzerakoan izutzen ziran animaliak, perrak zeuzkatenak batez ere. Raillac ukitu ezkeró, anketan kalanbrea ematen zioten, da izugarrizko saltoak egiten zituzten. Etzuten ara arrimatu nai izaten ezerengatik.

Oso apartetik artuko zuten usaia nora zijoazen, da nork eramane aiek alde artara? Bildurrez aidean, pausorik eman nai ezik.

Ganaduak, izketan jakin ez arren, buru argia baidu, ta ezagutzen lendik bide ura ongi. Alegia, zer gertatzen zan. Da beti igesika, ezertarako konfiantzarik gabe, lasaitasuna erabat galduta.

Asko supritzen zutela bistan dago. Ez beraiek bakarrik; baita itzai zebiltzarenak ere. Danak gaizki ta penagarri. Inora joateko segurantzi gutxi zegoen aiekin. Bein artaraino ezeztatzean, edozein uskerirekin bere onetik atera liteke ganadua, ta ark ez du andik aurrerakoan pentsamentu onik erabiltzen beregan.

Gero, berriz, auto, motor ta orrelakoen ota edo burundara entzunda, kalte belarrietan sartzen zaiote, ta asko estutzen dira lenez gainera. Ta begietan lausoa edo gandu bat jarri ta akabo. Ez dute ezer errespetatzen geiago. Baten tokian bi igoal ikusi; ta bi ikusi bear lirakenean, bat ere ez. Itxutu, inozotu, odolak irakin da jenioz txartu. Inork errenditu ezin. Orduan ez dute jakiten zer egin.

Aiekin dabillen itzaiak pasatzen ditu senperrak. Norabait enkarguren batera joan bearrean aurkitzen bada ta ganaduak bakarrik uzten baditu kalean, beren nagusia falta dala konturatzen diranean, gozoak jartzen dira. Giro izaten da aiekin. Edozertarako kapaz.

Berdin asi litezke saltoka ta lauokan korrika igesi. Uztarrian lotuta egon arren, ederki artzen dute alkar. Asmatu ere bai batera ibiltzen, beren gurdi zarra atzetik dutela, kurpillen gainean edo bestela arrastaka. Baiña jeneralean etxe aldera joko dute. Orretan sena aundikoak dira bitxo oiek.

Sarritan, toki arrotzean nastuta, burutik eginda bezela gelditzen. Orixe gertatzen zaiote, ta begiratzeko talenturik ez nundik nora dabiltzan. Inork ez badu aurea itxi edo neurririk artzen, an joan bearke du itzaiak atzetik bakarrik.

Gu orrelako jirak prankotan ikusiak gainan len. Orain kale aldean urri nabaitzen ditugu uztarriko ganaduak, proba idi edo oietakoren batzuk izan ezeean. Baserririk geientsuenean ere, gaur tratore ta orrelako tresnak dauzkate. Beste molde batean saiatzen dirala badakigu lanean. Ala ere naikoa sortuko zaiote. Bai noski. Beso indarra falta baida. Etxe askotan jende eskasia dago.

Beste bat perratokia da ganaduak begiz ikusi nai izaten ez duena. Gorroto izugarria dio orreri. Bein baiño geiagotan gertatu zitzaigun: baserrietan danentzako zer egiña sortzen, da indarreko jendea bertan geldituta, mutil koskorren

bat bialdu perratokira, idia edo beia atzetik traillan zuela. Ta ate ondoraiño ongi eraman, da andik aldegin gaztetxoari eskuetatik, konturatu edo antzeman zion garaian zertara zeraman.

Gero korrika saio galanta egin bear ura arrapatzeko. Ta onez-onean artu ta gelditzen bazitzaion, kontentu. Bestela, gogorkeritik etzegoen ezer, batez ere idi kankaillu zar aundi aiekin. Txukunak jartzen ziran. Auntza baiño ere seto-soago batzuk, odol bero samarra zutenak beintzat. Danak berdiñak izan ez arren, bazioten arrabi bat perratokiari.

Adarretatik soka erantsita, belarria beregana lotu lazoan edo soka lasterrear, da tira aurretik indarrean. Estutzean, belarrian min ematen zioten, da orduantxe umildu arazitzen genituen pixka bat derrigorrean, da barrura, ez gogotsu baiña. Aientzako loturarik onena uraxe izaki.

Isatsa bigurritzea ere ez da txarra. Atze aldean kontuz ibili bear, ala asarre dabillen ganaduaren inguruan. ostikoren bat artu nai ez badezu. Zenbait zitalek, pentsatzen luzaro egon gabe, emango dizu, artaraiño amorrazita dagoenean edozertara jo lezake ta.

Ain bigurriak oso banaka dirala badakigu, ta bat ere ez izatea ohea. Gozakaitzak eta traketsak eskuetan erabiltzeko jartzen baidira benetan.

Gero, berriz, perratzeko denboran, tratu latzak jasotzen dituzte, an gogor lotuta daudela, indarka lertu zorian ari dirala, sarritan anka zuztarrak danak urratu ta odoltzeraiño. Aiek il edo bizi jotzen dute, ta txikituta gelditu erabat, egun saillerako mugitu eziñik.

Iñoiz erniatu edo eten, da geiago ezertarako balio ez ta aragitara kendu bear. Orrelako kasoak entzun gabeak ez giñan. Neuri etzitzaidan bein ere gertatu, baiña baserritarrengandik jakin izan nituen kontu xebreak.

Zergatik ote zan? Nere iritiz, perratzaille batzuek ganadua gogorregi lotu oi zutelako perratokian jasotakoan, da ortxe zegoen oker guztia.

Atzeko anka biak batera lotu litzaizkioke, ta aurreko beso bat. Bestea libre utzi, ta txandaka erantsi edo josi besoetako perrak. Ala erabili ezker, ez du eten edo erniatzeko arrixkurik. Bestela, lau anketan lotuta dagoen ganaduak, bere gorputza ikaragarri beartzen du indarka ari dala, ta antxe galdu liteke betirako.

Gero, berriz, ortik aparte ere badago beste gora-bera bat. Azkazal txa-

rretakoa baldin bada, berez ganadu batzuk izaten diran bezela, perratzen denbora geiago joaten da. Perrak ajustatzen da josten ere bai; eta egonarri eskasekoa edo ibilkaria bada, beretzako kalte.

Badira sei perrarekin ongi ibiltzen diranak. Baita ere derrigor zortzi bear dituztenak. Ara or zer alde dagoen batetik bestera. Zortzi perra eskatzen dituenak, garbi adierazten du azkazal maxkalak dituela. Orretan ez det dudarik. Gauza oien berri jakiteko aiña motibo badegu, klase askotakoak ikusi genituen da.

Orixe baizan gaztetako gure opizioa. Asko saiatu bear du bere itxura batean lana egitekotan. Denborak errez aldegin oi dio gizon bakarrari; ta bitartean, lentxeago genion gisan, ganadu ibilkariak pasada latza artu lezake.

Juntura danetatik askatuta gelditzen baida perratokitik jetxitakoan. Txutik egon ezin dala, makillaz ebakita bezela, pausorik eman nai ezik, anak nola mugitu ez dakiela, ezur guztietako miñez. Urrengo egun batzuetan ezagun izango du, bai, ederki alakoak.

Perraketako langintza, berriz, nekoso utsa ta zikiña da berez oso, askok usteko duten aldean. Belauniko edo kuxkurtuta, beti era txarrean jardun bear izaten du orretan ariko danak. Presaka gaiñera. Jakiña, al danik azkarrena kendu nai ganadua perratokitik, eta kontuak.

Goizean goiz asi ta egun osoan artan segi ezkerero, gauerako ederki makaldu edo otxanduta gelditzen da gizona. Ez du jolaserako gogo aundirik eramango etxe aldera, arranek ezik.

Neri beti gustatu izan zitzaidana auxe zan: ganadua anketatik al zanik gozoena uztea.

Orretarako, perrak ongi ajustatu bear zaizkio. Ez estuegi ta gogor josi. Bestela arrisku izugarria du errendu ta egun saillerako gaizki gelditzeko. Ta ortik datoz okerrak sarritan, batez ere perrak galdua lanean erabili ezkerero. Erabat minberatzen baidira, azkazalak gastatzean.

Alakoan kontuz ez badabil perrak jartzen ari dana, laister ikusiko du ganadua, perratokitik askatu ordurako, ankarik lurrari erantsi ezin diola.

Arentzat sendagairik onentxoena esango det zer dan: gatza sendo bota edo nastu urari, eta arekin busti anak egunean bi edo iru aldiz, eta uztarrian lotu gabe eduki deskantsuan.

Denbora gutxiren barruan oberakorik ez bazaio ikusten, eraman berriro perratzaillearengana. Odol jetxia izango du dudarik gabe, eta perra askatu, azpitik azkazala metu ta lantzetarekin zulo txiki bat egingo dio, odola lasai bota dezan. Da, arintzen danean, erida garbitu zerbaitekin, erre bigungarria jarri ta perra josi. Baiña goxo antzean, miñik eman ez dezaion, da segituan asiko da mejoratzen.

Ori idi ganaduari gertatzen zaiona da jeneralean, da arretaren falta baserri-tarraren baitan dagoena. Bein perrak galdu zorian dauzkala oartu ezker, al danik azkarren bear ditu berriak.

Ala, konfiantza osoan ariko da perratzaillea lanean, da bere itxuran egin ere bai gauzak.

Ukullutik ateratzen ez diran beiak ere badakite errentzen batzuetan, batez ere ormigoiairen gaiñean daudenak, porlan masa txarra baida anketarako. Umedade aundia duenez, azkazalak beratu ta pipiak egurra bezelaxe jaten dizkio ganaduari.

Len, garai batean, arrizko galtzada edo losak izan oi ziran ukulluetan. Aiek bai sanoak. Geroago, berriz, egurrezko parrillak ikusi nituen toki askotan. Orain ez dakit nolakoak egon litezkean.

Gaur esne-beiak eta zekor edo txalak kanpo librean janez dabiltzanak nabaitzen ditugu, ta gaitz gutxiago arrapatzen omen dute orrela noski.

Beste bat ganaduari lata gaiztoa ematen diona, zibela da. Anka orpoan sortzen zaio ori. Konturatutakoan, enplasto beroa jarri ta gaiñetik bendaz edo zapi garbiz lotu ezker, uraxe egokiena. Bereala gozatu oi dio, ta kolorean antzematen zaio. Errez oritu egiten da, ta orduan eskuekin estutzea naikoa da kanpora ateratzeko. Orpo aldean zulo galanta utziko du, baiña segituan sendatzen da ganadua.

Beste bat, iltze-joa txarra, perratzaillearen deskuidoakoa, noizean bein.

Len esan bezela, azken urteetan urritu zaizkiote, bai, perratzailleeri nekeak. Nik neronek aspaldi utzi nuen langintza ori, ta galera izugarririk ez, asmatu baizik. Ortik etorkizun eskasa zegoela konturatu bainintzan. Jornal juxtua irabazteko, asko penatu bear da.

Bizimodu estua, edo neurtua alegia, ezagutu genduen, mutil gazteak giñan garaian. Lengo perratzaille zarrak, amaika lan egindako gizonak. Aiek ikusiko



Manuel Lasarte bere errementerian.

balute gaurko jira, zer pentsatuko ote luteke? Etenik gabeko aztarrika batean aritu ziran aitona zintzoak. Gerri aldeak eta eskuak okertzeraino nekeak erasan zioten.

Gurasoak kopeta izerdiz ongi bustiaz eskuratuko zuten eguneroko ogia. Guk ere alaxe egin degu. Ta onez aurrera emen martxa onetan jarraitu bear bada, alperrik dirala esango nuke perratzaille ta gainontzekoak.

Eskulanak galdu zaizkigu zearo. Zail izango da berriro gauzak lenera biurtzen. Ez da komeniko ere noski. Oraingo bizitzari dagokion eran segi bearrean gaude, ikusten degunez, itxaropentsu gainera al badegu, xamurra ez bada ere. Bestela, ezin genezake inoiz bururik jaso.

Gu mutil koskorrak giñan denboran, ganaduz baliatzen ziran baserritarrak, udaberrian lurak lantzen, udaran mendi belarrak etxeraten, da abar.

Baiña oietaz aparte, udazkena beste bat ortik onerakoa. Esplikatzerik al dago? Basoetako orbel, garo ta oiek bildu ta etxe ingurura eramaterakoan, urte guztiko ganaduen azpigarria osatu arte etzegoen txantxarik.

Gero, berriz, sagar biltzeak eta ainbat lan garai berean egokitzen ziran, da orduan baserrietara etzegoen kamiorik edo pistarik; gurdibideak bakarrik. Eta, sagastian sagarrak bildutakoan, gurdia bete ta ganaduekin eraman bear izaten zituzten kamiora, kargalekura, sagar erostunak auto kargakoak artu ta joaten baiziran billa, edo sagarrak jasotzera alegia. Ta aurretik gertu jartzen edo prestatzen estu ta presa.

Lan danak batera ezin egin da larri asko jendea izan oi zan baztarretan. Aida otsa ta gurdi txistua ugari. Eten gabeko zalaparta. Izan ere, lengo gurdi zorrotz aiek urrutira entzuteko moduko zaratak ateratzen zekiten, bidean zijoa-zenean. Egurrezko ardatza, txiñalak ere bai, ta berotzen ziran garaian, su artzeko zorian, izugarrizko otsak. Oso nabarmenak izaki.

Baiña lan guztiak aien bidez egin bear. Artean inun etzan beste tresnarik, alde auetan beintzat.

Aia inguru orretan, sagarra bildurgarri artzen zuten. Alaxe gobernatu ere sagastiak. Urtero ipurdiak garbitu, ximaurra galanki bota, miurak kendu ta abar. Kaso eginda irauten gauza bakoitzak.

Orain urrituak daude. Jendea falta da. Gazteak kanpoan dabilta lanean, da orrela ez dago sagastiak eta baserriak ongi zaintzerik inolaz ere.

Laboregintzari ere utzi samartu diote geientsuenak. Len lantzen ziran lurretan, gaur belarra edo janaria egiten da ganaduentzako. Nik baiño obekiago jakingo dute beraiek zertan ari diran, da ez daukat iñori ezer erakutsi bearrik.

Udazkenean len bezelako borrokarik ez dute erabiliko seguru asko. Oraingoz aragira ta esnera jotzen du jendeak, etorkizunik onentxoena ortik egongo da ta.

Len garia ere, esate baterako, baserri guztietan artu oi zan. Batzuetan asko, besteetan gutxixeago, baiña danak egin ori. Udazkeneko azaroko illean erein bear izaten du, ta arazo guztiak bata bestearen gainean ziran baserrirako. Erabiltzen zuten naiko zer egiña ta kezka gizarajoak.

Perratzailleak ere ederki osatu lanez bolada gogor artan. Urte garai neke-tsua. Goizean, eguna zabaldu baiño len joango ziran bakarren batzuk txanda artzera, ganadueri perratu pasada eman da berriz al zutenik azkarrena inguratzeko asmoan etxe aldera, bakoitza bere saillera. Denborak neurtuak edukitzen zituzten.

Lentxeago genion antzera, goizean, eguna argitzerako, iñoiz feri plazak ikusten diran bezela egoten ziran perratoki inguruak, ganaduz beteta. Batek presa ta besteak ere bai, antxe danak korrika.

Sarritan, asi perraketan gero gosaltzekotan, da eguerdira arte baraurik jardun oi giñan, iñor zai aspertu etzedin.

Gero, arratsaldean, berriz, alerik ez igoal. Batzuetan geiegi ta urrengoan bat ere ez, gora-bera aundiak zituen langintza.

Zarautzen bakarrik aritu nintzan. Ez nuen laguntzailerik, eta motz gelditzen da gizon bakarra edozer lanetan ere. Arek batena egin lezake; geiagorik ez. Ta goizetik nekearen mendean jarri ezkeru, gosari txarra edo berandukoa seguru samar.

Perratokietan orrelaxeko boladak erabiltzen genituen prankotan: altu-baju izugarriak.

Ganaduak perratan pikardirik geiena soroan edo alorrean lur lantzen dabillean egin izan du. Lur konpontzeko garaian, alegia. Goldez edo laiez jira ta gero, gainetik arearekin xeetu, gozatu ta prestatu azia erciteko. Garia, arto, babarrun, patata edo beste edozer klase izanda ere, berdin zion.

Orretarako ziran golde, are, laiak eta ainbat tresna, gaur oso atzenduta

daudenak. Inun ez dira ikusten. Ezkutatuak dira. Asko txatarretara botoak edo salduak merke asko, ezertarako balio etzutelakoan.

Txatarreroak kendu zioten zumoa, utsean erosten baizituzten. Baserritarak preziorik jakin ez ta besteak aprobetxatu dotore. Betiko leloa. Ori ona da jendeari begiak zabaldu arazteko.

Lurra maneatzeko apartak ziran lengo xixtimak. Denbora asko bear, orixe gertatzen zan aiekin. Saillik ezin pasa ta antxe jira ta buelta. Eskerrak alaxe oituta zeudenari. Argatik jarraitzen zuten, ezeren ezpairik gabe, leial, nekazari jatorrak.

Adierazi nai nuena auxe zan: uztarriko ganaduak perratan gastu aundia dutela soro lanean. Ori orrela da, ta zergatik errez ulertu liteke.

Lur bigunean askoz ere pauso luzeagoa emango du idiak, eta beiak berdín, batez ere zoia austerakoan arearekin tiraka dabillenean; da atzeko anka muturrekin aurrekoak arrapatzen ditu, ta besoetako perrak atera, azkar gaiñera sarritan.

Azkazal pusketa ederrak kendu ere bai perrekin batera, ta gero giro izaten da an berriro perrak josten. Oso kontuz jardun bearreko lana da, ta arrixkutsua. Iltze-joren bat egin edo orrelako zerbaitekin, ganadua errentzeko ta gaixotzeko ezer gutxi aski da askotan.

Somatu ditugun gauzak dira oiek. Ez, denbora pasa pentsatu utsez esanda-koak. Iltze-jo ori da, perra josterakoan, iltzeak ermamian edo aragi bizian ukitu ezkeru gertatzen dan okerra. Azkazal onak dauzkanean, nekez deskuidatu oi da artan oituta dagoena, zabarkeriren baten bidez ez bada beintzat.

Ortik aparte, bideak nolakoak diran ere kontuan artu bear litzake. Toki txarretan ondatzen dituzte animala oiek anka orduz len, da andik aurrera gaizki ibili bear, egunero uztarria buru gaiñean darabilkitenak batez ere. Ukulluan egon besterik ez duenari, ez dio ajola. Ura ez baida beartzen anketatik.

Nik, al nuen guztian, aurrez moldatzen nituen perrak, ezagututa neuzkan batzuentzako. Ta gero, bearra zan garaian, ongi etortzen zitzaizkidan.

Gcienetan, fabrikan egindakoak usatzen genituen. Jeneralean, eskuz konpontzen genduena ere, andik ekarritakoa izaten zan. Txapa moldean ebakia. *Perra-kortea* deitzen zitzaion ari. Lan asko ematen zuen ongi bukatzen. Baiña zenbait ganadurentzat perra ona gelditzen zan oso. Fabrikan bertan eginda

bialtzen zigutena baiño askoz ere ohea, nere gustorako beintzat. Errezago ajustatzen baizan.

Artan ari danak antzematen dio ta jakiten du zeñi zer komeni zaion gutxi gora-bera. Ongi asentatzen dan perra, axalago josita ere an ibiltzen da. Gero, azkazalak irabazten edo indartzen dijoazen bezela, josteko tokia lasaitzen da.

Banituena nik ezagun jator askoak, baserritarrak, ortxe Zarautzen jardun nintzan urte aietan. Bertakoz aparte, beste inguruko errietakoak ere. Aia partetik, Getari aldetik eta abar joan oi ziran batzuk, ganaduen buruko uztarriaren gaiñeko txokoan botilla txakoliñen bat edo beste artuta. Etziran gaizki etortzen alako tragoxkada goxoak barru aldea animatu edo berotzeko. Edari oberik ez nuke aukeratuko. Bizi amorratua da berez txakoliña, ogi-kozkor bat janez batez ere.

Baserritarrak, sarritan, eguraldi txarraren zai egoten ziran ganaduak perratzera eramateko. Bestelako lanetarako giro aundirik etzegoela ta prest jarri. Ona zetorreanean alegindu. Orretarako, endredo likitxak kendu. Buruz jokatzera dala uste det ori.

Goizean goiz ekin lanari, bazkalondoan siesta egin da illunabarreko freskuran bildu janariak idi, bei ta txalantzako. Beti ez noski, baiña egokiera zan guztian orrelatsu nabaitzen genituen guk nekazari jantziak ziranak.

Kale aldera zijoazenean, berriz, geienetan zerbait eramango zuten. Su egurra sarritan. Garai artan ez baizegoen beste su klaserik, eta egurra ta ikatza erabiltzen zituen jendeak sukaitzat. Gaurko egunean gasa ta beste aurrerapen batzuk badira, baiña len etzan oietakorik izaten alde auetan.

Baserritarrak kalera zetozenean, bide batez gurdiak egurrez beteta ekarriko zituzten, askok beintzat. Eske izugarria ta osatu eziñik ala ere ibiltzen ziran danentzako bear aiña. Kosta gabe ezer ez dala eskuratzen, da basoan ere lana egin bearko zan. Baiña txanpon batzuek etzuten kalterik iñorentzako noski orduan ere.

Arrezkerotik aldakuntza galantak ikusi dira emen gai orretan. Bein gasa ugaritzen asi zanean, sobratu ziran ederki basoetako egurrak. Amaika alperrik galdu da aspalditxoko urte auetan baztarretan.

Izan ere, gasa neke gutxiko sukai baida. Orrek sua martxan segituan jartzen, da azkarra; ta jendeak orixe nai. Goizean oetik jeikitakoan kafea edo beste zerbait beroa artu bear duenarentzat ongi etortzen.

Gauza bakoitzak bere alderdiak baditu, ta beti erreztasunen billa gabiltza, arrazoibidez gaiñera. Nik gasari ez diot ezer kentzen. Baiña egurraren sua sanao ta garbia da etxerako. Ori ez genezake ukatu.

Orain eletrika indarrez ere baliatzen dira toki batzuetan. Galesti jotzen, ordea. Lo-geletan neguan erabiltzen da, ta gero etortzen badakite txartel politak, eta orduan kontuak.

Len, berriz, egurrezko edo ikatzezko suak etxe guztia berotzen zuen, da neke geiago emakumezkoentzako. Baiña gastu gutxiago familirako.

Berriro goazen baserritarrengana. Menditik garo edo iñaurkiña ugari jetxi bear izaten zuten kale aldera ganaduen azpigarritarako.

Gaur, erri barruan, Zarautzen, iñork ez du ganadurik edukiko seguru asko. Len dexente, batean da bestean. Bi edo iru esne-bei nun-nai, esate baterako. Txekorrak azitzen ere asko saiatzen zirala badakigu. Txerriekin zer esanik ez. Oillo-kontua, berriz, ez dago aipatu bearrik. Oiek ganbaratan da edozein zulo-tan aurkitu zitezkean. Bizi naiaren ixtilluak ainbeste gauzatara beartu arazten gaitu mundu ontan nunbait.

Geroxeago, berriz, erri batzuk azitzen gogor asi ziran; da, lengo etxe zarrak boteaz, berriak eraikitzen toki askotan. Puntu on samarretan zeuden lur edo terrenocri ixtimazio izugarria etorri zitzaienten, da ordutik sortu aldakuntzak.

Jakiña, bizilekuak eta lantokiak ugarituko baziran, lurra komeni; ta, aiek saldu ezkeru, ganadurik ezin mantendu; ta, kale aldeak ala dotoretzean, nun-nai edukitzerik ez.

Lengo ukullu zarretan ere gaur denda txukunak jarrita dauzkate ainbat ixkiñetan. Aspalditxoko urte auetan orretara jo du jendeak.

Ostatuak, berriz, esate baterako, atean-atean ikusten dira; ta bein irikitzen duenak, nekez itxiko du. Or badago zerbaiten etorkizuna, itxurak diranez.

Esaten ari giñan bezela, kale berritzearen bidez galdu ziran erri barruko ganaduak: beiak, txekorrak, txerriak, zaldi, beor, asto eta abere klase oiek danak.

Zarautz bera gogotik azi da. Azkeneko ogei urtean egin du salto ederra. Ni an lanean aritu nintzan garaian, bazan soro ta baratz bikaiñik, landuaz erabiltzeko. Ikusgarriak benetan.

Batez ere udaran, barazkiekin txanpon asko ateratzen zuten zarauztarrak.

Bertan enpleatu ere errez, kanpotik zetozeni ta abar. Orrek ez du gutxi balio nekearen ordaiña eskuratzeko.

Baserrietatik ere eraman oi zuen jendeak jeneroa pranko. Goizean goiz, nagikeriak utzita, agertzen ziran emakumezkoak, beraien abereak artuta, egun bereko esne freskoz eta berduraz saskiak gaiñezka zituztela.

Kalera irixtean, lenengo esnea entregatu bezero bakoitzari, gosaldu zezan; eta ondoren plazara korrika, barazkiak saltzera al zanik azkarrena. Orrelaxe saiatu bear diru berria inguratzeko ta etxerako gauzak erosteko.

Beti bizimoduari begira zeuden emakume arretatsuak ikusten genituen guk zorionez Zarautz aldean. Adin aundikoak bezela ezkonberriak, eta neskatxa gazteak ere bai. Galtzerdi lanazko zuri batzuk eta abarka gomazkoak anketan, da soñekoaren gaiñetik mantala urdiña jantzita, txukun da dotore asko, eguraldi onean edo kaxkarragoan bildurrik gabe.

Astoak eta zaldiak perratu bearrez zeudenean, gizonezkoak bezin trebe agertzen zitzaizkigun perratokira ere. Eskusa gutxirekin edozertarako gertu. Alamoduzko ezikera zeukaten nunbait txikitandik.

Toki askotatik bildu oi zan jendea Zarautza. Astean beingo azoka nagusia larunbatez egiten baizan, da ura izaki garrantzitsua. Aia, Getari, Oikina, Zumaia ta oietako saltzailleak etziran aztuta geldituko noski.

Eramango zituzten garaian garaiko gauzak: patata berria, tomatea, gereziak, sagarrak eta fruta klase guztitik plazara. Baserritarrak, oillasko ta oillo zar gizenduak aukeran, nai zituenak erosi. Arraultza gorri mardulak ere bai oparo. Babarrun bikaiña, zenbat nai, ainbeste zendukazun.

Aberats izugarria, ongi osatua danera, nabaitu izan genduen Zarauzko berdura-plaza egunero, baiña batez ere larunbatetan, lentxeago genion antzera.

An jardungo ziran emakumezkoak alkarrekin tratuan, batek galestia zala ta besteak merkeago etzegoela ematerik, eta orrelaxe, konpondu eziñik, sarritan bi errearen gora-beran disputan, izketarako bidea jartzen. Bakoitzak bereari eutsi nai, ta bear gaiñera.

Jokaera ori aspaldiko zarra dala badakigu. Zorioneko diru orrek ditu emen arazoak. Askoren artean, nekez irabazi ta errez gastatu.

Lengo gurasoak gu baiño zintzoagoak omen ziran. Derrigorra zeukaten.

Bestela nola azi ainbeste seme-alaba? Famili aundian etzegoen txantxarrik. Amaika kontu xeblebre entzuten genizkien gaixo aieri.

Zarautzen, azoka-egunetan, presaka ta korrika ibili oi ziran gure emakume leialak. Alakoetan, ogiaren kezka zuten larriena. Uste baiño len bukatu igoal, da gero iñun billatzeko modurik ez, eta gabe gelditzeko arrixkuan aurkitzen baiziran. Urte aietan ain urri giñan ogiz. Botika bezelatsu erabiltzen genduen.

Argatik, goizean erosi ta asto edo zaldiaren bizkar otarretan sartuta jartzen zituzten, beraien ustetan leku seguruan, plazako lanak egin bitartean.

Baiña sarritan zer gertatzen zitzaien? Disgusto galantak jaso bear. Abereak astotegira edo ukullu aundi batera eraman da argolletan lotuta jarri arren, soka luze antzean utzi ezkerro, laister konturatuko ziran bakarren batzuk, eta dotore gobernatu ere bai, alkarri otarretatik ogi biguna janez. Zale amorratuak baidira bitxo oiek. Zenbat bider pasa ote zan orrelako zerbait?

Emakume gaixoak negar egiteko zorian ikusi izan genituen bein baiño geiagotan. Ori da supritzeko modua! Abereak badaki tonto itxuran bere buruari ematen, etxekotik edo auzokotik, arrapatzen duen bakoitzean.

Batzuetan perratokira eramaten bazekiten, perratu bearrean zeudenean. Da, beraiek plazako eginkizunak amaitu bitartean, nik gertu edo prest jarriko nizkioten. Asko ixtimatzen zidaten ori.

Jakiña, sarritan eguerdi beranduan kaletik irten eziñik, eta etxeko lanak an egongo ziran, goizean utzita bezela, ta alik azkarrena joatea komeni, gizonez-koeri bazkaria zuzentzeko ta abar.

Baserrietan emakumezkoak ez ote dira kastigatuenak? Len ala ziran, da gaur ere ezezkorik ez nuke esango. Famili aundian batez ere, ama batentzako zer egiñik ez da faltako. Beti aztarrika ta buru austen. Feri askorik ikusi gabe bizi bearko du. Zenbat eta fiñago, orduan da latzago.

Sartu gaitezen daramakigun bidera. Ainbat aldiz aipatzen dan ogi ori, askorentzako izango da ona noski. Kristauak ez-ezik, abereak ere gogozko dute beintzat.

Baita naranja ta orrelakoak ere, oso atsegin zaizkiote. Iñoiz lurrera botatakorik baldin badago, laister oartzen dira ta joan artzera. Begi argi-argiak dituzte animala oiek, askok usteko duten aldean.

Nik nekiela Zarautzen perratuko nuen astorik zarrena, ogei ta zazpi urte-

koa. Kaleko etxe batean len ganaduak edukitzen; da gero, kendu zituztenean, astoaren bearrik ez eta, alperrik zeukatela pentsatuaz zeudela, azaldu erostuna, ijitoa ain zuzen, da bereala egin tratua.

Gero neri eraman zidan perratu ta txukuntzera. Bazeukan premi galanta. Azkazalak autsi ta azpikoz gain jira ta okertuak zeuzkan, abarka zarrak bezela. Aspaldi artan ukullutik iñora atera gabe egongo zan da ez da arritzekoa. Erabat narrastuta zegoen, da gaitzik txarrena urteak geiegi bizkarrean. Abererik nekez iritxi oi da adin orretara, ta kontuak.

Galdera egin nion ijitoari, ea ezertarako balio al zuen asto arek. Baietz zion; artean ongi zegoela, pixka bat zaindu ezkeru, ta Zarautzen bertan salduko zuela seguru asko. Arek, artzerako jakingo zuen nun utzi.

Alaxe, asi giñan ba, perrak erantsiaz anketatik, dotoretzen, da ijitoak mutil koskor bat berekin. Oiek, izan ere, ain dira umetsuak. Semea izan zezakean, zirudienez.

An zebillen diodan mutikoa, nik perra, iltze ta gaiñontzeko trasteria edukitzen nuen lekura joan da baztarrak miatzen, bat ukitu ta bestea astindu, ume asko ibili oi diran gisan; da begiratu zorrotzak egiten nizkion konturatu zedin. Alako batean deitu dio zarrak bere ondora ta onela esan zion:

–Aizak, seme: enkargu au emango diat: besteren gauzeri pakean utzi mese-dez.

Nere baitan pentsatu nuen etziola erakutsi txarra agertu semeari. Ez dakit zenbat errespetatuko zuen. Esan ere, oso barrendik egingo ote zion? Benetakoa izanik, ijitoarengandik entzuteko kontseju bikaiña. Onuzkeru, oietakoren batzuek okerragoak emango zituzten.

Dana dala, astoa perratu nioten, da eskatu nuena ordaindu zidaten; eta an joan ziran, traillan zutela, aita-semeak, pauso arin askoan.

Jende orreri nekearen bidez ezin litzaioke ezurretako miñik sortu. Etzanean daudela agian. Lanari gorroto izugarria baidiote. Alper enteroak eta gaitzoz ongi ornituak. Baiña nolako bista? Betaurrekorik ez dute erabiltzen. Bear aundirik ere ez noski.

Arek azkenean astoa, berak esanda bezela, Zarautzen saldu, bertako base-rritar bateri. Geroztik prankotan eraman zuten neregana perratzeru. Amona zarra ibili oi zan gaixoa errenka, ta astoa berdintsu.

Etzitzaion gazterik komeni. Asto gazteak, ongi ezi bitartean, aize asko izaten baidu. Nun-nai saltoka ta txorakerian igoyal asten da. Alakoari eusteko, norberak sasoikoa bear luke, ta amonak otxanagoa naiko zuen bere segurantzirako ta lasaitasunerako, ta bapo mantsotua artu zuela uste det gaixoak.

Txikia zan. Txuria kolorez. Aretxekin egiten zituen kaleko mandatuak eta joan-etorriak, poliki-poliki, pauso xuabean. An etzegoen zalapartaka asi ta arraultzak austeko bildurrik. Bizkarrean, berriz, zama astunik ezin jarri. Bestela, len gutxi ta gero bat ere ez. Bidean ere, adiñari zegokion martxan.

Zenbait gaztek etzuen erosiko asto ura. Baiña amonak jakin animalari klase orren berri nunbait. Prezios ere goimaillan ez; merke antzean artu zuela dudarik ez dago.

Berak aitortzen zidanez, iritzi auck zeuzkan: arek etzuela urte askoan beariko, ta ura galtzen zanetik, berriz, aien etxean etzekiela iñork jarraituko zuenik lengo klascan. Orrelako gauzak entzuten zitzaizkion amona gaixoari tarteka. Konfiantza pixka bat zeukan tokian garbi adierazten zuen penaz beterik aurkitzen zala.

Nik ez dakit aren ondorengoak nola segiko duten. Baiña lana egiñez bizi da gaur ere jendea, modu batera edo bestera. Bakoitzak berak daki nundik zer datorkion ongiena.

Ari astoa saldu zionak bezelaxe, emen derrigor zerbait pentsatu beariko du, aurrerantzean ere ogirik jango badu, ta ijitoak asto tratuan edo saldu-erosian, egokiera dan guztian.

Abere klase orrekin artista utsak dira, izan ere. Oien eskuetan egun batzuk pasa ezkeru, esan liteke zarrena ere gaztetuta gelditzen dala. Urteak kentzen dizkiotela, alegia. Ijitoaren igurtziak, argizariak aritz-egurrari bezelakoxe brilloa ateratzen baidio abereari. Itxuraz oso aldatuta jartzen dute, gauza berriaren antzera, ta sartzen dituzte baztarretan ziri ederrak. Oiekin argi tratuan. Bestela, gaizki egindako paketeren bat zereganatuko dezu, deskuidatzen zeran gizarajo orrek.

Beraz, goazen aurrera berritik amabira, pelotariak esan oi zuten bezela. Nik Zarautzen gauza gogoangarriak ikusi nituen, an bizitu nintzan garaian. Feri egunak, batez ere, oso politak izaten ziran. Urte aietan, illean bein egin oi zan feria, illaren bigarrenko larunbatez ain zuzen. Oraingo berririk ezin nezake eman. Ez dakit nola dabilzan. Baiña len sona aundia zuela badakigu zalako feriak.

Ganaduz ongi orniturik aurkituko zituen baztarrak, bertara zijoanak. Klase guztitik gaiñera. Orduko tratanteak etziran lo egoten. Bazekiten idi pare bikaiñak eta esne-bei ederrak erabiltzen Zarautzen. Kooperatiba Plaza deitzen genion artan zan toki berezia orretarako, ta dana leporaiño bete ta pausorik eman eziñik nabaitzen genduen jendea.

Txerrikume gazte ugari eraman oi zuten Aia alde ta inguru orretako base-rritarrak. Ganaduak uztarrarian lotu, artu txerriak gurdi kajan, gaiñetik alanbre sarea josi ta dotore samar. Urrutikoentzako ez da ibillera gustagarria izaten, baiña kamio-bideetan auto ta tresna gutxi zan orduan, da etzegoen ezeren trabarik. Mantso-mantso, idien pausoan, lasai joan zitezkean noranai.

Txerriak, gurdian etzan da lo egin oi zuten geienetan. Azpian, lastoa ez bazan, garoa edo orrelako zerbait bigungarri ona jarriko zioten; da, batere estuasunik edo pasada txarrik artu gabe, oso kurioso moldatzen ziran. Eskarmentuak eragin araziko zituen oiek, seguru asko.

Gero, berriz, gosetzen ziranean jateko, arto aletua eramango zuen jabeak, eta noizean bein gurdira bertara bota andik. Ara nolako arretarekin zaintzen zituzten animaliak gure nekazariak.

Iñoiz gertatzen zitzaioten, saltzeko aukerarik ez eta berriro bueltan etxeratu bearra. Uraxe etzuten nai izaten. Arazo izugarria baizan batetik bestera aiek erabiltzen. Da gastua bakarrik ez; denbora asko galdu bear, da endredo galantak.

Baiña gutxitan egokituko zan alakorik. Geientsuenetan gurdi utsarekin irtengo ziran plazatik kanpora. Bestela ezin bazan, zerbait merkexego emanda ere, naiago utzi; ta pakea egin da kezkek kendu burutik, alegia.

Bi illabete ta erdi inguru zeuzkaten txerrikumeak asko kostata zeudela dudarik ez dago, ordurako; ta, bein galga artara iritxi ezker, saldu ta konturik onena. Batetik, kanpoan ibiltzen oitu gabeak, eta etxeko ukulluan bezin gozo ez, jateko ta deskantsatzeko ere. Al zanik ongiena tratatzen alegindu arren, da pixka bat nastuta gelditzeko bidea, guri-guri azitzen ari ziran txerriak, arto iriñezko zapero bigunetik nai zuten gutzia janez.

Baserrietan, lengo emakumezkoak bazekiten animalia oiek nola gobernatu ta diru freskoa nundik zetorren familirako. Zintzotasunean ezitakoak baiziran. Aurrekoengandik ikasiak etxeko martxa zuzen da juxtu erabiltzen, eskuratzen zutenari eutsiaz, zabarkeriz ezer alperrik galdu gabe noski.

Aitona zar bateri sarritan entzun genion guk, dirua irabazten baiño askoz zaillago zala gordetzen. Bakoitzak bere erara pentsatzen du, ta aren iritzia orixe zan. Beste askorengandik entzungo dezu, dana gordeta edukitzea bezelakorik ez dagoela pobre bizitzeko.

Ukullutik bakarrik etorkizuna daukan nekazariak, kontuak ongi atera lezazke oraingoz ere, gauzak aldatzen ez badira beintzat. Baiña gure gazte garaian txerrira jotzen zuen jendeak. Ortik egongo zan etekiñik onentxoena, errez enpleatzeko suertea izan ezkeru.

Feritik ferira ibili bear orixe nekoso antza. Eguraldi itxurazkoan, kontentu; txarra egokitzen zanean, nolabait. Batez ere neguko busti aldietatik sortu litezkean gaitzak gogoan.

Esne-beientzako ere ez da ederra plazako egoera: alako giro bigurrian baztarrean lotuta, errapetik esnea dariotela. Orrelaxe dabilzala ondutzen dira sarritan bei umatu berriak. Ortik datozenak, gauza nabarmenak: errape-miñak eta beste aldrebeskeri asko juzkatzen dituzte ganaduen berri dakitenak; eta gero, parean egokitzen danak pagatzen du tarteko erru narratsa.

Bei klase ori ongi begiratzea merezi duena da. Perratokian bertan ere arrixku aundia du. Berez nerbioosa edo ibilkaria izanik, estuasun ikaragarriak pasatzen ditu. Iñoiz, barruan edo sabelean dauzkaten umeak bota izan dituzte batzuek. Ortik pentsatu zer borroka erabiltzen dakiten perratokian. Ez da txantxan artzekoa edo jolasa. Gora jaso ta anketan lotu ta askatu eziñez indarka dabilzala, erabat beartu. Beren buruaren kalterako jotzen dituzte bildurgarrizko kolpeak.

Ortxe, lau illabetetik seira bitarteko orretan omen du arrixkurik aundiena, sabelean duen umea botatzeko, txala edo txekorraren piztuerako garaian, gutxi gora-bera. Ala esan oi zuten lengo perratzaile zarrak.

Baserritarrak beraiek ere bildur izaten ziran, galga artan zegoen beiarekin perratokira joateko. Baiña errendu zalako-edo, derrigorrez sarritan. Adierazten zutenean jakiten genduen; da orduan, gora jasotzerako, tripa azpian trapu zarrak edo bestela mantaren bat doblatuta jartzen genion bigungarrizat, beti ere mesede egingo ziolakoan. Uste orrekin beintzat ibiltzen giñan, okerrik gertatu etzedin.

Guk geronek ere bagenekigun bei batek umea galtzea pikardi izugarria zala baserrirako. Sarritan esne berriaren zai egoten baiziran. Eguneroko bezeroeri

eramateko bear ta osatu eziñez larri. Ta gero, orrelako ezbearra gaiñera erori ezkerero, bapo. Toki ederrean zeuden aien ametsak. Bei billa joan bear ferira edo norabait, ta musu truke etzuten iñundik ekarriko.

Era orretan ikusi genituen bein baiño geiagotan baserrietako aitonak, be-
raien penak eta naigabeak kontatuaz. Eskerrak beti etzirala erostera joaten.
Saltzera ere bai batzuetan. Danetarako jarriak baidaude feriak: gauza bakoitza-
ren berri ikasteko ta zer preziotan dabiltzan ikusteko.

Etxean bi edo iru txekor gizen salgai dauzkanak oso bearrezko du jakiñaren
gaiñean egotea, erostunen bat dijoakionean, zer eskaera egin ez dakiela arrapa
ez dezan. Da bei zarrak ere izan litezke aragitarako saldu nai dituztenak.

Arakiñak, berriz, ez dira lo egoten, begiak argi dituztela, zer gerta ere.
Lenengotik poliki antzean eskeintzen dute; ta baserritarrak, baldin badaki,
emango dio bere arrazoia ta erabakiko dute bereala. Artu edo utzi egin bea-
rrean aurkituko da arakiña ere. Argatik komeni zaio ferira joatea, nekazaritza-
tik bizi danari.

Len iñoiz diogun bezela, orain ogei ta amabost urte, eta geroztik ere,
Zarautzen feri bikaiñak ikusten ziran. Jendeak joera aundia zuen erri orretara.
Urrutitik asko, ta bertakoak zer esanik ez. Ezer saldu edo erosi bearrik etzeuka-
tenak ere bai, zer jakingo ta abar, lanerako presarik gabe zeudenak batez ere.
Aiek aragiaren prezioak ikasten bazekiten, baiña txekorrak azitzen ez. Ortxe
dago koxka.

Ala ere, perira lasai asko geientsuenak. Zerbaiten aitzakia billatuko zuten
orretarako. Batek erosiko zuen belarra ebakitzeko segaren bat; eta besteak
zorrozketarako arraitza; edo, bestela, biltzeko eskuarea; edo txekorra lotzeko
katea igoal; burni sarde, ukullu atxur edo lau ortzeko makoak ere bear izaten
zituzten. Aipatu ditudan oietatik, askori ikusiko zenion zerbait beintzat eskue-
tan zeramala.

Bakoitzak, beretzako ongi zetozkion tresnak erosiko zituen: belar sorta edo
bizkar zamak lotzeko soka, ta oiñetan norberak jazteko abarka gomazkoak...
Oiek guztiak eta beste edozer gauza ere berdin, neri une ontan bururatzen
etaizkidanak. Aukera osoa egoten baizan Zarauzko ferian. Ango gora-bera
danak garbiro adieraztekotan, denbora asko bearko nuke.

Guk ere ez genduen lan faltarik izaten perratoki aldean feri-egunetan. Ez
gendukan atsedentzeko astirik, bolada batzuetan beintzat.

Ostatuetan, berriz, arnasik artzeko modurik gabe zebiltzala esan zitekean. Ango zalapartak etzuen azkenik, pentsatzen jarrita.

Baserritarrak, batzuk eguerdirako jetxiko ziran kale aldera denbora pasa, ta bide batez bazkaldu lasai antzean, jazkera txukunez apainduta: galtza urdiñak; txalekoa; brusa beltza; oiñetan galtzerdi lanazko zuriak edo azmantarrak; abarka gomazkoak ez bazituzten, ganadu-larruarekin egindakoak.

Seguru samar, illunabarrean etziran presaka ibiliko etxera joateko. Afari dexente bat egin da orduantxe osatzen zuten eguna ongi, ta gero gauari pusketa kendu gaiñera. Orrelaxe gozatuko zan al zuena, lasaitasun ederrean.

Arratsalde partean erriratzen ziranak ere, merienda itxurazkoa edo afaltzen gelditu; bietakoren bat, dudarik gabe. Ori aurrez erabakita edukitzen zuten nunbait, eta ostatuetan ezin jenderik kabitu iñolako moduz.

Ni neroni apupillo egoten nintzan, jan da lo ostatuan egiñez, ta badakit ongi feri egunak eta gauak nolakoak ziran. An etzegoen nai zanean jaterik, goseak amorratzen egon arren. Exeritzeko lekurik ez iñun, da beste batzuk altxa zai supritzen.

Baserritarrak, berriz, kontu kontari jartzen baziran, nork mugitu arazi? Asten ziran ango idi ezkerra eta emengo eskubia; batek larogei erralde izango zala idi ezker ura, ta besteak erantzungo zion:

–Bai larogei ta amar ere. Lekutako petxua zeukak, eta atze aldeak.

Orduan:

–Bai. Idi ornitua dek. Okelez ongi zegok. Begiratu akiok aren bizkar gaiñari ta lepo aldeari. Danera ikusten diat josia ta osatua. Galanki janak zeudek idi aiek. Gu ezkerraren gora-beran ari gaituk izketan. Baiña eskubia bera ez dek gero utsa, mutillak. Tirakalari ona. Nik ikusia zeukat, eta bazekiat zer dan, bai.

–Bai. Jakingo dek noski.

Lagunak albotik:

–Artuko al diagu kopatxo bana edo zer derizkiok?

–Artuko ez ote degu ba? Esaiok, aztu baiño len, ekartzeko orroko neskatxa orreri.

Ta deituko zion:

–Zu, gazte: ekarri guri kopatxo bana mesedez, al dezunik azkarrena. Ez-tarria sekatu da ta tragoxkada eginda abiatu gaitezen etxe aldera, biar goizean jeikitzeke ere.

Orrelaxe konpontzen ziran alkarren artean lengo aitona zarrak, ostatuan zeuden bitartean, gozo asko. Baiña betiko gaitza: andik ezin irten da beste batzuk afaltzeko jarlekurik gabe zai, gosez amorrutzen. Mostradorearen ondoan txutik, ongi asperturik egoten giñan.

Alako batean, norbait altxatzen zanean, deitzen zidaten neri laister etxe-koandreak edo neskameak, toki pixka bat egin zala ta pasatzeko jangelara. Orrelaxe ibili bear izaten genducn Zarautzen feriko arratsetan.

Baserritarrak asiko ziran, ni ikusi orduko, torcatu naian:

–Ara: bazetorkiguk perratzaillea. Erri ontara etorri uan da onez aurrera gure kontura bapo biziko dek. Nekazariak amaika mantentzen dik, eta au ere gizenduko diagu dancn artean.

Zirikatzen jardun oi ziran, ea zer esaten ote nuen. Bromako kontuak. Oso ongi konpontzen giñan alkarrekin. Aiek, gizon leialak baiziran, etzuten iñoren-tzako gaitzik.

Bertsozale purrukatuak geientsuenak. Nik batzuctan kantatzen nizkioten, da orduantxe pozik. Ainbeste egin ezkeru, kontentu gizarajoak. Andik aurrera etzegoen ezeren faltarik. Kafe bat artzen asi ta iru edo lau azkenerako.

Seguru samar, feri eguna noiz iritxiko zai egoten zan jendea, alakoxe irten aldiak egiteko. Aien gozamina orixe zala badakigu.

–Guk etzeukagu nai dan guztian etxetik aldegitetik –entzungo zitzaien noiznai.

Xelebre utsak ikusten genituen prankotan. Zarautzen Azken-Portu izeneko ostatua bada. An antolatzen bagenekigun pelikula politik goizaldeko ordu txikietan. Zintzoenak bildu ta artean erretiratzeko presarik ez iñortxok, edo galera aundia ote zan iduritzen zitzaigun nunbait. Gaua geiena zurrutecan igaro arren, gero ta premi geiago nabaitzen genduen.

Ostalariari kostatzen zitzaion, atek itxi bear ta jendea kanpora ateratzen. Zenbat tripa jate jarri genion, berak jakingo zuen gizarajoak. Onez-onean asiko zan esaten:

–Tira, ba, mutillak. Serenoa laister emen dek eta mugitu zaitetze mesedez.

–Bai, bai –erantzuna–. Segituan aldegingo diagu. Orduak aurrera joango dituk eta arrazoi daukak.

Baiña egon lasai. Ez ixilik, ez. Bulla ikaragarrian, danak izketan, nagusiari burutik eragin arazteko zorian. Da alako batean serenoak *kas! kas!* atean. Ta orduantxe belarriak tente ta kanpora, bitartean ongi saiatuta.

Ango eskea etenik gabekoa zala zirudien. Derrigor edan egin nai patarra, zerbeza, ardoa igoal. Norberetzako kaltean izan arren, egun guztian egarriz ito bearrean lanean aritutakoak baiño areago, esate baterako, edo oraindik antsi geiagorekin jendea zurrutean, ezerekin ase eziñik.

Ostalariak deskantsu ederra artuko zuen, gu bialdu ta barrendik atea ixten zituenean. Baiña ez giñan urrutira joango pixka batean. Atarian kontu kontari jarri ta alkarri txandarik eman nai ezik antxe, len ezer esan ez bagendu bezela, batzuk bertsotan, besteak txaloka ere bai, boladatan oiuka, lotan zeudenak esnatu arazten, indarrean sartuak geure ustetan.

Ferian erosi ta artutako txutxerriak eskuetan txintxililik erabiliko zituzten askok. Tartean bakarren batek soiñeko galtzak ere larri ibili, gizonari sarritan gertatzen zaiona, ase eziñik dabillela; ta azkenean arrastaka etxera.

Nik baserritar aitona zintzo bateri maiz entzun izan nion: aiek eduki omen zuten morroi langille xuabea ta mantxoa, zalaparta gutxikoa, beti ezkutuka, koskatik igesi, aste guztia logurez pasatzen zuen oietakoa.

Baiña igande bazkalondoan begiak argi. Siesta bearrik ez bein ere noski. Dotore jantzi ta kalera, lenengo zijoanarekin batera. Gero, gauean etxerakoan, orde, azkenekoari laguntzen. Da komeri latzak, ala zebillen mutillak, astelengoizean. Asiera tristeza zuela esan oi zigun aitonak. Arek jakin jai-arratsean loa galtzea zer pikardi zan urrengo egunerako. Bera zintzo amorratua izanik, zuzentasuna gustatzea ez baida arritzekoa.

Nik inoiz, ganaduekin perratokira zijoanean, galdera batzuk egin izan nizekion aitonari, ta adieraziko zidan garbi asko aien gazte garaian morroiak zer jokabide zituzten, euskera xamur ta goxoan.

Alakoak ugari baleude, obe luke gaur izkuntza onek. Badu lanik aski berekin. Lengo baserritar zarrak, batez ere, erabiltzen zuten erri euskera zoragarria, ulertu erreza benetan.

Ni iru urte pasatxoan aritu nintzan Zarautzen ganadu perratzen da erremin-

tari lanean. Beti jende ezagunarekin nituen artu-emanak. Neretzako onak zirala aitortu bearrean aurkitzen naiz.

Sutegi txiki bat nuen nere kasa antolatua, aurrerapen aundirik gabekoa, moda zarreko auspo baldar bat inguratuta. Dotore aietakoa etzan, baiña bazuen bere serbitzua. Eskuz eragin bear ta nekosoan zan oso. Beso zaiñak ederki billatzen bazekien, luzaroan tiraka jardun ezkeron beintzat. Bestela, aize asko ematen zuen. Burni galantak laister berotu oi ziran arekin, ikatza itxurazkoa baldin bazan.

Egur ikatza tenplerako-ta oso ona da berez, baiña galestia. Argatik erabiltzen zan arrizkoa.

Emen aipatzen dedan auspo zar ura, len garai bateko errota aien antzekotzat eduki zitekean. Otsean ala zirudien. Triki ta traka gora ta bera zebillenean, artoa edo garia egotzerakoan alakoxe zalaparta ateratzen baizuen errotak.

Urte mordoan geldirik egona ta erabat nagitua. Noizkoa zan, berriz, iñork jakin ez. Nik erosi nuen etxean, antxe zeukaten txabolan jaso ta alperrik. Etzuten usteko salduko zutenik. Ni bearrean gertatu ez banintz, aren enpleorik etzegoen.


Ordurako bazeuden eletrikoak, politikak. Baiña merkea nai. Soldadutzatik etorri berria ta sosik ez neukan nere mendean. Ortik aparte, argi indarra motorrentzako asko kostako ta edozein lekutan jartzerik ez errian. Baimena eskuratzen zailla.

Banuen asmoa, etorkizun pixka bat bazegoela konturatu nintzanean, mar-txa obean sartzeko. Ezagun batek, terrenoa eskatu ta agindu zidan, da joan ere bai udaletxera, txabola dexente samarra egin naian, permisoa eskatzera.

An erriko planoeri begira egon ziran da ezezkoa eman zidaten. Sail artan ez neukala ezertan asterik. Neurri estua. Zarautzen etzan giro.

Egun batez gogoratzen naiz erriko agoazilla nola joan zitzaidan, esanez alegia lenegi asten nintzala lanean da jendeari goizeko loa galerazten niola, ta udaletxera kejak sarturik zituztela; ura abisatzera bialdu zutela; obeko nuela beranduxeago ekin, egun osoan naiko denbora baneukala lanerako ta.

Oiek dira agindu xebreak! Eta errespetatu egin bear. Udararen batez ere, gauean oerako presarik ez, ta gero zer gertatzen da? Goizean mugitu ezin. Ori baiño moztade aundiagorik bai ote da langille jendearen artean?



Baserrietan garai batean erabiltzen ziran tresnak, Manuel Lasartek egiñak.

Gurdi kurpil txapeatuak beste batzuk, ugari erabiltzen zituztenak baserrietan. Danak errematxez josiak, eta ardatza ere burnizkoa zeramakitenak geientsuenak, bide txarrak zeuzkaten tokietan batez ere. Etziran moldatu errezak. Bi lagun bear derrigor. Ala, alkarri lagunduta, obekiago domatzen genituen. Baiña gizon bakarrarentzako astunak eta torpeak jartzen ziran.

Uste det betirako ezkutatuak dirala. Urte auetan ez degu ikusten aietakorik. Gauza geiago ere orrelaxe dijoaz emen atzentzen lengo lege zarrekoak, aurrerapen obeak sortzen asi zitzaizkigun ezkeroztik.

Beraz, onenbestean bukatzen da nere Zarauzko ixtoria. Ez guztia, ordea. Tarte ortan bazan zerbait geiago. Beste perratokia bagendukan Oikinan, Soaitzenean, xeibre artua gaiñera. Bertako perratzailea, Juan izenekoa, gaixotu zalako, salgai jarri zuten, bere txabola ta guzti. Zarauzko Inaxio Bidartek Soaitzeneko alaba zuen andrea, ta arek esan zidan:

–Lasarte, zuk erosi bear zenduke gure koñadoaren perratokia.

–Nik zertarako? –erantzun nion–. Zarautzen bada neretzat aiña lan, da ez det saltsa berririk nai.

–Baiña agian gustatu egingo zaizu, ta tratu ona zure gain daukazu. Badakit seguru. Joango al gera biok, afari bat egiñez? Neuk eramango zaitut kotxean.

Alaxe, baiezko itza eman nion, da gu joaterako maia prestatua zeukaten. Afari goxoa ere bai. Exeri ta kontu kontari asi giñan, janez ta edanez lenengo, ta gero perratokiaren kontuan.

Erakutsi zidaten, da ea zenbat diru eskatzen zuten galdetu niotenean, bereala erantzuna jaso nuen. Itxurazkoa iduritu zitzaidan oso, ta laister erabaki zan gauza. Alako asmorik gabe joan da tratua itxi, ta etxera pozik gaiñera. Txabolak berak balio zuen ainbeste diru.

Nik bakarrik ez neukan bi perratokitako lanak ongi erabiltzerik. Baiña banekien Mutrikun nola zegoen perraketan asi nai zuen gizon gazte bat. Ordurako neregana agertu baizan bera. Len Elgoibarren iru urtetan perratzen aritua omen zan, da artean geiago ikasi nai ta lan eske joan zitzaidan Zarautza. Pentsatuko nuela ta alkarren berri jakingo genduela; ortan gelditu giñan.

Oikinan tratua egin nuenean, segituan deitu nion. Alaxe, biok sozio artu genduen Soaitzeneko perratokia. Andik aurrera, lanez ederki osatu zan ura ere, ni ez-ezik.

Goizetik eguerdira arte Zarauzko ganaduak perratzen genituen, alkarri lagunduaz. Arratsaldetik, Oikinakoak. Beti korrika, antxe batetik bestera iritxi eziñik.

Ezkondu ere garai artantxe egin nintzan, da sei bat illabete inguru, gutxi gora-bera, Oikinan, bertako etxe batean, pasa genituen bizitzen.

Ala nembillela, andrearen aitak, Orion etxea bazeukala ta errentan eskeiñi zidan. Urte aietan etxe eskasi ikaragarria zan. Iñun ezin billatu sarlekurik. Etxe bakoitzean bi edo iru famili igoal, alkarri tokirik ematen etziotela, penagarri. Ez dakit nola moldatzen ziran ainbestean ere.

Dana dala, nik zalako aitari artu nion etxea errenta ordainduaz. Oso zarra ta eskasa zegoenez, konpontzen alegindu giñan. Baiña bein ere ezin itxuratu dexente antzean.

Ala ere, andreak nai zuelako, Oriora aldatu bear izan nuen bizilekuz 1954'garren urtean, da len baiño urrutiago jarri zitzaizkidan Zarauzko lantokia eta Oikinakoa.

Goizean zazpiretako trenean joaten nintzan Zarautza, ta eguerdian amabi ta erdietan itzuli. Etxean bazkari legea presaka egin, da berriro Oikinara. An lan geiegi ta berandutzen zitzaidan sarritan, da gauean Oriora oiñez etorri bear derrigor batzuetan. Zarautzen bederatzietako trena artzen nuenean, pozik. Ala bidea asko laburtzen baizan. Bestela, kamioz amalau kilometro dirala uste det Oikinatik Oriora, oker ez banago; ta nekatutako pertsonarentzat geiegi.

Bolara batean alaxe jarraitu arren, zearo aspertu arazi ninduen nerabilkien ibillera txarrak; eta Zarauzko perratokia Errezilko mutil gazte bateri saldu edo eman nion urte batzuetarako. Martxiel zuen izena. Langille ona zan. Baiña etzuen suerte aundirik eduki gizarajoak. Larunbat gauez, Zarautzik Errezil aldera motoan zijoala, Bidani inguruan baztarra jo ta il omen zan.

Denbora berean, Oikinako perratokia ere uztea erabaki nuen, da nere erdi parte mutrikutar sozioak erosi zidan. Joxe Mari Osa da diodan au. Gizon osasuntsua ta langillea. An bizi da, Soaitzenean, bere taller koskorraren gaiñean etxe berria eginda eroso asko.

Goizetik eguerdira arte Zarauzko ganaduak perratzen genituen, alkarri lagunduaz. Arratsaldetik, Oikinakoak. Beti korrika, antxe batetik bestera iritxi eziñik.

Ezkondu ere garai artantxe egin nintzan, da sei bat illabete inguru, gutxi gora-bera, Oikinan, bertako etxe batean, pasa genituen bizitzen.

Ala nenbillela, andrearen aitak, Orion etxea bazeukala ta errentan eskeiñi zidan. Urte aietan etxe eskasi ikaragarria zan. Inñun ezin billatu sarlekurik. Etxe bakoitzean bi edo iru famili igoal, alkarri tokirik ematen etzietela, penagarri. Ez dakit nola moldatzen ziran ainbestean ere.

Dana dala, nik zalako aitari artu nion etxea errenta ordainduaz. Oso zarra ta eskasa zegoenez, konpontzen alegindu giñan. Baiña bein ere ezin itxuratu dexte antzean.

Ala ere, andreak nai zuelako, Oriora aldatu bear izan nuen bizilekuz 1954'garren urtean, da len baiño urrutiago jarri zitzaizkidan Zarauzko lantokia eta Oikinakoa.

Goizean zazpiretako trenean joaten nintzan Zarautza, ta eguerdian amabi ta erdietan itzuli. Etxean bazkari legea presaka egin, da berriro Oikinara. An lan geiegi ta berandutzen zitzaidan sarritan, da gauean Oriora oiñez etorri bear derrigor batzuetan. Zarautzen bederatzietako trena artzen nuenean, pozik. Ala bidea asko laburtzen baizan. Bestela, kamioz amalau kilometro dirala uste det Oikinatik Oriora, oker ez banago; ta nekatutako pertsonarentzat geiegi.

Bolara batean alaxe jarraitu arren, zearo aspertu arazi ninduen nerabilkien ibillera txarrak; eta Zarauzko perratokia Errezilko mutil gazte bateri saldu edo eman nion urte batzuetarako. Martxiel zuen izena. Langille ona zan. Baiña etzuen suerte aundirik eduki gizarajoak. Larunbat gauez, Zarautzik Errezil aldera motoan zijoala, Bidani inguruan baztarra jo ta il omen zan.

Denbora berean, Oikinako perratokia ere uztea erabaki nuen, da nere erdi parte mutrikutar sozioak erosi zidan. Joxe Mari Osa da diodan au. Gizon osasuntsua ta langillea. An bizi da, Soaitzenean, bere taller koskorraren gaiñean etxe berria eginda eroso asko.

ORIO

Nik, berriz, Orion goiko kalean antolatu nuen lantokia. Ukullu zar batean asi nintzan errementaritzan. Gero, andik urte batzuetara, beko kalera jetxi ta geroztik emen degu ogibidea.

Nunbait bear ta len bestek jarri zidan onuntza etortzeko bidea; ta orain, norbaitek aginduko balit aldegiteko, pena izango nuke dudarik gabe.

Orio erri polita da au bere izatez. Gusto guztiak ez dago iñun aurkitzerik, baiña ez gaude geiegi kejatzeko moduan bertan bizi geranak. Aspalditxoan dotoretzen ari dala dirudi gaiñera.

Ondartza aldera begiraturik batez ere, mugimentu izugarria nabaitzen degu udara partean. Bestelakoan libre samar egongo bada ere, ekainetik irailera bitartean txingurriak bezelatsu biltzen da jendea, nola gazte ala zar. Bakoitzak berak jakingo du zer komeni zaion. Medikuen aginduz ere ibiltzen omen dira banaka batzuk bañuak artzen ur gazitan.

Ondar gaiñean etzan da eguzkitan berotu aldi galantak gogozko zaizkiotela uste det askori. Ez dakit danentzako ongi datorren gauza dan. Baiña jendeak itxumen ikaragarria dauka urte auetan plaiarako. Kosta ixkiñak itximazio nabarmena dutela badakigu, galdezka jardun gabe.

Atzerritarrak Euskalerrria gustokoa izanik, oitura aundia artu zuten udaran oporretan etortzeko. Estranjeriko dirua emengoa baiño balore geiagokoa dala entzuten degu maiz. Gureak ere balioko luke, aiek bezela zainduko bagendu.

Nik Orion ikusten ditut, dendetan sartzen diranean. Jenero askori begiratu zertsu preziotan dauden, naiz-ta gutxi erosi. Derrigorrezko gauzak bakarrik eraman, da merkeentxoena, bada ez bada ere. Zintzo amorratuak edo bestela juxtu antzean dabiltzanak ote diran pentsatuaz egoten naiz nere kasa sarritan.

Ostatuetan ez daukate oiekin irabazirik. Emen euskaldunak dakite sendo jaten da dirua gastatzen. Kanpotik datozen aberatsak oteletara jotzen dute

jeneralean, poltxikoa bero daukatelako. Erreztasun ori ez du nai lukean guztiak, ordea, ta bakoitzak al duen modura igaro bear oporraldiak.

Orioko *camping* izeneko ori, dana leporaiño beteta egoten da, uztaillean da abuztuan batez ere. Kotxeari atzetik erantsita ekartzen dituzte erremolke edo karabana aundiak, jan da lo bertan egiteko moduan prestatuak, eta sartu *camping* barrura. Ta, erriko udaletxeari eskatzen duena ordainduaz, lasaitasun osoan eduki litezke nai aiña denboran. Illabetean bezela, bian edo iruan. Ori nork bere gain dauka.

Atzerritar asko ikusten ditugu diogun martxa orretan: frantzesak, inglesak, alemanak, olandesak, beljikanoak eta beste ainbat lurraldetakoak.

Toki jakiñik ez dutenak, berriz, baztarrak ezagutu naiez gelditu gabe ibili oi dirala uste det, itxas ixkiñetako erriak bisitatzen, da argazkiak atera ta eraman asmoz. Zoko guztiak ongi miatzea gustatzen zaiote, ta lengo etxe zarrak aintzat artzen dituzte geienbat. Ez dakit zergatik, baiña orrelaxe gozatzen nunbait.

Pintura lanean ere gogotik saiitzen dira, apizio ori dutenak edo dakiten batzuk beintzat. Orion goiko kalean daude etxerik zarrenak, ala bearrez. Estranjero jendeari oso gogozko zaizkiola esan genezake. Bestela ez bailirake inguratuko ainbeste bider bertara.

1988'garren urteko udara baiño trixteagorik iñoiz izan ote da? Nik ez det ezagutu, dakidala, eguraldiaren aldetik alegia. Ondartzetan ostalariak etzuten negozio aundirik egingo noski. Betiko laiño azpian or egon giñan, mantaz estalita bezela. Ura zan pobreza! Uztaillean dozen erdiren bat egun bakarrik ziran itxurazkoak, eder apartak; eta abuztuan ere alamoduz. Beste gaiñontzeko danak illunak eta eskasak.

Baiña giro on aietan ikusgarrizko mugimentua nabaitzen genduen kale auetan. Ura zan antsia zeukana jendeak ondartzarako! Iru milla kotxe sartutako egunak bazirala entzun nuen erri ontan. Oriok plaia ez du dotorea ta bikaiña. Terreno saillak dauzka izugarriak, ordea, berekin. Beste iñun ez dagoen lasaitasuna aurkitzen omen da emen, da orretxek balio patxadan egoteko.

Famili osoak, goizetik etorri ta illunabarrera bitartean gozatzen dira ederki, giroak laguntzen diotenean. Bezperan janariak erosi ta bakoitzak bere etxetik ekartzen ditu; ta kanpo librean prestatu bazkaria gasezko suaren bidez. Ostatuan baiño merkeago irtengo zaiote, pixka bat saiatu ezkerro, gaur edozer uskeri asko kostatzen dan arren. Bizimodua galestitzen dijoakigun bolara ontan, neurri

zorrotzak erabili bearrean gaude, zintzotasunari elduaz. Alperrikako gastuari aldegiñez, alegia.

Gipuzkoako jendearen jokaera da esaten ari naizen au. Goierritarrak, batez ere, ugari antzean agertzen zaizkigu Orioko ondartzara.

Nik neuk ez det gustokoa orko egoera. Baiña noizean bein, igande arratsaldez, billoba txikiarekin joaten naiz paseatuaz, denbora pasa; ta laurak aldean bazkaltzen ari dirala ikusten ditut, eguzkitan maiak jarrita, gorputzeko azala beztutzeak alimentua duela uste dutenak, edo ori osasungarri dalakoan, seguru asko aurretik ur gazitan zilipurdika baiñatzen ibilita. Igarian ongi dakitenak nolako zoramena! Jaten baiño geiago gozatzen dirala esango nuke aiek. Bazkal ondoren, berriz, kafeak artu ta lasai, iñorako estuasunik gabe; ta, ume jendeak jolaserako aukerako tokiak dauzkanez, gurasoentzako deskantsu ederra.

Erosotasun ori Orioko plaian daukala badaki onuntza datorrenak. Beraz, urtetik urtera ezagun geiagok bisitatuko gaituzten segurantzia daukagu gure txoko polit atsegin ontan.

Baiña sartu nadin lengo arrastora, aririk eten ez dezadan. Ni goiko kalean errementaritzan bakarrik asi nintzala aitortzen det, ganadu perrtzeari utzita. Osasunez aldrebesteak beartu ninduen orretara. Ez nuen bestelako aitzakirik, egia esatekotan.

Emen ere artean ganaduz eta aberez baliatzen ziran lan klaserik geienetan, beste alde askotan bezelaxe, ta zaldi batzuk perratu arazten zizkidaten sarritan, derrigorrean edo alatsu beintzat. Bertan bazan perratzaillea, baiña ni billatzen ninduten, ez dakit zergatik.

Baserrietan ere tarteka ibili oi nintzan. Ganaduren bat errendu ta gaizki zeukatenean, ura sendatzéa nai ta abixatzen zuten; da, gogoz kontra bazan ere, joan da alegindu, iñor minberatu etzedin nere faltan.

Gaiñontzean, lana dexente ematen zuenari, alako mesede baten eske zetorenean, nola ukatu, premian zala jakiñik? Ori ezin egin, oso biotz gogorra izan ezean. Gerora amaitu zitzaizkigun endredo aiek, eta pakea.

Aspaldiko urteetan ez degu ikusten zaldirik, kaleko eginkizunetan erabiltzen dutenik. Santa Luzietako ferian, Zumarragan, beor, zaldi, asto ta danetik sail galantak biltzen dirala uste det. Ez dakit nora saltzen dituzten ainbeste abere.

Len barrenderoak oietakoen bidez baliatzen ziran zikiñak edo basurak jaso ta norabait eramateko. Gaur, orretarako aprapos egindako kamionak dauzkate, azkarrak eta txukunak. Ara zergatik galdu zaizkigun erri barruko animaliak.

Eta baserri askotan ere ganadurik uztarrrian iñork ez du lotu nai. Alde ederra nabaitzen diogu nekazarien bizitzari. Sinisten oso zailla dan modukoa nerekiko. Nekeak urritu asmoz dabilta, al duten neurrian. Arrazoiz gaiñera. Beso indarra falta dalako izan liteke ori, edo etorkizunik ezak eragiña agian. Bakoitzak berea bear luke izerdiaren ordaiñez alegia. Bestela, akabo eskulanak.

Edozer tresna ere makinaz moldean prestatzen da gaur. Len errementariak eskuz egiten genituen sarritan. Aipatzen ditudan perratzaile gizarajoak lanik batere gabe geldituak daude baztarretan. Ortik jaten kostako zaiote, ta martxa berririk artzen ez da errez, bein sasoia pasa ezkerero. Gazteak edozertan asma-tzen du, baiña zarrak ez.

Ni Orion balkoi, ate, leio ta obretako zer egiñetan sartu nintzan geien-tsuena, orain dala ogei ta zortzi bat urte, ta ortantxe jarraitzen degu geroztik.

Onuntza etorri berrian, ordea, goiko kalean baserrirako tresnak molda-tzen. Gurdi kurpillak egiten nituen asko, batzuk burnizko ardatza zeramakite-nak, eta besteak zurezkoa, lengo lege zarrera. Etzan langintza txukuna ta ariña, traketsa ta astun bildurgarri utsa baizik.

Ortik aparte, golde zarrak konpontzen; sega pikatzeko txingura ta mailluak egiten; are, karromarro ta bestelako erreminta guztien zorroturan da orrela aritzen nintzan, baserritarren serbitzurako.

Baita ere mendietan basakatuak arrapatzeko zepo berriak. Pranko egin bear izaten nituen, eskatzen zizkidatenean.

Bein, gogoratzen naiz, igeldotar bat etorri zitzaidan presaka. Arroka baz-tarretan basakatuak zebiltzala ta bi zepo on samarrak nai zituela, al zanik azkarrena, zion.

–Lenengo bat moldatuko dizut gaur zortzirako, ta amabost egunera bestea, konforme bazera –erantzun nion.

Pozik joan zan gizona, ta etorri ere bai zintzo. Alaxe, eraman zuen zepoa, ta badator berriro bigarrenaren billa; ta, izketan asi giñanean, galdetu nion:

–Zer moduz dijoa martxa? Probatu al dezu zepo berria?

–Bai. Zepoak ez du aitzakirik –erantzun zidan–. Baiña basakatu madarika-

tuak aldegin digu andik ere. Oillasko puska batekin jarri nuen zepoa; ta, dispartatu zitzaionean, besotik arrapatutako pusketa bertan utzi ta joana da.

–Moztu egingo zion, ori orrela baldin bada –esan nion nik. Eta:

–Ez, Lasarte –zion igeldotar adiskideak–. Zepoak eldutako tokia baiño goragotik ebakita zeukan berak ortzekin. Oiek, libratu ezin diranean, ori egin oi dute. Ordurako aztarrika latzak joko zituen. Baiña nik zepoa ongi lotuta neukan, da azkenean bere buruari pusketa kendu arek, iges egitearren.

Pena artu zuen gure gizonak. Antzematen zitzaion garbiro, ta esan nion urrengoan errezago ezagutuko zuela basakatu ura, beso motza zalako.

Ori orrela pasa ta andik denboraldi batera, alkar ikustea egokitu zitzaigun, da onela zion:

–Lasarte, arrapatu nuen bitxo gaizto ura.

Orain ez dakit inor ibiliko dan klase ortan. Gure gazte garaian apizio aundia zeukatenak baziran batzuk. Basakatuak jateko etzuten balioko seguru asko. Baiña aien larruarekin artzen omen zan diru freskoa, ta ara zertarako: emakumezkoen abrigoetan apaingarri jartzeko lepo gaiñean. Larru bakoitza iru milla peztatik gora ordaintzen ziotela erostunak entzun gabeak ez gera. Urte aietan nun irabazi orrenbeste diru? Basakatu lepo txurien larrua omen da fiñena ta galestiena. Saltzen erreza ere bai, beraz. Edukiko du besteak ez duten zerbait.

Dana dala, sartu nadin lengo arrastora. Neri Orioko arrantzaleak lana dexente ematen zidaten txutxeri gauzetan. Itxasorako esku tresnak prestatzen nizkieten, da modu askotakoak gaiñera. Astillerietan baporegintzan erabiltzen zituzten trabesak ere asko egiña nintzan goiko kalean, eta nola! Burniz ta altzairuz nasian eraskin danak sutan galdan da urturian moldatuaz izerdi patsetan. Trabesari kirten zuloa edo begia burniarekin ateratzen nion nik, eta lepoz berakoa altzairuz osatu. Buru gaiñean zeramakien kopa estua ere berdin. Inun ikasi gabe gaiñera. Nere kasa asi ta segi aurrera, ez lo egonda noski, saiatuta baizik.

Egun batez, Donostiko Arrondok arrapatu ninduen sutan berotutako burniari mailluarekin golpeak ematen ari nintzaiola, ta galdetu zidan:

–Zenbat ordutan jarduten zera orrela?

–Amabi edo amalauan sarritan –esan nionean, arritu zan benetan gizona, ta onela dio:

–Nik Gipuzkoan erremintari asko ezagutzen ditut, zu bezelaxe alperrik lanean ari diranak. Ezer ez dezute irabazten. Zuen nekerik ez da ordaintzen, da langintza au laister bukatuko da.

Etzeukan arrazoi gutxi. Baiña urte aietan fabriketan ere amabi ta amalau ordu askok sartzen zituzten; da guk, berriz, aurreko erremintari zarrak alaxe ikusi genituen. Orduan denborari etzizaion begiratzen. Zearo aspertutakoan utzi. Jarduera tristea, lau babarrun ale jateko.

Nik Orion soro bat ere artu nuen, onuntza etorri berrian, ez erosita, errentan, etxetik oso urrean. Patata, babarrun, tomate, porru, tipula, piper aundi ta orrelako barazkiak egiten nituen. Jateko komeni zitzaizkigun jeneroak, alegia.

Bertsotan ere asko ibili bear batetik bestera garai aietan, da beti presaka, danera iritxi eziñik. Komeri latzak urruti samarrean bagiñan da arratsaldeko saioa berandu antzean jartzen ziguten bakoitzean. Gauerako etxera etortzerik ez eta sarritan kanpoan gelditu bear, da denbora izugarri alperrik galdu.

Orixe gertatzen zan da pentsatu nuen moto bat erostea, ta asi nintzan arekin ibiltzen erriz-erri. Baiña laister izan zan okerra: 1955'garren urteko uztaillaren 20'an, Donostira ninjoala, min artu Añorgako inguruan, Errekaldeko bide gurutzean ain zuzen. Ernani aldetik irten zitzaidan kamion batekin txoke egin nuen, da zentzurik gabe utzi ninduen, eman zidan golpe txarraren bidez.

Neuk ez nekiela ospitalera eramane ninduten, ez dakit nortzuk. Baiña an, medikuak anka bendaz lotzen ari zitzaizkidala esnatu nintzan, da galdetu nioten:

–Zer: aberi aundia al det?

Eta erantzun zidan:

–Ez dezu gauza izugarririk. Zu lasai egon, iru edo lau egun barru sendatuko zera ta.

Kopetaldea ixpilluan ikusi nuenean, ordea, ctzan neregan animo geiegi. Ta ankatik okerrago: belauna dana txikitua.

Andik bi egunera operatu ta gero gerokoak. Ezur autsien konpostura ez da

suprimeturik gabekoa alajaiña. Igeltsoz amarraturik berrogei ta bost egun pasa nituen oean, ortzaz gora etzanda, iñora mugitzeko gauza ez nintzala. Errez esaten da, baiña etzan egoera gustagarria neretzako uraxe. Aspergarri utsa ta tristea benetan.

Mitxelena bertsolariak, bixitatzera joanda:

–Ongi al ago?

Ta:

–Bai. Emen pazientziak balio dik –erantzun nionean:

–Egin dek ederra. Martxa aundi samarra eramango uan. Motoan mantsagoa izan ezkeru, kamionak aldegingo zian aurretik.

–Kontxo! Ori euk bakarrik asmatu al dek? Azkarrago joan banintz, ura urreratu baiño len pasatzeko denbora banian –esan nion, da ixilik gelditu zan gure gizona.

Dana dala, goazen lengo arrastora. Alako batean, kendu zidaten igeltso legorra, ta pozik sendatu zalakoan nere anka. Toki onean nenbillen! Ondorenak erakutsi zuen. Kanterako arria bezin gogor gelditu baitezaidan, batere juegorik gabe; ta, jinasian artu nindutenean, iñolako moduz ezin iraun. Lenengo medikuak berak, eta gero pratikanteak, aiek astinduak! Damutu bear derrigor motoa eresia. Goizean, eguna argitzerako, bildurrez aidean sarritan, jakiñik zer pasada neukan.

Arratsalde batez, ixillean aldegin ospitaletik eta banijsa kanpora. Konturazten da porteroa. Lizartzarra zan, oso atsegiña. Galdetzen dit:

–Nora zoaz, Lasarte?

–Urrutira ez anka onekin.

Da aurrera, pareta baztarreko barandillari elduaz, ta bidean bertako apaizak eta biok topo egin.

–Oraintxe izurratu nauk! –nere artean.

Apaiz ura ospitaleko kapillaua zan, da bertsozale purrukatua. Illunabarretan neregana joan da an jardun oi giñan kontu kontari. Ala, atarian ikusi ninduean:

–Martxa al dezu, Lasarte? –arek ere.

Ta:

–Ez. Medikuak agindu dit eguzkia artzeko.

Orduan onela dio:

–Nun dituzu ba makuluak? Itxogin zaidazu pixka batean. Ekarriko dizkizut.

–Ez endredatu mesedez –esan nion–, berealaxe itzuliko naiz ta.

Pena eman zidan apaizari gezurra esan bearrak. Ain zan jatorra ta banekien maite ninduela.

Gaiñera, lengo ospital zarrean zan gertakizun au, Donostiko Grosen, gasolinaren ondoan. Kamioz beste aldetik zegoen kafeteri bateraiño iritxi nintzan, ederki kostata. An kafesnea eskatu nion mostradoreko neskatxari, ta tasisari deituko al zion. Artu zuen telefonoa, ta itzegin zuenean:

–Segituan ementxe dezu –esan zidan.

Sartu kotxean da beste mediku batengana joan nintzan. Bereala artu ninduen suertez. Lenengo, eskuz miatu. Gero, plakak atera belaunari gaiñetik eta saietsetatik. Nola neukan ikusi ta auxe esan zidan: ongi operatua agiri zala. Baiña jinasian lenegi asteak egin zidala kalte. Etzala komeni geiegi beartzerik. Artean ezurak mugitzeko arrixkua zeukatela. Nere kasa egin bear nuela jinasia, patxaraz ta kontuz, pixkanaka. Esan zuen nolatsu, ta saietzen banintzan ongi jarriko zitzaidala anka. Baiña denbora asko pasako zuela bere onera etortzen. Etsian egoteko ta lasai artzeko, al banuen.

Etzuen gaizki asmatu. Bederatzi illabeteen errenka ta penatuaz ortxe ibili bear izan nuen. Noizbait meioratzen zijoala antzeman nionean, kontentu.

Bitarte artan egindako gastu guztiak eta galerak kontuan artu bagenitu, koxka polita dudarik gabe irten zitekean. Onez txoferraren aldekoak sosik eman nai ez, eta azkenean juzkaduan erabaki ziran gauzak. An guk irabazi genduen, arrazoa alaxe baigendukan.

Txoferrari, berriz, karneta kendu omen zioten, da gero kontuak. Puska batean ez det uste bolanterik eskuetan artu zuenik. Ara txarkeriak noraiño irixten diran. Zer tankeratan utzi ninduen ongi jakin arren, etzan ospitalera ni bisitatzera agertu. Orixe sentitu nuen geien bat.

Dana dala, pixka bat tajutu nintzanean, ekin nion lengo langintzari, ta billatu ere bai naikoa.

Garai artan, emen, Orion, kalean txekorrak etxe askotan azitzen zituzten, soro edo belar zelaiak zeuzkatenak. Nik ere jarri nituen bi esne-bei. Baiña zertarako? Lenez gaiñera neure buruari nekaldi galantak eman besterik ez nuen egin. Gau ta egun aztarrika ibili nintzan, bear aiña lo sekulan egiteko astirik gabe. Ganaduekin irabazi zitekean baiña geiago galtzen nuen tallerrean; da, orretaz jabeturik, alperrik nenbillela klase artan pentsatu arazi zidan betiko eziñak.

Saltsa geiegitan sartzen dan gizonak ez du atarramentu onik ateratzen. Presaka ta arrastaka ibiltzeko arrixkuan dago beti. Askoz ere ohea da lan jakiñean jarraitzea. Ala zerbait eskuratu lezake. Artu-utzi ori ez baida ona martxa zuzen eraman al izateko. Ni nerez ganaduzalea izaki, ta argatik jarriak ziran.

Asto bat ere erosi nuen Ernanin, otzan amorratua gaiñera. Bizkarrean jartzen zitzaion zama zainduko zuen. Zintzo entregatu ere bai bear zan lekura. Guretzako serbitzu aundia zeukan. Amaika lan eragin genion. Burni-karretoan ere bera erabiltzen nuen sarritan.

Alaxe, aztarrika nenbillela, len erdi ipurdi ta gero erabat gaixotu. Orduantxe banituen naiko lanak. Beiak eta astoa saldu bearrean aurkitu nintzan. Ez gendukan beste jokabiderik. Gaitza nagusitu ezkeru, gizona ezerezera biurtzen da, ta neri orixe gertatu zitzaidan.

1963'garren urteko San Juan illean, ebakuntza bildurgarria egin zidaten Donostiko ospitalean urdailletik. Bizirik irten da neretzako etzan poz txikia, bi ume etxean da aiek azi nai baintuen, bidezkoa zan bezela. Gurasoaren egin-kizuna orixe dala badakigu. Medikiak asko saiatu ziran nere onerako. Banuen premia, ta laguntzaren faltarik etzegoen aien aldetik. Ixtimagarri dira alako gizon atsegiñak benetan.

Etxera bialtzerakoan, onela dio operatu ninduen sendagilleak:

–Emango dizkizut bitaminak indiziotan. Auetatik egun bakoitzean bat artu bear dezu, erriko pratikantearengana joanda. Eta paper ontan jartzen dizudan errejimena zintzo bete, oraindik arrixku aundian zaude ta. Ongi entzun gauzak mesedez, eta etorri nere despatxura emendik illabetera, bitartean okerrik ez badezu; ta ikusiko degu nola dijoan zure osasuna.

Alaxe, joan giñan arreba ta biok Donostira; ta, radiosetan begiratu ondoren, esan zidan:

–Ongi billatzen zaitut. Baiña ez pentsatu gizon berri bat zeranik, konpostura egin dizugula baizik. Beraz, zaindu zeure gorputza. Ala ere, izango dituzu tristurak eta naigabeak sarritan. Baiña ez bildurtu, ortik etzera ilko ta. Jan-edanean abusatu gabe ta kontuz ibili.

Bete-beteen asmatu zuen medikuak nerekin. Geroztik beti suprituaz bizi naiz. Ala ta guztiz, lana pranko egin det. Noizean bein bitamina mordo bat artu ta segi aurrera, larri aldi batzuk paseaz.

Bakoitzak bere modura irabazi bear du eguneroko ogia. Ainbat ixillu xeble dituen janaria, guk ez degu errezetik eskuratu al izan. Ez dakit tontoak geralako edo zergatik. Baiña naiz alde batera joan edo bestera etorri, berdintsu beti. Indarka ta eziñean sarritan. Ikusi oi dira beste geiago ere orrela. Pobrearen suertea. Ta zorion osorik nork ote du?

Osasunez ornitua dana egon liteke gustora. Edozer gauza jan da edan lezakeanak, nun-nai dauka itxaropena. Berak ala nai izanik, lan xamurrean bezela gogorrean luzituko baidu. Sasoiari dagoen bitartean, egunezko nekeak gaueko lo gozoak aztu arazten dizkio, gazteari batez ere; ta urrengo goizean indarberrituta jeikitzen da oetik.

Zarrarekin kontuz. Aren gorputza bereak ongi emana egoten baida, ta atsedentzen zailla. Gure aurreko gurasoengandik entzuten genituen zartzaroko akatsak nolatsukoak ziran. Baiña jaso ez. Aizeak eramaten zizkigun, eskarmen-turik ez genduelako. Orain ekarri dizkigu bueltan guregana. Norberak probatzea onena sinisteko.

Zorionez, Orion urte mordo daramakigu bizitzen. Ondorengoak ementxe jaiok dira. Semea, Euxebio, zarrena, 1990'garren urteko urtillaren 20'an bete zituen ogei ta amasei urte. Alaba Maria Pilarrek, berriz, abenduaren 15'ean ogei ta amaika egiñak.

Ain zuzen, bi auen erdikoa, beste alaba, amazapi illabete zituelarik il zitzaigun, da nere denboran izan dedan penarik audiena arek eman zidan, gaixoak. Biotzondoko ikaragarria. Baiña alaxe komeniko zan, da nik ezin ezer egin suerte txarraren aurka. Gauzak datozkigun bezela artu bear derrigorrez.

Izena Maria Pilar zuen ildakoak, eta ura mundutik joan zitzaigulako, urrengo sortu zan alabari ere izen berdiña jarri genion.

Gaiñontzean, Orio bizileku atsegiña dalakoan egoten gera. Askori gustatzen zaiote, ta orrek zerbait esan nai du.

Nere iritziz, erri onek falta duena industria da. Kaleko lantokiz oso urri ikusten dala ez dago ukatzerik. Iru edo lau fabrika azi samarrak baldin baleuzka, asko indartuko litzake. Legortarrak kanpora joaten dira lanera. Lasarteko Mitxeliñen batzuk dabilta. Azerosen ere len dexente enpleatzen ziran; orain ez dakit. Usurbilko marmol fabrikan eta Uziñenean ere baita. Beste sail bat, berriz, Zarautzen. Orrelaxe banaturik dabil Orion bizi dan jendea.

Azkeneko ogei urteetan etxe berriak ugari eraiki dituzte emen, da askoz geiago zutitu zitezkean, bertan irabazbiderik jarri balitz. Arrigarria da erri ontan mugimentu gutxi izatea, dagoen puntuan egonik.

Eskerrak itxasoari. Orrek mantentzen baiditu familirik geientsuenak Orioko erri politean. Gizonezkoak zintzoki jarraitzen oituak daude arrantzan, ogia nundik datorren dakitenez.

Orain, entzuten danez, ez da lengo konturik itxasoan. Arraia urri antzean edo arrapatzen zaildu, ez dakit zer gertatzen dan. Oso kezkatu nabaitzen ditugu beintzat arrantzaleak. Itxurak diranez, alde guztietan bada galtzak bete lan.

Len, San Jose inguruan, seguru azalduko zan antxoa, ta udaberrian kostera itxurazkoa egingo zuten. Urte auetan, ordea, apirillaren erdi aldera bitartean ez omen da inun agertzen, da orduan ere ugari ez noski, ta denbora gutxian iraun. Ori okerrena.

Batzuek, suerte onez parean egokitzen diranak, argi begiratuaz ta gogotik saiatuta, ongi irten. Beste asko, berriz, aiengandik urrutira gabe antxe ibili arren, asmatu eziñez igoal, penatzen erabat erreta.

Arrai aukerarik ezak ekarriko duela derizkiot deskontentu ori. Nik neuk ez det geiegi ulertzen gai orretan, baiña besterengana urbiltzean jakiten ditudan pasadizoak esaten ari naiz.

1988'garren urtean, adibidez, udaberri pobrea izan zuten mariñelak. Antxoak frakaso ikaragarria eman baizioten. Ura noiz erremeditu? Nik ez det eskasagorik ezagutu, Orion bizi naizen ezkerotzikan. Armadoreak eta mutillak, danak etsi samarturik sentitzen genituen. Etzan gutxiagotarako.

Eskerrak atunari. Bestela, toki ederrean zeuden. Bietako batek berea itxuraz eman ezkeru, moldatzen dirala esan genezake, naiz-ta estuasunak pasa.

Itxasoko ibillera giro txarrak nastu arazitakoan, ez da gustagarria izango. Gazterik asi ta an dabiltzanak oituak egon litezke, ta bearra. Egunez gaitz erdi; gauari diote bildurrik aundierna, gizon edadetuak batez ere. Ez baida etxeko oe zurian lasai ta gozo lo egitea bezela ango borrokari erantzutea.

Dana dala, Oriok, erri txiki bat izatekotan, baditu bere birtuteak. Emen arraunlariak ezagutu ditugu sonatuak.

Ugari gaiñera. Orretan apizio izugarria duela, bertako jendeak nun-nai erakutsi izan du, jokatzera joandakoan marka galantak egiñez. Beraz, or dauka-gu bistan Orioren ixtoriala, ez txantxetako, bizirik iraungo duena agian luzaroan edo beti.

Aspaldiko kontuak berritzen ari naiz. Azken bolaran baju antzean dabilta gure arraunlariak. 1988'an etzuten parterik artu, traineruetan beintzat, oriota-rrak. Trainerilletan ez dakit zenbat ibiliko ziran. Euskalerrian jokutzen dituzten estropadak bakarrik izentatzen ditut nik. Beste gaiñontzekoekin ez naiz sartzen.

Baiña emendik kanpora ere joaten badakite iñoiz gure mutillak, eta 1988'garren urtean traineru aunditan igoal jokatuکو zuten nunbait lenengo asieran. Duda pixka batekin nago. Deskuidorik balitz, barkatu dezaidatela mesedez.

Gaur ainbat tokitan daude arraunlari onak. San Juan da San Pedrotarrak indartsu agertzen zaizkigu. Len ere etziran makalak. Aiei irabaziko zionak jo bearko zuan atzera begira egon gabe.

Orain mutillak ongi prestatzen omen dira. Ez dakit ori dana egia dan. Tallerreko lanari erantzunez jarraitzen dutenak edo baserriko zer egiñak dauz-katenak, nai bezela prestatu al leizke?

1990 garren urtean ari naiz idazten. Gerora ez dakigu zer gertatuko dan.

Dana dala, kirol klase orrek baztarretan mugimentu latza jartzen du estropadetako egunetan. Donostiko Kontxa ta Igeldo aldeko itxas ixkiñak bapo beteta egoten badakite jendez gaiñezka.

Bai Parte Zarreko ostatuak lanez leporaiño aseta abasto eman eziñik. Geiegizkoa txarra dala esaten da. Eskasia okerragoa noski. Jatetxeetan jeneroz aukera egoten da, ta saltzea komeni, ezer alperrik galdu ez dedin.

Aipatzen ditugun egun oietan, urte guztian erritik iñora ateratzen ez diran-ak ere, goizetik joko dute Donosti aldera, estropadak ikusi ondoren bazkari on

bat egin asmoz, lengo oitura zarrari jarraituaz ilusioz beterik. Illunabarrean bueltan datozenean, ekartzen dute zer kontatua. Orrelako irteera batzuek ongi laguntzen diotela badakigu, pozaren billa dabiltzan geientsueneri. Ta nik oriotarren artean ezagutu dedan jokabidea orixe bera izan da.

Bilbaon bertan ere estropadak oiartzun berezia dute. Berebiziko jendetza biltzen omen da. Alamoizko entzuerak daukagu nun-naitik. Autobusak jartzen dituzte gaur, da ibilirako egokiera apartak daude. An ere ostalariak ez dira lotan egongo, ta aprobetxatzen jakingo dute diruaren berotasuna.

Egun batez, ikusi genituen Orion estranjeroak, arraunlari ederrak, inglesak eta alemanak. Aiek ziran mutil tantaiak! Ez dakit zenbat urte izan litezkean. Aspaldiko kontua da ta aztua daukat. Oriotarrak garai artan sasoi betean zeuden. Ai zer nolako koadrilla zegoen!

Inglesak, alemanak eta irurak batera jarri zituzten jokoan. Estuasun gogorrek eman zizkieten alkarrak. Alemanak juxtu-juxtuan irabazi, bigarren Orio ta azkenik inglesak, oker ez banago beintzat. Ura zan arraunketa zeukatena!

Kanpotarrak beste gaiñontzean ez omen zuten lanik egiten ezertan. Arraunnean bakarrik. Ezagun zuen beraien egokitasunak artarako prestatuak zeudela. Agindu zorrotzetara eziak alegia seguru asko.

Gauerako emen gelditu ta dotore. Nagusiak libre antzean utzi mutillari, berak ere tartean ibiliko baiziran, da Orioko lagun artea gustatu daneri. Afaldu ederki ta segi zurrutean. Azkenerako, orratik, ipurdiko otzik etzuten izan bear, nik entzun nuenez. Edari orrek ez du errespetatzen etxekorik eta kanpotarrak, neurrian pasa ezkerok. Amaika gizon indartsu botako zituen onuzkerok ankaz gora. Inglesak eta alemanak alako arratsik sekulan igaroko ote zuten? Emengo jendea arriturik egona zan aieri begira.

Jakiña, askatasun gutxirekin bizi nunbait, neurri juxtuan beti zainduaz. Ala obe gaiñera arraunerako. Argatik zeukaten sasoi bikaiña. Danak batera erabiltzen zituzten arraunak, kordela baiño zuzenago. Zoragarri utsak iduritu zitzaizkigun.

Gauza politikak dira estropadak, gaiñetik ikusteko. Itxasoa bare ta eguraldi gozoa dagoenean, ainbesteri gustatzen zaizkiote.

Diru aldaketa izugarriak, berriz, tarteko. Jokolariak arrixku aunditan sartu ta estuasun galantak igaroko dituztela bistan dago.

Orion, len, mutil koskorrak eskolatik irtendakoan, erriora joateko oitura zuten askok. Artu batelak zeuden tokitik eta arraunean ortxe ibiliko ziran illunabarretan, gosetu ta aspertu bitartean, ikasten. Orain uste det apizio ori galtzen ari dala, erabat ez bada ere geientsuena beintzat. Lastima!

Pelota kontuan ere gauza bera gertatzen zaigu. Oso nabarmen atzeraka goaz. Garai batean, igande goizetan, frontoia leporaino bete ta alkarri txandarik eman nai ezik ikusten genituen erri ontako gazteak. Asteko egunetan ere, libre zeuden guztian, artantxe. Baiña gaur utsik dago frontoia. Emengo jendeak ez dauka pelotarako gogorik. Itxurak diranez, fubolean edo beste zerbaitetan naiago jolastu.

Oraindik denbora asko ez dala, gizon batek onela zion:

–Nere iritziz, esku pelota galtzera dijoa pixkana-pixkana. Napar aldeko erri txikietan eusten diote bizirik, beste gainontzean jolasbiderik ez dutelako. An sortzen zaizkigu pelotariak ugariena. Gipuzkoan da Bizkaian ez len bezela aukeran, urriago baizik.

Naigabetua zegoen, bera zale amorratua izanik. Ori deporte gogorra ta nekosoa ere badala dudarik ez da. Pelotak, berriz, arriaren antzekoak dabilzala entzuten degu. Urtearen barruan partidu asko jokatu bear, ta eskuak txikitzen, minberatu alegia, ta gero iraun ezin. Ez derizkiot arritzekoa danik. Baiña jendeak beti partidu onak ikusi nai, ta zailla.

Arraunlariak ere ederki suprituaz ibiltzen omen dira, ipurdi aldeak urratu ta txalupan eseritzeko bildurrez noski; ta sendatzeko astirik ez. Entrenametuak sarritan egin bear, ta jokoa duten bakoitzean eridak berritzen, da segi bere artan. Ez daukate meritu gutxi, or irabazten dan jornalarekin orrela saiatzen diranak.

Gure gazte garaian estropada gutxi jokutzen ziran; 1988'an, berriz, irurogei txapelketa, batzuen albisteak ziotenez. Ori egia baldin bada, galanki ugarituak daude.

Lendik Pasaira bandera pranko eramango zuten. Zumaira ere batzuk bai. Baiña galdu geiago. Aurreko urteetan suerte ohea eduki zuten. Ondarrabitik lan txarrak eman zizkioten askori. Goraka dijoaz ango mutillak. Bizkaitarrak ere sasoi zeukaten, da kontuz aien ondoan, bada ez bada ere, urrengoan ziri zorrotzak igoal sartuko dituzte ta.

Oriotarrak berriro noiz asiko zai gaude. Oraindik ez degu etsi zearo, ta sortu ditezela landare berriak, lengo izen aundiari eutsiko diotenak.

Azoka konturik erabili ez dedanez, aipagarri dala derizkiot eta berari buruz ere itzegin nai nuke zerbait.

Erri askotan ikusten dira azoka bikaiñak, oparo ornituak alegia, asteko egunetan; da emen, Orion, ostegunez izaten degu. Goizeko zortziretatik eguerdiko ordubiak aldera bitartean edo orrelatsu irauten du orko martxak, gutxi gora-bera. Batzuetan lentxeago bukatzen da, da besteetan geroxeago. Banaz beste, ortxe nunbait ibiliko da.

Kanpotarrak, autoak bete ta jeneroz ongi osatuak etortzen zaizkigu. Klase guztietatik ugari ekartzen dute saltzailleak. Bada gauza baliosorik baztarretan, arranek ezik!

Gaur jan-gaietan aukera dagoela badakigu, kontserbakoak bezela freskoak. Barazki ederrik agertzen da. Ta, fruta kontuan sartzen bagera, berriz, areago. Gure lurralde auetan baiño errezago bilduko dute kanpoko zenbait parajetan, seguru asko. Bestela, zailla litzake ainbeste banatzen.

Sagarra bera urte osoan daukagu nun-nai pillaka, ta nolakoa gaiñera! Naranja, platano ta oietakoak berdin.

Nik ez dakit zenbat modutako alimentu goxoak aipatu genezazkean, gorpuzaren ongarri ditugunak. Berdura ta fruta sendo jaten dituenak, egarri gutxi izango du jeneralean. Oiek barrua freskatu egin oi dute edozein garaitan ere.

Beraz, azoka-egunetan ez da nabaitzen ezeren faltarik dirua daukanarentzat. Ori sortzeak ematen dizkigu lan txarrak sarritan. Bizi-modua galesti jarri zaigu ta asko bear, famili azi samarretan batez ere. Bakoitzak bere etxeke berri jakingo du, ta ez da txantxetako gastua.

Jazkerak ere aldatu ziran. Len, garai batean, zurragoak giñan gai orretan. Orain, soiñeko erropaz ta oiñetako berriz plaza dana beteta gaiñezka ikusten da. Bitxi politez apaintzen badakite gazteak. Modan daudenak zaizkiote atsegin, da bada nork saldua. Erostenak inguratu ezker, gustora noski.

Orion, arrantzaleak itxuraz dabiltzanean, antzematen zaio ederki txanpon berriak sartu dirala errira. Orrek mugitu arazten baidu jendea, zalantzarik gabe.

Erbestetik furgonetak kargatuta datozen saltzaille taldeak, bertako dende-

roeri ezin mesede aundirik egin inñolako moduz ere. Kalte gciago. Irabazbidea urritu edo kendu, nere ustez beintzat.

Baiña ez da inñor arrituko, aspalditik datorren oitura izanik. Eta, ortik aparte, saiatuta bizitzeko eskubide osoa danak daukate, ulertuko bagendu. Dana dala, zorioneko azoka ori ez dedilla galdu.

Orion bezin azoka onik
ez leike nun-nai ikusi,
moroak ere badira salgai
nai dituenak erosi.
Afrikatikan Euskalerrira
etorri ziran igesi,
oso barrura sartu dira ta
kanpora nork aterazi?
Emen azkenik gertatuko da
gu il eta oiek bizi.

Ostegunetan bixitatzen det
beti Orioko plaza,
baiña benetan estutzen zaizkit
biotza eta arnasa,
moro oieri begiratzean,
pentsatuaz nere kasa:
erri zar ontan zabaltzen bada
klase ortako arraza,
gure izkuntza garbiro zaintzen
ez da izango erraza.

BERTSOLARITZA

BERTSOLARITZA

Bertsolaritza emen daukagu beti, esku artean erabili degun gai zabala bezin luzea. Berari buruz zerbait mintzatzea neri dagokidana dala derizkiot.

Bertsolariaren bizitza zer dan ikasteko ainbat motibo izango nuelakoan nago, berrogei ta bi urtetan erriz-erri kantari ibili naiz ta.

Ez da langintza gustagarria. Iñoizko osasunez sendo daudenak errezago iraun lezaket. Nik, ordea, ori falta geienetan zoritxarrez, ta artu ditut pasada latzak. Orrek dudan dagoenari egurra ematen baidio.

Bertsotan errez egingo bada, umore ona nai litzake, ta ori ez da norbere gain egoten. Jan da edan lasai ta kupida gabe lenengo; ta gero kezka gutxi. Oiek dira bearrezko bi gauza bertsolari batentzat, nik izan ez ditudanak.

Egun danak etziran berdiñak neretzako ere. Batzuetan, alimentuak on egindakoan, pozik kantatzen nuen da etzitzaidan iduritzen ainbesteraño nekatzten nintzanik. Orduan alakoxe poza sentitzen; barrendik zetorkidan alaitasuna geienetan.

Tristeena da goizean, etxetik irten orduko, berriz noiz itzuliko pentsatzen jartzea. Kanpoan gustora ibiltzeko señale txarra. Baiña joan ezker txanpon aleak ekartzen genituen, da segi, al zan bitartean, nola edo ala.

Ortik aparte ere, zerbait geiago bada bertsolaritzaren barruan oso pozgarria. Edozein erritan ditu bakoitzak bere lagunak, eta aietara bildu al izatea gauza aundia dala ezin genezake ukatu. Zer oberik noizean beingo?

LENGO BERTSOLARIAK

Nik batetik bestera kantari asi nintzanean ezagutu nituen bertsolariak ixilduak dira. Betikorik ez baida iñor. Basarrik plazetan ibiltzeari aspaldi utzi zion. Uztapide zana gaixotu ta erretiratu zan irurogei ta iru urterekin.

Zepai zanak, bizi zala ere, etzuen kantatzen. Berak jakingo zuen zergatik. Txapel zanak ere ez. Paulo Zubiarrain –*Ermani Txikia* deitzen zitzaion– au oraindik bizi da; baiña aspaldiko urteetan ixilik dagoen txoria. Errezilko Antonio Mari Loidisaletxe zanak ere urte mordoan oso gutxi kantatu izan zuen, bere errian ez dakit, baiña gaiñontzean.

Gizon zarren izenak aipatzen ari naiz, eta bistan daukagu urteak ez dutela barkatzen.

Asteasuko *Ondartza*, Bautista Kortajarena, oraindik bizi da. Larogei ta zortzi bat urte beteak euki lezazke, ni oker ez banabil. Bautista onek Aia aldera bisitak egin oi zituen igande egunetan, ni mutil gaztea nintzan garaian. Bere lagunetara joaten zan nunbait, eta biok bertsotan aritu giñan prankotan, pozik gaiñera. Orduan gogoaren faltarik ez gendukan, sasoia alamoduzkoa, ta kontentut. Edozertarako prestatzen errez.

Asteasuko Joxe Lamitegi bestea. Onekin kantatu nuen lenengo plazan, Bizkaiko Zaldibarren ain zuzen. Ermuan bizitzen zan Joxe lendik ere, ez-konduta, berak aitortu zidanez. Nik ezagutu nuenean, osasun bikaiña zeukan. Baiña gerora galduko zitzaion. Urdailletik iru operazio egin omen zizkioten, da txarrak. Andik ilko zan noski gizarajoa.

Zaldibartarrak plaka dotore bat eman zidaten neri, oroigarri polita, kantari jendearen aurrean erri artan asia naizelako. Onela dio plakak:

«Manuel Lasarte, bertsolaritza asi zenduen gurekin. Orrengatik oroitzen gera zurekin. Zaldibarren, 1979, Maiatzak 15 zituela».

Asko ixtimatu nioten erregali eder ura ta nereganako zeukaten borondatea. Eskerrik asko biotzez.

San Isidro egunez nekazarien billera zuten, da gu, Joxe Lizaso ta biok, bertsotan. Aurreneko aldiz an kantatu nuenean, amazazpi urte neuzkan artean. Geroztik baditut makiñatxo bat saio egiñak, arranek ezik.

Lujanbio edo *Saiburu* ere ezagutu nuen. Alkarrekin kantatzeko suertea izan genduen bein, Ernaniko Ereñotzu baillaran. Paulo Txikia ta irurok jardun giñala gogoan det, San Antonio egun batez. Saiburu, etxearen goiko leio bate-tik. Gu barrika banatan gaiñean jarri ginduzten bean, aulkietan exerita, lengo oitura zarra alaxe zan da. Nik emeretzi urte eduki nezazkean orduan. Geiagorik ez.

Eguerdiko lanak bukatu ondoren, ostatuan Saiburu zanak onela esan zidan:

–Segi aurrera orrelaxe, gazte, oso bide onetik asi zera ta.

Nik nai nituen itzak entzun nizkion aitonari, ta ez nintzan asarre. Gorreria zeukan izugarria ordurako gizarajo arek.

Geroztik tarteka ikustea egokitu zitzaidan. Gu Errenteri inguruan kantari baldin bagiñan, an egongo zan entzuten aurreko puntan, da gero bilduko zitzai-gun zerbaitekin konbidatzera. Biotz oneko gizona izaki berez.

Itziarko Zubeltzu zana ere ezaguna zan neretzat. Bertsolari dotorearen fama zuen. Nik, kantatzeko zeukan posturari begiratuaz, alaxe esango nuke. Izlari egokia zan, da patxada ederrekoa. Bein edo bitan kantatua naiz berarekin ostatuan; plazan ez. Getarin, San Anton egunez, Uztapide ta biok urte mordoan bertsotan jardunak gera, ta Zubeltzu gure lagun artera bilduko zan seguru samar. Etzitzaizkion aztuta pasako San Antonak.

Ara: bertsolari zarrak eta emen lengo gerratea ezkeroztik sortu diranak ezagutu ditut. Azken bolaran batzuk illak ere badira.

Goizuetako Andres Narbarte bat. Etorri ugarikoa zan, gutxi kantatzen zuen baiña. Migel Arozamena bestea. Au jendeak geiago ikusia.

XALBADOR ETA MATTIN

Gure lagun Xalbadorrek ere aldegin zigun mundu ontatik. Bertsoz ta prosaz osatutako liburu eder bat eskeiñi zion Euskalerrinari, ta aren agerpena egiterakoan omenaldi bat antolatu zuten Urepelen, da egun berean il gizona. Esan liteke aren garaia iritxi zala. Arratsaldeko jaialdia bukatu baiño len, ondoeza sentitu zuelako erretiratu omen zan plazatik; eta bereala eman azken arnasa gizarajoak.

Goizean pozez eta illunabarrean negarrez. Ara ordu gutxiren barruan nolako aldakuntzak.

Omenaldiak astunak izan oi dira jeneralean, erria maite duen batentzako. Ikusten du askok ongi nai diotela, ta nundik eskertu jakin ez.

Antxe izan giñan bere illetan, Urepelen. Azken agurra egiteko bertso bana kantatu genion bost bertsolarik. Eliza txikia ta bear aiña toki ez egun artarako.

Xalbador bertsolari sakona genduen oso. Sentimentu onak zituen, gai serioetan batez ere. Tela klase orreri zegokion jostuna dudarik gabe, nere iritiz beintzat.

Eta Ahetzeko txoria, Mattin bertsolaria alegia. Azken aldera ez det uste zorion geiegiz poztu zitekeanik. Etxeko tratoreak azpian arrapatu ta marruskatu izan bear zuen, da andik galdu noski. Penagarria benetan.

1981'garren urteko San Juan illaren 7'an, omenaldi bat egin zioten Oiartzunen, da antxe nintzan bertsotan, beste batzuekin batera, egun artan. Gizon tristea billatu nuen oso. Nolabait zegoela zirudien. Etsi samartua bere mundualdiz alegia. Ala ere, erregaliak artu ondoren, bost edo sei bertso kantatu ordea arek, erriari ta entzule daneri eskerrak emanez.

Madalensoro pelota lekua jendez gaiñezka zan. Ongi portatu zitzaizkion oiartzundarrak, merezi zuen bezelaxe gure lagun Mattiñek.

Gero, berriz, uztaillaren 4'an, Usurbilko Santa Isabel pestetan, bertso saio

bat gendukan guk, eta Mattin ekarri zuten bertara. Baiña ez kantura, baizik erregali batzuk zeuzkaten berarentzako; ta entregatu zizkioten erri guztiaren aurrean, esker ona agertzeko, usurbildarrak ere. Azkenean bertsotan aritu zan pixka bat, baiña eziñean.

Gizarajoa! Gaitzaren pena etzegoen disimulatzerik, artan alegindu arren.

Oltzaduraren gaiñean alkarren ondoan egokitu giñan, da kontu illunak esan zizkidan. Anketatik zeuzkala izugarrizko miñak. Ez bakarrik ibiltzerakoan; oean ere oiñazez egoten omen zan, ezertarako pozik gabe. Ez da arritzekoa animoak galdurik sentitzea.

Mattin erriaren jostailua zan. Pestagi-roan kantatzeko bertsolari alaia ta bizia. Gizon argia ta lagun arterako asko balio zuena. Eraman aundikoa.

Usurbillen itz auek entzun nizkion:

–Agur, Lasarte! Urrengora arte, berriz alkar ikusten badegu!

Andik laister il zan.

Bai; Xalbador ta Mattin il ziran, irakurle, ta ez degu aztu bear aietaz, gure senideak ziran da. Frutu ederrik eman zioten Euskalerrinari. Ortxe daude txutik egin zituzten lanak; eta ala egongo dira gaiñera, gure euskerak bizirik irauten badu edo bertsolaritzak jarraitzen duen bitartean.

Guk saio asko egin genituen. Sarritan alkarrekin izaten giñan, Gipuzkoa aldean batez ere, aiek onuntza etortzen ziranetan. Baztan inguruko errietan ere bai, Naparroan alegia. Elizondoko *Antxitonea* trinketean prankotan kantari, urtean bitan gutxienez edo geiagotan igoal.

Egun batez gogoratzen naiz: Uztapide, Xalbador, Mattin da ni, Lasarte. Arratsaldean zan jaialdia, baiña eguerdirako joateko abixoa eman ziguten. Alaxe, danok ere oso garaiz bertaratu giñala badakit.

Elizondora iritxi ezker, nortsu izango zan lenengo ongi etorria egingo ziguna bagenekigun: Klemente Ezkurdia. Illa da gizarajoa. Au berez gorritiarra zan, Elizondora gazterik aldatua. Bizimoduz, txerri tratuan zuen ogibidea.

Geroxeago, Mariano Izeta eta bere lagunak agertuko ziran. Auen gozame-na antxe itz aspertu bat artzea zala uste det.

Esaten ari naizen egun artan, beti bezelaxe, bazkari itxurazkoa prestatua zeukaten ostatuan, da asi giñan eseri ta jaten gustora. Gu, Xalbador da biok,

maiaren alde banetatik, alkarren parean. Aldemenean Klemente, ta aren kontu botillerotza. Basoak utsik zeuden. Etzituen ikusiko nunbait, kontu kontari ari giñan da, eta onela dio Xalbadorrek:

–Aizu, Klemente: bertsolariak orain urrengo etorri ziranean, mozkortu egin al ziran?

Besteak orduan:

–Zergatik diozu ori?

–Ez dakit ba nik. Ardorik ez dezu ematen da...

–Jesus, Jesus! Ez naiz konturatu ere, ta barkatu bearko dezu nere akatsa.

Andik aurrera aukeran genduen edaria. Eskatzeko modu dotorea eta ateraldi polita ere bai.

Beste batean, Oiartzunen zan au. Goiz partean bertso-saioa egin da bazkaltzera joan giñan, agindu ziguten tokira. Bazkaldar asko bildu ta, jangela aundia izan arren, bapo beteta ikusi zala gogoan daukat. Janariz eta edariz ongi osatua gaiñera. Gose-egarririk gabe jarri ondoren, kafeak ekarri zizkiguten. Aiek azukrez gozaten ari giñan garaian juxtu-juxtu, bi neska gazte sartu ziran barrura, da galdetzen dute ate ondotik:

–Mattin nun da, mesedez?

Bere jarlekutik altxa ta onela dio Mattiñek:

–Ementxe nago ni zuen zai.

Ori entzunik, joan zitzaizkion neskatzak beragana, ta an asi zaizkio biak eldu ta muxuka. Bai Mattin ere beraieri ordaiñak ematen, da irurak kontentu.

Xalbador nere ondoan zegoen da esan zidan:

–Muxuak ez dakit zenbat alimentu izango duten. Baiña gaur Mattiñen kafea oztuko da ederki.

Ala ere, ajola gutxi. Mattin orrelakoxea baizan bere izakeraz. Txori argia, ez errespetoa falta zitzaiolako. Arek bazuen edonork aiña. Jostailu utsa izaki. Bertotan gai bat xeble antza jartzea naikoa zan, lenengo bera parrez asteko, ta gero beste askori eragin galanki. Ortan artista purrukatua zala badakigu. Entzutera zijoa jendeak arengandik beti gauza alegreak espero zituen. Kantu alai bidez mugitu arazten bazekien baztarrak. Txalo burundara ederrak jo

arazi oi zizkion erriari. Bertsoetan ziri puntu ori erabili arren, bein ere etzitzaion irtengo iñor minberatzeko moduko itz nabarmenik. Gorputz txikia izanik, petxu zabala zuen; borondate ona.

Eta ara Xalbador gizon serioa. Bertsolari sakona benetan batzuen ustez, eta neretzat ere bai, len iñoiz esan dedanez. Binaka bertsotan egin bear gendue-
nean, lagun atsegiña iduritzen zitzaidan. Arek etzuen txarkerira joko, ta artara-
ko motiborik emango. Guk noiz edo noiz pixkaren bat zirikatu arren, bere
bideari segiko zion zintzo. Gauzak benetan artzen zituen. Errespeto aundia
zeukan publikoaren aurrean.

Bakarrik kantatzeko gaia zetorkionean, bere gustokoa bazan, etzan presa-
ka asiko, ongi pentsatuta baizik. Guk orretarako ez degu pazientzirik izan.
Txarra edo ona, azkar bota. Baiña arek denbora artzen zuen, da patxada
ederrean egingo zituen lanak. Arrazoi osoa zeukan, nere iritziz. Azkenean
bertsoari begiratzan baizaio; ez denborari. Xalbadoren bertsoak ixillean ausnar-
tu oi zituzten askok, biotza ukitzen ziotelako.

Egia da bertsolari danak jokabidez desberdiñak dirala. Jendearen gustoak
ere bai. Ori ukatzea alperrikakoa dala derizkiot. Baiña esaera sentimentalak
garrantzi aundia dute. Negar aldia bein penak edo naigabeak eragin oi du, ta
urrengoan pozak. Sarritan uste izaten da pesta giroan gauza bizi samarrak
komeni dirala. Nik ori onartzen det. Ez daukat aurkako itzik. Baiña bertso
sakonak berekin dute umore barrenkoia. Nik neuk ala pentsatzen det, irakurle.
Oker baldin banabil, barkatuko al didazu noski.

Xalbador ta Mattin xelebreak jartzen ziran tarteka. Onoko auetxek ere
ateraldi politak dira. Bein Elizondora joan giñan bertsotara goizetik; eta an,
ostatuan geundela, Xalbadorrek galdetu zion Klemente Ezkurdiari:

–Emen arbi azirik iñork saltzen ote du, Klemente?

–Bai, gizona. Ortxe denda batean saltzen dute nai dan aiña. Neronek
ekarriko dizut bereala. Zenbat nai zenduke?

–Ez dakit ba nik. Kilo bat-edo.

Orduan Uztapidek Xalbadorri onela dio:

–Ik arbi azia kiloka ereiten al dek?

Bestea ixilik gelditu zan.

Gero, bazkaltzera inguratu ta maia gertu gendukan ordurako. Ala, eseri ta

jaten ari giñala, Xalbador eizean ibiltzen zekiena izango zan seguru asko, ta esan zion itz batetik bestera:

–I, Mattin: lengo astean basaurde bat bota nian baso zokoan.

Mattiñen galdera:

–Aundia al uen?

–Ez oso. Ogei ta amabost kilo zizkian bizi-pixa.

–Kontxo! Bizirik pixatu al uken?

Xalbadorren erantzuna:

–To! Arrapatu nauk lazoan alu orrek.

Parre gozo egiten zuen Mattiñek Xalbadorri illea artuaz. Izan ere, basaurdea bizirik dagoela pixatzen ez da errez izango. Zenbat orrelako pasadizo xeblebre entzun ote degu? Danak gogoan bagenitu...

Bertso kontuan, berriz, gustoko saioak ez dira sortzen norberak nai duen guztietan. Gorputz aldarteak asko esan nai du, ta gaiak nolakoak diran ere ikusi bear da. Orrek garrantzi izugarria baidu.

Bein ala esan zidan Xalbadorrek, geure lanak bukatu genituenean:

–Lasarte, gaur ez gera ongi aritu kantuan. Baiña bada denbora bertсотarako. Urrengoan obeki egingo degu.

Itxaropen ona arek zeukana, ta egi biurtu zitekeana, batere zalantzarik gabe.

Beste egun batez, or bazan, Irun ingurukoa zala uste det, *Frantzes*a deitzen zitzaiona, kontratista edo etxegintzan jardun oi zana. Bertsozale purrukatua, ainbat jaialditan gure entzule jator ta prestu utsa izandakoa. Arek kontatu zidan Xalbadorren ixtoria dotore asko. Zarautza bertсотara etorri ta *Frantzes*a ere bai entzutera, ta or alkartu omen ziran ostaturen batean, da Xalbadorren galdera:

–Emen espartziñik erosi ote leike? Zapata estuegiak dauzkat eta anketan min ematen didate.

Ori entzunik, *Frantzes*ak esan dio:

–Besterik falta ez badek, espartziñak laister billatuko dizkiagu. Goazen

biok. Nik badiat dendero ezagun bat ortxe bertan. Bazekiat nun bizi dan ere, ta konponduko gaituk.

Alaxe, joan da bere gustoko espartziñak oiñetan jarri zituenean, kontentu gure Xalbador noski, ta *Frantzesak* onela esan omen zion:

–Bertso bat edo bi espartziñen gaiñean bota bearko dituk orratik.

Xalbadorren erantzuna:

–Gaur kantatzen ditudanak, espartziñen gaiñean kantatuak izango dira, jantzita dauzkat eta.

Zer nai dezu arrazoi txukunagorik, irakurle zeran orrek?

Ura zala uste det eguna, Xalbador ta Mattin lenengo aldiz Zarautzen kantari jardun zirana ta alkar ezagutu genduen. *Zinema* pelota lekuan zan jaialdia. Gu ere antxe aritu giñan. Bada urte mordo ederra.

Nik andik laister soldadutzara joan bear izan nuen. Guk serbizioa gendukan baso zulo artatik Xalbadorren ardi bordara eta txabolara, iru bat orduko bidea zan gutxi gora-bera oiñezkoarentzat. Nik ez nekien nun zegoen. Baiña soldaduak mendira patrullara bialtzen zituzten agintariak. Goiz ta arratsalde, jai ta aste, txandaka ibili oi ziran eten gabe.

Ni ez nintzan joaten jeneralean. Baiña igande batez gertatu zitzaidan serbizio artan parte artzea, konpañian jende eskasia zegoelako; ta, batere ez genekiela, antxe inguratu Xalbadorren txabola aldera. Bi soldadu giñan da esan nion nere lagunari:

–Mugaz arunztik ikusten degun gizon ori ezagutzen diat, oso oker ez banago.

–Bai, zera! Nundik? –erantzun zidan.

–Goazen beragana ta jakingo dek.

Belar ontzen ari zan, bcro galanta zalarik. Alaxe, urreratu giñanean:

–Egun on.

–Berdin zueri ere.

Ta nik, eskua luzatuz:

–Zu Xalbador zera.

–Bai. Ala naiz. Ta zu, berriz, Lasarte –erantzun zidan.

Izugarrizko poza artu zuela zirudien, gu an ikustearekin, gizarajoak; eta esan zigun:

–Zuek, soldaduak, gosetuak egongo zerate onuzkero, ta etorri nerekin mesedez.

Txabolan sartu arazi ta atera zituen gazta zarra, ogi biguna erre berria, ta zato aundi bat ardoz betea. Ixtimatu genizkion benetan, goseak amorratzen baigeunden. Ez giñan asarre orduantxe gu. Ogi zuri gozorik jan ez genduela, zenbat denbora ote zan? Urte pobre aietan mugaz onunztik supritu zituen latzak jendeak ogiaren faltan. Dana dala, Xalbadorrek eman zigun amaiketako ura etzan berealakoan aztu.

Alaxe, kontu kontari ordubete edo geiago pasa ondoren, alkar agurtu ta martxa bakoitza bere eginkizunetara pozez zoratzen. Bixita atsegiña benetan.

Beste igande arratsalde batez, gogoratzen naiz, *Zinema* pelota lekuan egin genduen bertso saioa Basarrik, Xalbadorrek eta nik, Lasartek. Ikastolari lagun-tzeko edo orrela zala uste det, oker ez banago; ta, lanak bukatu ta oltzaduratik jetxi giñanean, Basarrik esan zigun:

–Goazen *Gure Kabi*’ra. Nai badezute, botillatxo bat ardoz konbidatzen zaituztet.

Alaxe, lagundu genion, da trago bat edo bi artu ere bai. Baiña ordurako tripa beste zerbaiten eske asia gendukan, da Xalbadorrek galdetu zidan:

–Emen nun jan ote leike, Lasarte? Zuk jakingo dezu, ta ni gosetua nago.

Orduan, geunden tokitik altxa ta kanpora irten da bagoaz kalean aurrera, ta esan nion:

–Gaur etxera joateko presarik bai al dezu?

–Batere ez –erantzun zidan.

–Ori orrela baldin bada, Orion apalduko degu lasai. Gure illobaren etxean bizi naiz ni, ta an daukazu lotarako oia.

Ontzat artu zuen; da, Zarauztik abitzerakoan, Bartolome Martija kontratista bere andrearekin topo, ta galdetu zigunten:

–Nora zoazte presaka?

–Gu Oriora apaltzera.

Orduan, aiek ere etortzea erabaki zuten, da laurok alkarrekin txuleta erreak jan genituen, kontu zarrak berrituaz, danok pozik eta gustora.

Martija au bertsozale amorratua izan, da andrea ere bere antzekoa, berriz. Etxe asko egin ditu kontratista onek. Orain ez dakit nola jarraitzen duen; baiña len, urte mordoan, guri lan asko ematen zigun balkoigintzan da abar. Neretzat gizon leiala zan.

Dana dala, sartu nadin neramakien arrastora. Xalbadorrek umore ederra zeukan, Orion gelditu zitzaigun gau artan. Gozo pasa genduen apalondoa. Plazan serio ikusten zan arren, bestelako aldarteak bazituen tarteka. Ostatutik etxeratu giñanean, gure illoba ta ama zarrak parrez esteak botako zituztela ziruditen, Xalbadorren txisteak entzuten. Sukaldean egonaldi luze bat egin da lotarakoan, esan nion:

–Zu, nik deitu bitartean, lasai egon.

Urrengo goizean, sei ta erdietan tallarreratu nintzan lanera, ta gero bedera-tziak aldean etxera. Gelako atea jo nionean, segituan altxa zan. Lo ederki egin zuela ta kontentu gizona. Emakumezkoak gosaria eman ziguten, da an joan zan kotxea artu ta Urepelera.

Ara emen Xalbador ta Mattin bikote bikaiñaren izakera aberatsa nola-tsukoa zan. Balegoke oraindik ere zer itzegiña, baiña gaur onenbestean buka-tzen det.

Xalbador eta Mattin
gure taldekoak,
biak genitun mugaz
beste aldekoak.
Lagun urkoari on
egin zalekoak,
euskeraren maitale
neurri gabekoak,
ogi biguna baiño
biotz obekoak.

Alkarrekin ibili
giñan geienetan,
aiek onuntz etorri
izan ziranetan,
ta berdin gu aruntza
joaten giñanetan.
Biotza naigabetu
izan da benetan,
alako senideak
iltzen diranetan.

UZTAPIDE

Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolaria det gai une ontan. Il zitzaigun Endoia baillaran, Uztapide baserrian, jaiotako seme ospetsu ura ere. Beste askoren gisan, azitarako iñor ez da gelditzen; da, naiz mingarria izan, bakoitzak mundu au utzi bearra dauka, ordua datorkionean.

Baiña ez det uste erriari iñoiz aztuko zaizkionik bere emaitza onak. Ez baidira utsaren truke saltzeko modukoak, gogoan edukitzea merezi dutenak baizik.

Ikusi genduen bere illetan zenbat jende bildu zan Oiartzungo eliz nagusian, gure Manuel jatorrari azken agurra egitera. Eliza aundia izan arren, txikiegi gertatu zan egun artan. Barru guztia leporaiño bete orduz len; ta sartzeko tokirik etzegoelako, kanpoko ate ondotik entzun bear izan zuten askok meza. Nabari zan garbiro zenbat lagun da adiskide zituen Euskalerrian Uztapide bertsolari zoragarriak.

Aren antzeko gizonak iltzea lastima da. Baiña ori danentzako berdin jarritako lege bat danez, ezin gindezke arritu.

Azken aurretxoan, Donostiko Erresidentzian zegoela jakin da joan giñan bixitatzera, ainbeste zor genion eta. Onela esan zigun: goiz artan Poliklinikara eraman zutela; burua nola zeukan ikusi nai omen zioten medikuak noski. Ala zion:

–An ibili dituk beren tresnekin. Nere buru alde au ongi miatua izango dek gaur. Talentu ederra billatuko zutela uste diat or.

Naiko triste aurkitzen zan gizarajoa. Eskubiko anka berak bakarrik etzuen mugitzen, andreak lagunduta baizik. Prostata ere bazeukala ta komeri txarrak. Ni etsi samartuta etorri nintzan etxera.

Gero, andik egun gutxira, deitu nuen telefonoz. Bere andre Kontxitak artu zuen. Galdetu nion:

–Manuel zer modutan dezute?

–Oso ongi ez, baiña etxera etorria da. Berarekin itzezin nai badezu, deituko diot –esan zidan.

Bereala jarri zan:

–Lasarte izango aiz?

Ta:

–Bai. Alaxe naiz. Ongi al zera, Manuel?

–Ez. Emen onerako gutxi dek. I zer moduz abil? -galdetu zidan.

–Ni betiko antzera –erantzun nion.

–Aurrera egiten dan bitartean, zerbaiten esperantza badik gizonak; eta eutsi orreri, al badek –esan zidan.

Ontan bukatu genduen. Bildurrez zegoela zirudien, da laister joan zan mundu onetatik gizarajoa, utsune galanta utzita gaiñera.

Jende bertsozaleari amaika algara gozo eragindakoa zan bertsolari au ainbeste urtetan. Lagun arte aundikoa. Erriak asko maite zuen artista, nere ustez beintzat; eta ni baiño gizon jakintsuagoak ere gauza bera aitortzen zuten.

Gaurko gazteak ez dute izan Uztapide ezagutzeko egokierarik. Baiña lengo zar jendeak esango luke bertsolari bezela eta gizon modura zer maillatakoa zan bera.

Nik neronek asko tratatu nuen Uztapiderekin, bertso lanez aparte ere. Ogei ta zazpi urtetan ibili giñan alkarren ondoan, ez eguneroko bizitzan noski, erriz-erri kantuan sarritan ordea; ta ura ezagutzeko motiborik aski izan dedalakoan nago. Zenbat bider pozik joan nintzan ez dago adierazterik ere. Neretzat gustoko laguna baizan.

Bein, gogoratzen naiz, Donostin koadrilla aundia bildu ta afaria antolatu zuten. Guri deitu ziguten, da antxe giñan bodega zulo batean.

Maian esertzerakoan, agindu zitzaigun tokian jarri bear, ta bertako nagusiaren ondoan. Gizaseme sendoa zan. Lendik ezagutzen genduen. Bertsozale purrukatua gaiñera.

Alaxe, afaltzen ari giñala, jan bapo egiten zuen; da edan, berriz, kupida gabe, gure nagusiak. Eta alako batean esan zigun txixeko azukrea zeukala; gaitz orrek askori egarria ematen omen ziotela, baiña berak etzuela sentitzen.

Da Uztapideren erantzuna:

–Zuk egarria nola izango dezu ba, beti edaten ari zera ta?

Jende guztia parrez lertzen jarri zuen. Orrelakoxe ateraldi egokiak zituen Manuelek. Ez izketan bakarrik; bai bertsoan ere. Buru argia izaki; guztiz aberatsa zuela badakigu.

Beste batean, Oiartzungo Ergoien baillaran pestak zituzten San Antonio-tan, oi diran bezela. Biok giñan an ere kantu lanean. Ni gauerako bertan gelditu arazi ninduten, batzuek ala nai zutelako, afaldu ondoren gure bertso saioak entzutearren da abar.

Garai artan, apizio itxua nabaitzen zan nun-nai, ta Oiartzunen ez gutxiena. Alkartasun ederrean gustora ikusten genduen jendea, Manuelen koiñataren ostatuan.

Bere andre Kontxita an zebillen presaka, maiak serbitu eziñez. Eten gabeko eskea, bateko kafeak, besteko kopak... Goizaldera premi geiago izaten degu nunbait. Ala, gure lagunetako batek deitu zion:

–Aizu, Kontxita: ekarri kopa bana, al dezun azkarrena, egarritu gera ta.

Laister an dijoakigu bi botilla patar artuta, ta Uztapidek esaten dio:

–Kontxita, berandu gabiltza oso. Etxeratu bear genduke.

Kontxitak orduan gizonari:

–Egon zaite ba pixka batean. Gaur al dezu presa? Arritzen naiz.

Manuelen erantzuna:

–Zuk, ni kanpotik goizaldean natorrenean, ainbeste denbora nun pasatzen dedan galdetzen didazu. Ba, gu emen bezelaxe egoten gera beste tokietan ere.

Berak etzuen etxera joan nai ta andrea toreatzen ari zan disimuloan dotore, parre askorik egin gabe.

Egia esateko, arek, gaixotu ta bertso lanari utzi zionean, utsune aundi bat nabaitu nuen, iñolako moduz bete ezin zitekeana. Neretzako atsegin utsa baizan bera.

Zenbat bider ordu txarretan erretiratu ote zan, gu ez-ezik? Bere aotik maiz entzun izan genduen. Ortan zabarra zala alegia, garbiro aitortzen zigun. Basarrik arretea geiago zuela badakigu. Bere garaia irixten zitzaionean, «gau on pasa» esan da lotaratzen zekien, da aretxek balio. Beti ez da erreza lagun arteko giro gozoa utzi ta aldegiten. Baiña joan ezkerero, urrengo egunean damurik ez bein ere noski.

Bertsolari ederrak benetan Basarri ta Uztapide, nere iritiz. Bikote ederra; plaza bete-betekoa. Alkar artu ere ongi egin oi zuten, da nik suertez oiekin eman nion bertsolaritzari asiera.

Lenengo, Amezqueta'n, ostatuan, afalondo batean; da gero, andik denbora gutxira, berriz, Asteasutik Aiara datorren bidean, goiko gaiñean, Andazarrate dago, ta an bazan len gaixo etxe edo ospitala, biriketako gaitza zutenak bertan edukitzen zituztena, sendagaiak emanaz. Aspaldi itxi zan, da etxea erdi eroria edo alperrik galdu samarra agiri da. Iñork etzuen zainduko ta bere kasa usteldu.

Dana dala, garai artan pentsatu zuten gaixoen pozgarri jaialdi ura antolatzeari igande arratsaldean, udaberrian. Pazko irugarrena zan, ain zuzen.

Basarri ta Uztapidek itzeman zutela joango zirala ta neri deitu zidaten. Nunbaitetik arrastoa artua zeukaten, nik zerbait kantatzen nuela, ta ezin atrebituz egon nintzan. Baiña azkenean kezka prankorekin agertu beintzat.

Iru upel edo barrika jarri zituzten, gaiñean aulki bana zutela. Igo giñan. Eseri ere bai. Kantari asi bear ta ura bildurra nerean!

Lenengo agurra Basarrik; urrengo Uztapidek; ondoren nik, al nuen bezela. Ta andik aurrera biak neri laguntzen alegindu ziran. Gozo asko artu ninduten. Aieri jendeak txalo gogotsu jotzen zioten, ongi kantatzen zutelako; ta neri, poz eman naian, berriz, dudarik batere gabe.

Saio ura bukatu zanean, ez nintzan asarre. Gero, an bertan bazan ostatu bat. Sartu ta ardo txurrua batzuk edanez pozik.

Basarri ta Uztapide bezperan Irunen omen ziran, da andik Bergarako gizon batek ekarri zituen kotxean. Garai artan etzan edozein kotxearen jabe.

Alaxe, neri galdetu zidan gizon arek, Bergaran bertsolarien jaialdia egin nai zutela ta ea joango ote nintzan ara.

Ez nekien zer erantzun. Orduan Basarrik onela dio:

–Manuel, zuri ibiltzea komeni zaizu onez aurrera. Gu an izango gera, ta joan zindezke bildurrik batere gabe.

Uztapidek berdin: egun ederra pasako genduela ta lasai artzeko.

Bien artean animatu ninduten da baiezko itza eman nion gure gizonari. Ta gero etzitzaidan damutu. Orrelaxe bildua naiz maixu oiengana. Neretzako onak ziran, bat bezela bestea. Geroztik bertso saio ugaritan alkarrekin arituak gera. Neri Uztapide zana ezin zait aztu.

Gaurko bertsolariak, geientsuenak kotxeak badituzte. Bear ere bai. Guretzako ere etzan gaizki etorriko. Baiña eskuratu gabe gelditu giñan. Ori ez da beste iñoren errua, gurea baizik.

Sarritan trenez edo autobusez baliatu bear joan-etorrirako, ta denbora asko alperrik galdu. Orixe gertatzen zitzaigun. Udarán batez ere pestak ugari, ta erri batetik bestera aldatzeko erreztasun gutxi. Erretira txarrak nai ta nai ez maiz egin genituela aitortzen det. Beti lo faltan da nolabait.

Uztapide berez osasuntsu izugarria ta gogorra zan. Iraupen ikaragarria zuen arek. Bai umore bikaiña ere lagun artean. Izlari egokia, berriz. Punta-puntakoa. Aren ondoan denbora errez joaten zan. Aspertu eziñik egondakoak zenbat ote dira? Xelebrekerian asitakoan grazioso aparta zala badakigu. Poltxikoan erabiltzen zuen ordulari bat. Noizean bein begiratuko zion, da:

–Lastima! Au aurrera bazijoak ni baiña zuzenago –esango zigun.

Trenaren estaziora edo geltokira zijoanean, etzuen luzaro zai egon bearrik izango, bere orduan bazetorren beintzat.

Nik iñoiz aditzera ematen nion:

–Manuel, mugitu gaitezen, trena galdu ez dezagun.

–Lasai egon adi, arrapatuko diagu ta –erantzungo zidan–. Batek aldegiten badu, bestea etorriko dek.

Zer izakera aberatsa zan arena!

Egun batean, Naparroako Arraiotzen gendukan kantatu bearra eguerdian da arratsaldean plazan, ostatuko saioak aparte zirala, ixilik egoten etzigiten uzten da. Gero, gauean, Oronotz-Mugairen.

Alaxe, joan giñan goizeko autobusean; da, iritxi giñanean, sartu ostatura ta

zerbait jateko asmoa zan gurea. Baiña laister jabetu zitzaizkigun gazte batzuk. Beste etxe batean zeukatela gosaria jarri ta prest, eta ara joan bear genduela esan ziguten.

Arraiotzen jaiotako emakume edadetu bat, Ameriketan bizitza zeramakiena, zegoen etxe artan; eta aren gogoia edo naia izan omen zan bertsolariak eramatea. Aspaldian bertsorik entzun ez eta zalea izaki. Bi urtetik bein bixititzen zuela bere sorterria esan zigun.

Lenengo, Uztapide ikusi zuenean, bi muxu eman bear zizkiola. Ta:

–Ekatzu, ekatzu, onez aurrera sarritan ez ditugu artuko ta –zion Uztapidek.

Ni maian beste aldetik nengoen, da an dijoakit. Eldu ta muxuka neri ere. Emakume edukatua zirudien.

Jan da edan geure komenientzira, ta bapo lanerako. Purutxo bana sutu ta aiek erreaz, bertan jardun giñan kantari, ta andik plazara.

Ala, mikrofonoak martxan jartzen ari ziran da an geunden, noiz aginduko zai. Inguratu zitzaigun gizon serio antzeko bat. Mendi baserriren batekoa ote zan iduritu zitzaidan neuri. Arek gu seguru ezagutzen ez nunbait eta jakin naia. Gizarajoak onela galdetzen dio Uztapideri:

–Aizu: zu al zera Buztanpide?

Ta besteak:

–Bai. Ni naiz Buztanpide.

Nik itz aiek entzun nituenean, lertu bear ta pixka bat urrutiratzeko pauso batzuk eman nituen.

Da berriro Uztapideri:

–Laguna zein dezu?

–Lasarte. Or dago parrez. Orixe gizon serioa da. Baiña gaur ez dakit zer duen.

Ederki asko zekien zer nuen. Orduan neregana bildu zan gure adiskide berria. Uztapidek, ondotik aldegin zionean, beste aldera jira ta parre gozo egiten zuela konturatu nintzan.

Badira pertsona klaseak, orrelaxe izenak aldrebes ikasten dituztenak. Eta nork erakutsi? Ezta urrik eman ere! Kasorik ez egitea onena. Or konpon ditezela.

Gure Manuel Uztapide erri bertsolari ederra zan uraxe, nere gustorako ta beste askorentzako. Egun bakoitzari zegokion gaiari jarraitzen zekiena. Oso buru argia zuen gizon arek. Ateraldi ikaragarriak zituen, baiña ez baldarrak, txukunak baizik. Iñori kalte nekez egingo zioten itzak erabiltzen zituen jeneralean. Orrek du meritua. Amaika gozamen eman zion euskaldun jendeari. Errespeto aundia zion erriari, ta bai erriak ere berari.

Itziarren bein ala entzun nion bertsozale purrukatu bateri:

–Emen Uztapide balkoian ikustea naikoa da, danak txaloka asteko.

Or ezagun da zer ixtimazio zeukan. Itziarren prankotan kantatuak giñan da nik banekien ori, ta erantzun nion:

–Zuk diozun balkoi ortan ez dituzu ugari ikusiko Uztapiderean antzeko txoriak.

Izan ere, bertsoarako bakarrik bizitu zan, bestelako saltsetan sartu gabe, ta fresko. Famili txikia: andrea ta seme bat, eta bere anaia Nazario, mutil zarra, edukitzen zuten.

Leial askoa ta langille amorratua bera. Ergoienen bertan tallar batean gaez goardian egoten zala uste det, eta gero etxeko lanak egin gaiñera. Bei bat esnetarako ta txekorrak bi azitzen omen zituzten urte bakoitzean. Belar zelaia oso urrean zeukaten, da neke gutxi ganadu gobernuan. Manuelek sarritan esan oi zidan:

–Nik ez diat gorputzik beartzen bertsoan bestetan. Dozena bat ordu lotan pasatzen dizkiat. Oetik jeiki ta iñorako presarik ez. Gure anaiak umore onez artzen dizkik etxeko lanak. Beti txistutan da kantari. Gustora ari danak nola ez duen supritzen, egin ditzala berak. Ura artantxe gozatzen dek; eta ni, berriz, asarretu igoal. Lanak alimentu gutxi duela bazekiagu. Ta i, Lasarte, alper-alperrik abil aztarrika. Ez dek ortik ezer egingo, gaizki bizi besterik.

Bromako kontuak ote ziran pentsatzen nuen nere baitan. Baiña arrazoi zeukala konturatu naiz, berandutxo ordea.

Uztapidek guk ezagutu genduen garaian sasoi galanta zuela antzematen

zitzaion. Aurpegian zar itxura billatzen omen zioten askok gaztetan ere. Ori berak dotore kontatzen bazekien, Donostin gertatutako kaso baten bidez.

Aita gaixorik klinikan, da joan bixitatzera. Ta, aita-semeak antxe izketan ari zirala, bertako moja bat sartzen da gelara, ta arek biak anaiak bearko zutela uste edo iduripen ori artu, eta Manueleri galdetu ea bietan zein zan zarrena. Ta erantzuna:

–Ori zarragoa izango da noski, nere aita da ta.

Beste egun batez, Elgoibarren bertsotan izanda, badator trenean. Dana leporaiño betea ura ere. Gazte batek utzi omen zion esertzeko tokia, ta Mendaron sartzen da andre bat, bere aurre besoetan duela. Altxatzen da Uztapide ta onela dio andreari:

–Zu neketan zaude orrela, ta jarri zaite emen.

–Ez. Ni txutik ongi joango naiz, zuk aurre artzen badidazu mesedez.

Orduan eseri ta artzen du ume txikia belaun gaiñean Uztapidek. Baiña bildurtu ta negarrez asi, ta amak esan omen zion:

–Ixo, ixo, biotza, ederki joango zera-ta aitonaren magalean.

Ura entzun egin bearko zan, artean mutil gaztea izanik.

Pasadizo xeblebre oiek kontatzen asten zanean, ler eragiten zion parrez jendeari. Ordurako dexente kostata egongo zan gure lagun Manuel Olaizola bertsolari zoragarri ura.

Azken aldera tristetu egin zan gizarajoa. Adiñez ere aurrera, ta ortik aparte osasuna urritu zitzaion, da danak batera. Erabat auldu zala ta bertso lanari utzi bearko ziola sarritan esaten zidan. Bere tokia ederki beteta joana da mundutik.

Manuel Uztapide
genduen laguna,
Euskalerrri guztian
gizon ezaguna.
Buru argia zuen
ta biotz biguna,
beti gu animatzen
jardun zitzaiguna,
amaika bertso eder
kantatu ziguna.

Bere bizitasunak
eta umoreak
entzuleari kentzen
zizkan logureak.
Doai aparta zuen
Manuel gureak,
kantuz arek eskeintzen
zituen loreak,
larrosik politenak
bezin dotoreak.

TXIRRITA ZANAREN PASADIZOAK

Zenbat xeibrekeri erabili ote zuen gizon arek bere bizitzan? Guk axaletik ezagutzen ditugun banaka batzuk bakarrik dakizkigu.

Gerra asi zan urtean, 1936'an, il zala uste det. Nik bein ere ez nuen ikusi, argazkietan ez bazan, bestela beintzat. Artean gaztea nintzan da gaiñera Leitzan bizi giñan, urrutitxoan. Baiña ura ezagutu zuten askorekin itzegindakoa naiz.

Orain aipatzera nijoan au, Uztapide zanak kontatu zidan. Ain zuzen, Naparroako erri txikiren batean gertatua.

Txirrita ta Saiburu bertsoara goizetik joan da gosetu samartuak zeudenez, estatuan gosaltzea pentsatu. Ta, maian eseri ziran bezin laister, beste bi gazte sartu ta beraien ondoan jarri. Alaxe, laurak gosaltzen batera, ta kontu kontari lasai denbora pasa.

Ta, pixka bat berdindu ondoren, gazte oietako batek onela dio:

–Txirritak zenbat kilo pixatuko ote lituzke?

Ta Saibururen erantzuna:

–Mutil ederrak zaudete, baiña zuek biok ainbeste bai orrek.

Ori entzunik, berotu mutillak eta gaizki artu:

–Badakigu gizon astuna egongo dana ori. Ala ere, mai ontan danok egin ditugun gastuak jokatuko genituzke, gu biok aiña pixatu ezetz Txirritak.

Orduan Saiburuk esan diote:

–Ez degu asarrerik bear, da ez dizuegu irabazi nai gauza aundirik. Pitxarra bat ardo jokatuko genduke, lagun artean edateko, konforme bazerate.

Alaxe, alondegira joanda, jarri omen ziran bi mutillak baskularen gaiñean, da eun da berrogei ta amar kilo juxtu.

Aiek jetxi ta igo da Txirrita, ta eun da berrogei ta amairu kilo ta erdi pixatu.

Ura ikusi zutenean, tontotuta bezela gelditu noski gazteak. Etzan gutxiagotarako. Amaika orrelako ziri sartua izango zan bere denboran.

Beste au ere Uztapideri entzun nion. Ernaniko ostatu batean artu-eman izugarriak omen zituen Txirritak. Konfiantza aundia alegia. Familikoen antzera tratatzen nunbait, eta edozein erritan bertso saiorik zuen bakoitzean edo bueltan etxerakoan, presaka etzan ibiliko sarritan da bapo. Bizimodu lasaiak balio, berriz, emen.

Dana dala, diodan ostatu orretan, gela oe bakarrarekin Txirritarentzako gertu edukitzen. Baiña azken aldera, bertsotarako deiak urritu zitzaizkionean, azaltzen ez ta zer egin du ostalariak? Mutil bat apupillo artu.

Ta, berak gutxiena uste zuen garaian, an dijoakio Txirrita igande gauez, ta galdetu dio nagusiak:

–Zer moduz, Joxe Manuel?

Da:

–Ementxe. Ni, beti bezela, afaldu ta lo egiteko asmoan etorri naiz.

Orduan etxekoandreak:

–Ez dakit, ba, gaur nola moldatu gindezkean. Zu etziñan agertzen da oe artan mutil bat daukagu.

Ta:

–Ba, beingogatik biok lo egingo degu.

Aurretik joan da erropak kendu ta jarri da larrugorrian ocan, ipurdiz gora, Txirrita.

Mutillak, gelan sartu ta ikusi zuenean, etzuen noski aldegiteko esan bearririk. Ura omen zan anka-jokoa eskaillerak bera igesi, erabat bildurtuta.

Ara bakarrik lo egiteko zer dan onena.

Ongi eramana zun
Txirritak mundua,
amaika egun eder
bazion kendua.

Gorputz aundia zuen,
zabal da sendua,
mai aberats askotan
jan da gizendua,
apetitu bikaiña
zuen izandua.

Diferentzia dago
maixutik maixura,
eta ezjakin baten-
gandik jakintsura.
Txirrita ezin neurtu
bakarrik pixura,
danera artzen diot
nik aundi-itxura,
buruz ere alaxe
izango zan ura.

BERTSOLARITZAREN SUSTRAIAK

Baiña goazen aurrera. Lengo bertsolaritzaren sustrai modura sagardotegiak izentatzen dira gaur. An kantatzen omen zuten geienbat bertsolari zarrak. Gu ere toki oietan ibiliak gera. Plazetan, berriz, asko. Ta ostatuak aipagarritzat juzkatzen ditut. Beti moda betean irauñ duten kabi goxoak nola baztertu?

Baita elizan ere. Sarritan kantatu bear izan degu, erri meza dala, ezkontzak dirala edo erretiratutako zarren jaialdiren bat antolatzen dutenean da abar. Lenengo asieran kezka aundia ematen zigun elizaren seriotasunak, neuri beintzat. Alakoxe itzala edo errespetoa. Bakoitzak bere berri jakiten du. Besteak ez dakit zer pentsatuko zuten gai orretaz. Eskerrak danera jartzen dan pertsona.

Aita Santua Loiolara etorri zanean, antxe giñan Basarri ta biok; eta mezeztan, Jaunari eskerrak ematerakoan, bina bertso kantatu genituen. 1982'garren urteko azaroko illaren 6'an zan, ain zuzen, gertakizun au.

Azpeitiko Loiolan bildu zan jende mordo ederra. Autobusez ta kotxez baztar guztiak beteta gaiñezka ikusten ziran. Urolako trenak ere ixtimazio izugarria aspaldiko partez. Orduan aiña lan etzuen sarritan egingo.

Eguraldi ona egokitu zan goiz partean. Baiña eguerdi aldean aize olatu bildurgarri bat ekarri ta astindu zituen zugaitzak eta orbelak. Lurreko paperak, berriz, egan aidean. Bai auts legorrak ere. Une batetik bestera ustuta gelditu zan Loiola. Jendeak anak mugitu zituen.

Dana dala, garai batean esan baligute Aita Santua meza ematen ari zala bertsoak kantatu bear zirala, nork sinistu? Nik ez beintzat errez. Baiña orrelaxe dira gauzak.

Unibersidadean ere izan nintzan bein bertsotan. Neu bakarrik gaiñera. Egun batean, Donostin, an bildu ziran beraien ikasketak egiten zebiltzan gazte sailla, neska ta mutil, bertako sala ederrean. Jose Maria Setien gotzaia antxe ikusi nuen, da beste apaiz batzuk ere bai. Izlariak, berriz, Anjel Lertxundi, *Andu*, bat. Neri onek deitu zidan aurrez kanturako. Izlariak geiago ere baziran,

baiña nik aien izenik jakin ez, emen idazteko. Ortik aparte, Irungo *Enara* taldearen kantu politikak pozgarri.

Nik dozen erdi bat bertso moldatu nituen, da gustora nabaitzen ziran entzuten zeudenak. Txalo beroak jo zizkiguten. Unibersidadean lenengo kantatu nuen bertsolaria nintzala esan zidaten. Ez dakit ala dan.

Orrelaxe, jendeak ainbat tokitan entzun al izan ditu gure kantuak, txarrak edo onak, eta gerora ta balore geiago ematen dio zalea danak bertsolariaren lanari. Euskerari bizitzen asko lagundu diolakoan nago.

Beti ez da erreza, baiña tarteka itz politikak erabiltzen badakite bertsolariak, erriaren gogozko biurtzen diran goxokiak; eta orixe izaki izkuntza itxuraz lantzeko modurik egokiena bearbada.

Batzuek badute, berriz, ikasteko doai berezia. Aparteko almena, alegia. Aiek esaera txukunak nai dituzte. Euskera benetan maite duenak, erderari ez dio kaso geiegirik egingo seguru asko, derrigorrezkoa izan ezean beintzat.

Gaurko ere, lengo mintzaera zarrak ez du belarrirako ots nasturik, eta ezin lezaioke iñori kalterik eragin. Erru gabeko aur bat gaizki tratatzea bezelatsu dala esango nuke ori aztu ta baztarreratzea. Beraz, eutsi dezajogun, senideak, gurea da ta.

Erri batetik bestera itzak pixka bat aldatu oi dira. Ori jakiñeko gauza dala badakigu. Baiña orrek ez dauka zer ikusirik. Eldu bakoitzak bereari, ta besteri entzundakoa gogoan artzen alegindu.

Nik ere nerezko pixka onen bidez baliatu bear izan det. Iñun ezer ikasten ibili gabea naiz. Ez bainuen gazte denboran orretarako aukerarik, eta onenbestean bearko det. Izkuntza au ugaria ta aberatsa da, ongi ezagutzera iritxi ezkeru.

Nere adiskide batek andrea erdalduna artu zuen. Gizon au bera oso euskalduna da. Norbaitek esan lezake agian:

–Ain euskalzalea danak, nolatan egin orrelako ezkontza?–

Egia da alde batera. Baiña neskatxa uraxe gustatuko zitzaion, ordea. Ta amodioak ez du izkuntzarik bereizten garai artan. Begien itxumena baidago tartean, ezerekin kendu ezin litekeana. Gauzarik pozgarriena da arek berean jarraitzen duela, ta andreari erakutsi gaiñera euskeraz mintzatzen poliki. Bi alabatxo dituzte, oraindik gazteak. Aitaren izkuntza ikasi dute garai ederrean, gerora aztutzen ez bazaiote.

Guraso danak orrela saiatuko bagiña, beste txori baten kantuak entzungo genituzke. Baiña etxe askotan, da kalean ere, erdera izan da jaun da jabe aspaldiko urte auetan, aundikeriz edo ezjakiñean erabili dana.

Neuri gertatu zitzaidan, orain amasei urte gutxi gora-bera, kaso xelebrea. Baserritar batek, etxe zarra erortzeko zorian zegoela ta obra egin zuen gogortzearren. Kanpotik eta barrendik berritu alegia.

Ta, bukaera eman ziotenean, pentsatu zuten an lanean aritu zan jendeari bazkari on bat eskeintzea, ta danak ixtimatu. Nola ez? Bertako nagusiak neri esan zidan zer asmo zeukaten, da ea joango nintzan bertso batzuk kantatzera. Aien familian zale purrukatuak zirala ta uraxe nai zutela. Baietz erantzun nion. Ainbeste egingo nuela.

Alaxe, eguna iritxi zanean, koadrilla dexentea bildu. Eserita jarri giñan maian, da iru baserritar auzokoak bazkaltzera joanak, nagusiak deituta, zerbaitetan lagundu zutenak edo abar. Alako itxura artu nioten beintzat.

Eseri orduko asi ziran irurak erderaz, ta andik aurrerakoan aien artean etzan euskerazko itzik. Gazte batzuk izan balira, utsa. Baiña irurogei urte inguruko gizakiak.

Arritu ninduen jokabide arek ezin geiago; ta nagusiari ere ez det uste grazitan erori zitzaionik. Nik agindu zidatenean bertso batzuk kantatu ondoren, bereala aldegin nuen andik, nere buruari esanez: «Esku ederretan zebillek euskera gaixoa!».

Baiña, jaunak: besterik ez danerako bakarrik al da amaren magalean ikasi genduen izkuntza edo zer gertatzen zaigu guri, ori orrela baztarrera uzteko? Nik ez diot erdera ta beste edozer ikastea gaizki dagoenik eta kaltegarri danik. Baiña bai euskera degula gure bizitzaren zatirik garrantzitsuenetako bat, eta ori erabili bearrean gaudela, batez ere zar jendeak, lendik oitura degunak eta dakigunak, ondorengoetara zabaldu dedin. Al dan guztia erakustea da gure eginkizuna, ta bete dezagun zintzo.

Egun batez, joan nintzan mugaz beste aldera, Kanbo izenez ezagutzen dan erri batera bertotara. Ain zuzen, oso paraje politean dago Kanbo. Bost milla bizilagun zeuzkala zioten orduan. Ez dakit oraingoz zenbat eduki lezazkean. Berdintsu seguru asko.

Eguerdian, bazkaltzen ari giñala, gure adiskide dan Mixel Itzainari galdetu genion ea ikastolarik bazan erri artan.

Baietz erantzun zigun; euskeraz eta frantzesez bietara ikasten zutela aurrak.

–Aukera aundia da ori –esan nion nik.

Bai; baiña aien etxean etzala bein ere frantzesez itzegiten erantzun zidan. Emaztea batez ere oso euskalzalea zala; ta umeak, aren erakutsira, euskeraz bakarrik mintzaten zirala, etxe barruan zeudenean.

Errespetoa nagusi gauza pozgarria, maitasunezkoa baldin bada. Ez du gutxi balio alako ama batek familirako. Batzuk badira orrelaxe saiatzen diranak, lanean gogotsu gure izkuntzaren alde, zorionez. Ugarixeago balira, obe, gainbera dijoan ori ea berriro indartzen dan, udaberriko epelaren goxotasunak sortzen dituen loreak bezela.

Guztiok alegindu gaitezen al degun neurrian laguntzen, itzez eta idatziz. Danen bearrean aurkituko baida aurrerantzean ere. Zoritxarrez, arrixku larrian ikusten degu euskeraren etorkizuna, gerora begiratuaz. Baiña onenbestean buka dezadan berriketaldi au.

NUNDIK NORA

Berriro bertsolaritzari buruz mintzatzen jarraituko det. Azkenik gabeko gaia da noski, ta berari elduko diot, ainbeste pertsonak egin izan didaten galderari erantzunez.

Gure etxe ontara sarritan etorri dira egunkarietan idazten dutenak, eta irratiz itzegiten dakitenak ere bai, neregandik zerbait jakin naian. Ta askoren galdera auxe da geientsuenetan: ea bertsotarako apizioa nundik nora sortu zitzaidan.

Ez da oso errez garbiro erantzuten. Familian danak giñan zale amorratuak. Kantuaren otsa atsegin zitzaigunak. Aurretik zetorkigun nunbait griña ori.

Ama zanak bertso zarrak ugari zekizkien, da arek kantatzen zizkigun, umore onean zegoenetan. Xenpelarrenak, Azken Juizioari jarriak, zenbat bider entzun ote genizkion? Eta beste batzuenak ere bai.

Gure anaietan zarrenari, berriz, Bilintxen bertsoak gustatzen, da noiznai kantatzen zituen, edozer lanetan ari bazan ere. Ni ere aiek poztuko ninduten geiena. Buruz ikasiak bearke zuten erri aldean, jaietan da abar, lagun artean. Gure baserrian ez baizuen iñork libururik izan sekulan.

Ortik aparte, Leitzañ len ere bertsolariak askotan ibiltzen omen ziran. Pello Errota, Txirrita, Frantzes Txikia ta geiagoren izenak ere aipatzen oi zituen iñoiz gure aita zanak.

Bertako seme bat bazuten, adibidez, bertsolari ona leitzatarrak: Kristobal Beñeskoa deitzen ziotena, baiña Bordaberri baserrian jaio ta azitakoa noski. Gero, Beñes baserria erosi ta an bizitua. Beraz, bi izen zeuzkan: *Bordaberri* ta *Beñes*.

Dana dala, Kristobal edo Krixtoal onek gure ama zanaren osaba txikia izan bear zuen, esaten zigutenez. Nik entzundakoa bakarrik dakit.

Mendian ardi mordoska ta etxean ganaduak edukitzen omen zituen Krix-

toalek, eta bein bei bat gaixotu zaio. Erbiñudeak errapetik esnea edan, da pozoitu edo benenatuta utzi zearo. Konturatu danean, joan da albaiteroarengana ta esplikatu dio gertakizuna, ta ikusteko bei ura mesedez, gaizki zegoela ta.

Erbiñudea zer bitxo klase zan jakin ez nunbait albaiteroak, eta artu liburua ta an asten da orriz-orri miaketan. Beiari zer sendagai eman jakin naiko zuen; da, dana pasa ondoren, esaten du albaiteroak:

–Nik ez det ba ezeren arrastorik ateratzen emen.

Orduan onela dio Krixtoalek:

–Liburuan billatzea uste al zenduen erbiñudea? Toki ederrean zenbiltzan gizarajo ori! Oiek sasi tartean da orma zuloetan gordeta egoten dira egunez, ta gaeuz egin azio txarrak, gu lotan gauden garaian.

Erantzun egokia Krixtoalena, ta esaera polita benetan. Bordaberrik geiago ere bazituen orren antzekoak.

Beste batean, goizean etxe atarian egur txikitzen ari omen zan gure Krixtoal. Len fraileak eskean ibili oi ziran, da baserri bakoitzetik urtero ardi zarren bat eramango zuten erregalo, Leitzatik beintzat, Naparroako Lekarozkoak jeneralean; da joan da Krixtoalen etxera fraile aundia ta lenengo:

–Egun on Jaungoikoak.

–Bai zuri ere –besteak.

Urrengo onela dio:

–Ardi billa nabil.

Ori entzun da Krixtoalen erantzuna:

–Nik ez det ikusi emen zuen ardirik. Zerorrek jakingo dezu goizean nora larratu dituzun, fraile jauna.

Disimuloan sartutako ziri dotorea, nere ustez. Arrazoi zorrotzetako gizona zala dirudi Krixtoalek bere ateraldi egokietan.

Txirritak ere Leitzaan bertso saioak egiñak zituen, adibidez, berarekin; da gaizki artzen nunbait ura ere Krixtoalek, eta bein ala esan omen zuen: sekulan iñun etzuela arrapatu aren moduko trasterik.

Pestetan errira kanpotik bertsolariak eramaten zituzten bakoitzean, illunabarrean baseritik kalera jetxi ta beti ostatu jakiñean afaltzen izan bear zuen, da

zer tankeratan gaiñera: aste gutziko bizarra moztu gabe zeukala. Arek pentsatzen beste bertsolariak nundik elduko zioten, da zirikatzen asi ta gero kontuak.

Etzan Leitzan bakarrik bizitua. Gaztetan Ameriketara edo Arjentina aldean zizana, ta Pedro Maria Otañorekin batera ibilia zala entzun genduen prankotan. Ez dakit zenbat denbora igaroko zuten alkarrekin. Baiña asko famatzen omen zuen Pedro Mari gure Krixtoalek.

Oso gizon argia ta edukatua noski. Ori, ezagutu zuenak zekien ongiena; ta nik ere gauza bera esango nuke. Aren bertsozaintzari begiratuta, arinkeri gutxi agertzen baida, ta arrazoi ederrak.

Urte batean, gogoratzen naiz, mutil koskorra nintzala, Leitzako pestak ziran orduan ere; ta or, Andoañen, bazan *Bentaberri* deitzen zioten gizon txiki bat, bertsoan poliki moldatzen zana. Gure anai batekin zuen konfiantza, ta Franki baserrira agertu zan.

Alaxe, kontu zarrak kontatuaz bazkaldu ta arratsaldean joan ziran biak erri aldera juergara presarik gabe; ta gauean afaldu ta asi da *Bentaberri* bertsoan, iñork erantzungo etziolakoan. Da *Bordaberri* an egon baztarreko maian ixilik, eta ekin dio berak ere.

Andik aurrera komeri latzak. Inñundik irtenbiderik billatzen ez, ta *Bentaberri* errentzat estuasun gogorak. Azkenean, erabat etsi ta ostatutik aldegin minberatuta gizona Frankira lotara. Urrengo goizean, gosaltzen ari giñala, galdetu zion gure aitak:

–Ongi ibili al zerate ba atzo Leitzan?

Da *Bentaberri*ren erantzuna:

–Naiko gaizki. Aitona zar bizar aundi batekin bertsoan asi nintzan, da entzun nituen nereak eta bi. Ura da bitxoa!

–Nor zan? –berriro gure aitak. Eta:

–*Bordaberri* deitzen zioten.

–Ai, gizarajoa! Toki ederrean sartu ziñan! –esan zion.

Penagarria da, Krixtoal geure kastakoa izanik, nik ez nuela bein ere ikusi.

Leitzara, emezortzi urte neuzkala joango nintzan lenengo an plazan kantatzera, ta geroztik pesta gutxi ditut galduak. Baiña Krixtoal ordurako zartua ta etxe aldetik ibiliko zan.

Soldadu lagunak banituen Leitzakoak, eta aietako batek eraman zidan abisoa Krixtoalen partetik, nere entzuerak bazituela ta ezagutu naia zeukala. Mesedez, al nuenean, bisitatxo bat egiteko bere baserrira.

Andik laister, permisoarekin etortzea egokitu zitzaidan illabeterako etxera, ta bueltakoan bi egun aurretik joan nintzan Leitzara Krixtoal ikusteko asmoan. An pasa nituen nere lagunekin diodan bi egun aiek, ta kalean zabaldu zan berri tristea: okerra gertatu zitzaiola gizonari; mendira ardietara abiatu ta bidean erori ta min aundi samarra artu gizarajoak. Angailletan etxera eraman zutela jakin nuen errian, da ez nintzan atrebitu berarengana urreratzen, agian izketarako moduan etzala egongo ta.

Ara nere ezerezkeria noraiñokoa zan. Bearbada, orduantxe ixtimatu zeza-kean geiena nere bixita. Baiña gazte nengoen artean, da buruz ezin jantzi. Orrelaxe gelditu giñan azkenean alkar ezagutu gabe. Damutu zitzaidan orduko utsegitea, zabarkerizkoa zalako. Denbora pasa ta gero, ordea, alperrikako garaian.

Beraz, goazen aurrera. Nere gustoko lanak bi auek nituen umetatik: soiñu jotzea eta kantua. Izugarritzko apizioa neukan, da amari eskatu nion soiñu txiki bat; eta esan zidan:

–Zuk ikasiko zenduke, bai, soiñu jotzen ederki, gu aberatsak bagiña. Pena ematen didazu, Manueltxo; baiña nik ez daukat dirurik. Bestela, pozik erosiko nizuke.

Artan bukatu ziran kontuak eta kantuari segi nion. Orrek ez baizeukan gurasoentzat gasturik.

Ortik aparte, zurgintza nuen gogozkoena. Garbiro adierazteko, gure aita zana orretan artetsua zan. Baserrirako bearrezko tresnak berak moldatzen zituen: gurdi, are ta ganaduen buru gaiñeko uztarriak ere bai, ta gaiñontzeko gauzak. Egurraren faltarik etzan baso aietan, da orrek ez du gutxi balio lan oietarako.

Nik, berriz, mutil koskorra nintzanean, aitari erremintak erabiltzen nizkion. Baiña maite ninduen da pazientzia artzen zuen. Semerik gazteena ni izan. Etxeko umeetan azkeneko alea alegia. Esku erremintak berriro lengo tokian

txukun jasotzeko agindua emango zidan. Orixe nai arek, legezkoa dan bezela. Ala obe gaiñera. Bestela danak galduko zitzaizkion, da utsik gelditu.

Garai artan, Leitzalarreko oianetan, gizonetzko ugari enpleatu oi ziran aritz, pago ta oietako zugaitzak ondotik edo ipurditik ebaki ta bota ta tabloitu. Zerratokiak basoan bertan antolatzen zituzten; da materialetarako balio etzuen egurrarekin, berriz, ikatza egin. Danari probetxua ateratzen zioten orduko gizonak. Ala ere, ez det uste aberastuko ziranik.

Karretajea bera ere kostako zala ederki iduritzen zait. Mandazaiak eraman bear menditik estazioraiño tabloiak eta ikatzak. Gure Franki baserriaren inguruan zan Plazaolako trenaren estazioa edo geltokia, ta an bagoiak bete ta merkantzian bialtzen zituztela ikusten genituen Andoain aldera.

Ikatzezko suaren indarrez baliatzen omen ziran trenaren makina zarrak, eta erabiltzen zuten zalaparta pranko. Gorakoan zijoazenean batez ere, oso nabarmen eta neketsu. Baiña aldapa berakoan izugarritzko martxan jeixten bazekiten. Ongi kargatu arren, orduan da azkarrago igoa.

Bi mandazai ezagutu nituen antxe, gogoan edukitzeko modukoak, lana sendo egiten zutenak. Talentu aundiko mutillak. Bai bertso zarrak kantatzen ere egoki amorratuak. Bautixta zuen batek izena, ta besteari *Irantxi* deitzen zioten danak. Biak eztarri onekoak, baiña batez ere Irantxi arrigarria.

Aren kanturako gogoaz zer zan, ordea? Basoan mandoak kargatu ta bideak bera zetorrela somatzen nuenetan, amaika bider irten nintzaion bertsoak entzutearren beragana. Baita oiñutsik banengoen ere.

Ume zalea izan zitekean, seguru asko. Nereganako, beintzat, begirune maitekorra zuela badakit. Mando gaiñean ere erabiltzen ninduen batzuetan. Nik bertsoak eskatzen nizkion, da:

–Kantatuko dizkizut ba, mutiko. Zu aundia azitzen zeranean, bertsolaria izatea baliteke –esaten zidan.

Oso atsegiña ta leiala zan. Zenbat aztarrika joko zuen iñork bai ote daki? Ez det uste. Gaur gizon indartsuak ugari daude baztarretan, baiña uraxe bera ere etzan nolanaikoa. Nekeak erasaten etzion pertsona klasea. Gogorra ta latza benetan.

Gauean berandu erretiratu; goizeko ordubietan mandoeri pentsua ta lasto

motza eman jan zezaten; da andik bi ordura, lauretan, jeiki, prestatu ta mendira, mandoak kargatzera tabloi edo ikatzez.

Lenengo biajea estaziora eraman da bigarrenaren billa zijoanean, mando gainean eserita jarri ta orduan gosalduko zuen mandazaiak. Ez janari berotik, bezperan egindako puska legorra erabili bear derrigor. Zatoko ardoa berogarri. Andik trago luze batzuk edan da segi aurrera.

Igande arratsaldea bakarrik zuten libre orduko basomutillak. Aretxen zai egoten ziran, siesta eder bat egin da deskantsatzeko. Zer bizimodu tristea zan beraiena! Ikusi gabe ezin liteke sinistu.

Oraingoz gai au onenbestean utzi ta eldu dezaiodan lengoari. Beraz, esaten dizut, irakurle, nere bertsotarako apizioa nolakoa zan txikitandik. Inork ez du jakiten, ume dan bitartean, gerora zertara jo lezakean. Baiña pertsona zerbaite-tarako jaiotzen da. Ez alperrik egoteko noski. Ta norberak alegindu bear modu batera edo bestera.

Nik ez nekien, mandazaiari kantatzeko eskatzen nionean, bertsolaria izango nintzanik. Nunbaitetik bazetorkidan, ordea, orretarako griña. Ori bakoitzari berez sortzen zaion gauza bat dala bistan dago, ta bearrezkoa edozer lanetarako ere.

Batzuk badira, ikasi ta bertsolari egin litezkeala uste dutenak; eta nik neuk ez diot fede geiegirik jokabide orreri. Bestela, talde ugariak sortuko lirake, ainbeste gizon karreradun dauzkagun erri batean.

Gaur, eskolaz ongi jantziak eta asko dakitenak daude bertsolari sailla. Baiña oiek ere berezko jatorria izango dutela uste det nik. Gaiñontzean zailla baida ain denbora gutxian bertsoak moldatzen.

Ikusi dira, bai, banakak, gaztetan oso trebeak izan ez arren, gerora jardunaren bidez asko osatzera iritxi diranak eta orain itxuraz kantatzen dutenak. Oiek ere buru argia izaki, ta saiatu gainera, gauzak benetan artuta.

Baiña diodan ori orrela izanik ere, berezko iturria duenari errez antzema-ten zaio, kantari ari danean. Alakoxe egokitasun bat erakusten baidu bertsoaren egituran. Berak asmatzen ditu esaera berriak, eta ari entzuten zaizkio aparteko ateraldi dotoreak. Beraz, ortxe nabaitzen da benetako bertsolariaren aberastasu berezia; gutxik izaten duten doaia.

Konparazio txiki bat jarriko nuke: gaur badaude makina ederrak lanerako.

Ta, bein moldean sartzean, pieza danak berdintsu egingo dituzte gaiñera. Baiña gero, aiek alkarrekin ajustatzeko, gizonaren eskuak bearko dira geienetan, azken bukaera emateko. Arte lana esaten zaio orreri. Bertsolari batek ere premizkoa duena, oso-osoa izateko.

Berez ongi ornitua danak, iñork espero ez arren edo uste gabeko garaian agertzen daki gauzarik politenak, eta orduantxe gozatzen jendearen belarriak, sarritan ikusi degun bezela. Grazi berezi ori balore aundikoa danez, nork ez lezake ixtimatu?

Emen gertatzen da asko ta onak sortzen zailla dala edozer klasetan ere. Ta bertsogintza, berriz, guztiz eginkizun estua degu. Bertsolariak aldizka bertsoa bide gurutzean uzten du. Iñoiz erabiltzen ditu itzak, bi eratara ulertu litezkeanak; eta aiek entzuten dagoenak jasotzen ez badizkio, alperrik ari da lanean, da ez du egingo bere umorea galdu besterik.

Nik mutil koskorretan uste izaten nuen bertsolariak beste munduko gizonen batzuk ote ziran, gauzak ain txukun antolatzen zituztelako edo ez dakit ba zergatik. Gure baserri zarrean ama zanari-ta bertsoak ugari entzuten nizkieten, da pertsona oietakorik iñun ikusten ez. Ura zan penagarria neretzat.

Alako batean, orratik, zorionez, iritxi zitzaidan epea, bi bikaiñak ezagutzeko: Basarri ta Uztapide. Ez nai baiño len noski. Garai artan fama galanta zeukaten, geroztik izan duten gisan. Sasoia ere alamoduzkoa.

Gu Napparroako Leitzatik Gipuzkoako Aiara bizitzera etorri berriak giñan, da ortxe entzun nituen oien bertsoak lenengo aldiz, abuztuan, San Donato egunez ain zuzen.

Erriko plaza aundi zabalean, erdi parean, jarri zizkieten bi sagardo upel utsak, eta aien gaiñean aulki banatan eserita jardun zitzaizkigun kurioso asko. Zar jendea, meza nagusia amaitu zanean, elizatik irten da an zegoen zai, etxe aldera abiatzerako bertsoak entzun asmoz, ta berebiziko egokiera zuten orretarako. Gaztediarena, berriz, esan bearrik al dago? Antxe danak zer ikusiko.

Eguerdiko amabiak inguruan ekin zioten lenengo bertso saioari gai librean, orduan oitura alaxe zälako, ta oso lan ederra egin gaiñera noski, askoren iritziz.

Nik neuk artean ezer gutxi ulertzen nuen, baiña Aian baziran beste batzuk bertsoaren berri zekitenak, eta aiengandik jasotako albisteak ematen ari naiz.

Dana dala, erriko agintari guztiak ere upel aurrean bertan zeuden, silletan

eseri ta pozik, bertsolarien xelebrekeriak entzunez lasai; ta alkatea gizon puska ikaragarria. Auskalo zenbat kilo zeuzkan berekin. Da, gaia aldatzearren edo abar, Basarrik onela dio bere bertsoetako batean:

Erri gizonak jaso ditzagun
txorakeriak utzita.

Ondoren Uztapideren erantzuna: kontzejalak ariñagoak egongo zirala, baiña alkatea etzegoela upel gaiñera jasotzerik, bi lagunek elduta. Ura oso astuna ikusten zuela.

Amaika orrelako ateraldi egiña zan, da orduantxe ere jarri zituen baztarrak sutan. Bazan antxe txalo ots ederrik eta parre algara gozorik. Jende guztia esteak botatzeko zorian nabaitzen genduen.

Berealaxe bukatu zituzten bertsolariak goiz parteko lanak. Ondoren, banan-banan ostatuak bixitatu baxoerdiak artuaz, ta Kanoaneko jatexera urbildu ziran bazkaltzera, ordubiak baiño len. Ala ere, berandu antzean. Urte aietan ordubata zan jeneralean jateko garairik izentatuena etxerik geienetan, da ostatu askotan ere bai.

Alaxe, ongi ase ta kafearen gaiñetik kopakoak berotu arazita, asi zitzaizkigun berriro kantari. Arrigarrizko zaletasuna zegoenez, jendetza izugarria inguratu. Arako geiegi. Danok barrura sartu nai genduen, da bear aiña toki ez. Nik entzun gabekoak etziran asko izango egun artan kanta zituztenak. An ibili nintzan arratoi zar bat bezela ezkutu antzetik, lotsak alde batera utzita. Zer antsi zoroa neukan bertsoenganako! Gogoan artuak ere banituen batzuk.

Kanoanetik irten da plazara jo zuten arratsaldean garaiz. Upel gaiñetara igo ta eldu zioten berriro lanari zintzo ta gogotsu, jendeari gozamina emanez. Ederki aritu zirala badakigu biak ere. Aspertu eziñik Aia aldean geientsuenak beintzat, arranek ezik. Illunabarrean, berriz ostatueta saio bikaiñak, eta ara or naiko pesta osatu.

Etzan pixka batean aztu egun ura. Gerorako zer kontatua jarri zuten gure bertsolariak. Batek au esan zuela ta besteak ura erantzun ziola. Bakoitzak bere iritziak agertzeko eskubide osoa baldin badu, ez det gaizki billatzen jarduera ori; ta erria gustora gelditzeak ez du gutxiena balio berrizko ere.

Urte aietan pestak egunez egin oi ziran, da gauean garai jakiñean amaitu

alegia. Ostalariak ere agindu zorrotzak artzen, da beti kastiguaren bildurrez supritzen bizi bearra zeukaten, ateak ixteko denboran da abar. Neurri estuak baizituzten. Lotura gogorrak genituen era guztietara bolada artan.

ALDAKUNTZAK

Baiña gerora gauzak aldatu dira bapo gai orretan. Gaur gauez antolatzen ditu jendeak pestak erririk geientsuenetan edo danetan, da bizitzaren aldakuntza onartu bearra dago. Zergatik ez? Segi dezatela moda berrian. Gu ere ibiliko giñan, al izan bagendu. Emen ez da santurik gure tartean.

Orain ostatueta gauez egin oi da lana. Jakiña, jendea biltzen danean saiatuko dirala, dudarik ez, txanponak eskuratzen arrazoi bidez. Gertatzen dana auxe da: len goizean ateak irikitzen zituzten garaian, gaur itxi ta «or konpon» esan da oera lotara. Ura ere noizbait derrigor egin bearrekoa baida. Bestela, nork iraun zutik?

Baiña joan zaitez ara gosari billa, premian zaudela ta. Toki ederrean zabilta. Gizarajo orrek egon bearko dezu baraurik supritzen. Nik neuk sarritan probatu det zer dan egoera triste ori. Edozein erritara bertsotara joanda, eguerdian kantuan asi aurretik, pixka bat alimentatu nai izaten da, gorputza berotu dedin, negu partean batez ere, eguraldi otzak diranetan; da ainbat biderrez larri ibiliak gera, iñundik iñora ostaturik zabalik aurkitu eziñik.

Ez da jira gustagarria batere, baiña erri aundi samarretan batez ere orrela gertatzen da. Ez dezu nun janik amabiak aldera bitartean, gutxienez ere. Zerbaiten zai jartzen danari denbora luze joan arren, ez dago zertan arriturik, urte auetan oiturak berritu baidira zearo.

Neuri orain dala sei bat urte gertatu zitzaidan kaso berbera, ta ez lenengo aldiz. Ordurako baneukan eskarmenturik aski gauza oietaz. Baiña ulertzen kostatzen zaigu ordea sarritan, umore txarrean jarri ezkerro. Pasadizo xeble pranko kontatu genezazke, ta au ere aietakoa izaki.

Urrutiko erri batera deitu zidaten, da goizean seiretan etxetik irten nintzan. Oetik jeiki berrian ezer artzeko gogorik ez neukan, da barau gorrian autobuse-
ra.

Alaxe, iritxi giñan bear zan tokira. Bederatzi ta erdiak ziran artean, baiña

ni ongi goseturik nengoen ordurako, tripa zorriak sentitzen nituela. Pentsatu nuen denbora sobrean neukala ta gosaltzea patxadan eseri ta lasai.

Lenengo, beintzat, naiz alperrik, inguratu plaza aldera, ta antxe zebiltzan neska ta mutil talde aundi bat. Zezen kaskar edo bakillak, ez dakit zer ziran; baiña torero ugari bazuten beintzat. Ni baiño beroago zeudela ziruditen barru aldetik. Itxuraz gobernatuak nunbait.

Alaxe, erri guztiari jira eman nion. Ostalari ezagunak asko ta aietakoren bat ikusi nai. Baiña danak itxita zeuzkaten ate ta leioak.

«Au dek komeria!» nere buruari esanda, berriro lengo tokira itzuli bear izan nuen, da ordurako zezenak eta toreroak falta. Ezkutatu edo aldegiñak bistatik. An etzan iñoren arrastorik. Bururatu zitzaidan: «Aiek, gau pasa egin-da, aspertu ta lotara joan izango dituk seguru asko».

Kale ixkiñan nengoela, gizon zar bat urreratzen da neregana, ta galdetu zidan:

–Zer zabilta, Lasarte, ordu auetarako etorrira?

–Ementxe –erantzun nion–. Bertsotarako abisoa artu nuen erri ontatik, eta goiz samar iritxi naiz. Orain gosarixto bat nai nuke. Baiña ikusten det ostatu guztiak itxita daudela, ta ez dakit zer egin bearko dedan. Kostako zaidala uste det ori lortzen.

Orduan onela dio gure aitona adiskideak:

–Ostatuak itxita esaten dezu, Lasarte? Ez dira itxi zarrak. Emen ibili da jendea gau osoan erretiratu gabe. Beroiek lorik egin ez eta beste askori galerazi gaiñera. Ori okerrena. Noizbait ezkutatu dira, ta pakea. Arratsaldera arte ez ditu iñork ikusiko. An egon naiko dute zuloan sartuta. Illunabarrean agertuko zaizkigu berriro gau guztirako kalera, lata gaiztoa ematera. Bart arratsean, emengo bulla ta zaratak etzuten azkenik. Entzun bazenitu, zu ere asarretuko ziñan, ni bezelaxe. Naiago nuke zorioneko pesta auek pasata baleude. Guk ere badauzkagu zintzo oietakoak. Oraindik ez da ordu bete etxeratu dirala. Aiek barrura sartu diranean aldegin det nik kanpora. Bazuten anka otsa ta zalaparta galanki. Noizean bein dibertitu bear dala badakigu. Baiña ortaraiñokoa geiegizko zabarkeri bat juzkatzen det. Ixiltxeago ibiltzen baldin balekite, utsa litzake. Gauean nekatuta oeratzen geran zarrak, ernegatu ta denbora alperrik galdu besterik ez degu egiten.

–Sasoi daukate ta zer nai dezu ba? Oraintxe gozatu bear oiek ere –esan nion nik.

–Bai, Lasarte –erantzun zidan–. Ortan arrazoi pixka bat badezu alde bateara. Gu ere gazteak izan giñan. Baiña ez genduen orrenbesteko desordenik erabili. Ez bearko ere lengo gurasoekin. Garai artan gauzak estu artzen ziran. Gaur, berriz, oso lasai ikusten ditugu. Pertsonak jakin bear luke etxera erretiratzeko ongi datorkion ordu modu batean –esanez, jarraitu zuen bere sentimentuak agertzen aitona naigabetu gizarajoak.

Zeoro moda berri gero, ordea, ta gauean pestan dabiltzanak ixilik ibiltzea zailla dala bistan dago. Kaleko zar jendeari loa galerazten diotela ere bai. Argatik minberatzen dira geienbat.

Ez da arritzeko gaiñera, nere ustez. Batez ere gaixorik edo erdi ipurdi dauden aiek giro txarrean errez jartzen baidira, kezka betarik inun atsegiñik aurkitu ezin dutelako. Gazteak, berriz, ez du ikusten edo ez da konturatzen gaitz xeble orrekin. Oera joan da jira ta buelta asi ezker, gustoko tokirik ez du billatzen pertsona nekatuak eta nolabait antzean dabilenak.

Ortik aparte, familiko gurasoa baldin bada, izango du zer pentsatua buruz gain beregan, eten gabeko nasketaz osatzearen noski, etxekoren batzuk kanpoan diranetan. Lasaitasun gutxi ta gauza txarrak gogoan, nundik nora ote dabilzan da abar. Aita ta amaren bildur kezkarriak. Sarritan, norberak naiko lan, da ala ere besteri begira.

Neuri gertatu zitzaidan ori prankotan len garai batean. Larunbat arratsalde edo igandez berdintsu da. Aldegiten zuten seme-alabak kanpora, legezkoa dan bezela, ta gauean, etxeratu bitartean, onik ez. Beti pentsamentu jakiña: joan oera ta, falta ziran bakoitzean, beraietaz gogoratzen, da ezerengatik lo artu ezin.

Txorakeria dala dirudi orrek, baiña ez da noski. Supritzen dagoen gurasoa erreta gelditzen baida; ta inoiz zerbait esaten asten bada, berriz, okerrago orduan, da parranda aundiagoak egingo dituzte gazteak.

Neri bein erakutsi au eman zidan semeak: egoteko lasai; ez neukala zertan estuturik ainbesteraño.

Ori ontzat artzen nuen, bidezkoa zan gisara. Baiña orrelaxe gera mundu xeble ontan. Beti badegu zerbait, au ez bada, bestea.

Neu ere juerga latzak egiña naiz. Ez gorputzaren mesederako noski, kaltegarri baizik. Alamoizko opizioaren jabe izanik, ortxe ibili bear erriz-erri kantuan gau ta egun. Nai ta nai ezkoa zan eginkizun ori betetzen alegintzea. Bestela, jendearen aurrean gaizki geldituko giñan dudarik gabe.

Lengo bertsolari zarrak parranderoen fama zuten, da nik ez nuen galdu nai aien izen onik nunbait. Eskerrak orduan saiatu giñan nere lagunekin batera. Gerorako utzi bagenitu, etzeuden egin errezak. Emen santu itxurak alperrika-koak dira.

Nik, gaur bildurtua banago ere, garai batean, gustoko lagun artean, denbora konturatu gabe pasatzen nuela aitortzen det egiz. Txori guztiak mokodunak izaki. Ala juzkatzen ditut neregandik asita. Azkenerako, eziñak zintzotu arazten gaitu geientsuenak derrigorrean.

Baiña erabat aririk eten ez dezadan, sartu nadin berriro izketan lengo saillera.

Beraz, gurasoaren izakera estua dala ez legoke nik adierazi bearrik. Ez baidu bere umerik gaizki ikusi nai izaten bein ere. Baiña arrixkua ortxe dauka beti gaiñean.

Gaua kalez-kale igarota, goizean, eguzkiak berotzen duen garaian, erretiratzten dira etxe aldera lotara. Ta ori litzake gutxienekoa: erri barruan geldituko balira, gaitz erdi.

Orain ez da lengo konturik. Autoak edozeiñek dauzka eskuetan, da erri batetik bestera azkar aldatzeko modua daukate. Erosotasuna alegia. Ta gero bideetan gertatzen zaizkiote okerrak noizean bein, da parean egokitzen danak pagatu bear, beste norbaiten errua izanik ere. Kotxe bat zuzen joateak ez du balio. Bestea kontraeskura sartzen bazaio, antxe joko dute biak alkar, ta txikizio galanta egin gaiñera zenbait alditan.

Ez da batere arritzekoa, kamioetan dabillen aztarrikari begiratzen badiogu. Ainbat gaztek galtzen dute bizia, kanpora dijoazenean, edo bueltan etxe aldera datozela, kotxean da motoan. Oiek, ongi dabiltzanean, tresna politak dira; baiña arriskutsuak era berean. Ezbearra, berriz, beti zai dagoela esan genezake. Gabon jaietan bezela, udarako oporraldietan, zenbat iltzen ote dira? Bai zarrak eta aur txikiak ere, sasoikoak ez-ezik.

Etxe askotan artzen dituztela abiso tristeak uste det tarteka. Familikoren

baten eriotzaren berri jakitean nolatsu jarri litezkean pentsatu besterik ez daukagu. Biotzondoko ederrak artu bear uste gabeen.

Kristauen arterako negarra ta samintasuna gauza gustagarriak izan ez arren, datozenean aldegitetik ez; ta disimuloan pasatzen zaillak barrengo naigabeak.

Lentxeago genion gisan, jai arratsaldez eguzkia bezin argi dauden neska ta mutillak dotore apaindu ta pestara dijoazela ikusi, ta gero ez dirala etxera itzultzeko moduan, ori penagarria da benetan nereko; ta orrelako kasoak sarritan entzun ditugu, zoritxarrez, aspaldiko urte auetan, alde batean eta bestean.

Argatik esan oi degu gurasoaren kezkarik ez ote dan sekulan bukatzen, bizitzen jarraitzen duen bitartean beintzat. Lenengo, umeak azitzen naiko es-tuasun. Da gerora, aietako bakoitzari dagokion ezikera ere eman egin bear, zor zaionez, nola edo ala. Ara or arazo neketsuak. Guraso danak ez dute berdin pentsatuko noski. Baiña geientsuenak esnatu arazten badaki bizitza neurtu onek.

Gazte jendeak, berriz, izaten du bere bolaratxo bat, besteren esanari in-portantzi aundirik ematen ez diona, edo iñoren erakutsi naiak aintzat artu ezin dituen. Adiñez jantzi ta mundua pixka bat ezagutu bitarteko denbora da ori, gutxi edo geiago guztiok pasa deguna, bakoitzak geure garaian. Orrelaxe dira sasoiaren goraberak, eta oiek aldatzen kostako dala derizkiot aurrerantzean ere, nik ikusten dedan modura beintzat.

Emen da nun-nai, gaztea beti gazte, eta zer gauza ederragorik, orixe baiño, pertsonarentzat? Lastima bereala igesi joaten dala umorearen freskura. Sasoi ona daukatenak neguko otzik gogorrenak ere ez ditu bildurtzen. Soiñean erropa gutxirekin or ibiltzen dira arin asko ta dotore, bildur geiegi gabe noski.

Ez, gu zartu ta aulduak gaudenak bezela, zarpaz bete ta sugurraren puntatik mukiak zintzilik. Eztula ta narraskeria ugari erabiltzen degu, batez ere elur ta jelate denbora beldurgarrietan, da epelera babestuaz, buru-belarriak ongi makurturik.

Lengo pasadizoa gogoratu zait une ontan, granjero batena. Oillo asko edukitzen, da egun batez badijoa karroa arraultzez kargatu ta saltzera azokara, abere zarrarekin, poliki-poliki, kamioz-kamio. Ta bere lagunak galdetzen dio:

–Kale aldera joango zera?

–Bai. Asmo orrekin abiatu gera.

–Zaldia mantsotu zaizu.

–Bai. Baiña onekin seguru nabil. Saltoka asi ta ez du arraultzik autsiko
–erantzun omen zion granjeroak.

Guri ere orrelako zerbait gertatzen zaigula badakigu. Sarritan, gauzak oso illun da beltz daudelakoan, ezertarako animorik gabe emen gabiltza. Zartu ezkerro, erabat kuxkurtzeraiño irixten da pertsona.

Len gure aurrekoak itzegiten zuten onelaxe. Etorkizunaren argitasunik ezak ekartzen du nik diodan au guztia, geienetan beintzat. Konpostura onik izan ez lezakean gaitza da zartzeak ekartzen diguna. Ala ere, okerragorik ez degula, ez daukagu iraun eziñik. Kontentu egon gindezke.

Osasunez sendo antzean dauden aiton-amonak suerte ederraren jabe dirala jakingo dutelakoan nago. Ixtimagarri baida nork bere gorputzean segurantzia edukitzea, noranai joan da itxuraz ibili al izateko. Gizonezko ta emakume askori gertatzen zaiotena da: gaztetandik lanean geiegi beartu ta, zartzera irixtean, ajea ugari ta zorion gutxi.

Ni ere ari naiz klase ori zertsu dan probatzen. Baiña berandutu zaigu. Orain ez dago guretzat erremedio onik. Datorrena betor ta segi aurrera, etsipenik artu gabe. Orixe bakarrik da egin genezakeguna. Ez daukagu beste jokabiderik. Urte astunen pixuak menperatzen ditu gizonik indartsuenak ere. Azkenerako ezerezera biurtu. Beti bezela jarraitzen du mundu ontako martxak.

BERTSOLARIAREN LANAK

Baiña ekin dezaiodan bertsolaritzari. Emen ere ez da faltako zer itzegiñik, gauzak esplikatzen asmatuko bagendu.

Gaur bertsolariak mendian edo basoetan perretxikoak bezin ugari dirala esan genezake noski. Oraintxe bada ortik aukera ederra, eta orrek ez du poz txikia ematen, aurrera begira jartzen bagera, ta kantatzen duten guztientzat lana sortuko balitz. Ori zailla, ordea. Zortzi edo amar erriz-erri dabiltzan bitartean, beste mordoska bat ixilik daude. Sarritan pena ematen du, baiña au orrela gertatzen zaiote, irakurle.

Erriaren bitxi ta euskeraren bizigarri ta xuxpertzaille dala esango nuke bertsolaritza. Batere zalantzarik gabe, oso bearrezkoa gaiñera, nere iritziz. Naiago nuke bertsolari danentzat aiña lan balego.

Ala ere, aspaldiko urteetan nun-nai antolatu oi dira jaialdiak. Baiña izan zan bolada luze askoa, lengo gerra denboran da ondorenean, jendea triste ta illun bizitu zana urte negargarri aietan. Ez jateko ogirik eta ez jazteko erroparik. Pobre giñan orduantxe benetan, da umorez ere alatsu. Bertso gosea ere garai artan zan baztarretan.

Ni gogoratzen naiz: mutil gaztea nintzala Eibarren lanean aritua bainintzan, an urteko jai nagusiak San Juanetan asi ta San Pedro egunean bukaera izan oi zuten. Zortzi eguneko pestak ospatzen ziran, da azkenekoa zala uste det beste danen gaiñetik jendearen gustorako: kirol jaialdi, dantza txapelketa ta abar. Oiek guztiak erriaren alaigarri.

Baiña Basarri ta Uztapide oltzaduraren gaiñera igotzen ziranean, ango txalo burrundadak etzuen txantzarik. Bertso gutxi entzuten baizan garai artan, da kantatzen ziranak ere aidean aldegin. Iñork etzituen jasotzen. Artean etze- goen manetofonorik, eta irratirik ere ez, gauza oietarako prestatu rik.

Gero, berriz, Eibar oso erri euskalduna genduen, da ura zan ase eziña ta zaletasuna! Ixtimazio izugarria zuten an bertsolariak.

Baiña gauetik goizera, lana ugaltzen asi zala-ta, kanpotarrak sartu ziran bat-batean. Orduantxe galdu zan euskeraren indarra, geientsuena. Lastima! Geroztik ez du lengo almenik beregandu.

Guk, Uztapide ta biok, urte sail batean kantatuak gera an San Pedro egunez, ta gerora ta giro eskasagoa nabaitzen zan plaza libre artan. Jende geiegi ta erdera nagusi. Alako tokian ezer gutxi luzitzen du bertsolariak.

Batzuk izaten dira bertsozale purrukatuak, eta aiek supritzen dute galanki alakoetan, ingurukoen bulla ta zalaparten bidez ezer entzun gabe gelditzen diralako. Ixiltasun pixka bat gauza atsegiña litzake. Baiña ori ulertzen jakin bear, ta zailla zenbaitentzat noski.

Orain ez dakit nolako pestak egiten dituzten. Nik ez det aspalditxoko berririk. Gure gazte denboran bezelako ilusioa ta zaletasun beroa baldin badu jendeak bertsoak entzuteko, ez dago bildurrik, irakurle. Baiña onez aurrera ori eziñezkoa ote dan derizkiot.

Zuk agian galdetuko zenidake zergatik diodan au. Erreza da ta esango dizut. Gaurko egunean len ez genituen erreztasunak dauzkagulako, bertsolarien jaialdiren bat galtzen badezu bertara joateko astirik ezarekin edo abar, zeuk ala nai izan ezkeru, etxetik entzungo dituzu lasai irrati bidez an kantatzen diran guztiak, edo baliosoenak beintzat. Len saio osokoak, aurrenetik azkenera bitartekoak, danak erabat botatzen zituzten, onak eta txarrak. aukeraketarik egin gabe artu ta zeuzkaten bezelaxe. Oraingoz ez dakit nola dabilzan. Oiek jasotzen dituzte, ta gero ondorengo egunetan eman ere bai erriari. Gure irratiak ortan lan asko egin dutela badakigu.

Ortik aparte, auxe adierazi nai nuke: asieran aipatzen dedanez, bertsolari aukera ikaragarria dagoela, nola zar ta gazte. Beraz, etorkizun bikaiña nabaitzen da bolara ontan, da iraun dezala luzaroan.

Ni neu ixildu nintzan, eziñak jota. Azken urteetan, iñora joateko gogorik ez neukan. Gaizki nenbillen oso, egia esateko. Batez ere, gauetzko bertso saio asko utzi bear izan nituen. Jipoi bildurgarria ematen baizidan loa galtzeak eta ordu txarretako erretira egiteak. Bertsolari gazte apal batek sarritan esaten zidan:

–Zuk jarraitu kantuan, Lasarte, al badezu beintzat. Guk martxa artu bitartean, ez etsi.

Aren borondate ona asko ixtimatzen nuen. Baiña lana nik egin bear, orde;

ta ura ezin da neure burua estu ikustean, asarre, iñork antzeman ez arren. Gaur ez du nere laguntzaren premirik, diodan gazte onek. Dotore asko kantatzen du. Sasoi betean dago, ta bera bezelatsu beste asko ikusten dira.

Nere iritziz, landare berriz apaindu da gure jardiña. Pozik eta gustora egoteko moduan aurkitzen gera, gazte trebeak dauzkagunez. Euskalerrriak mainteko ditu, ongi portatzen baldin badira. Seme leialak komeni zaizkio, ta lengo oitura zarrak ez ditezela galdu nolana, ori penagarri biurtuko litzake ta.

Orain neure bertso egintza zertsu izan dan adierazi nai nuke. Bertsolarien artean, aspaldiko urteetan, politika ibili da. Ez dakit bearrezkoa zan ala ez. Ni ori neurtzeko ez naiz iñor.

Neroni ere gai jartzaille batzuek sarritan zirikatzen ninduten, eta estuasun ederrak paseak baditut gai klase orreri aldegin eziñik. Aurrea itxita ikusten nuen garaian, saiets aldera jo ta andik pasatzen nintzan, disimuloan ustez, baiña naikoa nabarmenduta entzule askorentzat.

Emen len ezagututako gertaerak gogoan izanik, bildur ikaragarria diot politikari. Ara zer dan motibo berezia. Ez naiz ortan sartu, eta ez det damurik izan sekulan. Nere sentimentuak orrelaxe ziran, baiña barruan gorde beti. Egundaiño beste iñori ez diot esan zer egin bear lukean. Or konpon. Bakoitzak berak ikusiko du nundik nora ibili.

Neretzat ere gairik errezena orixe zan. Politikan, gauzak ongi esateko, asko jakin beariko da. Dударik ez dago. Baiña gaizki itzegiteko, batek ez du batxiller ikasi bearrik, eta kito. Beste gaiñontzean ere, naiko baldarkeri erabiliko nuen seguru asko.

Egun batez, gogoratzen naiz, Uztapide ta biok bertsoara joan giñan; da erri artan, bertako pestak ziranez, arratsaldean gendukan kantatu bearra. Azken orduan presaka ibili gabe, lentxeago urreratu ta ostatuan geundela, gazte batzuk agertu zitzaizkigun, da esan ziguten politikari buruzko gaiak zeuzkatela prestatuak. Ea onak al ziran.

Garai aietan, ori eguneroko ogia bezela zebillen, da etzan arritzekoa alde batera. Baiña guk erantzun genioten politikan ez genduela ezer itzegingo. Ortik aparte, edozer gai izanda ere, berdin zitzaigula.

Orduan serio antzean jarri ziran mutillak, eta aldegin zuten gure bistatik, asarre itxuran edo goibel samar. Gero, garaia iritxi zanean, deitu zuen beraietako batek altabozetik, bertsolariak igotzeko gora.

Alaxe, joan da ekin genion lanari. Lenengo, agur bana. Ondoren, gaietan bertso saio luzea. Geu gustora jardun da gauzak uste baiño obeki irten nunbait. Jendea gozatu zan dotore.

Lanak bukatu genituenean, lengo gazteak beste aurpegi klase batzuk zeuzkaten. Ostatura gonbidatu ginduzten segituan, da nai genduen eskatzeko bildurrik gabe. Oso ongi portatu giñala ta pozik gelditu zirala. Urrengo urtean ere, ezeren okerrik gertatzen ez bazan, gurekin kontatuko zutela. Eskatutako soldata ordaindu ziguten, da kontentu etxeratu giñan.

Lendik ezagutzen genduen erri ura, maiz bertsoan arituak baigiñan; da andik aurrera ere berdin. Guretzat jende jatorra zan angoa, ta orrek ez du gutxi balio. Leialtasuna gauza ederra da benetan. Gustora pasatako egunak ez dira errez aztutzen.

BERTSOAREN BALDINTZAK

Baiña bertsolaritza lan gogorra da berez. Bertsoaren barruan baldintza asko daude, ta betetzen zaillak, neretzat beintzat. Norbaitek iñoiz esan du Lasartek rima estuegia erabiltzen duela.

Ortan arrazoi dana izan lezake. Ez noa orren kontra. Bertsoa zabaletik rima lasaian artuta, gauza geiago esan liteke. Baiña nik ezin det ori egin. Oso urrekoak eta alkarrekin lotura aundia ta zer ikusia duten rima edo puntu juxtuak gustatzen zaizkit. Belarrirako itz jokoaren ota berdintsua izan dedilla alegia. Ez det ori iñorengandik jaso dedana, nerezkoa baizik. Badakit arrixkutsua dala, bat-bateko bertsogintzan batez ere. Baiña bertsolari danak ortantxe alegintzen dira, naiz-ta erreztasun berdiñekoak izan ez.

Beste baldintza auxe da, nere iritzian: neurria. *Itz neurtuak* zerbaitengatik esan oi da. Metroko pusketa bat bear dan tokirako, luzeagoak ez du balio, moztu ezean; da motzegiak ain gutxi, irixten ez dalako. Naiz-ta mami aundiko esaera aberatsak erabili, neurri barruan ez bada errenditzen, bertso artan ez dago balorerik neretzako; eta deskuidatzen oso erreza da, aria galduta edo abar. Arritzeko gauza ote da? Nere ustez ez.

Bertsolaria, berak egindako lanez gustora nekez geldituko da. Geienetan izango du zerbaiten kezka.

Xalbador zanak esaten zuen, rima egokien billa zebillela, sarritan neurrian nastutzen zala. Egi galanta.

Jeneralean, bertsoaren azken puntua buruan artuta asten da, ta ara bildu. Baiña tartekoren bat asmatu eziñez gertatu ezkerro, bukaera emateko bear dan puntua aurretik igoal sartuko du, ta akabo: aldegin dio txoriak eskutik.

Izan ere, ain epe laburra da or. Minutu batean moldatzen da bertsoa amarreko aundian. Zortziko txikian, berriz, berrogei segundoan kantatu izan da sarritan. Beraz, denbora gutxi asko pentsatzeko, ta buruauste ugari. Umorez



urri antzean egonik, gizonarentzat lan txarra. Probatu ez bagendu, ona zalakoan biziko giñan. Beste batzuek egiten dutena erreza dala iduritzen baida.

Gero, ortik aparte, gora-bera asko daude begien bistan, bertsoari komeni zaizkionak: sakontasuna, bizitasuna, goxotasuna, zorrozatasuna, ateraldi ego-kiak eta abar, derrigor bear diranak. Baiña aipatzen ditudan auek guztiak gizon batek ezin lezazke bere baitan eduki, ta askoren artean banatzen dirala badaki-gu.

Bertsolari bakoitzak berezko moldean kantatzen du. Ori aldatzen astea kaltegarri zaio. Bestela, len daukana galdu ta berririk ikasteko modurik gabe, bertan bera gelditu liteke uste baiño eskasago. Emen nork bere nortasunari eustea bezelakorik ez dala dirudi. Etxeko baratza zaindu alegia. Auzokoan ez geiegi sartu.

Bertso jartzaille ederrak baziran Euskalerrian garai batean. Bai; gaur ere badauzkagu. Ori ez genezake ukatu. Era guztietakoak ezagutu ditugu. Bertsoak idazterakoan danak egitura desberdiña, ordea. Gauza bera gertatzen da bat-bateko bertsogintzan.

IDAZLANAK

Gaur, katurako apizioa dakarren gazteak, laguntza bikaiñak esku artean ditu. Guk ez genduen orrenbestekorik sekulan izan.

Ni, gazte-denboran, ez nintzan liburu baten jabe egin. Ogei ta amabost urte nituela, operatu ta Aian arrebaren etxean nengoela, Andoni Lekuona, Oiarzungoa, Aiako Altzola baillaran apaiz zegoen garai artan. Bixitatzera maiz joaten zitzaidan, da aretxek erregalatu zidan Xenpelarren liburu bat. Uraxe zan nik lenengo eskuetan artu nuena.

Geroztik, Aita Zabalak eman izan dizkit beste batzuk, eta or daude jasota biar edo etziko, iñork irakurri nai baldin baditu.

Nik neuk ez det ezer irakurtzeko oiturarik neregan bein ere. Batetik, astia falta; eta, ori baiño okerragoa, gogorik eza. Onez aurrera, berriz, danak alpe-rrik. Gurea joan da.

Idazlanetan sekulan jardun gabekoa naiz. Len ez nekien, ala naita ere. Orain ikasi det pixkatxo bat, nere kasa saiatuaz. Jakiña, denbora neukan da alegindu zerbaiten billa.

1975'garren urtean liburu izeneko bat argitaratu nuen. Baiña etzan idatzia. Bertso danak kantatu ta zintan jarriak ziran. Gero Aita Zabalak papereratu zituen. Oso presaka ta gaizki ibili nintzan orduan. Lanez bete ta gaiñezka genbiltzan, egunero amalau ordu sartuaz. Zumaian genituen obrak garai artan, da etxean gauzez moldatu bear bertsoak, besteak lotan zeudela. Jangelan sartu, atea itxi, iñor esnatu etzedin, da segi kantuan, ez gogotsu baiña. Ala ere, bi urte eskasetan amaitu nuen liburua nola edo ala, ta pake ederra eman zidan. Ori baiño lasaitasun geiago nai luke pertsonak, gauzak bere gustora egin al izateko.

Gerora, berriz, etorri zitzaidan beste bat antolatzeko zaletasuna bezela. Ta illunabarretan, billoba mutil txikia beti nere aldemenean ibili oi danez, bera zainduaz asi nintzan poliki-poliki prosan zerbait idazten denbora pasa, ta dexente egin ere bai.

Baiña ezin nuen erabaki balioko zuen edo ez, eta bertan bera utzi ta kito. Baztarreratua neukan erabat, geiago aurrera jarraitzeko asmorik gabe, txikitu ta zakar ontzira edo basuretara botatzea ere pentsatuaz tarteka.

Zalantzan nenbillela, egun batez, sarritan bezelaxe, bertso tara erri batera joan da saioa bukatu ondoren, Joxe Mari Aranalde apaizarekin alkartu ostatuan; da, izketan asi giñanean, galdetu zidan:

–Zer moduz zabilta osasunez, Lasarte?

Nere itxura ederra ikustean, askoren galdera izan oi da ori, ta erantzun nion:

–Lengo astean medikutan nintzan; da esan nion medikuari, aren aginduak ongi betetzekotan, bertso lanari utzi bearra neukala derrigor. Ta erantzuna eman zuen dana uzterik etzitzaidala komeni. Buruak lan pixka bat bearrezko zuela. Baiña ni, postura ontan egonik, katurako ez naiz gauza eta ez dakit zertara jo oraintxe.

Orduan Joxe Mari Aranaldek onela dio:

–Bai al dakizu zer dezun ona, Manuel? Bertso batzuk idaztea.

Arrazoi orrek zer pentsatua jarri zidan. Izan ere, gizon au, bertso kontua aipatu ezkerok, jan bearrik ere ez duen oietakoa da. Ta, aolku ori jaso nuenetik, ekin nion berriro idazteari.

Beraz, Joxe Mari, nere egoeraren berri jakin gabe animatu ninduzun, da eskerririk asko eman zenidan laguntzarengatik, liburu ontan zerbait onik baldin bada.

Auxe da nik daukadan kezka bakarra: gizon jakintsueri eskeintzeko gauza gutxi egongo ote dan. Buruari bueltak emanaz, berriz, pentsatzen det neregan-dik iñork ez duela ezer esperoko. Dana dala, ortxe gelditzen da bistan bere pobrezan, nai duenak irakurri. Txarrik ikusiko ez balitz, onari ez litzaioke eskerririk emango, ta goazen aurrera begiratuaz.

ZENBAIT OMENALDI

URRATEGIKO OMENALDIA

(1976-VII-19)

1976'garren urteko uztaillaren 19'an, omenaldi dotore bat egin zidaten Azkoitiko Urrategi baillaran, eta adierazi nai nuke nolatsu zan orduko egitaraua gutxi gora-bera.

Goizeko amaiketean erri mezaren bidez eman zitzaion asiera txukuna, ta bertsolariak kantatu zuten, erri oparia eskeintzerakoan, Urrategiko Amaren ermita politean, Laja ta Landakandak ere soñua ta panderoa joaz ta abar. Elizkizun bikaiña. Apaiza, berriz, lazkaotarra. Azkoitin bizi zan garai artan. Orain ez dakit. Izena nola duen ere ez naiz gogoratzen une ontan. Bestela jarriko nuke.

Meza bukatu ondoren, lenengo amaiketakoa zeukaten ostatuan prestatua: salda beroa ta gaiñetik aragi egosia, edo bestelako zerbait igoal ala nai zuenarentzat. Ardoz aukera. Txakoliñez berdin. Ez dira alimentu txarrak umorean sartzeko.

Berealaxe ekin zioten bertsolariak plazako saioari. Kantatu zutenak ara emen: Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Joxe Migel Iztueta *Lazkao-txiki*, Joxe Luis Gorrotxategi eta Anjel Larrañaga. Gai emale ta zuzendari, berriz, Inozentzio Olea zuten.

Au berez Zeraingo semea da, baiña aspaldiko urteetan Legazpin bizi dana ezkondua, bere familiarekin. Olea, gure laguna, bertso jartzaille ederra degu. Baditu bi liburu argitaratuak, nik dakizkidanak. Gaiak jartzen ere oso egokia da. Bertsolariak ongi ezagutzen ditu, bera opizio ortakoa izanik. Orain ez dakit jarraitzen duen langintza orretan. Baiña len gurekin prankotan ibili zan erriz-erri. Gizon atsegiña nere ustez. Gaitz gogor samar bat arrapatzea egokitu zitzaion, da azken urte auetan osasunez urri antzean gizarajoa ura ere, ni bezelaxe. Zurrutean asko etzuen esajeratuko, neurrian edaten zekien da. Baiña zuzentasunak beti ez du balioko nunbait, askok pentsatzen duten ainbeste.

Berriro itzuli nadin Urrategira. Bertsolariak eguerdiko lanak bukatu zai zeuden, Laja ta Landakanda soiñu jotzen asteko; ta gazte jendea dantzatu arazi zuten ederki ordubiak aldera bitartean gutxienez ere.

Geroxeago bazkaltzera inguratu giñan. Ostatu bakarra baillara artan, da nai zuen guztiarentzat tokirik ez. Bertako jangela leporaiño bete, aundia izan arren. An etzegoen geiago kabitzerik. Bazkari gozoa, lagun arte paketsua ta leiala, alaitasuna gaiñezka, antxe ikusi genituen gauza bearrezkoak. Jendea giro onean jarri zan, da an ziran angoak, kafeak artu ondoren batez ere.

Ekin zioten trikitilariak. Izan ere, Azkoiti aldean, soiñu txikia jotzen daki-tenak aukeran baidira asko ta onak. Panderistak ere bai. Jendeak badu ortarako adur berezia. Alperrik da bestelakorik esatea. Arri itxurazkoa kanteratik ateratzen da.

Bertsolariak ere umoretsu zeuden. Kantatzeko gogoz ta animoso nabaitu genituen. Bein seitaraiño osatu ezkeru, bakoitzak zortzi edo amar kantatzea naikoa da. Bertso mordoska ona bazkalondo baterako, tartean soiñu joleak dirala. Alkarri lagunduaz txandaka, bi edo iru ordu maitik altxa gabe errez pasatzen ditu jendeak. Gustora gaiñera. Urrategin orixe gertatu zan.

Uste baiño len plazan arratsaldeko jaialdiari asiera emateko garaia iritxi. Arri jasotzailleak, sasoiko gazteak, lanean pulamentuz jardunak baziran antxe, ta aariak talkan edo borrokan, zergatik etzekitela, sarritan oi dan antzera.

Alde batera ez da ain egokia animaliak ala supritzen ikustea. Baiña pesta bizia jartzen dute oso, ta begira pozik egon izan gera iñoiz. Batzuek gogozko dituzte aarien neurketak. Azpeitin zenbat jokutzen ote dira urtearen aurrenetik azkenera bitartean? Urrategiko jaietan ere geienetan eramaten zituzten, nere omenaldiko egunean bezelaxe.

Dana dala, aariak alkar jotzen aspertu ziranean, bereala bertsolarien bigarren saioa asi zitzaigun, goizekoa baiño luzeagoa, arratsaldekoak garrantzi geiago zeukalako noski. Bazan entzule ugari. Plaza galanta da ura, baiña beteldi ederra artu zuela badakit. Inguru aietan jende bertsozale purrukatua izaki, ta kanpotarrak asko joan, da gero toki lasai ustekoa estutu.

An bertotan sarritan aritua naiz ni len, garai batean; da nola gazteak ala zarrak, joera aundia zuten mendigaintxo polit artara. Eguraldi eguzkitsua ta segurua zegoenetan batez ere, oiñez igotzen ziran azkoitiarrak, eta urrutiagoak igoal, batzuk kamioz ta besteak mendiz, aize sanoaren billa zebiltzanak.

Beraz, bein ere ezin niteke aztu ni Urrategiz. Jaialdi bikaiña antolatu zutela zirudien ordukoak ere, ta neretzat egun gogoangarria.

Bertsolariak beraien lanak amaitu ta segituan, erregali dotore anaikor batzuk eman zizkidaten, da pozik jaso nituen. Ez dira derrigor aundiak eta asko bear. Txikiak berdin balio lezateke, ixtimatzen jakin ezkeru; ta ni gustora gelditu nintzan, erriaren oroimena ta borondate ona zer zan ikusirik. Orixe juzkatzen det danen gaiñetik nerekeru. Ez dakit noiz irabazi nituen erregali aiek edo zertan asmatuko nuen, omenaldi ura eskuratu al izateko.

Azkenean, lau bertso kantatuaz daneri eskerrak eman nai nizkioten, da agindu ere bai. Baiña etziran geiegi noski.

Dana dala, egun artan bildu zan diru guztia neuri eman zidaten. Oltzadura-ren gaiñean nengoen artean, eta nik diru ura bi zatitan banatzeko ordena edo agindua eman nioten onelaxe: erdia erriko ikastolarentzat; eta beste erdia, berriz, erriko gaixoeri laguntzeko, premia edukiko zuten da.

Nik ere ez nuen ori egin diru faltarik ez neukalako. Gure etxean bazan ainbeste ta geiagoren tokia, ta nun gastatu bagenekigun, ala nai izan bagendu. Baiña pobreak jakiten du jeneralean beste beartsu askoren berri, ta une artan uraxe bururatu zitzaidan. Gure semea antxe zan, da gero galdetu nion zer iduritu zitzaion, da:

–Nere ustez, oso ongi pentsatu dezu –erantzun zidan.

Biok kontentu. Bertsolariak endredatu genituen. Inozentzio Olea gai jartzaillea ere bai, ta aieri soldata ordaintzeko asmoa erakutsi nuen. Oleari esan arazi gaiñera. Iñork etzuen ezer kobratu. Soiñu joleak ez dakit zer tratu zeukaten. Debaldeko lana seguru asko, omenaldietan beti oi dan bezela. Beraz, diru dana antxe joan zan Azkoitiko errira.

Ni ezjakiñean gelditu nintzan zenbat diru bildu zan. Kontatzea merezi zuen, baiña presaka nenbillen zearo ta ez neukan astirik. Dakidana auxe da: telazko zorro edo poltsa aundi batean zeudela txanponak; eta, eskura eman zidaten garaian, astuna iduritu zitzaidan. Bere artan entregatu nion adiskide bateri, ta bi edo iru lagun segituan jetxi omen ziran Urrategitik kalera. An egingo zuten banaketa. Orrela bukatu genduen geure eginkizuna.

Len esan bezela, nik kantatu nituen lau bertso. Agian egunkariak ekarri zezazkean. Norbaitengandik entzun nuela gogoratzen naiz, azkoitiarren batek idatzi zuela artikulu luze samarra, Urrategiko pasadizoak esplikatuaz. Ni kan-

poan ibili nintzan, ordea, ondorengo egunetan, da ezin irakurri emengo egunkaririk.

Baiña banekien bazirala an bertan manetofonoz grabatu zituztenak. Bat, oso ezaguna, urrean ikusi nuen artzen ari zala: Uztapide bertsolariaren illoba. Komeni zitzaidan diodan bertsoak nereganatzea, ain zalea dan lagun batek eskatu baizizkidan: iñundik al banuen, lau bertso oiek nai zituela. Kapritxoak orrelaxe izan oi dira, ta lortu genituen.

Endoia baillarako pestetan kantatu bearra neukanez, goizetik joan da bazkaltzeko denboran alkartzeko egokiera etorri eskura uste gabeen Uztapide-ren illobarekin. Galdetu nion ea gogoratzen al zan Urrategin kantatu nituen bertso aietaz. Baietz erantzun zidan; gordeta zeuzkala. Orduan eskatu nizkion, zer gertatzen zan esanez; ta berealaxe bialdu zuen zinta gure etxera, ta nik ere laister eman nizkion nere lagunari, eta bide batez idatzi ta jaso. Beartu nintzan garaian, ortxe billatu nituen. Toki jakiñean jarri ezker, ez dago galtzeko bildurrik.

Dana dala, oso egun ederra zalakoan bizi naiz Urrategin pasa genduen, goizetik illunabarrera bitartekoa. Lagun arte ona, jende asko ta pakezko gozotasuna nagusi.

Nik nai baiño len aldegin nuela esango det, eta ara zergatik: Frantziko Toulousera joateko txanda aurrez artuta geunden, da bezperan iritxi andik abixoa juxtu-juxtuan, da aldatzeko modurik ez. Emen Oriotik bi lagun joan giñan tasisean Toulousera medikutara: Benito Lertxundiren koñadoa Mariano Azkue ta biok.

Mediku frantzes ura illean bein etortzen omen zan Donostira. Igeldoko Buena Bistan zeukan despatxua, oker ez banago; ta ara biltzen zitzaizkion gaixorik zeudenak. Gu ere Igeldora joan giñan. Lenengo pultsuazioa artu besterik etzuen egin egun artan, da esan zigun Toulousera joan bear genduela; berak abixatuko zuela noiz.

Ala, gaueko amabietan gendukan izentatua irteera Oriotik. Urrengo goizeko zortziretan antxe geunden Toulousen, medikuaren etxean, bidean gorputzari pasada latza eman da kuzkur.

Nik asmoa nuen, Urrategitik garaiz etorri ta abiatu aurretik lo kuluxka bat egitekoa. Baiña ezta begirik itxi ere. Oean jira ta buelta ibili bai. Alperrik ziran nere pentsamentu danak. Nerbio guztiak aidean zebiltzan, da deskantsatzeko

astirik ez. Kezka gaiñezka, ta ori gauza txarra da. Lasaitasunik ezak dakarrena geienetan.

Txoferrak kotxea astindu zuen. Kilometro asko pasa bear, ta ala ere agin-dutako ordurako iritxi zan, da kontentu.

Toulouse erri ikaragarria da, ta suertez bide galtzerik gabe egoki moldatu giñan. Ez da batere erreza, ezagutzen ez dan tokian asmatzen. Baiña ongi atera zitzaigun biaje ura. Gero antxe itxogin genion ordubetea medikuari.

Bederatziak jota asi zan lanean. Alde ontako jendea zerabilkien: ondarrutarrak, Donostikoak eta orrela, erri askotakoak. Baiña euskaldunak beintzat. Geientsuenak emakumezkoak. Batek onela zion:

–Ni zigarro erretzaille amorratua naiz, ta utzi nai nuke. Baiña ezin det nere kasa. Ta mediku onek kentzen omen du bizio ori, ta orretxengatik etorrita nabil.

Orduan nik galdetu nion:

–Zenbat egun daramazkizu erre gabe?

–Gaurkoa laugarrena –erantzun zidan.

–Suprimentu galantaren jabe egin zerala uste det. Orain pozik sutuko zenduke zigarrotxo bat –esan nion. Da:

–Bai orixe! –zion berak.

Diodan mediku frantzes arek akupuntura deitzen zaion orretan egiten zuen lana. Ez bakarrik gaiñera. Beste iru edo lau lagun laguntzaille bazeuzkan.

Goizetik eguerdira bitartean ematen zigun guri tratamentua, ta gero arratsalde guztia libre gendukan paseatzeko-ta, baztarrak ikusi nai izan ezker. Baiña an iñor ezagunik ez ta konfiantza gutxi ezertarako, ta denbora pasa ezin iñola ere.

Ortik aparte, berriz, ikusten genituen pertsona klase zelebreak, kristau itxurarik gabekoak, bildurra sartzen zuten oietakoak. Auskalo nungotarrak ziran. Toulousen arraza guztietako jendea ibiltzen dala sarritan entzun det geroztik, eta orrelako zerbait bearko du.

Kalez-kale pausorik ematerik etzegoen oiñez, toki askotan beintzat. Nik ez det sekulan ikusi ainbeste kotxe batetik bestera ibiltzen. Egunez bezela gauze burrundara berdiña sentitzen zan. Ura geiegizko zalaparta iduritu zitzaidan,

lasai bizitzeko. An bertakoak oituak egongo al ziran noski. Baiña kanpotik joan da lenengo gau batzuetan, lo gozo egiteko ixiltasuna nai litzake leku arrotzean. Bestela, martxa eskasa seguru dago.

Toulousen txaleta ederrean bizi zan medikua; ta bere alaba zan, adibidez, guri tratamentua ematen ziguna. Ez oso gaztea ere. Ordurako urte mordoa edukiko zituen. Ala zirudien. Oe gainean etzanda jarri arazi ta asten zanean orratzak sartzen, galtzak josten ari zala ematen zuen. Ura mugimentua!

Anketako beatzak, zankoak, petxu aldea, belarriak, besoak, esku gainak eta beatz danak orratzez betetzen zizkigun; da ordu erdi batean geldirik egoteko aginduta aldegin oi zuen beste batzuegana. Iru edo lau gelatan banatzen zuten jendea, ta txandaka egin bear lanak, bakoitzak bereak. Gero zintzo joaten zitzaigun orratzak kentzera. Baiña ordu erdi ura etzan motza izaten.

Dana dala, lenengo eguna zan gureztat txarrena. Medikiak erakutsi zigun otel bat; an gendukala jateko ta lotarako tokia. Ez dakit berea bazuen ere edo gelak zeuzkan artuta, kanpotik zihoan jendearentzako.

Alaxe, Mariano ta biok joan da eguerdian eseri maian, da jarri gera ta an dijoakigu serbitzen zebillen neskata bat, karta eskuan artuta. Ez alperrik! Frantzesez idatzia ta ez irakurri ta ez ulertu. Aldemenean batzuk berdura jaten ari ziran, da guk ere klase artatik, kiñuka ta abar, eraman arazi nai; ta neska gazteak sukaldera joan da berealaxe ekarri dizkigu bainak edo lekak, otea baiño latzagoak. Nork pasa aiek eztarikoz zulotik bera? Nik beintzat bertan utzi nituen, da urrengo zer eskatu ez genekigun. Au dek marka! Eskerrak bera konturatu zan, da aragi puxketa bana jarri zigun aurrean. Aretxekin piska bat disimulatu gosea.

Gero, afaltzeko garaian, jangelara pasa ta segituan, sartu dira Donostiko bi gizon, da batek onela dio besteari:

–Aizak: ikusten al dek nun dagoen Lasarte? Gaur bertsoak entzun bear dizkiagu afalondoan.

Alkar besarkatu genduen, da nik galdetu nioten:

–Zuek bai al dakizute frantzesez itzegiten?

–Bai, gizona. Gu etxe ontan ezagunak gera ta ederki konpondu gindezke.

Alaxe gertatu ere. Zer jan erabaki ta deitu zioten neskaxari. Esplikatu ere errez noski. Laister jabetu zan beintzat emakume ura, ta eguerdiko partez

sabela berdintzeko moduan jarri ginduzten Donostiko lagunak. Ixtimatu genioen laguntza uraxe benetan. Bertso batzuk kantatzea merezi zuten, baiña nik ez neukan umorerik. Afaldu ta kontu kontari saio luze bat eginda, lotaratu giñan pozik.

Biaramon goizean, oetik jeiki ta kafesne beroa artu lenengo. Gero, bederatzietan, medikuaren etxera. Oso urrean zegoen oteletik. Bost edo sei minutuko bidea geienaz ere. Donostiko bi gizon aiek ere sendagai billa zebiltzanak izan, gu bezelaxe, ta mediku berarekin. Aurreko urteetan tratamendu igoala artu omen zuten, da kalterik ez noski. Batekoz bestera, mesede geiago. Zer gaitz klase zeukaten nik ez nioten galdetu, ta ez dakit. Bigarren egun artan, orratz lana bukatzean, Andorrara zijoazela esan ziguten, da gauean alkartuko giñala berriro.

Mariano Azkue ta biok denbora pasa genbiltzala, kotxearen bozina otsa entzunik, begiratu nuen, da nor ikusiko ta Imanol Aldaregia apaiza. Au Oiarzungo semea da berez. Garai artan, Ordizian bikario edo erretore kargua zeukala uste det, oker ez banago. Gero Jose Maria Setien gotzaiaren laguntzaille jarri zan Donostin, da or jarraituko du orain ere seguru asko. Ez nuen espero Imanolekin Toulousen topo egiterik. Baiña alaxe gertatu, ordea. Bere arreba gaixorik zegoela ta medikuarengana eraman zuela. Arrebaren gizonak ere antxe pasa zituen egunak andrearekin batera.

An azokak edozein kaletan billatzen genituen. Jeneroz aukera ederra gainera. Danetik salgai. Baiña onenak utzi egin bear derrigor, galesti zeudelako. Emengo dirua baju baizebillen orduan ere. Frantza askoz goragotik. Ori, trukatzean ikusi oi zan garbiro.

Imanol Aldaregiak manejatzen zuen martxa dotore. Dizionario bat zeukan berak, frantzesez eta erderaz bietara osatua. Andik ateratzen zituen kontuak. Gauza bakoitzaren prezioak alegia.

Goiz partean, plazan gazta zarra ta ogia erosi, edo beste zerbait, ardoa ere bai, ta orrelaxe prestatzen genduen amaiketako legea. Ondoren, kotxean sartu ta inguruko erriren batera joan da bazkaldu ta poliki, diruari ongi begiratuaz, alperrik gastatu gabe.

Etxera etortzeko bezperan, ostiral gauez, afaria antolatu zuten otelean. Batzuek kapritxoz perretxikoak. Len aipatzen ditudan Donostiko gizon aien burutazioa zan ura geienbat. Jende mordoska bildu gainera, mugaz onunztik

joandako danak, gizon da emakume. Euskaldunak orrelaxe gera ta kito. Sekulan iñun ez det jan antxe baiño perretxiko gozoagorik. Bateonbatek bazekien sukaldaritzan. Gusto aparta zeukaten. Nik kalte egingo zidaten bildurrez utzi nituen pena galantarekin.

Gero, afaldondoko pesta luze samarra irten zitzaigun. Lenengo bertsoan neu asi nintzan. Banekien zertsu nai zuten da kunplitzearren edo ez dakit nola esan nezakean. Ez beintzat umore onak eraginda. Baiña jendea gustora, ta andik aurrerakoan etzan gure maian ezeren faltarik. Beraiek ekin zioten itxaso-ko mariñelen kantu zarrak kantatzen, da azkenerako dexente berandutu oeratzeko. Lagunarte gozoan denbora errez pasatzen baida.

Biamamonean, larunbata goizean, medikuak eman zigun tratamentua, ta berealaxe abiatu giñan geure erri aldera. Bidean nunbait gelditu ta bazkaltzeko, oillasko erreak artu zituzten donostiar lagunak. Ogia ta ardoa ere naikoa, ta bapo. Erreka inguru batean kotxea baztatu ta jan da aurrera, Orioraiño ekarri ginduzten. Arratsaldean garaiz etxean geunden, pasada latza artu ta gero.

Gero izango nuela mejora esan zidan medikuak. Ez nion sinistu batere ta antxe asmatu. Diru pilla alperrik bota ta gorputza zigortu lenez gaiñera. Ara nolako aurrerapenak. Toulousetik etorri ta berriz ere emengo medikuarengana joan bear derrigor, zutik ibiliko banintzan. Aspaldiko esaera da: «urrutiko intxaurrek amalau, ta bertara iritxitakoan lau». Orixe bera gertatu zitzaidan neri ere. Alain errez konpontzeko moduko gaitza eduki baldin banu, zerbait pentsatuko zutela derizkiot len ikusten ninduten medikuak.

Akupuntura kontu ori txinatarrak asmatua omen da lenengo, guk entzueren degunez. Euskalerrian, Donostin da toki geiagotan ere asi ziran langintza orretan. Nik irrati bidez entzuten nituen berebiziko propagandak. Aspalditxoan ixil antzean daude. Ez dakit zergatik. Probatu arte ez da jakiten, da neuri damutu zitzaidan ederki.

Toulousetik zearo txikituta etxeratu ondoren, Julian Bereziartua Azpeitiko medikuarengana joan nintzan, da tentsioa artu zidan. Goikoa bederatzi eta bekoa zazpi billatu zizkidan. Orduan esplikatu nion kaso guztia, ta onela dio:

–Baiña, Manuel: nolatan egin dezu ori? Zuretzat akupunturak ez du mesederik, kalte baizik. Orain miatuko zaitut ongi. Lenengo txixa analizatu bear degu.

Kristalezko ontzi batean jaso ta eraman zuen enfermerak. Ura martxan

jarri ta urrengo odola atera besotik. Gero, radiosetan ikusi. Ta errezeta egitera-koan esan zuen:

–Txixean azukrea daukazu, Manuel. Odolean ere egongo da ori. Ta besterik ezer dagoen gero jakingo degu. Etorri datorren astean, gaur zortzi.

Len sekulan ez nuen azukrerik izan. Frantzitik ekarritako erregaloa zan ura seguru asko. Alaxe, botika batzuk artuaz astebete pasa ta berriro an nioa. Ta orduan, bitaminak falta nituela piska bat indartzeko, ta azukrearen kontrako erremedioak artzen jarraitzeko zintzo.

Julian Bereziartua mediku ona izan da neretzat. Izugarri lagundu dit, eta asko zor diot berari. Bein gogoratzen naiz zer esan zion gure semeari:

–Begira, Euxebio: zure aitak iru urteko ume batek aiñako urdailla dauka, ta beti ibili bearko du gaizki. Operatzeko garaian pusketa ikaragarria kendu zioten, usteldua zeukalako. Baiña ortik ez da ilko, beste okerrik sortzen ez bazaio.

Andik denbora gutxira, Leitzako gizon batek deitu zuen telefonoz gure taillarrera, zerbait entzun zuela ta ea zer gertatu zitzaidan jakin naian. Kontatu nion ixtori dana, ta esaten dit:

–Iruñera joan bear degu. An badago oso mediku ona. Gaur bertan itzegingo det.

Urrengo egunerako txanda artua zeukala ta kotxea bialdu nere billa. Joan giñan. Ziriako Garralda zan mediku au. Saiatu gabe etzan gelditu. Bederatzi illabetean erabili ninduen bueltaka. Azkeneko iru illabetetan egunero klinikara. Lenengo, Leitzatik iru astean; gero, Oriotik tasisean. Ordu ta erdiko tratam-entua artzen nuen goizero, aoko zulotik sondak sartuta. Sei ta erdietan Orion irten da zortzi ta erdietarako Iruñera joaten giñan. Gero, berriz, eguerdirako etxera. Galanki supritu nuen, baiña ez det damurik. Gizon jakintsua izango zan mediku ura. Pastillak bi klase ta gotak errezetatuta, esan zidan:

–Auek egunero artu, bizi zeran artean.

Urrategiko omenaldira itzuli nadin, auxe adieraztearren. Azkoititik plaka eder bat ekarri zidaten, erriko ikastola ta gaixo guztien partetik. Ikastolako lendakaria bere andrearekin da bertako bi apaiz etorri ziran entregatzera.

–Ar zazu auxe mesedez –esan zidaten.

Ixtimatu nuen biotzez, eta ortantxe bukatu zan gure Urrategiko omenaldia.

Orain emen agertzen diran lau bertso auek, eskerrak emateko an kantatu nituenak dira:

Maite ninduen Urrategik ni,
ez ninduke nai baztertu,
on egillea zan len ere ta
oraindik ez da aspertu.
Erdi gaixorik dagoan bati
biotza nola ez lertu?
Au ikusita, anai-arrebak,
ez dakit nola eskertu.

Omenaldi bat zala neretzat
ta dei egin zidazuten,
ez dakizute asko onekin
zer poz eman didazuten.
Arritzen nago zuek au dana
nolatan egin dezuten,
edo ez dakit nik onenbeste
zergatik maite nazuten.

Menditxo ontan nere ongarri
egin dituzuten lanak,
nai izan arren ezin nezazke
nik ondo eskertu danak.
Zoragarrizko erregaliak
dizkidazute emanak,
azken arnasa utzi artean
aztuko etzaizkidanak.

Eskerrik asko guztiengatik,
alare ez da geiegi,
len bezelaxe aurrerakoan
lagun bear degu segi.
Bukatuko det nere saioa
izan ez dedin luzegi,
agur, entzule maitagarriak,
eta agur, Urrategi.

AIAKO OMENALDIA

(1979-III-10)

Omenaldi dotore bat egin zidaten Aian; 1979'garren urteko martxoaren 18'an, San Jose bezperan, izan zan ain zuzen. Egun bikaiña eta zoragarria benetan neretzako. Goizetik asi ta gauera bitartekoa utsunerik gabea. Danetik ongi osatua ta jantzia alegia. Bazan antxe ikuskizuna pranko begien gozamenerako.

Jai eratzailleak ere gauzak alaxe antolatuak zeuzkaten, gusto aundiz. Ez dakit erri guztiak parte artu zuen edo ez, seguru esateko. Baiña ala zirudien: ango prestaerak alkarri lagunduaz moldatuak ote zeuden.

Aiako gazte batzuk etorri ziran lenengo, Orion gu bizi geran etxera, aurrez abixatuta, zer pentsamentu zituzten adieraztera, ta nere baimena nai zutela zioten.

Asmo orrekin baldin bazeuden, nik ez nuela ezeren eragozpenik jarriko erantzun nioten. Uste gabeko pozaren jabe egin nintzan, garbiro aitortzekotan. Da nola ukatu? Ez orixe, naiz-eta jakin erri ortan ez neukala batere artzekorik edo iñork etzuela nerekin zorrik.

Beste aldetik begiratu ezker, berriz, Aian baziran omentzeko ni baiño gizon egokiagoak eta geiago merezi zutenak noski. Baiña borondaterik onenez eskeiña zalako, izugarri ixtimatu nuen, eta ez daukat aztuta. Oso ongi portatu zitzaizkidan aiatarrak.

Or lengo zarrak nituen ezagunak. Gaurko gazteak ez ainbeste. Nola ba? Andik aldegin nuenean artean jaio gabe zeudenak, orain sasoi ederrekoak izan bear dute derrigor. Osasuntsu diranak beintzat. Oien gurasoak gure adiskideak.

Oriotik ez dago urruti, baiña gutxitan joaten naiz urte auetan, da atzendu egiten da bat. Ibilirako gogo aundirik ere ez det edukitzen. Nai ta nai ezko zerbait gertatu ezean, pausorik eman baiño etxean egon naiago. Kanpoan dabillanak edozer klasetatik jateko ta edateko almena bear du, ta ni ortarako

gauza ez. Utsaren urrengo martxa. Neurri juxtuak dauzkat oso, ta errez bigurritzeko arriskua, pixka bat zabartuko banintz. Ori kaltegarri zaidalako, etsi-etsian iraun da pakea.

Beraz, ara nolatsu ziran Aiako omenaldiaren joan-etorriak: goizean meza nagusi eder baten bidez eman zitzaion asiera, sarritan oi dan antzera, bertako apaizak meza emale zirala. Itzaldia Juan Mari Lekuonak egin zuen, egunari zegokion modura. Bertsolariak opariaren eskeintza aldare aurretik. Dantzariak ere bai, dotore asko bete zuten beraien eginkizuna. Agintariak danak antxe ikusi genituen: erriko kontzejalak alegia, ta Lizaso zegoen garai artan Aian alkate.

Elizkizuna amaitu ondoren, udaletxera bildu giñan. An baizeukaten amai-ketako gozoa jarri ta prest, nai zuenarentzat. Gero probalekuan jaialdi berezia. Aian dantzari talde zoragarria zan orduan, da aiek ekin zioten lenengo lanari, ta gero kirolari pizkorrak aukeran: Iñaki Perurena; segidan aizkolariak eta arri-jasotzailleak nasian, txandaka: Arregi, Uranga, Ugarteburu, Iraola, Ostolaza ta abar. Aizkolari zarrak urrengo. Astibia or zan Patxi bera. Baiña ondoezik omen zebillen bizkar ezurretik, eta anai gaztea ekarri zuen bere tokirako. Besteak: Gartziarena ta Zabaleta, leitzatarrak; Gipuzkoatik, berriz, Txurruka, Yurrebaso ta Kortaberri jardun ziran dotore, zeukaten adiñerako. Eta, azkenik, Arria bigarrena, Agite, Mendizabal eta Larretxea, au naparra.

Danak erakutsi ziguten almen aundiko gizonak zirala, ta saiatu ere bai jendearen atsegingarri. Ez du gutxi balio orrelako borondate onak, eta zer ikusi joan zanari etzitzaion damutuko. Izugarri pesta polita jarri zuten goiz partean gure kirolariak eta dantzari trebeak.

Ondoren, Kanoanea jatetxean genduen lagun arteko bazkaria. Jan-edana oparo ta alaitasuna gaiñezka. An ere umore faltarik gabeko billera.

Arratsaldean berriro probalekuan jaialdi bikaiña. Lenengo, Uztapide zanak neri eskeiñitako sei bertso eder.

Basarriri kantatu arazi zizkion, da bereala asi ziran beste bertsolariak. Saio luzea ta ona irten zitzaioten gaiñera, nere ustez. Ala iruditu zitzaidan beintzat. Jendetza ikaragarria inguratu zan egun artan Aia aldera.

Pestaren bukaeran, erregaliak eman zizkidaten Aiako zar ta gazte guztien izenean. Urrango, Antonio Ibaguren Manterola kontratista edo etxe egilleak

entregatu zidan bere oparia. Irugarren, oriotar lagun batzuek beste bat. Eta, laugarren, Tolosako ta Leitzako iru adiskiderena jaso nuen.

Azkenean, eskerrak emateko, lau bertso kantatu nituen. Emen agertzen dira, egunkariak ekarri zituen bezela. Uztapiderenak ere bai. Nai dituenak irakurri lezazke.

Beraz, orrelaxe joan zitzaigun Aiako omenaldi gogoangarria, nik merezi baiño askoz ere obea. Ez nuen espero ainbesteko goralmenik. Baiña erriak badaiki onginaia erakusten, da gizon txikiak ixtimatzen, dudarik gabe. Egun gozo ura pasa ta pozez zorutzen etxeratu nintzala aitortu bearrean aurkitzen naiz.

Andik laister, astebete izango zan geienaz ere, Aiako gazteak, lengo berberak, Oriora etorri zitzaizkidan, bazkaritxo bat egiñez; ta jaialdi aren antolaketan sortu ziran gastuak ordaindu ta sobratu zitzaioten diru guztia eskura eman zidaten zuzen asko.

Arri-jasotzaille, aizkolari, bertsolari, dantzari, txistulari ta abar, parte artutako danak debaldekoak. Iñork etzuen ezer kobratuko. Ala ere, beti kostatzen, ordea, klase artako mugimentuak. Ori badakigu. Zenbat lan egin ote zuten utsaren truke Aiako gazte aiek nere onerako? Baiña oso gustora gelditu zirala esan zidaten.

Bai ni ere. Alaxe utzi ninduten. Emen alperrik dira bestelako kontuak. Bakoitzari berea ematera beartuak gaudenez, Aiako erriari eskerrik biozkorrenak bidali nai dizkiot liburu onen bidez. Baita ere kanpotik joan da lanean aritu ziran kirolari ta gaiñontzeko jende jator guztiari. Eskerrik asko. Nik onenbestean amaitzen det.

☆ ☆ ☆

Ona emen Uztapideren bertsoak:

Zu jaio ziñanetik
gaurdaiño bitarte,
badira berrogei ta
amaika bat urte;
bertsotan naiz ez izan
zuk ainbeste arte,

omenaldi onetan
artu nai nun parte,
zorionak biotzez,
Manuel Lasarte.

Jakiñik nungoa dan
zure jatorria,
pozik egon liteke
Leitzako erria.
Plazaola errekan
Franki baserria,
an ikusi zenduan
lenbizi argia,
orregatikan zera
euskaldun garbia.

Frankin azia ziñan
urte batzuetan,
lenbiziko aldia
aman besoetan;
gero mutiko danak
lagun auzoetan.
Txori kantu politak
ango basoetan,
aiekin nasi asi
ziñan bertsoetan.

Gero Aiara etorri
zure sendi dana,
anai-arrebak eta
aita eta ama.
Bereala entzun zan
bertsolari pama;
jaietan bertsoetan
da astean lana,
nunai bizitzen baita
saiatutzen dana.

Azaroan ereiten
badezu garia,
gero jasoko dezu
uzta ugaria;
Aian erein zendula
gauza agiria,
au da aiatarraren
gaurko oparia,
len kantatu ziñuzen
bertsoen saria.

Nola ibiltzen giñan
ia atzendum,
aspaldin lozorroak
artuta nenguan.
Amaika une eder
igaro gendum,
pake eder askoan
alkarren onduan,
Jaunak luzaro bizi
zaitzala munduan.

☆ ☆ ☆

Eta auek dira nik, egun zoragarri artan, eskerrak emateko kantatu nituenak:

Jende jatorra daukagu Aian,
len ere alaxe zan-da,
ezagutzen det, gazte-denboran
emen bizitu nintzan-da.
Biotz aundiko erria zera
zu itz batean esanda,
zergatik maite nazu ainbeste
ni ezerez bat izanda?

Au egunaren edertasuna,
au pozaren txoramena,
naiz-eta jakin ni ez nintzala
ainbat merezi nuena.
Baiña badakit Aiak au dana
biotzez egin duena,
bedeinka zazu erri polit au,
Aita zeruan zaudena.

Lendabiziko eskertzen ditut
jai au eratu dutenak,
eta urrengo lan guztietan
parte artu dezutenak.
Zer esanik ez ni erregaliz
ola jantzi nazutenak,
danok zerate esker beroak
merezi dituzutenak.

Euskalerrian lagun maiteak
baditut alde danetan,
au baiño gauza aundiagorik
zer leike mundu onetan?
Agur, anaiak, agur, arrebak,
itzikan goxoenetan,
leial portatzen zeratelako
maite zaituztet benetan.

ZEGAMA KO OMENALDIA

(1980-XI-9)

Zegamari buruz zerbait idaztea gogoratu zaidan kasoan, artaraxe nijoa. Goierri alde orrek txoko zoragarri asko dituela badakit, batetik bestera luzaroan ibilia naizenez, ta aietako bat juzkatzen det Zegama, batere zalantzarik gabe gaiñera.

Azken urte auetan itxura ona artzen ari da erri polit ura. Lendik izugarri aldaturik dago. Etxe berriak ugari ikusten dira, ta orixe iduritzen zait gauzarik garrantzitsuena.

Frontoia edo pelota leku bikain bat ere zutitu zuten. Ez du gutxi balio alako legorpeak erri baterako. Neguan jaialdiak antolatzea pentsatuta ere, an ez dago bustitzeko bildurrik, euriz beintzat. Edariz agian bakarren batzuk. Aterpean pestak egiteko bein ere ez baida giro txarrik gazte jendearentzat. Sasoiko dauden neska-mutillari ez diote otzak erasaten, odol beroa edukitzen dutelako, ta gustoko tokian nekez aspertzen dira.

Zegama ongi ezagutzen det. Oso erri euskalduna da, ta sano aparta. Udar an atzeritar askok bixitatzen dute. Ango lasaitasuna gogozko zaiote; ta bertako jendea, berriz, guztiz atsegiña ta jatorra.

Zenbat bider pozik jardun ote gera aien aurrean kantari, ez daukat lan erreza itzez adierazten. Lenengo aldiz Uztapide zanarekin joan nintzan, abuztuan, San Bartolome bigarrenez. Geroztik ez nituen pesta asko galduko berrogeiren bat urtetan.

Diodan bezela, Uztapide ta biok sarritan aritu giñan Zegaman bertsotan. Basarri, Lazkao-txiki ta laurok ere bai bein edo bestetan. Joxe Agirrerekin urte batean izan nintzala gogoan det. Joxe Lizasorekin ere bai. Azken aldera, berriz, urte mordoan lagun jakiña erabiltzen nuen: Lazkao-txiki. Beti bioi deitzen ziguten; da goizean ostatuan gosaltzeko gure zai egongo ziran. Lagunak ez ginduzten bakarrik utziko ezergatik ere. Alako gizonak nola ez genituen ixtimatuko?

Eguerdian, plazako saioa bukatzean, kontu kontari kalez-kale ibili ta gero, bazkaltzera. Guk jan da edan egiterako, biltzen zitzaizkigun bertsozaleak ugari ostatura. Aiek ikustean, bagenekigun zer komeni zan. Ez genduen iñork agindu bearrik kantari asteko, ta antxe gozatzen jendea, kafea artu ta kopatik tragox-kadak egiñez. Orixe izaki erri artako oitura.

Sekulan ez naiz aztuko Zegamako lagun artez. Ainbeste une gozo igaro baigenduen adiskidetasun ederrean. Baditut batzuk noizean bein Oriora bixitatzera etortzen zaizkidanak oraindik ere, ta ez esku utsik. Geienetan zerbait ekarri oi dute, neri gustatzen zaidana. Orrelako borondatea nundik ordaindu nezake? Oso zaila dala ikusten det, eta eskerrik asko esan da aurrera.

Zegaman bazuten fabrika bat, papelera, urte askotan zutik iraun zuena, martxa onean gaiñera, entzuten genduenez. Baiña gelditua izan bear du arek ere, ta utsune aundia nabarmenduko zan errian dudarik gabe. Famili askotara iritxiko zala iduritzen zait samintasun gordiña. Ogibidea galtzearen naigabe tristea alegia. Gaur ez baidago lan aukerarik iñun, len garai batean bezela. Ta egunero jan bear derrigor orrek ematen dizkio buruauste izugarriak eziñean dabillenari.

Dana dala, gaia aldatzera nijoa, ta auxe da: 1980'garren urteko azaroko illaren 9'an, omenaldi bat egin zidaten Zegaman, eta era ontantxe eman zitzaion jaialdiari asiera: goizeko amaiketari erri meza eder zoragarri bat izan zan, oitura dan antzera.

Oso dotore antolatua zeukaten elizkizuna. Itzaldi xamurra bezin goxoa egin zigun bertako apaizak. Erri opariaren eskeintzako garaian, Lazkao-txikik bi bertso kantatu zituen. Ondoren, dantzariak ere beraien eskeintza egin zuten aldare aurrean, txistularien konpasa dotore eramanez eta dantza ongi borobilduaz. Gero, berriz, Jaunari eskerrak ematerakoan, bertako Xabier Azurmendik beste bi bertso kantatu zizkigun.

Au Zegamako semea degu, ta frailea edo apaiza dan orixe ez dakit seguru esateko, baiña bietakoren bat beintzat. San Bartolome pestetan guri gaiak jartzen jardun izan zan. Bertsozale purrukatua berez, eta biotz oneko gizona. Aspalditxoan ez det ikusi, baiña Ernandin bizi omen da, jakin dedanez.

Dana dala, Zegaman elizkizuna bukatu ta segituan, ostatura gonbidatu ginduzten lagunak, eta joan giñan zuzenean. An amaiketako prestatua baizeukaten, bakoitzari komeni zitzaion klasekoa. Salda berotik asi ta gaiñetik zer jan

norberak erabaki zezala. Eskubide osoa zeukan. Da sabelak tajutu genituenean, Zine aldera jo genduen bertsolarien saioa entzutera.

Gu inguratu giñanerako, Zinea dana leporaiño beteta zegoen. Jende asko txutik ikusten zan, jarlekurik ez ta. Pasillo edo ibiltokiak ederki itxi ziran.

Ara emen kantatu zuten bertsolarien izenak: Lopategi, Lizaso zarra, Lazkao-txiki eta Agirre. Nikolas Segurola zuten gai emale ta zuzendari. Au Arantzazuko fraile bat da. Gizon gozoa ta atsegiña benetan, da gaiak jartzen egoki aparta.

Alaxe, aien saioaren bukaeran, len elizan bezelaxe, Xabier Azurmendik oltzadurara igo ta bertso bat kantatu zidan neuri; eta Usurbilko Antton Aranbururen arreba Arantxak ere bai beste bat.

Emakumezko gutxi ikusi izan ditugu orrela bertsoan. Diodan Arantxa au garai artan soltera zegoen, da geroxeago ere bai. Baiña orain ezkondata bizi da Orioko gure adiskide batekin. Bi aur dituztela uste det. Emakume leiala ta euskaldun sutsua dala badakigu. Bera Usurbilko ikastolako andereñoa zan len beintzat. Orain ez dakit jarraitzen duen. Gizona, berriz, ongi ezagutzen det. Sekulan erderaz itzik esaten ez duen oietakoa da, iñork beartu ezean beintzat. Beraz, bi bildu ziran alkarren antzekoak uztarri batera.

Baiña itzuli nadin omenaldira.

Bertsolarien lanak amaitu bezin laister, entregatu zizkidaten erregaliak. Nik merezi baiño obeak noski. Erri batek eskeintzen duena pozik artzen da beti, ta Zegamari eskerrak emateko lau bertso moldatu nituen. Auetxek dira:

Iñoiz erri ontara
etortzen geranez,
Zegamak artzen gaitu
borondate onez.
Gaur ere ala dabil,
itxurak diranez,
ta bera agurtzea
eskerrak emanez
egokia litzake,
nik uste dedanez.

Banekien Zegama
erri ona zela,
bertsolariak asko
maite giñuzela.
Jaialdi auek nola
eratu bestela?
Gaur ere kezka badet
askotan bezela:
lagunekin zorretan
gelditzen naizela.

Zerbait esan nai nuke
eta al dakit zer?
Nere biotz gaixoak
pozez egin du ler.
Zuek emanik ainbat
erregali eder,
ordaiñez eskeintzeko
nik ez daukat ezer,
barkatu ta guztien-
gatik milla esker.

Zegama, galdetzera
nator zuregana:
maitasun au zergatik
dezun neregana.
Egun zoragarri bat
didazu emana,
bizi naizen artean
aztuko etzaidana,
agur, anai-arrebok,
ta agur, Zegama!

Bertso auek *El Diario Vasco*'n, Basarrik idazten duen saillean, agertu ziran, ondorengo egunetako batean. Nik andik jaso nituen. Onela zion: Joxe Mari Gabiriak bialdu zizkiola manetofonoz artuta.

Dana dala, goazen aurrera pixka bat, jaialdia ez baizan goizekoarekin bakarrik bukatu. Eguna itxuraz osatu naiko zuten zegamatarrak; eta pelota lekuan egin genduen lagun arteko bazkaria. Naiko tokia frontoian da, jende mordo aundia bilduarren, errez kabitu giñan. Ez gendukan ezeren estuasunik.

Bazkari goxoa eman ziguten. Gero, sabelak beteta, trikitilariak gogotsu ekin zioten soñuz ta panderoz, alaitasuna jartzen. Bertsolariak kantari, sasoi bikaiñean zeudela erakutsiaz. Ta andik aurrerakoan etzan ezer falta. Umorea gaiñezka. Oso arratsalde ederra pasa zuela jendeak zirudien.

Izan ere, bertsozale purrukatuak bildu oi dira orrelako bazkarietan jeneralean. Egun guztian entzuten egongo liraken oietakoak, eta denbora errez igarotzen zaiote. Orixe da gertatzen dana, bein giro atsegiñean jarri ezkerero. Nik, beintzat, oso gustoko lagun artea billatu nuen Zegaman, da ango orduak nai baiño len joan zitzaizkidan.

Agur besterik gabe. Pozik etxeratu nintzan, berriz beste batean joateko ere.

Len ere bertso-saio asko egiñak gera gu Zegama'n. San Bartolomez izaten dira erri artan urteko pesta edo jai nagusiak, eta gu askotan izanak gera. Guretzat erri ona izan da Zegama, eta eskerrak eman nai nizkieke bein da berriro zegamatarreri, nigatik egin zutenagatik. Egun eder ura gogoan det eta eskerrik asko biotzez.

ORIOKO OMENALDIA

(1981-V-24)

Omenaldi bat artu nuen Orion. 1981'garren urteko maiatzaren 24'an izan zan, da Orioko *Balea* Alkartekoak egin zidaten, ain zuzen ere.

Oso egun ederra zan ikuskizunez. Alegia, goizetik ongi asia ta artantxe jarraitu.

Lenengo txistulariak ibili ziran kalez-kale. Amarretan erri-meza bertako apaizak, eta Juan Mari Lekuona'k egin zuen itzaldia bertsolaritzari buruz goxo eta xamur, oitura duen bezela. Juan Marik bertsogintza zer dan oso ongi ezagutzen du. Asko daki eta orrek ez du gutxi balio, gauzak garbi agertu bear diranean.

Erri-oparia eskeintzerakoan, iru bertsolarik kantatu zuten. Baita dantzariak ere egin zuten beren eskeintza dotore asko, txistularien agindura. Aspaldiko urte auetan elizkizunak orrelaxe ospatzen dira. Koru aldetik ere kantu ederrak entzun genituen. Oso meza bikaiña izan zala entzuten zitzaieten geient-suenari, ta ori da seiñalerik onena noski.

Gero, erriko pelotalekura inguratu giñan. An baizegoen jaialdi berezia.

Txaranga errikoia or ibili zan eten gabe batetik bestera egunaren alaigarri.

Alaxe, diodan pelotaleku orretan, trikitilariak eman zioten asiera, eta ondoren bertsolariak. Saio luzea zan, baiña ala ere entzuleak ez det uste aspertu ziranik. Gustora dagoenari, denbora errez joaten zaio.

Uztapide zanak idatzitako bi bertso irakurri zituen Antton Aranburu'k. Bera zan bertsolarien gai-emale ta zuzendari.

Baita ere, erri-ikastolan ibiltzen ziran bi umetxok bina bertso kantatu zizkidaten, oso poliki gaiñera. Aien fintasunak etzuen gutxi balio neretzako. Norbaitek egin zuen lana bertsoak erakusten.

Dana dala, berealaxe iritxi zan erregalien txanda. Oso opari politak.

Eta aiek artu nituenean, lau bertso moldatu nituen, daneri eskerrak eman-
nez. Nere ustez, ainbeste mereziko zuten noski. Emen agertzen dira bertsoak.
El Diario Vasco egunkariak ekarri zituen, Basarrik idazten duen saillean:

Orio, au eguna
eman didazuna,
gaur ikusi det biotz
aundia dezuna.
Ezagaturik nere
ezereztasuna,
asko ixtimatzen det
zure maitasuna,
auxe da erri baten
aberastasuna.

Neretzat borondate
ona daukazute,
erregali dotorez
sartu nazute.
Utsa zan ezer onik
egin banizute,
baiña erantzunen bat
jasoko dezute,
Jaungoikoak ordaiña
emango dizute.

Poz guztiak ez ditut
bertsoz agertuko,
baiña ez didazute
au gaizki artuko.
Bati nola etzaio
biotza lertuko?
Zuek eskertzen ez naiz
iñoiz aspertuko,
alare etzaitzuet
ongi eskertuko.

Kantari jarraitzeko
joan zaizkit indarrak,
eta bertsoak dauzkat
bukatu bearrak.
Begiak busti dizkit
pozaren negarrak,
ta agurtzen zaituztet,
gazte eta zarrak,
nola Orio'koak
ala kanpotarrak.

Onenbestean bukatu zan eguerdiko pesta, eta gero *Balea* Alkartean gendukan bazkaria.

Balea au guztiz lasaia da. Toki aundia du barruan. Baiña egun artan txikiegi gertatu zan. Ikusi genduenez, jende asko biltzen danean, ez da erreza danentzako tokia antolatzen. Eun da larogei bazkaldar sartu omen giñan, da bada zerbait. Ala ere, kanpoan asko gelditu, ordea. Aurrez txartelak artu zituztenak, bai, baliatu ziran, sarritan oi dan bezela.

Orion nun bazkaldua bazegoen. Baiña ez da jan-edanaren gorabera baka-riik, baizik-eta bazkalondoko goxotasun ura nai izaten dute geienak. Ango alkartasunaren giro beroa gustatzen askori, arrazoizkoa danez.

Bertsoak eta soiñu alaiak entzunez, zarrenak ere gazte-itxuran jartzen dirala esan liteke, ta orretarako berebiziko egokiera zan bazkalondo artan.

Pozik irten zirala uste det entzuleak. Arratsaldean, garai onean aldegin zuten urrutira joan bear zutenak.

Batez ere, jai-eratzailleak, ziotenez, gustora gelditu ziran, da bapo.

Nik, berriz, zer esan nezake geiago? Erregali politik jaso nituela beintzat. Lauki edo kuadro dotoreak. Bat, Karlos Zabala'k egiña, *Arrastallu* ez-izena, irundarra berez eta Usurbillen bizi dana. Joxe Ramon Salsamendi pintoreak ere eman zidan bestea. Leitzako Franki baserria agertzen da. Gure sortetxea, alegia. Ura lagun arteko erregalia zan nunbait. Askoren izenak agertzen baidira bertan. Beste bat, Santos Uranga. Au pintore gaztea da. *Uranga* burdindegian egin oi du lana, ferreterian. Udaletxetik ere artu nuen plaka ederra, ta erri-ikastolakoak eman zidaten bestea.

Baiña etziran egun artan danak bukatu. Andik egun batzuetara agertu zitzaidan Eduardo Txillida eskultore ospetsua. Omenaldi egunean etorri nai omen zuen, baiña eziñezkoa izan omen zitzaion. Arek ere ekarri zizkidan gauza gustagarriak: bi lauki edo bi koadro eder; eta bestea bere eskultura erakusten duen liburu eder zoragarri bat. Ixtimatu nizkion erregali bikain aiek biotzez. Gogoratzea bakarrik ez da gutxi nere moduko gizon kaxkar batekin. Baita ere Donostiko Joxe Mari Rezola pintoreak beste lauki edo koadro eder bat egin zidan, nere imajiña daramana. Olaxe osatu ninduten erregali ederrez. Eskerrik asko biotzez.

Beste emakumezko bat ere aipatu bearra daukat: Asuntzion Aranzibia. Berez Eibarkoa izan bear du onek, eta Zarautzen bizi dana. Au ere artesani- lanetan jardun oi dala uste det. Onek ere lauki edo koadro bat egin zidan, berak egiña. Erregali ederra benetan. Oroigarri oiek pozik artzen dira beti. Eskerrik asko zuri ere. Oso kontentu utzi ninduzun.

Ara nola diran gure joan-etorriak. Erriz-erri dabillanak ezagun asko izaten ditu an da emen.

Orion omenaldia egiteko, nik baiño geiago merezi zuten gizonak izango zirala esango nuke, ainbeste arraunlari on sortu diran tokian. Baiña eskeñi zidaten, da nik pozik artu. Egia aitortu bear bada, ez dakit irabazi nuen ala ez. Auxe da adierazi nai dedana: oso kontentu gelditu nintzala. Gogoan ditut lagun da adiskideak; eta nitaz oroitu ziran guztieri eskerrak eman nai nizkioten ez-kero, liburu au idazterakoan aukera egokia izan det.

Egun oiek astun-antzak jartzen dira. Zer pentsatua ematen dute sarritan, batez ere norbera bizi dan errian. Baiña asko ixtimatzen diranak, zalantzarik gabe. Ori ez dago ukatzerik. Beraz, eskerrik asko biotzez.

GURE IBILLERAK

ERIÑOZU

Ernanin bada baillara aipagarri bat, Eriñozu, ain zuzen erreka ertzeko sakontxoan dagoena, Goizueta alderako bidean.

San Juan illaren 13'an, San Antonio egunez, asi oi dituzte bertako jai nagusiak. Eguraldiak laguntzeko ere ez da garai aldrebesa, ta kontentu giro itxurazkoan gazte ta zarrak.

Lenengo, meza nagusia entzun, da ondoren plazan naiko zer ikusia: aizkolari, txingalari, toka txapelketa, trontzalari ta abar. Soiñu-jole ta dantzari onak ere ez dira faltako.

Bertsolariak, berriz, derrigorrezko bezela jo litezke. Ni neu saio asko egiña naiz Uztapide zanarekin, Lazkao-txikirekin da Azpillaga ta oiekin ere bai.

Orain iru-lau bat urte ere, joateko itza emanda nengoen. Baiña gaixotu nintzalako, klinikan egon bearra gertatu zitzaidan. Azpeitiko Joxe Lizasok bixitatu ninduen, da bera nola zan nerekin Eriñozun kantatzekoa, ari esan nion beste lagun bat billatzeko nere tokirako. Ez dakit nor eraman zuen.

Orain lau bat urte ere deitu zidaten, aurrez gaiñera. Ez naiz gauza ta ezezkoa eman nioten, gure izakera orrelaxe baida.

Eriñozutarrak, pestak antolatzeko, badute gusto aparta. Baillara txikietan, dirua sortzeko, erreztasun geiegi ez da noski gaur, konturatzen bagera. Zerbait egin nai ta gastu galantak gaiñetik. Kezka pranko erabili ta galeran irten sarritan azkenerako. Ala ere, segi aurrera aspertu gabe. Ez daukate meritu makala. Beraiek bertsozale purrukatuak dira, berriz, geientsuenak Eriñozu inguruan.

Amaika egun eder pasa degu antxe. Beti lagun arte gozoa aurkitzen genduen, da pozez zoratzen gu ere. Oso jende atsegiña dala pentsatu izan det nik, alde artan.

Bertsolariak noiznai kantatzen dute, batzuek bezela besteak, txandaka.

Udazkenean ere jarriko dituzte jaialdi politak gazteak alkartuta, oitura

zarrak goraltzeko. Zer liteke gauza egokiagorik, orixe baiño? Jokabide zoragarria benetan.

Soziedade edo Bazkune dotore bat ere badute, ta goizean garaiz irikiko ditu ango atea norbaitek. Sukaldariak laixter ekingo diote lanari amaiketako prestatzeko. Salda ona ta aragi egosia emango dizkiote gosez dijoanari. Borondate ori ez al da ixtimatzekoa? Oraindik badauzkagu kristau jatorrak, zorionez.

Erririk-erri ez naiz ibiltzen,
indarrak zaizkit eskastu,
Eriñozuko lagun maiteak
etxetik nai ditut poztu.
Esango dute: «Lasarte zarrak
maitasun ori nolaz-tu?».
Motiboa da ni Eriñozuz
ezin nintekela aztu,
biotz beroa izan det eta
oraindikan etzait oztu.

Beko txokotik begira dago
ospeleko zugaiztira,
argitasuna beregantzen du
illargitik eguzkira,
eta zerua garbi danean
ango izarren diztira!
Ez dakit bertan zenbat famili
biziko diran guztira,
baiña baillara politagoak
lur ontan asko eztira.

(1986)

TXAKOLIÑA

Urrilleko egun batean, adiskide batekin itzegiteko egokiera izan nuen, da galdera auxe egin nion:

–Zer berri daukazute Getari aldean?

–Aparteko ezer ez –zion–. An gabiltza betiko antzera, batzuk baiño besteak obekiago.

–Ori toki guztietako kontua da –erantzun nion–. Nik entzun dedanez, arrantzaleak atuna arrapatzen gogor ari omen dira.

–Bai –esan zuen–. Oso ongi dabilta, geientsuenak beintzat, danak zaila da baiña.

Izketan jarraitu genion pixka batean, da urrengo esan zidan:

–Aurten txakolin onak egingo diran itxaropenak baditugu. Izugarritzko mats urtea da ta jendea ez da aserre. Orrek ere bere garaian etxeratu bear, ta presako lana du.

Lenengo, elduen ikusten dutena artzen dute, ta gordin antzean edo gozatu gabe dagoena bertan utzi, geroxeago bildu ta jasotzekotan. Getaritik Zarautz aldera dauden sailletan omen da matsik onena ta ugariena. Zumai inguruan zerbait urriago ote dan diote. Sagarrak bezela, bi urtetik bein ematen du berea mastiak, nekea galanki duela garbiro ta txukun kontu egiteko. Ta, gero ordaiña izaten bada, gaitz erdi.

Aurtengo udaran ezagutu degun legortearekin, ez genduen asko pentsatzen orrelako berri onik entzuterik. Baiña ara nola diran gauzak, gutxiena espero danean. Itxasoak freskura berekin du, ta orren bidez indartuko zan matsa. Urta aberatsa, itxurak diranez.

Getarin tolareak astinduko dira, edaria izan dedin. Ori gustagarria da, neurrian erabili ezker. Jenerorik onenak, tamaiñan onenak. Amaiketako bat egiteko indartsua ta bizia jartzen da. Aurrena, salda beroa. Gero, gaiñetik,

aragi egosia edo beste edozer berdin da. Botilla bat txakolin pare bat lagunentzako izaten da errazio polita, zurrutero aundiak ez badira beintzat. Kontuz ibiltzea ohea da. Bestela, burura jo lezake, norbera konturatu baiño len. Garai batean, goizetik usatzen zan, baraurik, ezer jan aurretik, baxo-erditan. Orain ez dakit orduko oiturak jarraitzen duen. Nik neronek ez det eskarmentu geiegi gai ortan.

Egun batean Getarin gertatu zitzaidana det gogoan oraindik ere. Badira berrogei urte. San Anton pestetan, Uztapide, Basarri ta ni, irurok giñan bertsoetan.

Goizean iritxi ta Iribarren ostatuan sartu. Basarri beranduago, eguerdiko saioa egitera, agertu zan. Uztapide ta biok, Joxe Loidi zana, Inaxio Sastre zana ta oien lagun artean gosaldu genduen. Jateko aukera zan; da edateko, berriz, txakolin bikaiña oparo. Sabelak berotu ta jarri zan jendea gustora ta dotore.

Baiña ondorean eraman ginduzten alako bodega aundi batera. An zeuden upel galantak goiko puntaraiño beteta. Probatzen asi ta bat baiño bestea ohea iduritzen, da gero ziran komeri politak.

Nik ez nuen kopet ezurreko otzik. Ura zan eguna! Aiek ziran buruko miñak! Udaletxeko balkoira igo giñan kantatzera, ta nere begietan bazan txinparta eta lausoa. Bean zeuden entzuleak, danak bueltaka ikusten nituen. Elkanoren monumento aundi bat an egoten da plazaren erdian, da ura ere dantzan zebilela uste nuen.

Baiña ori ez da txakoliñarena bakarrik. Ardoak ere, lendik gutxi edan duenari laixter erasaten dio, ta patarrak zer esanik ez.

Erri ontako jende leialak
badu lanerako griña,
frutu ederrik ematen digu
konturatuko bagiña.
Fama aundiko edaria da
Getariko txakoliña,
bertan sortzen dan mats goxoaren
zumuarekin egiña.

Mats urte ona dala aurten da
kontentu dira Getarin,
gaia bear da emen jenero
onik nai badegu egin.
Zumaian ere badute matsa
ta Zarautz aldean berdin,
beraz jendeak edan lezake
nai dan ainbeste txakolin.

(1986)

EIZTARIAK

Urnietako Xoxoka baillaran bada Parolerdi izeneko baserri bat. Ango familian, gizonezkoak eizerako apizio izugarria izan dute. Batez ere nagusi zarra, Joxe, zan amorratua. Illa da gizarajoa, amaika xelebrekeri esanda.

Arek, gizonari kontra egin bear zitzaiola esan oi zuen. Bestela zailla zala zertarako zegoen jakiten.

Gu, Uztapide ta biok, Xoxokan urteroko bertsolariak izan giñan garai aietan, gozatu ederrik artu genduen, zalako Joxeren inguruan. Bi egun igarotzen genituen, da Parolerdi baserrian zan gure ostatua. Bertan jan da edan. Lo ere bai.

Lagun artean zoragarria zan aitona paketsu ura. Batean bazkal denboran, asi ziran Uztapide ta biak. Eiztari itxuak baiziran. Gaiñontzean zer janaren faltarik izan ez arren, erbitik bapo osatu giñan.

Joxek onela zion: bein Naparroako Uitzira joan omen ziran, an ugari ikusten zirala entzunda. Ala, goizean zakurrak basoa miatzen ekin ziotenean, bereala zaunkak sentitu noski; ta, bide gurutzera irten orduko, erbi aundi bat sartu bere anketaraiño uste gabeen. Bi tiro tira ta jo ez. Bezperan parranda egin da pultsu txarra zeukala. Ta eskopeta baztarrean utzi ta korrika asi omen zan. Bai arrapatu ere erbia.

Orduan nik galdetu nion:

–Nundik eldu zenion?

Da:

–Anketik.

–Erreumak baldatutakoren bat izango zan.

–Ik ala usteko dek, nere sasoia ez uan ezagutu ta –erantzun zidan.

–Beraz, gizon latza ziñan?

–Bai, Lasarte. Asmatu dek.

–Ai, Joxe! Galdu zera. Zeuri entzun izan dizut gizonari kontra egin bear zaiola, ta neri arrazoi eman didazu.

–Deskuido bat izan diat.

Beste au ere polita da. Kalera joan da ostatuan gaua geiena pasata, goiz aldera etxera zijoala, iturri zokoan egundoko ziti-zata otsak entzun da «Zer ote da or? Sorgiñen batzuk ibiliko dituk» pentsatuta, bertara Joxe ikustera.

An ari omen zan atso zarpil bat zapiak garbitzen, lagunak inguruan zituela. Aldegiteko andik esanda, bera lotsagabe atso zarra. Tira golpe ta buruko mototsa, ille ta guzti, kendu. Joxek artu aurrean da Andoaiñen entregatu omen zituen sorgiñak.

Nik galdetu nion:

–Mototsari zer egin zenion?

–Ganbaran txintxilik jarri nian sekutzen.

Eskuz arrapatzeko
ain erbi gaiztua,
zer ote zan orduko
Joxeren ziztua?
Korrika saio ura
zan broma piztua,
askori esana ta
gutxik sinistua.

Sorgiñentzako ere
Joxe zan zorrotza,
aiekin ibili zun
triki-traka otsa.
Atso zar bat omen zan
lotsagabe utsa,
argatik kendu zion
buruko mototsa.

(1987)

SAN MARTIN JAIK

Len, garai batean, Orioko Lizargarate baserrian, ostatua jarri oi zuten egun oietarako bereziki. Ni or lenengo bertsotan aritu nintzala, berrogei urte izango dira gutxienez ere. Uztapide zana nuen lagun, sarritan bezelaxe.

Gogoratzen naiz San Martin gau batez nolako parranda egin genduen. Sakabi ta Egañazpi berebiziko sasoiari. Bazan antxe soñua ta panderoa astindu bearra. Guk ere, berriz, ixilik egon baiño kantatu naiago, alamoduzko koadrilla zegoen da. Iñork erretiratzeko gogorik ez edo gogoa falta. Jeneralean, orrela gelditzen diranak erriko zintzoenak izan oi dira.

Bat bagenduen, beste askoren artean, xelebre utsa, or Muniota baserrikoa. Martzelino zuela izena uste det. Ogi egilea zan opizioz. Zaldia erabiltzen zuen berekin, da gau artan an zeukan, atariko argoillari lotuta. Ez noski nagusia bezela gobernata.

Nik ez dakit nundik nora, sortu zuten disputa zaldiaren gainean, sukaldera sartu baietz eta ezetz.

Alaxe, irten zan gure Martzelino kanpora, jarri zaldi gainean da an sartu zitzaigun barrura, errege bat bezin dotore.

Ondo ezia arek aberea. Etzan asko bildurtzen. Lendik oitua egon zitekean, seguru asko.

Era ortantxe pasa genduen gaba, umore onean da lagun arte gozoan.

Lizargarateko andre zarra, Xegunda, berriz, eten gabe lanean. Kafez ta patarrez aspertu giñanean, baratxuri zopa jan bear zala ta ura ere egin zigun. Betekada galanta artu ta bapo.

Uztapide, Sakabi ta Egañazpi Orion goizeko zazpiretan trena zeukaten, da an joan ziran. Nik Aiarako ezer ez neukan, baiña bear aundirik ere ez garai artan. Oiñez igo nintzan, nere kasa bertsotan gainera, pozez zorutzen.

Oso pesta politak antolatzen zituzten San Martindarrak urte aietan, geroz-

tik bezelaxe. Sarritan eguraldiak etzuen bear aiña laguntzen. Baiña kaleko jendeak joera aundia zuen baillara ortara.

Gero, orain amabost urte inguruko kontua da Lizargarate baserria bota zutela, autopista berria egiteko.

Umorean Sakabi
eta Egañazpi,
ta guk ere kantatzen
genduen errezi.
Nai aiña soiñu eder,
bertso ta abesti;
zaldia sukaldean
jinete ta guzti,
ark etzuen muturrik
guk bezela busti.

Orduan pizkor giñan
buruz eta ankaz,
iñor etzan aspertzen
bullaz ta zarataz.
Loa galdu genduen
baiña geure faltaz;
bein ere ez naiz aztu
gau atsegin artaz,
gaur ala ibiltzeko
ez giñake kapaz.

☆ ☆ ☆

Lizargarate desegindu zanetik, Ortzarikan asi ziran San Martin jaiak ospatzen. Oliden jatetxeak, bere aurreko aldean, oso leku ederra du gauza oietarako. Itxas erauntsiak ez du arrapatzen, babesean dagoelako.

1985'garrenean bete omen ziran berrogei ta amar urte baillara ortan pestak egiten ekin ziotela. Ikuskizun ederrak izan ziran, elizatik asita.

Nik ere San Martingo ermitan bi bertso kantatu nituen, erri-oparia eskeintzerakoan. Presaka aldegin bear izan nuen, meza bukatu baiño len, eguerdirako mugaz arunzko Biriatura kantatzera joan bear da. Baiña banekien nolatsu zeuden gauzak jarrita.

Baillarako zarreri omenaldi bat egin zieten. Oliden jatetxean bazkari goxoa eman ere bai. Lenengo pestak antolatzen asi ziranak oraindik bizi baidira batzuk. Danak ez noski, ori zailla da ta.

Urtero kantatzen dute bertsolariak Ortzaikan. Jendearen aldetik ere erantzun ona izaten omen da, esaten dutenez. Ni neroni gutxitan ibili naiz. Bi edo irutan bakarrik artuko nuen parte bertako bertso saioetan. Urterik geienetan deitu izan didate. Berandutxo, ordea. Beti beste norabait joan bearrean aurkitzen nintzan.

Lengo San Martiñetarako oso garaiz etorri zitzaizkidan billa. Nerekin konstatzen zuten nunbait. Ongi egon banintz, pozik serbituko nituen, ainbeste merezi zuten da. Baiña nik ezin nuen. Ezezkoa eman nieten, pena galantarekin gaiñera.

Bazala uste det zer ikusia ugari Ortzaika aldean, egitarauak erakusten zuenez. Bost edo sei egunetan banatuak agiri ziran jaialdiak: txingalari, aizkolari, giza proba, trontzalari, karga jasotzeak, idi dema edo proba, mus txapelketa, korrikalari, bertsolari ta abar.

Lengo oitura zarrean, etxez-etxe oillasko biltzen ere ibili ziran gazteak, beren soñu jole ta guzti. Gero, aiek jateko, lagun artean afariren bat egingo zuten.

Jokabide bikaiña dala derizkiot ori. Emen alaitasuna komeni zaigu. Tristura berez etorriko da.

Trikitilariak ere aukeran zituztela uste det. Gero, kanpotik ekarritako musikoak.

Sarritan esaten degu baillara ta erri txikietako erromeriak galtzen ari dirala. Baiña ez dakit ba berriro xuxperten ez ote diran asiko.

Lenago bazkari ta
afari galdean
jendea sartu oi zan
Oliden aldean.

Gaur ere segiko du
betiko moldean,
gauza goxo asko da
ango sukaldean.

Nik aspaldian ez det
egiten parrandik,
baiña Oliden zer dan
ongi dakit lendik.
Amaika bider pozik
atera naiz andik,
etxe on batek ez du
bear propagandik.

(1987)

MANUEL SAGARDIA ZANA

Lengo pasadizo zarrak, asko burutik iges egiñak alegia, tarteka banaka batzuk gogoratzen zaizkit oraindik ere, ta adierazi bear dizkizut, irakurle. Naiago nuke zure gogozko balira.

Guk bagenduen lagun maitagarri bat. Aspalditxo illa da. Ostalaria zan, da izketan egoki aparta. Bertsozalea, berriz, bera bakarrik bezelakoxea. Aren etxean sartzen giñanean, irabazi aundirik ez genion emango, baiña poz ederra bai. Gizarajoak etzuen jakiten zer egin.

Bein Uztapideri arrazoi ederra eman zion. Erri artan bertso saio bat gendukan zinean; da, goizetik nola zan, gosaria beste ostatu batean jarri ziguten jai eratzailleak. Ala, Uztapide garaiz iritxi ta lagun orren ostatuan sartu, ta:

–Egun on.

–Bai zuri ere, Manuel. Emen al zera? Goiztar zabiltza. Badakit, bai, nola dezuten bertso lana. Ni ere bakarrik nago. Artuko al degu kafetxo bana?

–Igoal.

–Exeri ba lasai.

Ala, kafeak artuaz, kontu zarrak esan da abar, gustora biak. Baiña Uztapidek:

–Lasarte nere zai egongo da onezkero, ta joan bear det, zuri zorra ordainduta. Zenbat bear dezu?

–Zenbat bear dedan? Naiago nuke baneki.

Erantzun dotorea.

Beste batean –au neuri gertatu zitzaidan–, Belauntzara ninjoan bertсотara, ta joan nintzan taberna ortara. An zegoen mostradorean. Ikusi ninduen orduko:

–Kontxo, Lasarte! Zer moduz?

–Ni ongi. Zu ere bai noski?

–Bai. Onenbestean pozik. Zer artu nai dek?

–Ardo txuritik asi bearko det.

Atera zidan, da:

–Gaur nun daukazute kanta aldia?

–Belauntzan –esan nion.

Da ala dio:

–Erri polita dek. Nik an ezagutu nian gizonik argienetako bat: bertako sankristaua. Arek, oetik jeiki gabe jotzen zizkian goizeko ezkillak.

Parre egin nuen, da:

–Ik ez dek sinistuko, baiña egia dek, eta esango diat nola. Eliz torreko kanpaiari alanbre lodi bat erantsi, urrean biziko zan-da, bai, ta alanbre luzea leiotik gelara sartu ta oi adarrari katiatuta baizeukan, nai bezela manejatzen zian.

Izlari azkarra zan, baiña geiago ere izaten dira. Bein, beste adiskide batek galdetu omen zion –au ere izango zan norbait–, apaizeri buruz ari zirala:

–Aizak: ik bein ere ikusi al dek sankristau bigotedunik?

Taberneroaren erantzuna:

–Arrazoi dek. Nik sekulan ez. Ta ik ezagutu al dek ijito antiojodunik?

Esaera txukunak. Kaso xelebreak gertatzen dira, ta bi gizon omen zituen beti bere aurka ibili zitzaizkionak, nundik kalte egingo. Ta zergatik jakin ez. Baiña egun batez biak bazkariz konbidatu etxeko ostatura. Besteak pozik joan. Alaxe, irurak alkarrekin bazkaldu, txanpain da guzti, garai artan. Arratsaldea kontu kontari pasa. Kontua eskatu izan bear zioten, da taberneroak:

–Emen ez dezute xentimorik eman bearrik. Ori baiño mesede geiago egin didazute zuek neri.

–Zer mesede egin dizugu ba zuri?

–Aztuta al zaudete? Nik gogoan zeuzkat.

Biak itzik gabe gelditu omen ziran.

Gizon au Lasarteko *Gure Etxea* ostatuko nagusi zarra zan: Manuel Sagardia zana, alegia.

Ostalari au berez genduen
apala ta paketsua,
biotz barruan zeramazkien
euskera eta berttua.
Erri maitale neurri gabea
ta abertzale sutsua,
izketan berriz argienari
artuko zion pultsua,
doai on oiek zituelako
izan zan zoriontsua.

Euskaldun onak badira eta
geiago izan litezke,
ikasi naia artu ezkeru
lagun zar onek ainbeste.
Maitasuna ta pakea ere
gogozko zitun nik uste,
beti nabaitu izan genduen
bi gauz eder oien eske,
aren antzeko gizonak orain
asko bear genituzke.

(1987)

ELGETA

Elgeta oso goien dago. Bidañi ta biak alturaz berdintsu dirala entzun izan degu sarritan. Ez dakit ala dan. Erri txiki politak benetan, udaran bixitatu nai badituzu, irakurle.

Egun batez, Elgetatik deitu ziguten bertsoarako, ta nere lagun Lazkao-txiki ta biok joan giñan. Ori zala, onezkero ogei urte izango dira gutxienez, edo geiago igoal.

Alaxe, igo ta egin genduen eguerdiko bertso saioa, eta bazkaltzera baserri batera eraman ginduzten. Eguraldi euritsua egokitu zitzaigun gustora ibiltzeko. Baiña, ala ere, jende asko zan pago azpietan, da bertsozale purrukatuak geient-suenak. Txalo gogotsu jotzen zuten beintzat. Erromeri bikaiña ere bai, alako giroan izateko.

Guk, bazkal ondoan, diodan baserri artan kanta-aldia egin ondoren, berri-ro ermita aldera jo genduen, bigarrego eginkizuna betetzera. Ta, garaia iritxi edo agindu zigutenean, asi giñan gogoratzen zitzaiguna esaten. Aurrean zeude-nak pozik ikusten genituen, da segi, zettorrena boteaz.

Noizbait bukaera eman bear ta, entzuleak agurtu ta oltzaduratik jetxi ordurako, inguratu zitzaigun mutilzar itxurako bat. Zurruta dexente egiñik zegoen gizarajoa, ta onela dio berak:

–I, Lazkao-txiki: ik daukak aurpegia! Ire azalarekin ardoarentzako zagia egin leikek.

Ori entzun da Lazkao-txikiren erantzuna:

–Bai ire belarriekin ere abarka pare galanta.

Nik orduan begiratu nion da egia izan bete-betean. Aiek ziran belarri zarrak zeuzkanak! Ura zan parregurea eman zidana! Diximulatzen etzan errez. Eskerrak ondotik bereala aldendu zan. Bestela, erabat nabarmenduko nintzan, lertu zorian utzi baininduen.

Lazkao-txiki agian etzan
oraindikan oartuko,
onez aurrera len bezin sarri
ez gerala alkartuko.
Bildurrez nago ez ote zeran
neregana agertuko,
etorri lasai nai dezunean,
etzaitut gaizki artuko.

Ez det esango beti ibili
geranik ezti gozotan,
baiña gu beti ongi konpontzen
giñan edozein kasotan.
Aurtxo txiki bat gustora egon
oi da amaren besotan,
ni ere ala jardun izan naiz
zure ondoan bertsotan.

(1987)

ZALDIBI

Zaldibi erri txukun, polita. Goierri aldean bertsozaleak ugari dirala ongi dakigu. Baiña uraxe berdintzekoak ez dakit zenbat izan litezkean.

Gau batez, oroitzen naiz, 1962'garren urtean zala uste det oker ez banago, lengo Bazkune edo Soziedade zarrean afaria zutela-ta, Basarriri ta neri deitu ziguten bertsoarako, ta joan giñan.

Bertako sozio guztiak bildu omen ziran. Arratseko zortziretan zeukaten izendatua zalako afaria. Barrunpe zabala zuen arren, ederki bete zan. Gero, amarretan, atea zabaldu zizkioten kanpoan zai zegoen jendeari, nai zuena sartu zedin kafea artzera. Ura zan olatua!

Gu kantari asi giñanean, zar da gazte danak txutik, jarlekurik ez ta. Baiña iñor etzan aspertu. Goizeko irurak arte saio pranko egin genituen, da lotara. Beste gaiñontzekoak ere bai noski.

Guk, urrengo egunean, eguerdiko amabi ta erdietan gendukan kantatu bearra Ordiziko antzokian: Basarri, Uztapide, Lazkao-txiki ta Lasartek.

Alaxe, goizean oetik jeiki ta ostatuan kafe beroa artu ondoren, abiatu giñan Zaldibitik Basarriren kotxean; da, bidean Artano zarra ikusita, gelditu ta galde-tzen dio Basarrik:

-Nora zoaz?

Ta besteak:

-Nora ni joan? Billafrankara zuen bertsoak entzuterera.

-Sartu barrura, tokia badago ta.

Alaxe, alkarrekin Ordizira iritxita, ostatura zuzenean. Maian excri ta deitu genion an zebillen neskaxari. Ta joan zitzaigunean, Basarrik esan zion:

-Guk amaiketako pixka bat falta degu.

-Zer nai dezute ba?

–Salda beroa ta arraultza pare bana uretan egosiak artuko al ditugu, Lasarte?

–Bai. Neretzako onak dira.

–Beraz, ekarri. Neretzat ere bai.

Orduan galdetu zion neskatxak Artanori:

–Ta zuk?

–Ni ezer gutxi gosalduta etorri naiz ta ez det goserik. Txuleta bat arraultza birekin naikoa ditut. Gaur bazkari dexentea degu gure etxean, da pasako da bitartekoa bapo.

Bertsoen maitale ta
euskeraren kabi
orain artean izan
zera zu, Zaldibi.
Bialtzen dizkizudan
bertso bat edo bi,
zu ongi eskertzeko
ez dira geiegi.

Zenbat egun atsegin
eman dizkiguzun,
ez dakit, Zaldibi, zuk
gogoan dituzun.
Nunbait gure bertsoak
maitazen zituzun,
txalo bero askoak
jotzen zizkiguzun.

Lenago ere iñoiz
nere iritziak
oso urrutietan
dira iritxiak.
Zaldibiri eman nai
nizkan goraintziak,
argatik bertso auek
ditut idatziak.

(1987)

GOIZUETA

Bein, Goizuetan, despedida-solteroko bazkaria zegoela-ta, bertsotarako abixua artu nuen. Oiartzungo Lexoti bertsolaria an zebillen idiekin lanean, da berak deitu zidan ea joango nintzan.

Baietz, ba, ta etxera etortzeko modurik ez ta gauerako bertan gelditu. Afaltzeko, berriz, lagun faltarik etzan gure inguruan. Bertsozaleak baidira geientsuenak erri euskaldun artan, da aiek zer nai zuten bagenekien. Goiz aldeko ordu txikietan, erretiratu eziñik, antxe gu ta beste gaiñontzekoak.

Ernaniko *Potxolo*'k kamiona zeukan, da esan zidan:

–Zu lasai egon, Lasarte. Alkarrekin jetxiko gera Ernaniraiño, nai dezun garaian.

Alaxe, lo askorik egin gabe, goizago altxa ta, Goizuetatik berakoan, kamioan gora zijoan gizonezko bat ikusi, *Akerra* deitzen ziotena. Bere parean gelditu kamiona ta onela galdetzen dio *Potxolo*'k:

–Mendi alderako martxa al dezu?

Ta besteak:

–Bai.

–Alperrik zoaz. Gaur ez dezu auntzik billatuko. Atzo danak baitu ta errira eramán zituzten. Da zu ere kontuz ibili.

Ori entzunik, *Akerra*'ren erantzuna:

–Orduan kalera joan bear ko det.

Garai artako broma sanoak orrelakoxeak ziran.

Ezkondu aurretik bere lagunerri bazkaria eman zioten mutil gazte ura, oso alaia iduritu zitzaidan benetan. Bazeuzkan berebiziko ateraldiak. Mendi base-rriren batekoa izan bear zuen, baiña an etzegoen tonto usairik.

Bertsotan zerbait bazekiela jakinda guk zirikatatu arren, ez genion arratsalde

osoan kantatu arazi. Atrebitu ezin edo ez dakit zer gertatzen zitzaien. Gogoan ere ez da beti berdin edukitzen. Gero, gauean, iru kantatu zizkigun.

Neguko otzarekin bildurtuta pentsatu ote zuen andrea artzea bertso batean esan nion nik, eta ordaindu ninduen dotore asko. Bere bertsoaren azkeneko bi puntu auek jaso nizkion gogoan:

Gure etxea an arkitzen da
ez abe ta ez tellatu,
katue ganbaran otzak il zuen,
ortikan kontsideratu.

Goizuetarrak asko
dira txistosoak,
izketan egokiak
eta txisposoak;
lagunartean berriz
leial da gozoak,
gaiztakeri gabeko
kristau bromosoak.

Ametsetan or nabil
jira eta buelta,
nere adiskideak
nun-nai badaude ta.
Bi bertsoz agurtu nai
nuen Goizueta,
erriak orrenbeste
merezi du eta.

(1987)

AMOROTO

Egun batez, Bizkaiko Amorototik deitu ziguten bertsoarako. Au zala, berrogei urte izan litezke, gutxi gora-bera. Ez da atzo goizeko pasadizoa. Gerra bukatutako egunaren seiñale bezela, jaialdi bat antolatu zutela daukat buruan. Ala ez balitz, barkatuko al didate.

Bertsolariak joan giñan Uztapide zana ta biok. Soiñu-jolea, berriz, Angiozarko itxua, Felix.

Fama galanta zuen garai artan da geroxeagoan ere. Erriz-erri ibili oi zan, txandarik arrapatu eziñik, batzuek nai ta besteak bear. Grazi aparta izaki nunbait auspo soiñua jotzen. Bertsozale purrukatua ere bai. Felix au aspalditik Eibarren bizitzen da. Il danik ez diot beintzat iñori entzun. Profesoretzan jarraituko du orain ere, seguru asko.

Dana dala, Amoroton eguerdiko saioa egin genduen, da bazkaltzera. Baiña arratsaldean zegoen pestarik garrantzitsuena. Berebiziko egur pillarekin sua piztu ta orrela. Bilbaotik militarrek joatekoak eta aien zai zeuden beste danak, jaialdiari asiera emateko, ta azkenerako naikoa berandutu. Illundu ta gero agertu baiziran. Plazan sillak gertu zeuzkaten, exeri ta lasai egoteko.

Itxua igo zan lenengo balkoira ta jo zituen bi edo iru fandango dotore. Ondoren, gure txanda. Uztapidek onela dio:

–Jende bertsozalea etorri dek eta asi adi, Lasarte.

Nik erantzun nion:

–Naiago nuke nundik ekin baneki.

–Emen errez asmatuko diagu –esan zidan–, poto eginda ere iñor ez dek konturako ta.

Aren ateraldi aberatsa! Ta alaxe zirudien. Militar agintarietakoak genduzkan aurreko puntan. Bertako alkateari galdetzen zioten zertaz mintzatzen gi-

ñan, da arek esplikatu al zuen modura, ta kontentu gizonak. Aiek txaloak jotzen zizkiguten, beraiek ezer ulertu gabe!

Geure lanak bukatu ta bera jetxita, parre gozoak egin genituen orduantxe. Soñuz ta bertsoz entzuleak asetzen saiatu giñan, da lotara. Urren goizean etxera, bezperako goraberak alkarri kontatuaz.

Amorotoko egun bikaiña
daukat oraindik goguan,
lagun jatorrak bildu giñan da
ederki pasa genduan.
Nola aspertu itxuaren da
Uztapideren onduan?
Gaur baiño sasoi obeagoa
nuen nik ere orduan,
geroztik ez naiz alde artara
agertu urte morduan.

Goizean jun da andik ez giñan
beste iñora mugitu,
egun osoa igaro eta
gauean bertan gelditu.
Umore ona gendukan eta
kantuan pozik aritu,
Bizkai aldeak erri euskaldun
polit askoak baditu,
ez genituen ezagutuko
ikusi ez bagenitu.

(1987)

IRUN

Irun aldeko pasadizo zarrak, aztu eziñezkoak neretzat. Ainbat bertso saio egin genituen erri maitagarri ura datorkit burura maiz. Lagunarteko bazkari ta afari goxoak ugari antzean beintzat. Uztapidek esango luke, biziko balitz.

Ortik aparte, bertako pestak ziranetan, berriz, San Martzialetan alegia, an bazan nork kaso egiña bertsolarieri, ta etzituzten gaizki gobernatuta bialduko.

Guk, goizean joan da gosaldu lenengo –ori geure kontura–, eguerdiko saioari ekin aurretik barruak berotzeko; ta gero bazkari itxurazkoa etzan falta-ko.

Joxe Mari Manterola kontzejal egon zala uste det. Au gidari bezela genduen. Berez jaten da edaten izugarria izanda, tentsioa igotzen omen zitzaion oso gora, batez ere banketeren bat egiten zuen bakoitzean. Bein onela zion:

–Gorputza beti eske ari zait, eta gaur eman bear diot ase arte, berak nai duen klasetik.

Etzeukan asmo txarrik.

Beste adiskide jator batez ere gogoratzen naiz: Patrizio Setien. Gurekin bertsotan Irungo plazan aritu zan tarteka. Gizon aundia, luzea ta zabala. Umorez ongi ornitua gaiñera. Lengo gerra aurrean mikelete izandakoa ta jende askorekin tratatua. Berari entzun genion kaso xelebrea.

Bi ijito asarretu gogor, da batek bestea il noski, ta illetako ixtoria kontatzen zuen dotore. Ildakoaren andrea, umea ondoan negarrez zuela, triste; ta eldu ta jaso gora, ta esan omen zion:

–Badakit zer dezun, nere seme ederra: aitaren falta. Ortxe dago kajan sartuta. Akabo! Ez dezu geiago ikusiko bizirik. Gizarajoa! Nik ere maite nuen, zintzoa ta fiña zalako. Gizon gaiztoak il zuen, biribilletan ostikoz jota.

Sekulako erretulikaren ondoren, ijitoen dantzak bazekizkien, kantuak ere bai, ta an asiko zan, kriskitiñak joaz, saltoka gure Patrizio.

Orduantxe ingurukoak gozatu araziko zituen. Parrez esteak bota bearrean egon izan giñan ari begira.

Euskadi ontan erri txarrikan
guretzako etzan iñun,
baiña benetan aipagarria
bat zala uste det Irun.
Gogoan ditut nolako egun
ederrak eman zizkigun,
ango jendea beti leial da
jator portatzen zitzaigun.

Irunen pozik pasa genitun
pestarikan geientsunak,
orretarako doai apartak
badira kristau batzunak.
Patriziori genizkan sarri
kontu alaiak entzunak,
gizon on baten berri ez daki
au ezagutu etzunak.

(1987)

BERTSOLARIEN JOKABIDE XELEBREA

Bertsolarien jokabide xelebrea, aldizka, irakurle, zuk agian jakingo ez dituzunak, adieraztera ni joakizu.

Gure mutil koskorretako denboran, paperetan idatzitako bertsoak noiznai saltzen zituzten, oso merke gaiñera. Emen Orioko Saikolako Pello Aia aldean prankotan ikusi nuen, da beste geiago ere bai igande goizetan.

Jendea elizatik irten ordurako, plazan kantari asi oi ziran, paper bakoitzeko bi errialean da orrela. Baiña nik erosteko aiek falta ta beiñere ez nioten artu. Ortik pentsatu zer bizimodu gendukan garai artan.

Iñungo bertso saiorik etzan entzuten, norbera bizi zan errian ez bazan, kanpokorik beintzat. Etzegoen gaur bezelako aukerarik.

1946'garren urtean, irratiz zuzenean eman omen zituzten lenengo bertsoak, Donostiko Konstituzioko plazan kantatu genituenak ain zuzen. Udaran zala badakit, arratsalde batean. Zer fetxatan aztua daukat. Bertsolariak, berriz, Uztapide zana, Basarri, Ernaniko Paulo Txikia ta ni, Lasarte, laurok giñan.

Da, lanak bukatu ondoren ostatuan geundela, astigarragatar gazte batzuk sartu ziran barrura ta ea libre al nintzan galdetu zidaten; da baietz, etxeratzea beste kezkarik ez neukala. Ba, orduan alkarrekin afaldu bear genduela.

Alaxe, eraman ninduten beraiekin. Soiñu-jolea ere koadrillakoa bazuten da osatuak zeuden parrandarako. Astigarragan ostatu batean pasa genduen gau guztia dantzan da kantuan, ixildu gabe. Etzuen jendeak ipurdiko otzik.

Nik goizean aldegin nuen. Zazpirak laurden gutxiagotan zegoen tren, ura artu bear derrigor ta Astigarragatik Lasarteko estazioraiño oiñez joan nintzan, ez baraurik orde, itxuraz gobernatuta bainengoen, da pereza gutxi edozertarako.

Gero, Orion, trenetik irten da berriro ere oiñez. Aiara kilometro mordoa

dago bide oietan, baiña gu alaxe oituak eta errez egiten genituen gustoko paseoak, parera zetozenetan.

Aian, lo pixka bat mesederako zala ta oera sartu arren, laister jeiki nintzan eguerdian.

Asteasuko Etxebitarten ostatua edukitzen zuten da an neukan kantatu bearra. Senide arteko bazkaria zeukaten. Talde aundia bildu zan da giro atsegiñean igaro genduen gauera bitartekoa.

Gure etxean bizikleta zar baldar bat bazan, da aren gaiñean egin nuen joan-etorria. Aldapan gorakoan ler egiten nuen, baiña ordekan da gainbera poliki, oiñez baiño azkarrago beintzat.

Astigarragatikan
Lasartera oiñez,
txoriekin batera
kantuan egiñez.
Oriotik Aiara
joera berdiñez,
nere kasa bertsoan
pozez ta atsegiñez,
garai artan ez giñan
anketako miñez.

Gero Asteasura
agertu bearra
neukan, da artu nuen
bizikleta zarra.
Berez astuna zan da
gaiñera baldarra,
ari eragiteko
bear zan indarra,
gaur ni bezela zegon
nagitu samarra.

(1987)

ALEGI

Alegi, Tolosatik urrean dagoen erri koskor polita. Bertako pestetan, Uztapide, Basarri ta Lasarte bertsotan arituak gera bein baiño geiagotan, ni artean gaztea nintzalarik.

Gerora, berriz, an badute *Txintxarri*'tarren Soziedade edo Alkartea. Sozio danak bilduta, urtero bazkari eder bat antolatzen zuten, da Uztapide ta biok joaten giñan bertsotara.

Onela zan aien oitura berezia: goizean meza entzun lenengo. Iñoiz guk bina bertso kantatzen genituen elizan. Eguerdian, zinean edo antzokian, jaialdia, soñuz eta bertsoz osatua. Soñu-jole onak eramaten bazekiten, da erriko jendeari atsegin zitzaizkion alako gozamenak. Nola ez?

Ondoren, baxo erdi batzuk artu ta bazkaltzera. Sabelak berotzen zitzaizkigunean, asten giñan kantari «berritik amabira». Andik aurrerakoan, etzan alaitasunaren faltarik sentitzen bazkune artan.

Oso lagunarte gustagarria iduritu zitzaidan beti *Txintxarri*'tarrena, ta nere lagun Uztapidek orixe bera aitortzen zuen. Zenbat bider pozik etxeratu giñan esaten ez da erreza. Arratsaldea gozo pasa ta alkarrengandik apartatu eziñik sarritan. Da azkenean, illunabarrean, trenaren estazioraiño lagunduko ziguten bakarren batzuek.

Borondate orrek ez du gutxi balio. Ala portatzen diran gizonekin aspertzen zailla dala adierazi nai nuen.

Gu alegitarrak ongi tratatzen ginduzten garai aietan. Orain ez dakit zer martxatan dabilzan. Nik aspalditxoan ez baidet bixitarik egin alde artara. Agian gauzak aldatu zitezkean pixkaren bat. Arritzekoa ez litzake izango noski. Baiña lengo jokabideak gogoan dauzkat geientsuenak. Ainbat egun zoragarri pasa genduen, izan ere, koadrilla jator aren babesean.

Joan zan urtean ere abisoa artu nuen Alegirako. Txomin Garmendia ber-

tsolariak deitu omen zuen telefonoz, ta gure semeak esan gaixorik nengoela ta ez nintzala gauza bertso tara joateko.

Sarritan gogoratu
izan naiz *Txintxarri*'z,
ta batez ere ango
lagun gustagarriz.
Oso jende alaia
zan bere jatorriz,
zer esanikan asko
banuke Alegriz,
bat ezin leike aztu
maite duen erriz.

Txintxarri alkartean
sarri naiz izana,
laguntzaille nuela
Uztapide zana.
Bertso eder ugari
bazuen emana,
beti pozikan biltzen
zala zuengana
nere bistan askotan
zan ura esana.

(1988)

SAN MARTIÑAK

San Martin jaiak Euskalerrian toki askotan ospatu oi dira, ta batez ere Gipuzko aldean, berandu samarrekoak izan arren. Udazkenak zertara jotzen duen, ortxe dago gorabera izugarria.

Aspalditxoan onetik geiago ematen digu, txarretik baiño, zorionez; ta guk pozik artu. Nola ez?

Baiña segurantzi geiegizkorik ezin liteke eduki, garai arriskutsua da-ta, plaza librean festak egin al izateko. Denboralea bigurritzen danean, babeslekurik ez baldin bada, orduantxe nolabaiteko jira.

Ataunen iru baillaratan sarritan kantatua naiz: Aian, San Gregorion eta San Martiñen. Gogoratzen zaizkit ango kaso xeibre batzuk.

Urte batean, Uztapide zana ta biok joan giñan bertsoara. Etzitzaigun giro gustagarria egokitu. San Martin eguna zan; da goizean goiz etxetik irten da ara irixterako, autobusetan, trenean da abar, bidean otzaldi galanta artu.

Gero, gosaldu ta pixka bat berotu gorputza. Eskerrak alimentu goxo aieri. Baiña elurra mardul egiten zuen. Jende guztia ostatueta sartu ta bildurrez zegoen.

Atertzeko itxurarik ez zegoela-ta, an beko arkupean kantari asi giñanean, laister bete ziran tokiak leporaiño. Geure saioa bukatu genduenean, bai ustu ere azkar.

Ondoren, soiñu-joleak ekin zioten beraien lanari. Baiña zertarako? Iñork gogorik ez dantzarako. Alperrik ari zirala-ta, bereala ixildu.

Orrelaxe amaitzen dira eguraldi txarretan kanpoan antolatzen dituzten festak, gozotasunik eta ilusiorik gabe. Gazteak jartzen du animazioa geienetan, errezena berari dagokion modura, ta orretarako laguntza bear derrigor giroaren aldetik.

Beste bein, San Martiñen bertan, ixtori polita ikusiak gera. Au udaran. Ain zuzen, eguzkiak indar ederra zeukan.

Ataungo errian, apaiz zar baten omenaldia zan, da lenengo meza nagusia, oi dan bezela. Gero, erri-kirolak, dantzariak eta danetik nasian.

Gu ere antxe giñan, Azpeitiko Joxe Agirre ta biok, bertsoan. Plazaren erdian oltzadura moldatua zeukaten. Baiña gutxitxo josia edo lotua nunbait. Gaiñean zeuden mikrofonoak, izlariak baziran-da.

Aiek bukatzerako, guri agindu ziguten ara inguratzeko. Igo giñan gora, ta beste batzuen artean bi edo iru apaiz ere goien gelditu.

Ala, kantuan asi ta segituan, an dijoakigu oltzadura lurrera. Gu alkarri elduta txutik juxtuan. Baiña apaizak zilipurdika bera. Bat ikaragarri astuna ta torpea zegoen, da kosta zitzaion altxatzen gizarajoari.

Orain, bukaera emateko, mutil gaztearen pasadizoa idatziko det. Lazkaotarra zala daukat buruan, da Ataunen berak kontatu zigun dotore asko. Emen lendabiziko krisisa izan zaneko kontua. Urte mordoa da.

Lanik gabe egon bear zuen mutil onek; eta, ezin aurkituz zebillela, joan da Beasaingo taller aundi batera ta enkargatuarekin itzegin du. Adierazi dio zer nai lukean. Orduan enkargatuak:

–Igo adi opizinarra, nagusia or zegok eta.

Ala, gora iritxi danean, jo du atea. Besteak barrendik:

–Pasa aurrera. Zer nai dek?

–Begira, nagusi: ni lan billa nabil.

–Lana bear badek, etorri emendik amar urtera.

–Oso ongi. Noiz etorriko naiz: goizetik edo arratsaldetik?

Mutil gaztea lan billa joan zan
fabrika aundi batera,
len krisisean zegoenari
min geiago ematera.
Enkargatuak opizinarra
bialdu itzegitera,

eta onela zan nagusiak
an egin zion irtera:
«Lana nai badek, etorri adi
emendik amar urtera.»

Ori entzun da etzan milagro
mutilla triste jartzea,
baiña jakiñik alperrik zala
presa geiegi artzea,
pentsatu zuen nagusiari
esker ona agertzea,
konforme zala eta geroko
utzi gabe galdetzea:
«Goizetik edo arratsaldetik
noiz nai dezu etortzea?»

(1987)

SANTA AGEDA EGUNA

Santa Ageda eguna datorkit une ontan burura. Otsaillaren 5^oean izaten da, eta Euskalerrrian bada oitura toki askotan etxez-etxe eskean ibiltzeko, batez ere Gipuzkoan. Naparroan ez ainbeste. Bizkai aldean ere ibili oi ziran len; oraingo berri ez dakit. Santa Ageda bezperan, illaren 4^oean, egin oi da dalako eske ori.

Gure gazte garaian, ogei ta lau ordu betetzen genituen langintza orretan: goizeko seiretan asi ta urrengo goizeko seirak bitartean zan libre, ta erriko alkatearen baimena bear gaiñera derrigor. Bestela, berak errez galerazi baizezakean, da ura etzuen iñork nai izaten, lotsagarrikeria zala ta. Eguna, geiena mendi aldetik pasatzen genduen, baserriz-baserri alegia.

Urte sasoia alamoduzkoa, ta etxe askotan, txerriren bat il berria zutela-edo jakin ezker, txorixo, lukainka, saieski ta danetik eskatu. Geuk lotsarik ez eta besteri eman. Arraultza ugari antzean biltzen zan, dirua ere bai, ta bapo.

Bertsolariaren eginkizuna txarrena. Lenengo, Santa Ageda aipatzea, ta aren bizitza nola bukatu zan esplikatzea komeni ta nai, zar jendeak batez ere. Ta ondoren, nagusi-etxeoandreak koplatur, ekin eskeari. Maiorazkoak ere zirikatzen ziran, da neskatxa gazteak are geiago.

Illunabarrerako errira inguratzen giñan, da ostatu danak banan-banan pasatzen genituen. Uraxe lanik errezena, bertatik bertarakoa zalako. Gero afaldu ta berriro baserrietara joaten giñan.

Eguraldi txarrean etzan ibillera gustagarria jartzen, goitik bera zearo bustita. Ate ondoan kantari asteko, animoa bear zan. Famili batzuetan esan oi ziguten, atea irikita:

–Pasa zaitzete barrura, Jaungoikoaren izenean, au ez da giroa kanpoan egoteko-ta.

Kafe beroa patarrarekin laister emango zuten, da guk pozik artu. Nola ez? Etzan gaua nai ordurako igarotzen.

Zortzi edo amar bat lagunek osatzen zuen koadrilla, soiñu-jole eta bertsolaria barruan zirala. Iñoiz dultziñeroarekin ere ibilia naiz ni, ta azkenerako beraren otsak belarriak erabat minberatzen zizkidan. Bizi amorratua baida dultziñaren soiñua, zenbaitek jotzen duen moduan beintzat.

Usurbilko Joxe Sagardia zan oietako bat. Arek aterazitzen zizkion irrintziak dultziñari, lotan zeudenak esnatu araziko zituen mantsoagatik.

Santa Ageda eskean bi puntuko bertsoak kantatzen dira. Ez dirudi zailla danik. Baiña ogei ta lau ordutan ederki aspertzen da.

Emen, Orion, illunabarrean ikastolako gazteak ikusten ditugu kalez-kale dabiltzala. Ta oso poliki moldatzen diralako, an egoten naiz. Orrelaxe zaindu bear oitura zarrak.

Santa eskea egin izan da
otsaillaren lauean,
aurrera ere jarrai dezala
orain arteko legean.
Gu etxez-etxe ibiltzen giñan
egunez eta gauean,
toki askotan endredatuaz
lotan zeudenak oean;
urte aietan nintzan ni ere
gaur baiño sasoi obean.

Santa Ageda aipagarri zan
lengo guraso zarretan,
kupitzen ziran neskaxak izan
zituen ezbearretan.
Bere gorputza garbiro zaindu
zuen alako arretan,
ta azkenean il zan gaixoa
etsaien atzaparretan,
aginpidea baizegon gizon
gaizto biotz-gogorretan.

(1988)

KARNABALAK EDO IÑAUTERIAK

Euskalerrian toki askotan aipatzen dituzte jaialdi ospetsu oiek. Napar aldean ez dira aztuta pasako, lengo oiturak jarraitzen baldin badute beintzat.

Leitzan oso pesta politak antolatzen badakite; ta, ain puntu erosoan dagoenez, bertakoz aparte kanpotarrak ere joera izugarria dute erri atsegin artara.

Berez ez da urte garai egokia. Baiña eguraldi txarrean ere, pestan nekezago aspertzen da jendea lanean baiño, ta segi aurrera sasoi dagoen bitartean, betirako ez da ori ere ta.

Beste erri txiki sanoa Arroitz dala derizkiot. Nekazaritzatik bizi dana. Baserri eder ugari ditu. Ganadu talde aundiz osatuak gaiñera. Berebiziko esne putzuak ateratzen dituztela uste det, eta an ere Iñauteriak gozotasunez ospatu oi dira.

Iru edo lau eguneko pestak moldatzen zituzten len, da ara nola: baserritarak alkartu ta txekor aundiren bat ilko zuten lenengo, ta gero erriko ostatuan prestatu arazi, ta ura jan, danak bilduta. Jokabide zoragarria benetan.

Gu bertsoan prankotan arituak gera lagun-arte apal artan. Urte batean, gogoratzen naiz, ostatuan gaupasa eginda, goizean autoa artu ta iru gizon etorri zitzaizkidan Oriora, lanean ari nintzan tokira: alkatea beste birekin.

Da esan zidaten, segituan Arroitzerako prestatzeko. Kostako zana kosta, etzitzaiola inporta. Uztapide ta ni nai ginduztela.

Erantzun nioten:

–Orain arte nun egon zerate, ezer abixatu gabe?

Ta alkateak onela dio:

–Bart arratsean pentsatu degu, Lasarte, bertsolariak eramatea, eta mesede eske gatoz.

–Bueno. Orrela bada, erropak aldatu bearko ditut. Gosaria ere falta det, baiña ezin galduko da denborarik.

Laister jantzi nintzan da joan giñan Oiartzun aldera, Uztapideren etxera; ta bereala prestatu zitzaigun gure Manuel zarra.

Sartu kotxean da Tolosara. An gelditu. Amaiketako bikaiña egin ondoren, martxa. Ta gu noiz iritxiko zai zeuden Arroitzen.

Etzan giro gustagarria kanpoan. Otza ta bustia. Baiña bein barruratu giñanetik, ez genduen sentitzen eguraldi txarrik.

Alimentu aukera ere bai, ta bapo bazkaltzeko. Exeritako lekuan igaro genituen arratsaldeko ordu guztiak, eta gauekoak ere bai geientsuenak, agintzen ziguten gaian bertso saio batzuk egiñez.

Mateo soiñu-jolea an zan da jendea dantzatu arazi zuen. Pepe Andoaiñen anaia zan au. Biak illak dira aspalditxo.

Amaika orrelako pesta ikusiak gera gure Euskalerrri ontan. Gipuzkoan ere Iñauteri famatu samarrak ezagutu ditugu, Tolosa aldetik asita. Orrera, berriz, nun-naitik inguratzen da jendetza ikaragarria, ta kale batetik bestera ibiltzen kostatzen zaio ala nai duenari. Geiegizko zalaparta izan oi da Tolosan Karnaballetan, baiña askoren pozgarri biurtzen dakiena.

Iñauteriak Euskalerrrian
badute naikoa izen,
egun oietan sano danikan
ez da etxean gelditzen.
Mozorrotu ta kalerik kale
gustora dira ibiltzen,
gorputz guztia esponjarekin
jartzen omen dute gizen,
neuk ere ori egin bear det
ea mejoratzen naizen.

Jantzi-berritzen saiatzen dira
geienak egiñaletan,
oiek ez dira eskuratuko
amairu errialetan,

orrelakorik ez da ikusten
urteko jai normaletan.
Erri txikitan, baillaratan da
iri aundi zabaletan,
jendeak anak astindu ditu
aurtengo Karnabaletan.

(1988)

SAN BLASETAN

San Blas feria Bizkaian, Abadiñon, oso famatua izanik, 1988'garren urtekoa ere alaxe zala aitortu dezagun.

Euskal Telebistak atzo erakutsi zigunez, nola ganaduz edo aberez ala janari goxoz aukera zegoela zirudien ango plazak. San Blas opillez eta bestelako frutaz ta barazki ederrez ongi osatuak agiri ziran oltzadura gaiñak. Lengo usuario zarrean egindako lan oparoak bistaratu zizkiguten gure bizkaitar senide zintzoak.

Oraindik ere badaude aurreko gurasoen oiturak gogoan dauzkatena zorionez, ta oiek galtzen ez, baiña indartzen joango diralakoan nago. Ta orrelako erakusketak sarritan komeniko lirake, ondorengo gazteak ikasi dezaten. Aspal-diko esaera da jakiteak ez duela kalterik.

Dana dala, Abadiño erri euskalduna degu, ta ala izan dedilla aurrerantzean opa diogu.

Idiazabalen ere San Blasetan ospatzen dituzte jai nagusiak, aundikiro gaiñera. Len, garai batean, estalperik etzegoenean, erriko plazan kanpo librean jartzen zituzten kirol langintzak. Soñu-joleak, berriz, kioskoan jardun oi ziran; da, eguraldiak lagundu ezker, gazte jendea dantzan ederki dibertitzen zala badakigu. Baiña nolabaiteko giro aldrebesa sarritan gertatzen, ordea. Urte sasoi ori ez baida oso santua.

Beraz, motiborik aski bazala-eta, frontoi berri bat egitea erabaki omen zuten, da geroztik an daukate babeslekua edo legorpea jaialdiak antolatzeke ta bear danerako.

Orrelako obrak jantzi aundia eman oi dio erriari, ta mutil koskorren artean pelotarako apizioa sortzeke ezer ezin liteke asmatu gauza oberik.

Guk ere, diodan kiosko artatik kantatzen genduen. Uztapide zana ta biok bertso saio asko egin genituen Idiazabalen. Lazkao-txikirekin ere prankotan izana naiz.

Zepai zanaren ostatuan bazkaria jartzen ziguten, bera bizi zan bitartean beintzat. Gero Udaletxeak ordainduko zuen seguru asko. Batzuetan, afaldu ta lo ere bertan.

Beingo kaso xelebrea gogoan det. Gauerako gelditu arazi ginduzten, da tarteka bertsoak entzunez jendea gustora. Etxeratzeko konturik iñork ez, eta goizaldera ta beroago zurrutean.

Serbitzen zebillen neskatxari deitu zion batek:

–Aizu, gazte: kopak utsak dauzkagu. Bete auek segituan.

Alaxe, bereala joan da ari zan bakoitzari ematen. Da, Uztapiderengana iritxi zanean, galdetu dio neskatxak:

–Zuk bear al dezu, Manuel?

Da Uztapidek erantzun zion:

–Bete ezazu, bai, sobratzen dana gero jasoko dezu ta.

Ateraldi ikaragarriak zituen gizon arek.

Urte aietan Idiazabal
maite genduen San Blasez,
zar da gazteak nola egoten
baiziran bertsoen gosez.
Lana galanki egin bear guk
entzuleak ezin asez,
eguna eta gaua pasa ta
etxera urrengo goizez,
amaika aldiz etorri izan
giñan gustora ta pozez.

Erri artako jendearenak
baditut ainbat oroimen,
gurekin beti portatzen ziran
al zutenikan leialen.
Bolada ontan kantatu gabe
ixilikan egon arren,

esaten ezin lotsatuko naiz
nola ibiltzen giñan len,
egun gozorik pasatakoak
gera Idiazabalen.

(1988)

AMEZKETA

Amezketari buruz dijoa gaurko nere berriketa-alditxoan. Berez ez da erri aundia. Bizi-lagun gutxi ditu, dakizuten bezela. Artzaiak ziran an ugari len, garai batean.

Amaika arkume ta gazta gozo saldu oi zuten Tolosan, larunbatetan, azokan. Aragitarako ardi zar gizenak ere bai. Erostenak alde askotatik inguratzen zitzaizkioten. Ori da seiñalerik onena, zer kalidadetako gauzak erabiltzen zituzten jakin al izateko.

Napar aldeko artzaiak ere joera izugarria zutela badakigu Tolosara, beste toki askotako gisara. Puntu erosoan dagoenez, klase guztietako jeneroz plaza betean aurkitzen, da jendeak orixe nai arrazoibidez. Zenbat tratu edo saldu-erosi egiten ote da orain ere dalako azoka orretan?

Artzaiak len baiño urriago dirala entzuten degu urte auetan, da ardi geiago dagoela. Zer esan nai du orrek? Dabiltzanak talde aundiagoak dauzkatela.

Amezketari Aralar-mendik ematen dio bizibidea bere neurri batean. Uda-berritik udazkenera bitartean, larre aukera bikaiña nun-nai, ta errez mantentzen artalde galantak.

Baiña erri osoak ez du ortik jaten. Banaka batzuek bakarrik. Baserritarrak ere gogoan izan bear ditugu. Mereziko dute noski. Beste gaiñontzean, kalean lantoki gutxi da an ere, ta kanpora irtengo dira, zerbait irabazi nai baldin badute.

Dana dala, ni Amezketan ganadu perratzen aritua naiz lau edo bost illabetean, bertako perratzaillea gaixorik egon zan denboran, da baserri mordoxka izango dituela pentsatzen det berak. Emeretzi urte neuzkan orduan. Orain berrogei ta lau urteko kontua da.

Garai artan indarrean zegoen nekazaritza, geroztik bajatu bazan ere. Bizitzaren aldakuntza ikaragarria ezagutu degu gai danetan. Gaiñera, ez dakit gerora zer ikusteko gauden.

Guk, Uztapide zanak eta biok, bertso saio pranko egin genduen Amezketan urte sail batean San Bartolome egunez. Jeneralean, erriko Udaletxeko balkoi aundi artatik. Edo, bestela, beko oltzaduraren gainetik. Musikeroak mikrofonoak jartzen zizkiguten, da aien bidez neke gutxiagorekin kantatzen zan.

Gero, ortik aparte, ostatuetan beste ekiñaldi luze samarrak, entzuleak gustora gelditu zitezen berrizko ere.

Oso lagun arte atsegiña iduritzen zitzaigun, da pozik joaten giñan Amezketara.

Lau egunetako festak antolatzen zituzten San Bartolometan. Urte garaia berez ona ta eguraldiaren aitzakirik etzan izaten geienetan. Giro ederra seguru samar.

An bertako pelota-lekuan da plazan dantzarako toki apraposa, ta gazte jendeak anak astintzen zituen. Neskatzak xtimazio galanta. Mutillak alkarri txanda emanaz ta orrela ibili oi ziran. Gauean da amorru geiagorekin, aspertu eziñik. Baiña ez dantza lotuan, librean baizik.

Diodan erri ontan, bazan gizon argi askoa, entzutea degunez: Fernando Amezketarra. Zaku bat betetzeko aiña ipuin bada arena.

Bein Tolosara joan omen zan, abarka zarrak batere galtzerdirik gabe jantzi-ta, eta zapatak eskatu dendako neskatzari. Atera dizkio, ta probatzeko abarka erantzi zuenean, onela dio neskatzak:

–Larruzko galtzerdiak! Oiek ez dira autsiko.

–Gantzontzilloak ere larruzkoak dauzkat, baiña atzean zulatuak.

Fernando sonatua
zuten Amezketan,
jakintsu asko jartzen
zituna kezketan.
Naiz-ta eskolarik ez
ikasi gaztetan,
iñork ez omen zuen
berdintzen izketan,
bera danen gainetik
seitatik bostetan.

Sarritan entzun ditut
nik aren ipuiñak,
eta geientsuenak
dotore apaiñak.
Zer ote ziran egin
zituen azaiñak?
Askok emanagatik
arrazoi bikaiñak,
ark ordea danentzat
asmatzen ordaiñak.

(1988)

IBAETA

Aingeru Goardakoa jakingo dezute, nik bezin ongi, martxoaren lenengo eguna dala. Aurten ere igarora zaigu ta ez denborale txukunarekin. Otsaillak azkenerako erakutsi du gordean zeukan zitalkeria. Orain martxoak ez dakigu zertara joko duen, asi berria da ta. Gero, ikusitakoan, esan bearko nola portatu zaigun. Baiña itxaropen geiegi ezin liteke eduki.

Batzuek diotenez, aurretik udaberria pasa degu, ta neguan sartuko giñan aren bukaeran seguru asko. Emen gauzak asko aldatuak daude lendik gai orretan ere.

Gu, Aingeru Goardakoz, bertso saio pranko egiñak gera Donostiko Ibaeta baillaran, Uztapide zana ta biok, garai batean. Orduko giroak ere bazituzten beren akatsak. Euria, edo bestela aize otza, etzan faltako.

Ibaetan, goiko mendi gaiñean dagoen ermitaren babesean antolatzen zan jaialdia, ta jendeak joera aundia zuen bertara. Erroskillak eta orrelako gozokiak salgai aukeran egoten ziran, nai zituenak erosi. Txistulari, soiñu-jole ta kirolariz osatutako pesta politak zitzaizkion gogozko ara inguratzen zanari. Bertsolariak ere bai.

Urte batean, Endañeta ikusi genduen larri. Arri jasotzen ari zala, bizkarretik bota zuenean, arriak oltzadura zulatu ta eskapada dexentea egin zuen berak ere. Baiña miñik artu gabe gelditu zanean, kontentu. Nola ez? Arrisku-tsuak baidira arkaitz astun oien golpeak. Azpian arrapatu ezkerro, txikituta utziko luteke gizona, naiz-eta indartsua izan.

Oso ikuskizun dotoreak jartzeko gustoa bazuten Ibaetako baillaran.

Guk ordu asko sartzen genituen. Goizetik joan da lenengo eguerdiko saioa. Arratsaldean bestea plazan. Bazkalondoan ere artantxe, entzuleak ase eziñik. Eta gaua, berriz, danetan gogorrena.

An bada Aingeru Zaindariaren bazkune edo soziedade eder bat. Zenbat bertso kantatuak ote gera gu ango lagunarte gozoan? Urtero afaria egiten zuen

koadrilla osoak, eta Donostiko Udaletzeko agintariak ere zintzo bildu oi ziran zalako afari artara. Ta geienetan goizaldera bitartekoa bertan pasata etxeratzen giñan. Baiña ez aspertuta, pozez beterik baizik. Soldata ordaintzerakoan, onela esango ziguten:

–Eskerrik asko egin dezuten lanarengatik, eta datorren urtean ere ementxe nai zaituztegu Aingeru Zaindariaren egunez. Aurrez abixatuko dizutegu, baiña gaurtik jakiñean gelditzen zerate.

Orrelako itzak belarrietan atsegin ematen dute. Ori ezin genezake ukatu iñolaz ere. Zorionez, erri askotan izan ditugu lagun onak.

Esatera da lore guztiak
badituztela arantzak,
bertsolaritzak ere baditu
une gozo ta garratzak.
Poz ematen zun Ibaetako
lagunarte aberatsak,
gogoan ditut an pasatako
egunak eta arratsak,
obligazioz egin genitun,
gerez ez giñan narratsak.

Egia da, bai, boteak gera
iñoiz parranda bapoak,
orain etxetik kontatzen ditut
lenago egindakoak,
nola baidiran iñolaz ere
ukatu ezindakoak.
Ibaetako anai-arrebak
ziran gure gogokoak,
urte askotan zaindu ditzala
Aingeru Goardakoak.

(1988)

OTXANDIANO

Otxandiano datorkit gogora. Alamoduzko opizioaren jabe egin giñalako, amaika erri ezagutu degu, ta kontu xelegre pranko erabili ere bai, batean da bestean. Zerbait idazterakoan, ez dira gaizki etortzen banaka batzuk, eta jarrai dezadan, aztu baiño len, aspaldiko pasadizo zarrak agertuaz, denbora pasa.

Egun batez, Otxandianotik deitu ziguten erriko jai nagusietarako: bertsolariak nai zituztela ta ea libre al geunden.

Alaxe, baiezeko itza eman genioten da joan giñan Azpeitiko Joxe Lizaso ta biok.

Ez da oraingoxe kontua. Ogei ta amalau bat urte ortxe nunbait izango dira, nere kontakizunean oker ez banabil.

Goizean lenengo trena artu ta egin genduen Durangoraiñokoa. Gero andik autobusean aurrera, merkantzian bezelatsu. Artean ez baizeuden autobusak ere gaurkoak bezin dotoreak eta azkarrak, mantsoak baizik.

Dana dala, noizbait iritxi giñan Otxandianora, ta oso ondo artu ginduzten gosari beroarekin. Guk uraxe falta genduen-da kantari animosoago asteko jendearen aurrean.

Beraiek agindu zigutenean, plazara irten da ekin genion lanari gai librean, orduan oitura zan gisara; ta entzuleak gustora itxuran sentitzen genituen, da gu ere pozik.

Eguerdiko saioa bukatu ondoren, baxoerdiak artuaz ostatuan geundela, inguratu zitzaigun bertako apaiza, ta onela dio eskua luzatzearekin batera:

–Ongi etorriak, bertsolariak, gure errira. Gaur alkarrekin bazkaldu bear degula esatera nator, ontzat artzen badidazute.

–Ez dezu abiso txarra ekarri ta eskerrik asko –erantzun nion nik.

Eta geroxeago bere etxera joan giñan. Beste iru edo lau apaiz ere baziran; da, umore ederrean bazkaldu ta kontu kontari ari giñala, garai artan emen

tallerrak ugaritzen nola zijoazen, lana galanki ta atzerritar asko zetozen Euskalerrira, ta diodan apaiz onek esan zuen:

–Kanpotik datorren jende orrek zenbat lan egin lezake? Gorputz txikikoak dira oiek. Bota ta guzti brutoan pixatuta, berrogei ta amar kilo.

Ori entzunik, neri parra saltatu zitzaidan, da galdetu zidan:

–Parregurea eman al dizut, Lasarte? Ni onelaxe jarduten naiz noizean bein broman erdaldunekin ere, ta ez didate batere gaizki artzen.

Bera gizon aundia zan da izlari egokia.

Beste au ere arek esan zigun, soiñeko erropetara pasa giñanean:

–Zuek Gipuzkoan prakari galtzak deitzen diozute noski.

Ta:

–Bai –erantzun nion nik–. Eta azpikoari gantzontzilloak.

–Ba, ez dira gantzontzilloak. Puzkar-butroiak, orixe da oien izena, euskera garbian beintzat.

Gustora pasa nuen bazkalondo uraxe, egia aitortzeko.

Egun zorientzua
gertatu zitzaigun,
ara geroztik nola
gogoratzen zaigun.
An ez zegoen inor
goibel eta illun,
txaloz gu animatzen
jardun zitzaizkigun,
erriak onginaia
erakutsi zigun.

Pesta polita jarri
zan nere iduriz,
soiñu-jole, dantzari
eta bertsolariz.
Oraindik ez naiz aztu
ango erromeriz,

ta lanaren ordaiñez
jaso gendun sariz;
guztiak agurtu nai
ditut egunkariz.

(1988)

SANTO DOMINGO

Langille klase bakoitzak bere Santu edo Zaindaria baduela adieraztea ez derizkiot gezurra esatea danik. Eta guk maite izan ditugu ematen duten santuak. Nola ez?

Udaberritik udazkenera bitarteko denboraldi orretan ugari antzean baidira, Euskalerrian batez ere. Ta jai artzeko aukerarik degunean, ez gera asarretzen, eziñean gabiltzanean bezin errez.

Oetik jeikitzeke ere presa gutxiago, ta gosari obexeagoa igoal, bestelakoan baiño, emakumezkoak temple onean baldin badaude beintzat. Ortik asten da egun guztirako martxa.

Asieran aipatzen dedan Zaindari ospetsua kamineroena da, oker ez banga: Santo Domingo. Bere egunez Gipuzkoako kaminero danak edo geientsuenak alkartzen ziran len garai batean. Oraingoz ez dakit nola dabilzan. Agian ez dute egingo orduan bezelako billerarik.

Gu, Uztapide zana ta biok, kantura joaten giñan. Sobrestantea Billabonan bititzen zan, da arek deitzen zigun.

Asteasuko Pello Mari ostatuan bazkaldu genduen iru edo lau urtetan, gutxienez ere. Oso ongi serbitzen zutela-ta, gustora irten oi zan andik jendea. Jangela aundi ta ederra zeukan, da alaxe bear ere. Koadrilla azi samarra inguratzen baizan. Toki lasaia gauza atsegiña da, maian patxadan egoteko.

Irurako Laskibarren ere egin genituen tarteka kamineroen bazkariak. Jate-txe sonatua zan uraxe ere denbora artan. Gaurko berririk ez det emango, aspalditxoan ez naiz joan da.

Baiña len orrelaxe ibiltzen giñan, txandaka erri geiagotan ere.

Guretzat pozgarri utsa zan diodan lagun arte ori.

Diputazioko kamionak erabiltzen zituzten, gaiñetik toldoarekin estali ta barruan exerlekuak jarrita, jendea deskantsu obean ibili zedin. Garai artan ez

baizegoen gaur aiñako kotxe aukerarik, eta al zan modura moldatu bearrez aurkitzen ziran gure kamineroak.

Bazkal denboran alkar zirikatzen ikusten genituen, da guri bertsoarako naiko gaiak aoko zulora ematen zizkiguten. Lana erreztu arazi gaiñera. Koadrillan sarritan izaten da bat baiño bestea xelebreagoa, ta pesta giroan ongi etortzen dira orrelako saltxa klaseak, parre aldi batzuk egin da pixka bat gozatzeko.

Izugarri ederki pasatzen genduen Santo Domingo eguna, ta illunabarrean garaiz etxeratu. Orrek ez du gutxi balio. Parrandazaleak asko gera; baiña neurria galdu ezkeru, kontuz! Gorputzari pasada latza ematen zaio, ta gero sendatzen kostatzen. Zenbat bider artzen ote ditugu alperrikako alimentuak?

Ez dago oso zaila
ongi erakusten,
kamineroak nola
serbitzen ginduzten.
Bazekiten bideak
garbi asko uzten,
ez genituen beti
presaka ikusten,
beren lanak patxaraz
egin oi zituzten.

Segarekin ebaki
ote eta larrak,
ta berdin bestelako
sasi ta belarrak.
Pertsonarekin zeuden
garbitu bearrak,
euriteak ekartzen
zituen zakarrak,
txukun edukitzeko
kanterilla zarrak.

(1988)

ZESTOA

Zestoari buruz zerbait itzegiteko motiborik aski badala-ta asi naiz. Bertako pestak ere pasa berriak dituzte, ain zuzen, Santa Kurutzetan. Lorailaren irugarren eguna da Santa Kurutz.

Gure gazte garaian, baserritarrak oitura izugarria zuten elorri loredunak basotik eraman da gurutze txikiak egin da etxearen sarrerako atalburuan josi ta jartzeko. Gelatako leioetan ere bai. Gaur oraindik jarraitzen dutelakoan nago, batzuek beintzat. Eta kalean ere badaude, zorionez, lengo usuario zar oiek maite dituztenak. Ez det uste gerora ere danak galduko diranik.

Edozein moduz, Zestoan batez ere, aurreko gurasoen antzera edo era berdintsuan bizi nai duten asko ikusi lezazke ango jendearekin tratatzen due-nak. Oso erri euskalduna danez, bereari eusten alegintzea bezelakorik zer du? Orixe da lendabiziko eginkizuna, nere iritzian.

Ni bertso saio prankotan aritua naiz Zestoako errian, da beti gustokoa izan det txoko polit ura. Entzule onak biltzen diran tokian kantatzeak badu alakoxe garrantzi berezi bat. Guk sarritan merezi zuten guztia eman ez arren, txalo beroak jotzen bazekiten, umorean sartu arazi nairik edo abar.

Aurten ere eramango zituzten pestetarako bertsolariak seguru asko, aspaldiko berririk ezin nezake eman baiña.

Lengo garaietan ganadu feri bikaiñak ere bai, ezagutu genituen Zestoan, ilean bein edo orrela izan oi ziranak. Urola aldeko baserritarrentzat puntu egokian zegoenez, jendeak joera izugarria zuen erri atsegin orretara.

Ez da derrigorrezkoa ganadu erosketak egiterakoan bakarrik joatea ferira. Etxean beti zerbait falta izaten da, gauz bat ez bada bestea. Ta, ortik aparte, lagunarteko giroan merienda edo afari goxoak ez dira gaizki etortzen, noizean beingo mesedegarri baizik. Ori sarritan esaten zuen Manuel Olaizola Uztapide zanak.

Zestoako semea zan gure lagun Uztapide. Bertsolari aundi ura ez det

pentsatzen erriak inoiz aztu lezakeanik. Arek etzuen ezereen saldu-erosirik erabiliko noski. Baiña feriak ikustea gustatzen zitzaion, zer gerta ere. Ta, bide batez, bere lagunekin itzegin lasai asko.

Endoian bizi zala, Arrua goikora mezetara joan da elizatik irtendakoan, ostatuan berak eta beste batek bi botilla txakolin ustu edo edaten omen zituzten gosaltzen asi aurretik, eta gero gerokoak. Amaika bider entzun genizkion orrelako kontuak Manuel jatorrari.

Zestoa, zuri buruz
badet zer esana,
garbi agertzekotan
sentitzen dedana.
Bertsolari aundi bat
zenduen emana,
zure semea baizan
Uztapide zana,
neretzat beti lagun
leiala izana.

Zuzen eramaten zun
bertsoen aria,
etzan nolanaikoa
aren memoria.
Kantuan egokia,
gozo, ugaria,
euskaldun ederra ta
izlari garbia,
biotzez aberatsa
ta buruz argia.

(1988)

NARBARTE

Udaberrian gaudenez, alaitasun pixka bat komeniko dala-ta, idazteari ekin diot kontu kontari.

Negua, nekeak erasandako kristau zarraren tristura bezela artu genezake. Illuna ta etsipenaren antzeko zerbait alegia. Ta udaberria, berriz, sasoi betean dagoen neskatxa gazte edo mutil bikain baten itxaropenaren gisara. Etorkizun fresko ederrez osatuta aurkitzen dan urte-garai berdingabea baida, berez.

Nik goizetan oetik entzuten ditut txorien kantu politak. Zenbat eta zeru goia argiago, aiek orduan da alaiago. Zoragarri da benetan orrelako izakera.

Guk ere ezagutu genduen udaberri giro atsegin ori, orain goibel antean bizi bagera ere. Nik gogoan baditut gaztetan egindako ibillera xeble batzuek. Ara emen aietako bat, emeretzi urte inguru nituen garaikoa, gutxi gora-bera.

Naparroako Narbarten erriko pestak izaki ta bertsolariak nai omen zituzten, da neri Leitzatik deitu zidaten: bi bertsolari billatzeko enkargua zeukatela ta ea libre al nengoen.

Baietz erantzun niotenean, Leitzako Bordaberriko Joxe Antonio izango zala bestea, ta zortziretan bilduko giñala, gero Narbarterako autobusa artzeko.

Alaxe, eguna iritxi zitzaigunean, goizeko bostetan irten nintzan Gipuzkoako Aiatik, eta bizikletan Leitzaraiño. Ez neukan beste jokabiderik, ezta nekearen bildurrik ere.

Arakindegi deitzen dioten ostatuan gosaria jarri zuten lagunak, eta bapo. Neretzat etzan batere gaizki etorri. Apetitu ederra eraman nuen.

Ondoren, sartu autobusean da garaiz iritxi giñan Narbarte aldera, pestarako moduan. Eguerdiko saioa egin da bazkaltzera. An ere etzegoen ixilik egoterik. Eta, arratsaldean berriro kantatuta, orduantxe bukatu genituen erri artako lanak.

Oso jende leiala ta sanoa iduritu zitzaidan angoa, ta pozik pasa nuen

illunabarra bitartekoa. Zenbat orrelakotan parte artuak geran esaten ez da erreza.

Leitzako Bordaberriko Joxe Antoniok bertsoan dotore zekien. Oraindik bizi da. Biok parienteak gera.

Beingo batean joan
giñan Narbartera
lagunen artera,
bertsozale askori
poza ematera.
Joxe Antonio zan
nerekin batera,
ta ez giñan andikan
asarre atera,
diruz poliki bete
baigendun kartera.

(1988)

ZEGAMA

Abuztua guztiz sonatua da Euskalerra osoan, ta beste toki askotan ere ezetzik ez nuke esango. Pesta giroan, alegia, arrigarrizko mugimentua jartzen du ill onek baztarretan. Egunero badauka an edo emen ikuskizuna, norberak ala nai izanik.

Guretzat danak alperrik, ordea, zartu ezkeru ez dago gaitarik ezertarako ta. Baiña mundua beti frutu berriak ematen ari dala badakigu. Ortxe datoz gazte bikaiñak, eta oiek pesta alaiak bearrezko dituzte, guk atsedena bezelaxe.

San Bartolome egunez Zegamaz gogoratu nintzan. Ango jai nagusiak baiziran, ain zuzen. Lengo oitura zarrak indarrean mantentzen dituzte oraïndik ere erri euskaldun polit artan. Urte mordoan ezagutzen det nik zorionez bertako pesta giro sanoa ta paketsua. Zenbat bider pozik joan naizen ara bertotara esanda, ez dakit iñork sinistuko lukean. Norbaitek uste lezake agian:

–Lasarte zurikerian ari dek.

Baiña ez da orrela, adiskide. Benetan aitortzen det Zegamari diodan maitasuna. Ori ez daukat gordetzerik, izketan asi ezkeru, bakoitzari berea ematekotan. Nik asko zor baidiot angu lagun talde gozoari. Borondate aberatseko jende leiala aurkitzen dan tokian, kezkarik gabe pasatzen du eguna kantura dijoanak.

Bertsoak eskatzen dituztenean saiotxo bat egin; ta ura gustokoa baldin bada, asmatu dezu. Ez zaituzte geiegi zirikatuko. Ta komeni zaizun alimentua aukeran jarriko dizute, nai badezu artu, konfiantza osoan. Guk merezi aiña errespetatu gaituztelakoan, egoten naiz ni, erririk geientsuenetan.

Zegamako ibillerak ez dauzkat aztuta. Inaxio Mari Atxukarro ere antxe ezagutu nuen, edo berarekin tratatzen asi beintzat. Ordura bitartean ez genduen alkarrekin artu-emanik eduki. Gizon atsegiña zan, umoretsua ta izlari txukun aparta. Bertsozale purrukatua gaiñera. Arek gaiak emanda sarri kantari jardunak gera. Errezilko euskera ederra garbi asko erabiltzen bazekien.

Zegaman, Gerrikotarren ostatuan apupillo egon oi zan. Langille modura, berriz, pintoretzan enpleatzen omen zala entzuten genion jendeari.

Gero, ortik aparte, irratiz itzegiten zuen. Edozertarako balio ta saiatu ere bai noski. Lenengo, Segurako Irratian egiten zizkigun zoragarrizko berriketa-aldi xebreak. Azken urteetan, berriz, Loiolatik. Parre algara gozo pranko sukalde baztarretan eraginda joango zan mundutik gure Inaxio Mari Atxukarro, Errezilko seme bikaiña.

Liburu ederren bat ere idatzia izan bear du, diotenez; nik ez det irakurri baiña.

Atxukarrok etzuen
tristura askorik,
eta iñorentzako
gorroto gaiztorik.
Iñoiz etzuen galdu
umore freskorik,
xamur itzegiteko
zeukan berezkorik,
ez dakit sortuko dan
aren ordezkorik.

Azken urteak pasa
zenituen eri,
emen gaitzak ez dio
barkatzen iñori,
zu ere orrek bildu
gizarajo ori.
Gaur zeruan bazaude,
Inaxio Mari,
lagundu Errezilli
eta Zegamari.

(1988)

BETELU

Betelu, Naparroako erri txiki bat degu. Au ere, txukuna bezin polita.

Gogoan det egun batez bertsoara nola joan giñan Basarri, Uztapide ta irurok; eta soiñu-jolea, berriz, Pepe Andoain, garai artan fama aundia zeukana.

Tolosatik autobusa *Atalloarra*'k egiten zuen serbizioa, ta bera artu genduen goizean, amaiketan edo orrelatsu gutxi gora-bera. Eguerdian bazkari bikaiña eman ziguten; ta arratsaldean erriko pelota-lekuan jarri zuten pesta.

Alaxe, agindu zizkiguten lanak egin genizkioten, eta gustora itxuran nabaitzen ziran jai eratzaileak, jende asko bildu zalako ta abar.

Gero, gauerako ere bertan gelditu giñanez, afalondoan bazan naiko soiñua ta bertsoa. Basarrik garai onean erretiratzea pentsatu zuen, da asmatu ere bai gure partez. Uztapidek eta nik ez gendukan lotarako astirik, edo ezin aldegin lagunarte atsegin ura utzita nunbait. Goizaldera bitartekoa pozik pasa genduen beintzat, umore gozo askoan.

Au zala, berrogei ta bat urte izango dira, ni soldadutzara joan aurretik baizan, ain zuzen.

Artean Betelun euskerak indar izugarria zeukan, geroztik ederki urritu bazaio ere. Lastima da, baiña erririk geienetan oso martxa txarra daramaki gure izkuntza onek. Bildurtzeko modukoa, askok diotenez. Eta lagundu nai badiogu, saiatu gindezke. Gero berandu da.

Ni orain bost edo sei urte izan nintzan bertsoan Betelun. Lazkao-txiki bestea. Ez genduen plazan kantatu, etxe barruan baizik. Bertako alabatxoaren lenengo Jaunartzea izaki, ta gurasoak bertsozale purrukatuak gaiñera. Orixe zan motiboa, dudarik gabe, guri deitzeko.

Egun zoragarria zala zirudien beraiantzako, ta guretzat zer esanik ez. Baziran apetitu galanta zeukaten gizonak. Azkenerako, ordea, bapo bete. Nere ondoko batek onela zion:

–Au da marka, Lasarte! Medikuak kontuz jateko esaten dit, biotzeko bi atake izan ditut eta. Baiña nik aurrean janaria ikusten badet, ezin diot neurririk artu.

Orduan etxeko nagusiak aditzera eman zion erreparo pixka bat edukitzeko.

Etzitzaion asko gustatu. Laister jaso zuen erantzuna:

–Euk abixatuta etorri nauk. Eta orain zer nai dek: ni gosez amorratzen egotea?

Emen bakoitzak bere erara ulertzen ditu gauzak. Izan ere, bazkari ikaragarria zan angoa. Geiegi.

Gure izkuntza zarra
dijoa gutxitzen,
ta bera jetxitzen,
lengo eran ez baida
gazterik ezitzen.
Emen erdera ari
zaigu nagusitzen,
Betelun ere orrek
ez al du luzitzen?
Euskerari ez dio
utzi nai bizitzen.

(1988)

OIKINA

Oikina, Zumaiari dagokion baillara aipagarri bat degu. Orain kale kutsu pixkaren itxura artua daukan arren, len baserriz bakarrik osatzen zan.

Ni, 1953'an, Soaitzenean, ganadu perratzen jardun nintzan. Aizarnazabal aldera ta Oikinara bereizten diran kamio kurutzean dago diodan perratoki au. Garai artan bi bizitza zeuzkan etxeak. Gaur iru baditu. Bertan lanean ari dan perratzaillak egin baizuen beretzako etxe berria. Baita ostatua ere edukitzen zuten orduan Soaitzeneko familikoak. Agian oraindik jarraituko diote lengo martxari.

Aspaldiko esaerak adierazten digunez, metroz neurtuta, Gipuzkoan edereenetako bat bezela juzkatzen omen zuten guraso zarrak Oikina, nekazaritzatik bizitzeko. Baillara txikia, baiña terrenoz egokia ta aberatsa. Arrigarrizko soro-zelaiak ziran berak zeuzkanak.

Azken urte auetan, errio inguruko sailletan taller aundi batzuk eraiki dituzte, ta lur asko alperrik galdu, naiz-eta beste aldetik ogibidea erreztu.

Antxe daukagu bat Jesuskoa, len baserri bikaiña zana, gaur jatetxe sonatua biurturik. Alor edo soroak saldu ondoren, etxe zarra berritu ta ostatu jarri. Ez da jokabide txarra. Norbaitek nekatu zuen burua gerora begira.

Autopista bertan pasatzeak ere etzion batere mesederik ekarriko Oikinari, laboregintzarako alegia. Saillak gutxitu, parean arrapatzen zituenak. Diruz ordainduko zitzaizkion bakoitzari, dudarik ez noski. Baiña aiek falta orain.

Aitortu dezagun oso bearrezkoa zala bide berri ori. Bestela, nun kabitu orrenbeste kamion da kotxe?

Dana dala, nik dakidana auxe da: artoa ta babarruna artzeko, Oikinako lurraren antzekorik aurkitzen zailla izango dala. Fama ere alaxe zuen, zerbaitengatik zetorkiona.

Jende saiatu aparta, berriz. Baratzetan zenbat lan egiten ote zuten? Berdu-

raz abereak kargatu ta estaziora joaten ziran egunero; ta andik, goizeko trenean, Zarautza ta Donostira eramaten zituzten saltzera emakumezkoak.

Eta tomate garaia zetorreanean, ura aztarrika! Oikinako tomatea bezelakorik ez omen zan iñun billatzen. Au ez da nik asmatua, beste batzuegandik entzundakoa baizik.

Baillarako pestak ere San Bartolomez ospatzen dituzte. Oso dotore gaiñera. Ni bertotan askotan aritua naiz. Uztapide zanarekin iru edo lau aldiz lenengo; ta gero Lazkao-txiki, Lizaso, Agirre, Jauregi ta oiekin.

Neska gazteak karga jasotzen antxe ikusi nituen bein. Esan ere bai:

–Au sinistekoa al da, jaunak?

Aiek etzeukaten señorita askoren itxurarik. Baserritarrak izaki.

Oikina kategoriz
igo zaigu gora,
azken urte auetan
egin du mejora.
Irakurle, irten nai
badezu iñora,
ordubiak aldean
bildu Jesuskora,
bazkaltzea komeni
bazaizu gustora.

Aukeran aurkitzen da
an arrai freskua,
berdintsu aragia
eta oillaskua.
Nai danari erantsi
leioke eskua,
jan-edan egiteko
etxe tajuzkua
askok esaten dute
dala Jesuskua.

(1988)

EZKURRA

Ezkurra artu det gai gaur lerro batzuk osatzeko, ta berari agur sutsu bat bialdu dezaiodan aspaldiko partez. An ere baditut lagunak, aztu ezindakoak gaiñera, batzuk beintzat.

Oso erri txikia danez, lengo erara jarraitzen du, euskerari garbiro kontu egiñez. Atzerritarrik sartu ez dan lurralde oietan, askoz ere errezago zaintzen baidira aurreko gurasoengandik datozen oitura errikoiak.

Ezkurran aurkituko lirake, etxez-etxe asi ezkerro miatzen, erderaz batere ez dakitenak gaur oraindik seguru asko; ta uste baiño geiago igoal, gure moduan edadez edo adiñez elduak daudenetan batez ere.

Ango mendi, baso, erreka ta izkuntza guztiz txukun daude, ezeren kutsurik gabe, soro ta belar-zelaiak bezelaxe.

Industriarik ez dagoenez, nekazaritzatik bizi dira asko beintzat. Artalde dexteak ere baserririk geientsuenetan edukiko dituztela esango nuke.

Terreno sail izugarriak dauzka Ezkurrak bere inguruan. Malkar samarrak, baiña eze amorratuak izan litezke ospel aldeko aiek. Janari gozo asko ematen dutenak alegia, ardi ta bestelako abere klase batzuen mesederako.

Gaiñontzean ez dakit gazte jendeak zer martxa erabiliko duen, edo nun enpleatuko diran kanpoan ogia irabazi bear dutenak. Len, gure txiki denboran, baso lanetik zegoen etorkizun pixka bat sasoiko mutillentzako. Al zuten guztiak berari eltzen zioten, txanpon berriak eskuratu al izateko.

Ezkurratarrak pranko ezagutu genituen ikatz egilleak, mandazaiak eta abar. Ez ziran langintza erosoak batere, baiña derrigor egin bearrekoak; eta opiziorik ikasi ez zuenak, jokabide bakarra orixe izaki urte aietan.

Erriko pestak ere abuztuan ospatzen dira Ezkurran, Ama Birjiñaren egunez asiera emanik. Guk iñoiz bertso saio batzuetan parte artu degu, ta ortik

dakit. Oso lagunarte atsegiña billatzen genduen, ta orduak errez joaten zitzaizkigun.

Bi ostatu zeuden, ni azkeneko aldiz izan nintzanean. Geroztik ez dakit besterik jarri duen inork. Frontoi berria edo lengoa estali ta dotoretua zeukatela ere ikusi nuen, jaialdi politikak antolatzeko moduan.

Nik inoiz Ezkurreko
erri jatorrean,
era xamurrean,
egunak pasa ditut
lasai ederrean.
An euskera oraindik
dabil indarrean,
jendeak bizi nai du
oitura zarrean,
ta gu gaude eskerrak
eman bearrean.

(1988)

ALKIZA

Alkiza Ernio mendi sonatuaren magalean dagoela jakingo dute geien-tzuenak. Erri dotore askoa.

Nekazaritza da ango etorkizun nagusia. Bertara joan da begira jartzen danak, errez antzeman lezaioke zertsu dan Alkizako jendearen jokabidea.

Baserriz-baserri miaketak egin ezkerro, berriz, billatuko luke ganadu talde galantik. Soro, baratz ta belar zelai bikaiñik ere bai. Oiek ez dira kosta gabe izaten, baztarrak txukun da garbi edukitzen aleginduaz baizik.

Lengo lege zarrera jarraitzen diote bizitzari oraindik ere, itxura danez, gaur ainbat aldetan gauzak mudatu zaizkigun arren.

Mendi ta basoz ongi jantzia ote dan iduritzen zait Alkiza. Asieran aipatzen dedan gisan, andik Erniora bitartean sail izugarriak daude, ez dakit zenbateraiño dituen bereak baiña.

Erri txikia bizi-lagunez eta kalez; ori badakigu. Iru ostatu dauzka, ta aiek sarritan utsik egon bearko dute asteko egunik geienetan, seguru asko.

Gaiñontzean, pelota-leku estalia. Eguraldi txarretarako babes egokia, edo-zer jaialdi antolatzeke moduan jarrita daukate ta. Orrelako batek asko balio du, batez ere neguan, bertako gazteak jolastu al izateko, mutil koskorrak pelotan ikasteko ta abar.

Iñork gutxiena pentsatzen duen tokitik sortu litezke pelotari ta bestelako plaza gizon inportanteak, errirako premizko diranak. Gu, euskaldunak, beti zai egoten gera, landare berriak noiz ikusiko. Nola ez?

Alkizan, uda partean, kanpoko jende asko ibiltzen omen da noski. Jakiña, mendiko aize sanoa osasungarri baida. Ta ortik aparte, plaza aundia daukanez, kotxeak uzteko ta umeak beren kasa jostatzeko aukerako lekua, gaur nun-nai billatzen zail dan bezelakoa.

Billabonatik urrean, Asteasutik ere bai, igotzeko malda pixka bat; orixe. Baiña kamio ona. Oraingo autoak ez dute eziñik sentitzen.

Erriko pestak iraillean ospatzen dituzte, Ama Birjiñetan.

Ni bertsoan prankotan aritua naiz Alkizan, Lazkao-txikirekin da beste batzuekin. Eguerdian saio bat eta arratsaldean bestea egiten genituen plazan. Bazkalondoan maian kafeak artzean ere, ixilik ezin ba egon, zerbait kantatu gabe. Ta orrelaxe joaten zitzaigun eguna, oso lagunarte atsegiñean. Entzule jatorrak dauden tokian luzitzen du bertsolariak.

Trikitolari ederrak ere badakite eramaten. Martin, Imanol da geiagok ere artuko zuten parte sarritan.

Jendetza izugarritz leporaiño beteta ikusi izan degu Alkiza, kotxeak alkarri ibiltzeko traba egiten diotela. Bide estu samarrak eta danak kabitu ezin.

Alaitasun pixka bat
bear da bizitzan,
kezka ta naigabeak
illundu ez gaitzan.
Jendearen pozgarri
sarritan Alkizan
guregandikan bertso
ugari jaulki zan;
esker txarrik ez gendun
iñoiz jaso izan.

Alkizan nor da bertso
maitale ez danik,
zar da gazte guztiak
zaleak izanik?
Kantatzeko ez gendun
guk eragozpenik,
ango lagunak ezin
aztu nezazke nik,
aien borondateak
ez baidu azkenik.

(1988)

SALDIAS

Erri txikia dala badakigu bera. Bizi-lagun gutxikoa, alegia. Ta azitzen zailla, oso goien eta baztarrean gelditzen dalako. Bide nagusitik urruti baidago.

Lengo garaietan etzuten autoz baliatzeko modurik Saldiasen bizi ziranak. Zaldi, beor, asto edo mandoz egiten omen zituzten karretajerik geienak. Bera jetxita, lenengo erria Labaien edukiko du, ta ez dakit andik osatuko ziran jeneroz. Bestela, Doneztebetik seguru asko.

Ni bein Saldiasera bertsotara joan nintzan. Iruñetik deitu zidaten, *Príncipe de Viana*'k jaialdi bat eratu zuela ta.

Bolara artan, euskeraz ongiena zekiten umetxoen artean, sari bereziak banatzen zituen *Príncipe de Viana*'k Napparroan. Erri askotan antolatu ziran orrelako pestak. Gauza pozgarria benetan izkuntzaren etorkizunerako.

Diodan gertakizun au aspaldikoa da: ogei ta zortzi bat urte, gutxi gorabera. Orduantxe zegoen kamioa egin berria Saldiasko erriraiño. Nik tasisa artu nuen Donezteben, da txoferrak eman zizkidan esplikazio danak.

Eguerdiko amabietan, iritxi giñanean, sartu nintzan ba ostatura ongi gose-tua, ta galdetu nion bertako andreari:

–Amaiketako pixka bat emango al zenidake?

–Bai, gizona. Pasa zaitez jangelara ta exeri.

Alaxe, bereala agertu zan bera, ta:

–Zer nai zenduke?

–Nik arraultza pare bat prejituta, emen onak egongo dira ta.

–Ekarriko dizkizut.

Bai eraman ere bikaiñak, ta beste ogi borobil baten erdia. Sekulan oberik ez dakit jan dedan. Pusketa galanta kendu nion. Ase eziñez jardun gaiñera.

Nik ez nuen uste erri artan inork ezagutzen ninduenik. Baiña laister joan zitzaizkidan alkatea ta bere lagunak bazkariz gonbidatzera. Esan nioten:

–Nik ez det bazkari bear aundirik, egun guztirako aiña orain jan det eta.

–Lasai, Lasarte! –zion beraietako batek–. Alkarrekin egingo degu, zuri gogoia etortzen zaizunean. Guk ez daukagu presarik. Bein etorri Saldiasera ta ez zaitugu gaizki tratatu nai berrizko ere.

Alaxe, kontu kontari aritu ondoren, ordu bi ta erdiak inguruan asi giñan bazkaltzen. Gero, kafeak artu ta bertso batzuk kantatu nituen, da pozik.

Arratsaldean, plazako saioa bukatu ta segituan, kotxean ekarri ninduten Orioraiño.

Saldias ote degun
erri tajuzkua
da nere juzkua;
ango jende jatorra
ez daukat aztua.
Neretzako zan beintzat
leial ta prestua,
egin nai zuten obra
karidadezkua,
izan ezagatikan
nai ta nai ezkua.



Labaien'dik gora igo ta bakardadean, baiña pake gozoan da lasai aurkitzen dalakoan nago Saldiasko erri euskaldun polita. Nasketa gutxirekin seguru asko. Arrigarria da ainbat urtetan kamiorik gabe nolatan iraun ote zuen.

Beste gaiñontzean, ezagun zuten an bizi ziranak lengo oitura zarrak oso gogozko ta ixtimatuak zeuzkatela. Orain ogei ta zortzi urteko kontuak esaten ari naiz. Geroztikako berririk ezin nezake eman. Agian gauzak aldatu zitezkean, edozein tokitan bezelaxe. Gazte jendeak beste pentsakera batzuk izaten baiditu.

Bidezkoa danez, baserri giroan ere mudantza izugarriak nabaritzen ditugu

alde guztietan. Zer erakusten digute oiek? Lengo erara lanean jardunda ez dagoela bizimodurik.

Saldiasen ere, mendi ta basoetan ardi ta beor pranko billatuko lirake, nere iritiz. Au ez det esaten seguru jakinda. Baiña erri koxkorretako etorkizun nagusia nekazaritzaren baitan ezagutu degu orain arte lurralde auetan, batez ere Naparroan.

Ostalariak denda ere eduki oi dute toki askotan. Bi serbizio batera. Nik Saldiasen ala ikusi nuen. Mai aundi baten gainean berebiziko ogi mordoa, berriz, gari irin garbiarekin egiñak. Zoragarritzko usai gozoa botatzen zuten, urruti antzetik konturatzeko modukoa.

Lenengo, gaia bearko da, ogi ona aterako bada, dudarik ez. Baiña erretzen asmatzeak ere garrantzi ikaragarria dauka. An etxerik geienetan bazirala la-beak, zioten, orretarako.

Orain ez dakit usatuko dituen jendeak len bezela. Ogi egilleak aukeran baidaude nun-nai, ta ongi prestatuak. Aldi berean, lanerako erreztasunak jarri-ta dauzkate, gaurko martxak eskatzen duen modura.

Dana dala, Saldiasen pasa nuen egun bikain ura iñoiz ezin nezake aztu. Bertsolari gutxik ezagutuko zuten erria izango ote dan iduritzen zait bera. Nik goraintziak bialdu nai dizkiot Oriotik.

Ez dakit beraieri
eskerrak ematen
asmatuko deten;
egun artan gustora
zirala zioten.
Nunbait gozatu ziran
bertsoak entzuten,
ta ordezesker ona
agertu nai zuten:
etxeraiño kotxean
ekarri ninduten.

(1988)

SAN MARTIÑETAN

San Martin, azaroaren 11'garren eguna ain zuzen, aurten ostiralez egokitu zitzaigun, eguraldi gozo askoarekin. Uste det jendeak anka makillak astinduko zituela baztarretan. Erri askotan ospatzen baidira pestak, Gipuzkoan batez ere.

Len, gure gazte garaian, udazkenari bildur izugarria genion, sarritan nora-bait joan da busti-aldiren bat artzen genduela ta jazkerak ere alamoduzkoak eta.

San Martiñetan Aiatik Urdanetara edo San Romanetan Altzolara, bi baillara oiek bixitatzen zituenak ibili bearko zuen gauean, etxerakoan, lau ankan, biren gaiñean ezinda, ipurtezurreko galantak artuaz, lokatzez bapo zikinduta. Bestela, bertan bizi ziranak borondate ikaragarria erakusten zuten, baillara batean bezela bestean.

Pestak ongi igarotzearren, baserririk geienetan oitura artua omen zeukaten, aurrez txekor edo txal gazteren bat il da prestatzeko. Naiko okela janez, dotore pasa beintzat urtean beingo jaiak. Ez dago gaizki pentsatua, nere iritiz.

Ta txekorrak, aragiz aparte, puxka goxoak baditu, barrenkiak alegia. Aprobetxatzen jakin ezkeru, alperrik galtzeko gutxi.

Egun oietan, kanpotarrak ere asko inguratzen, da jeneroz aukera jarri nai. Esaera ala zan len: ezagunak etziranak ere, familikoak bezela tratatzen zituztela edozein etxetan. Ate ondoan ikusi orduko, barrura pasa arazi ta jan-edanetik eman lasai.

Ez da jokabide aldrebesa, ixtimagarria baizik. Orrelako konfiantzak ez du gutxi balio. Gaur nun aurkitu leikean jakiten ez dago errez.

San Martiñetan, Urdanetan, orain bost urte izan nintzala uste det azkeneko aldiz bertsoetan. Ara joatea zer da? Ezer ez. Autobide ederra baidago Zarauztik gora.

Bustitean, mendi labainkorrek dira orkoak. Egun argiz ikusten da ta badaki

batek pausoa nundik nora eman. Gau illunean, ordea, estrapuzuka ibili bear. Bertako berri ez dakienari, sarritan gertatuko zaion gauza da ori.

Neuk ere estuasun latzak pasa nituen gau batez. Urdanetatik Aiara abiatu ta Saberri baserriaren atarian garo metak zeuden, da batek azpi aldean zulo dexentea zeukan. Antxe babestu nintzan. Egon ere bai denborale txarra sortu zuelako. Baiña atertzeko itxurarik ez, ta aspertu ta irten. Geroztikan komeriak. Aize olatuak eta euri erauntsiak ito bear, da aurrera pausorik eman ezin. Ura zan planta etxeratu nuena!

Eguraldi maitekor
gozo atsegiñez,
baztarrak ikusiaz
mendiz-mendi oiñez
ibiltzeko zegonak
gogoz eta griñez,
aukera ona zuen
aurten San Martiñez.

Udazkena ari zan
modu oparoan,
kanpoari laguntzen
maitasun beroan;
urri illean eta
gero azaroan,
giro ederrak izan
ziran luzaroan.

(1988)

LEGORRETA

Goierrri aldean txoko polit asko diranez, au ere alaxe dala derizkiot, oker ez banago.

Bertso saio ugaritan parte artuak gera gu Legorretan. Ni orain ez naiz gauza orretarako, ta lengoak kontatu ditzadan denbora pasa. Ixiltasun onek ez dit poz aundirik ematen. Baiña zer egin nezake, pazientzia artu besterik?

Legorretan bazan ostalari bat, Jexux Eskisabel bera, bertsotan poliki mol-datzen zana ta izketan, berriz, egoki aparta. Illa da gizarajoa, gazte ta zarreri amaika parre gozo eraginda, sano zebillen bitartean.

Arek bere etxean noiznai jaialdiak antolatzen zituen, batez ere negu partean. Ardi zar bat edo bi il da mondejuak aukeran jarri jateko, ta jendea erruz bildu arazi.

Diodan mondeju oiek, odolkiak bezela dira, ardikiz cgiñak. Goierri aldean fama izugarria dute bereziki. Janari segotsua ta astuna danez, edaria ere asko eskatzen du. Ostalariak badaki ori. Gero, ortik aparte, ardi aragia gauza gustagarria dala dudarik ez dago, ta bapo.

Jexux Eskisabel orrelakoak asmatzen artista izaki, ta neri sarritan deitzen zidan bertsoarako. Gaztetan Aiatik bizikletan joan nintzan bein baiño geiagotan Legorretara. Egun guztiko lanak eta gauekoak artzen genituen.

Beingo batez, gogoratzen naiz, goizeko ordubietan oeratu ta berriro lauretan jeiki arazi ninduten, bertsoak nai zituztela-ta. Antxe jardun bear izan nuen, sabeleko otzik sentitzen ez zuten batzueri kantatzen. Jexuxek laguntzen zidan. Bestela, bakarra motz gelditzen baida, bertsotan luzaro jarraitzeko beintzat.

Izlari ederra zan benetan Jexux Eskisabel. Santa Luzia izeneko aseguroko bijajantea sartu zaio batean ostatura ta baxoerdi txuria eskatu. Andik tragokada egin ondoren, galdetzen dio:

–Zu emengo nagusia al zera?

Ta:

–Bai.

–Ezagutzen al dezu Santa Luzia?

–Ez. Zer da ori?

–Begira: asi erropatik eta ferreteri, oe, armario ta klase danak dauzkazu. Sozio sartzen bazera, astero diru pixka bat emanaz, baita ildakoan kaja ere.

Orduan Jexuxen erantzuna:

–Ar zazu ardo ori ta aldegin azkar, nik ez dakit ilko ez banaiz ere ta.

Beste batean esan zigun:

–Gure andrea zintzo amorratua da. Esnea ere konfiantzazkoa erabiltzen du. Irakin da gaiñez egingo ez duela badaki; ta egosten jarri ta goizetan, gelatako lanak egin arte, ortxe edukitzen du lasai. Periodikoan ere egiak bakarririk irakurtzen ditu: eskelak eta kito.

Azkeneko au ere ari entzun genion, maian exeri ta lan kontuan ari giñala:

–Ez al dezute beste zer esanik? Lana geiegi txarra dek. Gutxi ere bai. Batere ez onena.

Legorretara joaten
nintzan aldiero,
Jexux aurkitzen nuen
maitasunez bero.
Lilluraturik uzten
ninduen zearo,
ainbeste une gozo
genduen igaro,
alakorikan ezin
egin il da gero.

Beti agertzen ziñan
asmo baikorretan,
umorea pizteko
gazte ta zarretan.

Ainbat maite zenduen
ostatu orretan,
jendea serbituaz
guztizko arretan,
amaika pesta jarri
zendun Legorretan.

GORRITI

Naparroa ezin nezake baztarrera utzi inolako moduz, gure lurraldea dala-ko; ta beti diot alakoxe errespetu edo itzal berezi bat berari.

Naparroako erri txikietan aipagarri dala derizkiot Gorriti, ta berak eman dit izketarako bidea.

Bizi-lagun gutxi ditu, ta kale etxeak ere bai. Baserri ederrak, ordea, dauzkan geientsuenak. Laboregintzarako lur sendo gozoak, belardi sail aberatsak, eta mendi ta baso aundi lasaiak.

Oiek orrela izanik, errez mantentzen dituzte ukulluko ganaduak eta kanpo librean dabiltzan ardi ta bestelako abereak. Diodan erri atsegin ontan, nekazari-zatik daukate eguneroko ogiaren etorkizuna.

Bertako pestetan Gorritira dijoanak, ez du gose-egarririk pasako. Lendik ezaguna baldin bada beintzat, nun-nai aurkitu lezazke ateak zabalik. Borondate oneko jendea baida.

Ni gogoratzen naiz urte batean nola kantatu genduen Uztapide zanak eta biok San Bartolome egunez. Kosta zitzaigun bertsozaleak asetzen. Ura zan jendearen eskea! Saio bat bukatu ordurako, bestearen zai. Giro zoragarria zegoen lagun artean. Baiña guretzat lan asko.

Gauean garaiz etxeratzeko asmoan, tratua ala egiñak giñan aurrez, urrengo egunean berriz Zegaman gendukan kantatu bearra-ta.

Gorritiko semeak, Ameriketan bizi ziranak, bi gizon, osaba-illobak ain zuzen, oporretan andik etorrira zebiltzan, da beraiek pentsatu zuten gu errira eramatea pestetarako, ta gero aspertu ezin. Ara zer gertatzen dan.

Arratsaldeko plazako lanak eta ostatuan berriro jardunda, libre giñala uste, goizetik asi ta eten gabe aritu ondoren. Baiña toki ederrean genbiltzan. Gu etxera ekartzeko kargua zuenak, afaldu egin bear genduela lasai, esan zigun.

Ori entzunik, nik pentsatu nuen:

–Oraintxe izurratu gaituk.

Ala izan ere. Zopa jan ordurako, bertso eske genituen. Len entzundakoak aztu nunbait. Goizeko ordubi ta erdietan kantari antxe, ta laurak jota iritxi etxera.

Bertsoetara joanik
beingoiz Gorritira,
pranko urrutira,
xelebrea zan gero
gure erretira.
Ortan ibiltzen giñan
erritik errira,
egun luze askoak
sartuak badira,
danak bear bezela
kontatu balira.

BERASTEGI

Gipuzkoatik Naparroara goazela, bien arteko muga inguruan daukagu Berastegi. Iru ermita dauzka. Bat San Sebastian, Urto gaiñean, goiko kaskoan, aize freskoa artzeko toki egokian. Bestea beraxeago, kamio ertzean, San Anton. Irugarrena San Lorentzo, mendi altu ta dotore batean, pago ederrez inguratirik.

Berastegi oso erri euskalduna ta polita dala askori entzuten zaiote, ta nik ere iritzi orixe berbera daukat.

Abuztuan, San Lorentzotan ospatzen dituzte pestak; jai nagusiak alegia. Gu, Uztapide ta biok, urte mordoan jardungo giñan bertsoan Berastegin. Bi egun pasatzen genituen joandako bakoitzean. Kakonean jatetxe sonatuan ongi gobernatzen ginduzten.

San Lorentzo bigarrenez, goizean, txekorren bat ilko zuten, da amaikak aldean aren gibelarekin prestatzen ziguten emakumezkoak gosari gozo askoa. Sardiña zarrak baiño gusto obea edukitzen zuen.

Kakoneko oraingo nagusi onen aita zana bertsozale purrukatua zan. Gure ondoan bazkaldu ta kafearen osagarritzat bertso batzuk kantatzea bezelakorik etzan ura kontentu gelditzeko. Berak ere bazekien bertso zarrak kantatzen tarteka, dotore gaiñera.

Gizon zintzo apartaren itxura artzen nion nik ari. Bizimoduan saiakor utsa. Gauean zuzen erretiratu oera, ta goizean txoriekin batera jeiki. Besteak lotan zeuden bitartean, egun guztirako martxa jarri etxean, nola mostradorean, ala sukaldean. Ganaduak ere edukitzen zituen garai artan. Orain ez dakit jarraitzen duten orduko modura.

Morroi zar bat ezagutu nuen antxe, sekulan pestari kasorik egiten etziona ta lagun artez gogoratzen etzana. Ukulluan ganaduak mimatzea zan aren gozamenik aundiena. Betiko zer egiña billatzen du artarako gustoa duenak. Zenbat eta

geiago igurtzi, ura ta naiago baidu animaliak ere. Ta, etekin ona kenduko bazaio, laguntzea komeni.

Kakoneko aita zanak lan asko egin izango zuen bere bizitzan dudarik gabe, ainbat klasetan gaiñera. Mandoak baso egurrak, tabloi ta ikatzak ateratzen erabiltzen zituela uste det, oker ez banago. Gure ume denboran, izen izugarria zan Kakorena mandazaitzan. Bera etzan ibiliko noski. Mutillen bat edukiko zuen jornalean. Seguru ezin nezake esan. Zenbat mando zituen ez dakit. Ezta ere basoetako materialen saldu-erosietan parterik artzen zuen edo karretajea bakarrik zan bere eginkizuna. Ainbeste bider alkarrekin itzegin arren, bein ere ez nion galdetu. Bestela, jakin nezazkean gauzak sustraitik.

Dana dala, Kakonea jatetxea ongi prestatua ezagutu degu beti. Nik aspalditxoan ez det ikusi, baiña lengo tankeran egongo dala pentsatzen det gaur oraindik ere. Jangela ederrak dauzka barruan; da kanpoan, berriz, zugaitz dotore batzuen azpian maiak jartzen dituzte, ta udaran aien itzalean jaten dute freskuraren zale diranak, aize sanoa artuaz. Ta bide batez, umeak jolasteko leku apraposa dagoenez, gurasoentzat lasaitasun bikaiña.

Oiek guztiak orrela izatez aparte, beste au ere aipagarritzat juzkatzen det: sukaldaritzan asmatzeak asko balio du jendea inguratzeko. Kakonean arategia etxean daukate. Bertako nagusia baida arakiña, ta Berastegin aukerako txekorrak erosiko ditu. Ez da suerte makala orixe prezio igoalean. Aragi ona ixtimatzen da emen, da txarrari bereala antzematen zaio. Ez dago iñor engaiñatzerik nolana. Urte auetan janari danak daude galesti, ta ordaindu bear dituenak bere arrazoiak ortxe dauzkala ezin ukatu. Bazkaria edo afaria egin ondoren kontua gora igotzen baldin bada, norbaitek esan lezake:

–Ez uan merkea, baiña oso ongi eman zigutek. Kendu dizkiagu gose-egarrien kezak.

Apetitu aundiko pertsonak, zenbat aurrean jarri, ainbeste sartzen daki sabelera.

Kakoren ostatuan ez da ezeren faltarik aurkituko. Lendik ezaguna dute askok jatetxe ura. Bolara ontan babarrunak modan dabilta baztarretan, da ederki gozatuak jartzen ditu ango etxeakoandreak, beste gaiñontzeko jeneroak bezelaxe.

Berastegi oso erri lasaia ta paketsua dalakoan nago. Nekazaritzatik bizi da ango jenderik geientsuena. Baserri tajuzko ugari bada beko sakontxo artan.

Laboregintzarako lur sendo ta mamitsuak. Arto ta babarrun bikaiñik ikusten zan soro aietan gure mutil koskor denboran. Terreno ordeka edo lauak daude asko beintzat, eta etxe bakoitzak bereak oso urrean dauzka. Baita belar zelaiak ere. Urrutienekoak, San Anton aldetik Artalekura bitartean egongo dira.

Diodan Artaleku izenez ezagutzen ditugun sailletan, txalet berriak dexente egin dituzte, azken urte auetan batez ere. Frontoi txikiak aldemenean dauzkate gaiñera batzuek, umeak pelotan jolastu ditezen. Tolosarrak eta beste nunbaitekoak izan bear dute aien jabeak. Kale zuloan aspertutako jendea da ori, sanidade billa dabillena; ta toki apraposa aukeratu suertez. Obra lanak kostako ziran, baiña lurra merke erosiko zutela iduritzen zait paraje artan.

Negurako otza da. Euri erauntsiak indar gogorra du. Aize olatuak ere berdin, zugaiztirik ez dagoelako. Soillean arrapatzen, da ebaki. Altura aundia daukanez, elurte mardulak ere izan oi dira zenbait urtetan. Etxe edo txaletak ongi moldatuak eduki bear derrigor. Bestela, babes gutxi.

Alako giro txarretan ez dakit iñor joaten dan. Nekez, seguru asko. Kamioan autoak ibiltzeko zailtasunak berak galeraziko baidiote. Urte guztia bertan pasatzeko ez det uste lekurik onena danik. Baiña udaran zoragarria benetan.

San Anton gaiñetik Leitzarako bidean eskubi aldera begiratzean, zugaizti bikaiñak eta baso aberatsak ikusten dira. Ardi zintzarri otsak ugari entzun lezazke an dabillanak. Baita kukuaren da txorien kantu politak ere.

Berastegik mendi sail aundiak dituenez, artzaiak asko ezagutu genituen len garai batean. Bakoitzak bere artaldea erritik kanpora irten gabe mantenduko zuen gastu gutxirekin. Orain ez dakigu nola dabiltzan. Baiña piñu beltz ori sortu zan ezkeroztik, ardi larreak urritu ziran toki askotan, da an ere agian baliteke orrelako zerbait gertatzea.

Guri, bertsotara joan da gazta zarrak erregalo eman izan zizkiguten batzuek. Artzai jendeak borondate ona erakusten du jeneralean.

Berastegin ardi arraza aundi oietakorik ez det bein ere ikusi, Amezqueta aldean-da bezela, ardi adardun txiki antzekoak baizik. Baiña kastaz gogor amorratuak. Auntzaren pare juzkatu litezke. Nun-nai saltoka ibiltzeko almena baidute, ta edozein zulotan sartu errez, zer janik baldin badago. Muturra zorrotza ta begiak argi. Soro baztarretako pareta gaiñetara igotzen ere badakite laister, oitura artu ezkeru.

Nik artzai bateri aspaldi entzun nion, animalietan aberatsena ardia iduri-

tzen zitzaioela berari. Probatuta esango zuen noski, ta sinistuta gelditu nintzan. Etzan gizon gezurtia. Jakiña, arkumea bera galesti saltzen da, lenengo jaiotzen diranak batez ere. Amaren errapetik ongi alimentatzen baldin bada, azkar azi; ta gero esnea kentzen zaio ardiari, umea saltzean, gazta egiteko. Ara or nolako ondasunak ematen dituen diogun animala txiki onek.

Ortik aparte, berriz, urtean bein moztu oi dira ardiak, San Juan illean gutxi gorabera. Eguzkia indartzen danean, illearen berotasuna kaltegarri zaiote; ta, traje zarra ebakitzean, arintasuna ta freskura, bi gauza batera sentitzen dituzte oso atsegin zaizkietenak bizitzarako. Len artzaiak ardi illearekin diru asko eskuratzen zuten, koltxoia ere lanazkoak erabiltzen ziran garaian. Orain ez du orduan aiñako ixtimaziorik edukiko seguru asko, ta ez dakit zertarako enpleatzen duten.

Dana dala, Berastegi erri aipagarria degu, modu askotara gaiñera. Gizon inportanteak eman dizkigu berak. Bat auxe izentatuko nuke: Manuel Yaben soiñu jole ospetsua. Ernanin bizi da aspaldiko urteetan. Beste anai bat ere bai noski. Ez nezake garbiro esan zenbat senide diran. Auen aita zana aizkolgillea omen zan, da semeak ere artan jardungo zirala pentsatzen det, naiz-ta gerora utzi langintza orreri. Nik sarritan entzun nuen umetan, Berastegiko Modestok aizkora zorrotzak eta onak egiten zituela. Baiña irabazi geiegi etzan egongo. Bestela, semeetakoren batek elduko zion aurrerako martxari.

Manuel Yaben mutil koskorra nintzala ezagutu nuen. Plazaolan pesta antolatatu baizuen auzoetako gazte jendeak, eta au soiñu jotzera eramane. Gero, estranjeri aldera joan izan bear zuen geiago ikastera edo ez genekigun zergatik. Andik ere itzuli zitzaigun berriro, fama ikaragarria bereganatuta. Emen erriz-erri asi zan segituan soiñu jotzen, da danak arritzen ziran zeukan erreztasunarekin. Gai ortan jakintsu asko ao zabalik uzten zituen Berastegiko seme artista aundi onek. Alkarrekin ibili giñan prankotan, da ni ikusitakoa esaten ari naiz.

Besterik gabe, guretzat gizon atsegiña izan da Manuel Yaben. Uztapidek eta biak konfiantza osoa zeukaten, da nik ere berealaxe artu nuen. Lagun artean zer da gauza ederragorik ori baiño?

Azkeneko aldiz, Idiazabalen jaialdi bat jarri ziguten, da antxe zan soiñu jotzen. Gu, berriz, Lazkao-txiki ta biok bertsoetan. Geroztik etzait egokitu plazetan ikusterik. Profesoretzan jarraituko du. Artan asi zala uste det, gazteeri erakusten. Ez daukate nolanaiko maixua, ori orrela bada.

Beste bat, Berastegiko semea au ere ain zuzen, Pakito deitzen zitzaion, oso txikia zalako. Gorputza aski sendo ta polita zuen. Baiña alturan metro batetik gora pasako ote zan? Asko ez beintzat. Buruz argi arrigarria, ordea. Beingo batean, bere aitari esan omen zion:

–Ezkontzea pentsatzen det, adiñez aurrera nijoa ta.

Aitak orduan erantzuten dio:

–Ik ezkondu ta zer espero ezake? Seme kasta ederra zabalduko dek etxea gora jasotzeko.

Ta Pakitok bueltan zorrotasunez:

–Kastak kezkatzen al zaitu, aita? Zuregandik aiñakoa irtengo dala uste det neregandik.

Ori da arpa dotore jotzeko modua. Aita arek obe zuen, ixilik egoten asmatu izan balu. Baiña era txarrean mintzatu ta txikiak arrazoiari eldu bete-betean.

Kasta kontu ortan ezin liteke aurreragi sartu. Guraso txikietatik sortzen dira seme-alaba galantak batzuetan. Baita batekoz bestera ere. Ementxe dauka-gu ixpillu garbia ori ikusi al izateko. Diodan Pakito onen aita gizon aundia zan.

Nik ezagutu nuen juntu-juxtuan, zartu ta gero noski. Franki baserritik enkarguak egitera bialtzen baininduten Berastegira mutil koskorretan; da, aren etxe ingurutik pasatzerakoan, soroan lanean ari zala sarritan begiratu nion. Ortik aparte, nolako pertsona zan jakiteko ez det motiborik.

Adibidez, gaztetan Ameriketara joan da an urte sailla igarota, diruz jantzi edo osatu samartuta itzuliko zan, gero bere gustoko tokian bizimoduko martxa lasaiago eramateko. Beraz, buruz jokatu zala esan genezake, ta nekearen bildurrik gabe.

Andreak ere emakume pusketa aundietakoa izan bear zuen, nik entzuera dedanez. Ondorengoak bi seme, ta nolako aleak! Pakito baiño txikiagoa bestea. Orixe ere marka dexentea dala derizkiot famili batean gertatzeko.

Urte mordo da, baiña gogoan daukat pasadizo xeble au ere. Bi egunetarako bertsotara joanak giñan; da, San Lorentzo gauean bertan lo eginda, urrengo goizean Kakoren ostatuan gosaltzen gu, ta an dijoakigu Pakito bisitatzera. Nagusiak segituan:

–Zer artuko zenduke, Pako?

Ta:

–Nik kafe beroa besterik ez.

–Ta kopatxoren bat? –dio nagusiak.

–Ori bai.

Alaxe, aulkian eseri ta kontu kontari an ari zitzaigun, ume batek bezela bi anak zintzilik zituela. Sartzen dira iru edo lau gizonezko kanpotarrak jangelara, ta aietako batek galdetzen dio:

–Aizu, adiskide: nik gauza auxe jakin nai nuke: badakit bi anai igoaltsuak zeratela. Baiña biotan txikiena zein da: zu ala bestea?

Ta Pakitoren erantzuna:

–Ni naiz aundiena. Bestea metro erdi bat motzago da.

Parrez gozatu arazi zuen jendea bapo, ta bera ere orduantxe gustora. Izketan etzan makala. Ari illea artzen ez pentsa errez zanik. Juergista ikaragarria gizarajo ura. Orretzek ondatuko zuela esango nuke dudarik gabe. Anaia, berriz, zintzo amorratua omen zan. Ara zer alde egoten dan pertsona batetik bestera. Bakoitzaren grifa desberdiñak eta jokabide nabarmenak. Pakitoren opizioa alamoduzkoa izaki, ta parrandak endredatzen gizona, sarritan uste baiño len.

Gure ume denboran ez-ezik, geroago ere Euskalerrian geientsuenak maiteko zuten Pakito. Soiñu jole sonatua zan. Artista utsa gaiñera, askoren iritziz, Berastegiko Txikia. Nik ez dakit nola moldatu zitekean. Pianoko soiñu aundia erabiltzen zuen. Sillan eseritzean, belaunez bera gelditzen zitzaion soiñuaren zati bat, eta goi aldean berdin. Kokotza gora jasota jardun bear derrigorrez.

Leitzako pestetan ikusi nuen nik lenengo aldiz. Artean amar urte neuzkan. Anai zarragoa ta biok joan giñan. Tolosako Erramon soiñu jotzen bakarrik ari zan plazan. Guk ez genekigun, baiña laguna falta arek; eta jendea galdezka asi zitzaion:

–Nun da Pakito?

–Ez dakit, beti galduta ibiltzen da ta.

Alako batean an dijoa. Igo da oltzaduraren gaiñera, ta ekin dio Erramonek:

–Au al dek garaia? Ez al ekian zer ordutan etorri bear zan?

Arrazoiz itzegin, baiña alperrik. Berak kopeta beztu, artu katxarro aundia ta prest lanerako. Asten dira biak batera ta ura mugimentua! Aiek orroak atera arazten zizkion soiñuari Pakitok batez ere; ta, pieza bat bukatu ordurako, bestearekin asi ta segi ixillunerik gabe. Jendea zale bazan ere, dantzatu arazi zuten ederki arratsalde artan Leitzako plazan.

Tolosar Erramon au soiñu jole bikaiña genduen, da gizon argia ta alaia. Batzuek edo geientsuenak Ramontxo deitzen zioten. Gaztetako izena. Berastegiko Txikiaren edade modukoa izango zan gutxi gorabera. Alkarrekin erriz-erri sarritan ibiliak gera. Oraindik biziko da noski.

Pakito aspaldi samar il zala entzundako oroipena daukat. Azkeneko aldiz, Legorretan bertso saioa egin ondoren, antxe ostatu batean ikusi nuen. Baztarrean eseri ta soiñu jotzen ari zan. Baiña etzuen berea; beste norbaitek emango zion auspo soiñua. Mutil koskorrak erabiltzen duten tamañaikoa bai-zan. Ala ere, teklak billatzen zizkion dotore asko. Naiz-ta beatzak makalduak eduki, antzematen zitzaion berezkotasun aberatsa zuela langintza orretan.

Ordurako zartua ta umorez urri antzean. Ez da arritzeko gauza ori. Egun eder pranko pasako zuen, sasoi zeukan bitartean, gure Pakito soiñu jole artistak.

Diodan auetaz aparte, Berastegin lagun da adiskide jator asko izan genituen Uztapide zanak eta nik. Ura il zalako, bion partetik jaso dezala ango jendeak nere besarkadarik maitekorrena. Agur, Berastegi!

ELGOIBAR

Elgoibarren bagenduen lagun ixtimagarri bat. Etxegiña deitzen zitzaion. Jerman zuen izena. Apellidoa zer zuen ez dakit, sekulan ez nion iñori galdetu ere ta. Au, berez, Ermuako semea zala uste det. Baiña gaztetan andik Elgoibarrerera aldatua, ta geroztik bertan bizitua ain zuzen.

Gizon leiala ta serbitzala zala badakigu. Edozer mesede egiteko beti gertu zegoen oietakoa. Tallerrean eguna sartu ta gero, illunabarrean da gauzez ostatu batean kamarerotzan igoal ibili oi zan. Langille purrukatua.

Bein kontatu zidan pasadizo xelebrea. Jaietan andrea ta umeak zinera eramaten omen zituen. Baiña larunbat arratsean alamoduzko koadrilla egokitu noski, ta gaupasa eginda igande goizean joan da jo du etxeko aldaba. Iriki dio andreak barrendik atea.

–Egun on –sarreran gizonak, eta erantzunik ez.

Sukaldera zuzenean, da ama zarrari era berean:

–Egun on Jaungoikoak.

Eta arek ere berdin: itzik ez.

«Orrela al zerate? Zeuentzat kalte!» pentsatu ta bizarra ebaki, aurpegia garbitu, erropak aldatu ta berriro segituan kalera Etxegiña.

Ostatuan gosalduek ondoren, lagun artean baxoerdiak artzen batetik bestera ibilita, lengo tokira joan eta bazkaldu du ederki. Ta, kontua ordaintzerakoan, galdetzen dio ostatuko neskatxari:

–Aizu: tomate poterik bai al dezute emateko moduan?

–Bai, gizona. Zenbat bear dituzu?

–Bakarra naikoa det.

Alaxe, bereala eramane neskatxak, eta onela dio Etxegiñak:

–Eskerrik asko. Kobratu au ere bazkariarekin batera. Orain osatu naiz.

Pixka batean bertan egonda, zinerako garaia urreratzen ari zala ta itzuli da etxe aldera. Jo du aldaba goizean bezela. Bai andreak atea iriki ere azkar asko.

–Arratsalde on –gizonak.

–Bai zuri ere –erantzuna.

«Kontxo! Au izketan asi dek. Ama nola ote dagoen ikusi bear diat» pentsatu ta sartu da sukaldera, ta:

–Arratsaldeon.

–Bai zeuri ere, Jerman. Etorri al zera?

–Bai –esanda, txaketaren poltxikotik atera tomate potea, ta maiaren gainean utzi.

–Ori zertarako ekarri dezu? –amak galdetu zionean, Jermanen erantzuna:

–Goizeko muturrekin jartzeko.

Orduantxe egin pakeak noski. Artu andrea ta umeak eta zinera. Pelikula bukatu zanean, etxera. Ordurako, ama zarrak afari-merienda prestatua omen zeukan, iñoiz baiño ohea gainera. Jan zuten garaian, emakumeak oso kontentu losintxan da berriketan, baten antzera bestea; ta andreak esan:

–Zoaz oera, Jerman, onuzkero nekatua egongo zera ta.

Ori entzun zuenean, «nik merezi aiñako arrazoia eman zidak» pentsatuaz, laister gelara joan omen zan, da oean sartu da lo seko gau guztian. Urrengo goizean, betiko ordu moduan jeiki ta lanera zintzo ta pozik, bezperan puntu asko irabazi zituela ta.

Orrelakoxe izakera alaia billatzen nion nik Etxegiñari. Gurekin ongi portatzen bazekien, Elgoibarrera joaten giñan bakoitzean. Bertsolariak maite zituen. Oso gogozko zitzaizkion. Illunabarrean, trenaren estazio edo geltokiraiño lagunduko zigun geienetan, da an agurtzen genduen alkar urrengorarte.

Berak ere apizio izugarria zuen bertsoarako. Banaka batzuk entzun genizkion. Gu ikustean, kalean igoal asi oi zan kantari, buruan zeraman txapela erantzi ta edukazioz gainera. Gizon alegre utsa. Etzuen gutxi balio aren animoak edozertarako ere.

Oso zartuta illa da gizarajoa, ta ez det uste errian aztua daukatenik. Bertso idatzien leiaketak antolatzen dituztela daukat entzuera Etxegiñaren izenean Elgoibarren, urtean bein edo orrela.

Diodan erri euskaldun ontan, Santa Ageda eskerako oitura beroa dute, lendik datorrena; ta Etxegiña koplari zutela ibili oi ziran kalez-kale. Baserrieta-
ra ez dakit joan izan diran iñoiz. Baiña koadrilla izugarri ongi prestatua zegoela
antzematen zitzaion, soñu jolez, panderistaz, kantorez ta abar.

Nik telebistaren bidez ikusi nituen bein, da arrituta gelditu nintzan. Oso
ederki ematen zutela iduritu zitzaidan. Kamararen aurrean Etxegiñak bi edo iru
bertso kantatu zituen, da besteak soñuz ta alaitasunez aiek berritu edo errepi-
katu.

Gauzarik garrantzitsuena, berriz, au dala esango nuke danetan: Santa
Ageda eskean bildutako diru guztia Miserikordirako edo erriko beartsuentzat
izaten ote dan entzundako errezelotan nago. Ori orrela baldin bada, bakoitzak
al duen neurrian erantzungo dio eskeari, ta bestela baiño askoz geiago bilduko
da. Laguntza onak edozeiñek ixtimatzen ditu, ta premian dagoenak ez gutxiena
noski.

Etxegiña berez gizon prestua zanez, maixu bezela erabiliko zuten seguru
asko, zearo zartu bitartean. Azkenerrako, eziñak erasan da derrigorrak erretira-
tu arazi ura ere, beste askoren antzera, osasuntsua ta umorez jantzia bazan ere.
Bein bere galga batera iritxi ezker, errez errenditzen baida pertsona. Betirako
iñor ez jaiotzen, denboraldi neurturako baizik.

Urte auetan, Etxegiñaren tokia Uraiñek betetzen omen du, ta itxuraz
gaiñera. Santa Ageda eskean kantatzeko ez du bildurrik Urain onek. Ezkondu
ta Arrasaten bizi da, bertako taller batean lana egiñez. Baiña Elgoibar sarritan
bisitatzen duen kontuak esan oi ditu. Orko semea izanik, sorlekua gogoan.

Udaran emen Orion ere oporretan egun batzuk pasatzen badaki, bere
familiarrekin etorrira. Noizean bein ikusten degu alkar. Gizon atsegiña ta gusta-
garria da nereko. Ez du nasketa aundirik jarriko dabillen tokian. Bertsozale
sutsua, berriz. Berak ere poliki kantatzen duelarik, besterenak gogozko zaizkio.
Errespetoz egongo da entzuten, bertsolariak kantari ari diranean, belarriak erne
dituela.

Elgoibarren beste bat bazan bertsoak dexente moldatzen zituena. Armaita
deitzen zioten danak. Ori jaiotetxearen izena izan zitekean agian. Txapelketan
zerbait ibili zala daukat buruan, bigarrenengo maillan noski. Zurgin tallerrean edo
ebanisterian zuen ogibidea.

Gazterik illa da gizarajo ura. Istripuz uste det entzun nuela, segurantzi

osorik ez det baiña. Ainbat pertsonak galtzen dute bizia kamio baztarretan, kotxeak alkar jota edo bidetik irten da mendietan bera amilduta. Gauzez ta goizaldeko ordu illunetan ibillera arriskutsua jartzen da. Amaitari ere orrelako zerbait igoal gertatuko zitzaion.

Dana dala, Etxegiñaren arrazoia datorkit gogora, idazten ari naizen une ontan. Beingo batez galdetu omen zioten:

–Zu nolatan etorri ziñan Ermuatik Elgoibarrera?

–Ni errekan sartu nintzan da urak ekarri ninduen ezer kobratu gabe debalde.

Ateraldi dotorea. Zertan jardun esplikazio luzeak ematen? Ermuan jaio arren, nun-nai bizitzeko eskubidea berekin zeukan Etxegiñak. Erri txikietatik aundietara jotzen zuen jendeak lantoki billa garai aietan ere. Ori probatu duenak badaki.

Ermua ere mugimentu gutxikoa ezagutu genduen. Azkeneko ogei ta amar urte auetan azi da ikaragarri. Auskalo zenbat bizilagun dauzkan gaur. Tallerrak, berriz, ugalduko zirala bistan dago. Ortik aparte, Eibar oso urrean edukitzeak asko balioko dio, oraingoz lan aukera izugarririk ez badago ere.

Alde guztietan kontu berdiña entzuten da bolara ontan. Gaztediaren enpleorik eza penagarria benetan. Ainbeste neska ta mutil irabazbiderik gabe, kalez-kale denbora alperrik galtzen ikusi bearra. Famili askotan orrekin daude buruauste garratzak, eta ez dakigu noiz arte.

Len Elgoibarrera ta Mendarora kanpotarrak edo auzoerrietako jendeak joera aundia zuen, Zumaia, Deba ta oietatik batez ere. Goizeko trenean joan, fabrikan ordu mordoska sartu ta gauean etxera itzuli. Orrelaxe alegindu ta eskuratzen zituzten txanponak, ongi sakrifikatuaz noski. Emen pobreaki errezezik ez datorkio ezertxo ere. Nekearen bidez zerbait; kopeta izerdiz bustiaz alegia.

Dana dala, nik Elgoibar ezagutzen det piska bat. Aspaldiko urteetan bertso saio asko ditut an egiñak. Udar San Bartolome pestetan da Gabon Zarretako feri egun sonatuan, sarritan eramaten dituzte ara bertsolariak, batzuk eta besteak txandaka. San Isidro ere bai, nekazarien billera ospatzen dalako. Ta, tartean aitzakirik sortu ezker, jaialdiak antolatzen badakite.

Bertsozale amorratuak izan dira elgoibartarrak oraindaiñoan. Egun ede-

rrik pasa degu erri zoragarri artan, lagun jatorrez inguraturik, alkartasunik gozoenean. Baita bestelakoak ere.

Beingo batez, San Roke baillaratik deitu ziguten. Trenaren estaziotik gora igo ta ezker aldera dago diodan baillaratxo polit ura, ta antxe izan giñan iru bertsolari: Agirre, Lazkano eta ni, Lasarte. Laugarrena Uztapide zan joan bearra, baiña etzan agertu. Ez dakit zer pasa zitzaion.

Alaxe, irurok egin genituen ango lanak. Eguerdian saio bat eta arratsaldean bestea zeuden izentatuak. Sarritan ez-ezik, gorputzaldi bikaiña neukan nik orduantxe ere. Gogoan edukitzeko modukoa.

Eguerdiko bertso saioa osatu nuen, ongi kosta zitzaidan arren. Ondoren asi nintzan barruan ozpinduta neuzkan guztiak botatzen. Urdailleko ta buruko miñez zoratzeko zorian zearo gaizki nengoela ikusirik, oea eskatu nioten da segituan eman zidaten. Bazkaltzeko gauza ez, ta aspirinak artu ta oera. Etzuten esperoko arratsalde artan nere bertsoak entzuterik. Jai eratzailleak joan zitzaizkidan lo gelara, ea zer moduz aurkitzen nintzan galdezka. Kezkaturik zeuden nunbait gizarajo aiek. Onela zion batek:

–Pena aundia eman digu gaur zuri oker au gertatzeak, Lasarte.

–Ez bildurtu batere, gazte, ez da lenengo aldizkoa ta. Ni onelaxe bizi naiz, galanki suprituaz –erantzun nion, egia zan bezelaxe.

Orduan esan zidaten:

–Zerbait jan bear zenduke. Eskatu komeni zaizuna ta bertara ekarriko dizugu.

–Ez daukat jateko almenik. Laister jeiki ta kafe bero piska bat artuko det, bertsotan asi aurretik.

Garaia iritxi zanean, kantura. Al zana egin genduen San Roke baillaran. Entzule jendea gustora itxuran gelditu zan, eta gu ere kontentu. Danak agurtu genituen eta etxeratu giñan, «urrengo bat arte» esanda. Ontantxe amaitzen det Elgoibarko jaialdi polit ura.

BERTSOAK

NERE BURUARI

1/ Bertsoak egin nai ta
iñola ezin asi,
joera onek ez dit
egiten grazi.
Naiz gaztetan lan ontan
pixka bat ikasi,
burua arintzeak
dit aztu arazi.
Eziña nagusi
dala det ikusi,
sasoiak igesi
ta nik ezin eutsi;
onez aurrera ezin
gustora bizi.

2/ Ni sasoiak aspaldi
ninduen agurtu,
berak aldegin zun, nik
ez nun beartu.
Zer egin leike emen?
Datorrena artu.
Arronkan ezin asi
nola geran zartu:
azala zimurtu,
gorputza igartu,
aragiak urtu,
ezurrak agertu;
nere itxura ezta
asko edertu.

3/ Sasoia ta indarra
izan genituan,
ibili giñan ezin
errendituan.
Guk galduak ez dakit
nork jaso dituan,
len eman zizkigunak
kenduko zituan.
Orra or kituan
non utzi gaituan,
ta gu segituan
ezin ornituan;
bi gauz eder aiek nik
maite nituan.

4/ Indarrak du sasoia,
sasoiak indarra,
ortan seguru dago
Lasarte zarra.
Bi oiek galtzea da
oso gauza txarra,
gizonak nola duen
bizi bat bakarra.
Ez nago azkarra,
joko det baztarra,
gorputza kaxkarra,
ariña kaskarra,
ta oien antzekoa
lepo-zuztarra.



Leiza.

5/ Begiratuta nere
kolore berdera,
daukat aza zar baten
antza berbera.
Inguratutakoan
ixpillu aldera,
lotsatu egin bear
sarritan norbera.
Ta onez aurrera
danetik galera,
bagoaz gainbera
goizetik gaubera.
Arro bagiñan ere
umildu gera.

6/ Sasoi duen arte bat
ibiltzen da ongi,
sortzen badu jateko
ainbeste ogi.
Zartu ezkerro kejak
dauzkagu maizegi,
etsi ere egiten
degu errezegi.
Ixpirituz argi
naiz gorputzez nagi,
gezur eta egi
al dan arte segi;
ezin egingo degu
negar geiegi.

LEITZAKO ERRIARI

- 1/ Leitzako semea naiz
ni nere izatez,
zorionez an jaio
nintzan egun batez.
Bera eskertu nai det
bertsoen bitartez,
iñork beartu gabe,
nere borondatez,
iñoiz aztu ez dedin
Manuel Lasartez.
- 2/ Erri maite ark ez dit
neri egin gaitzik,
biziaren argia
ematea baizik.
Nork ordaindu lezake
olako emaitzik?
Asmatzen badet ezer
esateko itzik,
bertsoen paltan ez det
nik utziko Leitzik.
- 3/ Antxe dago izar bat
bezin dizdizari,
argi egin naiean
gure bizitzari,
lur artan sortu giñan
kristau bakoitzari.
Nik izate guztia
zor diot Leitzari,
argatik izan nai det
bere serbitzari.


- 4/ Gero eta geiago
oroitzen naiz Leitzez,
nerekin iñoiz gaizki
portatu balitz ez.
Ezin naiz aztu ango
senide bakoitzez,
baiña pena aundi bat
badet zorigaitzez:
biotzak nai duenik
ezin esan itzez.
- 5/ Biotz oneko jende
apal da prestua
dala Leitzan neretzat
nago sinistua.
Nola egin baneki
nik aien gustua,
saiatzea litzake
arrazoi justua,
baiña ezin asmatu,
au trantze estua!
- 6/ Argibide bat nago
eman bearrian:
Plazaola erreka
gogoangarrian,
antxe jaio nintzan ni
Franki baserrian;
ta gero bataiatu
Leitzako errian,
goi-aingeru Mikelen
eliz ederrian.

7/ «Leitzatarra naiz» diot
nik biotz xamurrez,
egia aitortzeko
ez nago bildurrez.
Ez det uste aztuko
nintzakenik errez
azi nindun amaz ta
jaino nintzan lurrez;
oiek ez dira ordaintzen
zillarrez ta urrez.

8/ Ustez garbi esan det
nongotarra naizen,
nere etorkizuna
Leitzatik asi zen.
Guk ama eta aita
angoak giñuzen,
aiton-amonak ere
leitzarrak ain zuzen,
ara gure sustraiak
nondikan datozen.

NERE SEASKARI

- 1/ Seaskatxoa, gaur zuregana
natorkizu maite-miñez,
nik aurtzaroan lo artzen nuen
amak zuri eragiñez.
Emen ikusi nuen argia,
emen ikasi nun oiñez,
Franki txokoan azi nintzan ni
pozez eta atsegiñez,
nere amaren bularretatik
trago goxoak egiñez.
- 2/ Gogoratzen naiz epel goxoan
nola gordetzen ninduzun,
zure txokotik amari kantu
goxo asko nion entzun.
Bertsotarako doaiak neri
zuk emango zizkidazun,
gaur maite detan euskera ere
zeuk erakutsi zidazun,
ene seaska, nik nola esan
zenbat on egin didazun?
- 3/ Arrats askotan zera, seaska,
neri amets eragiña,
nere begiak beti aurrean
dute zure imajiña.
Aritzezkoa dezu gorputza,
giertsua eta piña,
amodioak sortzen zituen
aingeruentzat egiña,
non ote da zu egin ziñuen
fede oneko zurgiña?



Manuel Lasarte eta bere anai Eusebio.

- 4/ Txori-kabi bat utsa bezela
baso-txuloan gordean
gelditu ziñan, baserritxoa,
guk aldegin ondorean.
Egunez illun egongo ziñan
ta illunago gaubean,
zuk zer pentsatu ote zenduen
zendukazun edadean,
zeure burua ikusirikan
alako bakardadean?
- 5/ Franki, etzaizkit aztutzen zure
erreka eta basoak,
jaio ta emen eman baintun
nere lenengo pausoak.
Gero Aiara aldatu giñan
senide ta gurasoak,
betiko agur egin genizun
zuri pameli osoak,
orduko gure negar-zotiñak
ditut gogoan jasoak.
- 6/ Udaberrian aurten ikusi
nuen gure sorlekua,
eguraldia ere ona zan
eder paregabekua.
Kantari ari ziran gogotsu
txoriak eta kukua,
arrigarrizko poza izan zan
neretzako ordukua,
bertsoen bidez esaterikan
ez dagoen modukua.

SEMEARI

Emen dauden bertso aukerak, gure seme Euxebiori jarriak dira.

Guk erreri txiki bat daukagu emen Orion, eta nik nere bitzita geientsuena burni lanean eraman det, orain, osasunaren eskasiak eraginda, utzi samartua banago ere. Gure semeak ortantxe ikasi zuen nerekin batera, eta gaur berak jarraitzen du aitaren tokia betetzen

Len garai batean bezelako lan aukerarik ez dago, baiña uste det, beste aldetik begiratu ezkerok, naiko zer egin jarri zaiola Euxebiori. Zer da motiboa? Auxe, garbiro esateko: beretzako eta neretzako eguneroko ogia etxera ekarri bear duela, alegia; eta gaur oso zaildu zaizkigula gauzak.

Ematen aspertu ezean, bada nork eskatua. Eskulanaren etorkizunak, berriaz, beti dira urriak.

- 1/ Nik tallertxo au moldatu nian
neke gogorak artuaz,
perezik gabe lana egiñez
egun luzeak sartuaz.
Urte batzuek pasa nizkian
au ezin eskuratuaz,
egin nuena egin nin, seme,
irekin gogoratuaz.

- 2/ Seme, len ere badakik baiña
berriro nai nitek esan,
zuek azitzen ari nintzala
nere bitzita nola zan.
Izerdi pranko aterea nauk
emen borran edo mazan,
bearko ari pamelirako
zer janik sortuko bazan.

- 3/ Erreparoa jarri zak, seme,
nere bizitza estura,
estalpetxo au ondo kostata
ekarria dek eskura.
Ekaitz-aldian babesa zeukak
ta eguzkitan freskura,
iñoiz galduko bagendu, onek
emango likek tristura.
- 4/ Ikusten nian bizitzarako
au bearrezkoa zela,
badakik, seme, nere aldetik
ni alegindu naizela.
Esango nitek i ere emen
pozik biziko aizela,
lanean zintzo jarraitzen badek
orain artean bezela.
- 5/ Nere denboran ez diat izan
nik alperraren konduetik,
emen etziok bizitzerikan
beste batzuk lagundutik.
Geuk egiñetik jan bear diau
ta ez iñori kendutik,
kontzientzia garbi degula
joan gaitezen mundutik.
- 6/ Badakik aitak emengo martxa
ire gain utzi dikela,
uste dit emen lana eginda
gizon bat bizi leikela.
Euxebio, ik ongi zekiat
biotz aundia dekela,
poz bat bazeukat: onez aurrera
ik mantenduko naukela.

7/ Orain ainbeste deskantsu ez nin
bizi guztian izan nik,
alde ortatik gustora niok
ta ez diat zer esanik.
Bizimodua aldatu zaidak
i seme on bat izanik,
garai batean ez nian uste
ola biziko nintzanik.

8/ Naiago nitek gauzak egoki
aterako balitzaizkik,
baiña munduko bizitza onek
zorion osorik ez dik.
Eziñak eta larri-aldiak
neretzako izan dizkik,
ta iri ere seguru asko
arantzak sortuko zaizkik.

AIAKO ERRIARI

- 1/ Goiko gaillur batean
ikusten da Aia,
guk maite degun kabi
goxo, alaia.
Kutsu zikin gabeko
lur sano, lasaia,
urrutira zabaltzen
du garbi-usaia.
Artu dedan gaia
badet landu naia,
orain da garaia
ta bear det saia;
ni ez naiz erri polit
orren etsaia.

- 2/ Ostalariak Aian
beti dauzkagu zai,
janari goxo asko
dute eman gai:
babarrun da saieski,
txorixo ta urdai,
odolki ta txuleta,
oillasko ta arrai,
arkume ta gaztai,
ardo zarra lasai,
kafe ona noiznai,
patarra ere bai.
Sabela berotzean
jartzen da alai.

- 3/ Aian euskera ere
ez da aldrebesa,
garbia ta ulertzen
oso erreza.
Ikasi nai duenak
bertara jo beza,
utzi alde batera
lotsa ta pereza.
Guk lagundu-eza
da orren pobreza.
Egizko babesa
lortu al baleza,
orretxen billa dabil
estu ta presa.
- 4/ Aian omenaldi bat
bein egin zidaten,
martxoan zortzi urte
baziran aurten.
Erregali ederrak
eman zizkidaten,
nola agertu zenbat
on egin didaten?
Zailla da esaten
zer fintasun duten,
erakutsi zuten
zenbat maite nauten;
bear baiño geiago
jaso ninduten.

- 5/ Aian igarotako
urte bakarretan,
ez nintzan egokitu
esku txarretan.
Banuen konfiantza
lagun jatorretan,
kristauak ezagutu
oi dira obretan.
Ni omen orretan
kezka gogorretan,
gazte ta zarretan
zeukaten arretan,
askorekin gelditu
nintzan zorretan.
- 6/ Naiz-ta bertso-lanean
egon aspertua,
umorea pixka bat
zait xuxpertua.
Aia, zure emaitza
nuen onartua,
noski ortaz egongo
zera oartua.
Erri alkartua
zan or agertua;
ez naiz baztertua,
ongi eskertua.
Ori guztia daukat
nik ulertua.

7/ Leitzan jaioa nintzan
ni Franki maitean,
antxe Plazaolako
mendi tartean;
ta bertan bizitua
amabi urtean,
Aiarako bidea
artu bitartean.
Lengo gerratean,
asarre betean,
lau anai batean
an ziran frentean;
naiko tristura bazan
gure artean.

8/ Gero gerra ondoko
gosete latzean
ez giñan etorkizun
aberratsean.
Artoa ta garia
zeuzkanak etxean,
iriña izaten zun
aiek egotzean.
Gu larre motzean
ta tripa otzean,
maiera biltzean
mixeri beltzean;
txutik ibiltzen giñan
juxtu antzean.

EZKONTZA BATERI

Emen agertzen diran bertso auk, Martin eta Agurtzaneren ezkontza egunerako moldatu nituen. 1990'garren urteko ekainaren 2'an izan zan diodan ezkontza au. Ain zuzen, mutilla Azpeitiko semea; eta neskatxa, berriz, Zegamako. Biak ezkongai zeuden bitartean, txalet berri bat zutitu zuten Zegamako errian, bertan bizi al izateko asmoz.

Neregana Martiñen anaia Manuel etorri zan, bertso batzuk nai zituela esanez, bazkalondoan ezkonberrieri berak kantatzeko opari gisara. Oso mutil jatorra da Agirrezabalagatar Manuel au, neretzat beintzat; eta bertsozale purrukatua gainera.

Pozik egin nizkion, al nuen modura. Ez da errez izaten, egun bereko giroa ikusi gabe, itxuan bertso klase auk antolatzen. Baiña saiatu nintzan. Ez dakit asmatu nuen.

- 1/ Iritxi zaigu egun aundia
lendik espero genduna,
ori dala ta egin nai nuke
nere bertsozko jarduna.
Badakizute jan da edanez
sabela bete deguna,
ta orain pesta antolatzea
da guri dagokiguna.
- 2/ Jatetxe onak toki askotan
dauzkagu Euskalerrian,
oietako bat Liernin dago,
mendigain zoragarrian.
Au goraltzeko itzikan ez da
nere memori urrian,
baiña eskertu bearra daukat
al nezakean neurrian.

- 3/ Gaur zorionez gure anaia
Martin zaigu ezkondua,
aspalditxoan zedukan kezka
du burutikan kendua.
Ta Agurtzane egun onen zai
da gaixoa egondua,
biak gustora baldin badira
dana dago konpondua.
- 4/ Zuen ezkontza iduritu zait
leiala ta aberatsa,
bide onetik eman dezute
lendabiziko urratsa.
Lorez beterik dagola esan
liteke zuen baratza,
frutu ederrak sortuko dira,
ortan badet esperantza.
- 5/ Biok bildurik gaur Lierniko
Amaren magal berora,
ukigarri zan senar-emazte
egin zeraten denbora.
Zuen biotzak iritxi dira
maitasunezko girora,
nik desio det gauza berdiña
gerta dedilla gerora.
- 6/ Ezkonberriak orain zerate
egun zorionsuetan,
baiña bizitzan nasketak ere
sortzen dira batzuetan.
Atsegin aldi goxoetan da
une naigabetsuetan
alkar ulertu eziñik iñoiz
ez bedi izan zuetan.

- 7/ Iñork al daki ezkondu arren
nola bizi litekean:
poz-atsegiñez beterik edo
suprimentuzko nekean?
Zuek ikusi nai zaituztegu
batasunezko pakean,
ortik aurrera nik ez dakit zer
eskatu genezakean.
- 8/ Etorkizuna zer izango dan
ezin egin esamiñik,
baiña zuetan ez leike egon
gaiztakerirako griñik.
Fede onezko amodioak
nola ez duen berdiñik,
alkar maitatzen jakin ezkerro
ez dago bizi eziñik.
- 9/ Senarrak bere lanak eginda
etxera datorrenetan,
zuk, emaztea, goxoki artu
itzikan xamurreneta.
Batek besteari laguntzea
bearrezko da benetan,
amodioa biurtu dedin
emaitzik ederrenetan.
- 10/ Gure Martiñek gazte denbora
Azpeitin ongi zeraman,
ta Agurtzanek bere errira
nai izan digu eraman.
Onez aurrera txalet batean
biziko dira Zegaman,
maiz ikusiko al degu nola
urrutira ez deraman.

LEITZA-LARREKO ZUGAITZAK

Donostiko lagun batzuek neri pelikula bat egin zidaten. An ibili giñan Franki baserrian barruan, eta ardiekin kanpoan ere bai. Artzai papela zan nere orduko eginkizuna; ta ortik aparte beste asko.

Etxeak beian ukuillua du, ta goien logelak, sukaldea ta orrelakoak. Erdian, sala aundi bat. Zuraje bikaiña. Bildurgarrizko prontalak. Soliberiak berdin. Eta zutik dagoen abe ikaragarria, ikustea merezi duen oietakoa.

Bere ondoan jarri zuten lengo moda zarreko seaska, ta ni ari eragiten jardun nintzan eserita, aitonak bezela.

Gaurko seaskak bezin dotorea ez, baiña gure aurtzaroko garaian alakoxeak izaten ziran baserrietako seaskak. Ez det uste aztutzekoak diranik aiek ere, eskertu bearrekoak baizik. Aurrik ez genduen, baiña kamara grabatzen ari zan bitarteko lana izan zan ura.

Leitza-larreko piñu sonatuak ere bisitatu genituen bide batez, gaztetan an artzai ibili nintzalako.

Pelikulan agertzen dira batzuk; danak ez. Eguraldia pixka bat illundu zitzaigun azkenerako. Gero, berriz, piñuak oso ugari alkarren ondoan, eta kamarak ezin ongi artu.

Nik bertso batzuk moldatu nituen, 1981'garren urtean. Emen daude.

Baiña ez auek bakarrik. Geiago ere badira. Sail txikietan egiñak dira, nola modu askotara kantatu bearrekoak ziran.

Gure sortetxeari ere egin nizkion, Franki baserriari alegia; ango seaskari eta abar.

Beraz, emen daude bi bertso-sail, seina alekoak, sei amarreko txikian eta beste sei amarreko aundian egiñak.

- 1/ Emen dauzkagu berdin
gabeko zugaitzak,
jaio giñan tokiko
lurraren emaitzak.
Auek ez ditu iñoiz
naigabetu gaitzak,
esango du ikusten
dituen bakoitzak:
«Zer mendi aberatsak
dauzkan gure Leitzak!».

- 2/ Arbol auen bizitza
daukat nik buruan:
berrogei ta zortzi bat
urte inguruan
beti ikusi ditut
oraingo moduan.
Ainbeste zugaitz eder
sail txikiaguan,
ez dakit beste iñun
bai ote daguan.

- 3/ Zugaitz ederrez ongi
jantzita badago,
mendiak ematen du
askoz politago.
Zumar, lizar ta gaztain,
aritz eta pago,
baso ontan aukera
denetatik dago,
ni begira aspertu
eziñikan nago.

- 4/ Ardien atzetikan
txistu ta armoni,
gazte askorik emen
asia nintzan ni.
Erabat aztutzerik
etzaigu komeni;
bertakoa izanik
ezur eta mami,
maitasun berezi bat
diot mendi oni.
- 5/ Mendi ontan ardiak
oso zabaldua,
batzuk gelditzen ziran
taldetik galduta.
Ni ere aien billa
aitak bialdua,
emen ibiltzen nintzan
nekeak auldua,
anai zarragoari
eskutik elduta.
- 6/ Janari goxo billa
onetik obero,
orixe da mendiko
ardien joera.
Iñoiz ondo bustita
goizetik gaubera,
zaku zarrak jantzita
burutikan bera,
gaztetan emen artzai
ibiliak gera.

BASARRI, UZTAPIDE ETA ERNIO MENDIA

Bertso auk ere pelikularako egiñak dira, Basarri eta Uztapideri eta Ernio mendiari, eta argatik daude iru ta iru.

- 1/ Emen ditugu bi bertsolari
Uztapide ta Basarri,
garai batean amaika bertso
boteak gera alkarri.
Ainbat urtean ibili giñan
izan ere erriz-erri,
Euskalerrriak badaki ondo
maixu aundi auen berri.

- 2/ Amezketako erri maitean
egin nintzan auen lagun,
Jainkoak daki guk esateko
zenbat kontu zar daukagun.
Irurok alkar anai bezela
nola ixtimatu degun,
gizon auekin igaro det nik
amaika gustoko egun.

- 3/ Mutil gaztea gertatu nintzan
ni laguntzaren bearrez,
bai alegindu ere laguntzen
auk ainbeste biderrez.
Kantatzen gendun pake gozoan
eta umore ederrez,
garai artako lagun arteak
etzaizkit aztuko errez.



- 4/ Gure Ernio neguan ez da
goxoa eta epela,
gu an aritu giñan urtean
bazan elurra ta jela.
Kuzkur ibili giñan mendiko
abere danak bezela,
iñoiz pentsatu izan nuen nik
otzak ilko giñuzela.
- 5/ Mendi altuak negu beltzean
gordelekurikan eztu,
ango bizitza zer zan ez leike
ikusi gabe siñistu.
Ekaitz eraso gogorrak iñoiz
artzen bagiñuzen estu,
txabola zar bat bagenduen da
ara oi giñan babestu.
- 6/ Aize olatu ta arri jasadak
txabola astintzen zuten,
ni bildurturik egon oi nintzan
alako otsak entzuten.
Amabi urterekin lanera
ara eraman ninduten,
ortik pentsatu gaztetan guri
zer erakutsi ziguten.

EIBAR ETA ZALDIBAR

Emen agertzen dira beste bertso batzuk, auek ere pelikularako egiñak.

Ni Zaldibarren asi nintzan lenengo plazan bertsotan, eta garai artan Eibarren ari nintzan lanean. Illeko emezortzi duro irabazten nituen lenengo, denboraldi batean; eta gero, azken aldira, ogei durora jaso zidaten soldata. Baiña andik laister aldegin nuen.

Emen bertsoz aipatzen det eta Maltzagan bada ostatu edo taberna txiki bat, estaziotik Plazentzirako bidean eskubi aldera. Tren-zubia pasa ta bereala dago ostatu edo taberna ori, bere aurrean estalpe bat duela.

Noiz edo noiz ara joaten nintzan ni ere erromerira, baiña bi gauza bear izaten ziran ara joateko: dirua eta nagusiaren baimena. Biak zaillak. Nik, dirurik ez nuenean, baimenik ez nion eskatzen nagusiari.

- 1/ Eibar aldean gaztetan egin
nitun lan torpe askuak,
perratzen nitun idi ta beiak,
zaldi, beor ta astuak.
Lan piñik egin ezin duenak
izaten ditu bastuak,
nik aiña neke egin gabeak
badira aberastuak.

- 2/ Aste guztia atsedean gabe
lanean ala pasata,
jai-arratsaldez lagun-artera
joateko dirua palta.
Larogei eta amar pezeta
nuen illeko soldata,
etzegon errez aiekin jazten
trajea eta korbata.

- 3/ Iñoiz edo bein Maltzagaraiño
joan nintzan erromerira,
batzuek dantzan ibiltzen ziran
ta ni aieri begira.
Xoxikan ez neukanean berriz
makilla artu ta mendira,
diru gabeko morroi pobreak
olaxe ibiltzen dira.
- 4/ Anai-arrebak, gazte garaiko
nere morroitzaren berri
etzekitenak baziran eta
orra jakiñean jarri.
Ainbeste pauso eman nituen
geroko oroimengarri,
orduko partez agur gozo bat
eskeintzen diot Eibarri.
- 5/ Lendabiziko kantari plazan
nintzan Bizkaian asia,
lenengo ogei durokoa nik
emen nun irabazia.
Nola agertu Zaldibarrentzat
dedan maitasun guzia,
baratza ontan loratu baizan
nere bertsoen azia?
- 6/ Asteasuko Lamitegi zan
nere orduko laguna,
bere ondoan frontoi ontantxe
nintzan bertsoan jarduna.
Pozgarria zan neretzat emen
pasa genduen eguna,
beñiere ez naiz zutaz aztuko,
Zaldibar maite kutuna.

BERROGEI TA BI URTE BERTSOTAN

Bertso auk dira 1986'garren urtean egiñak, berrogei ta bi urte bertsotan egin ondoren.

- 1/ Erritik errira ta
plazarikan plaza,
berrogei ta bi urte
ditut ontan pasa.
Gizonak daukanean
umore eskasa,
ez pentsa bertso-lana
danikan jolasa.

- 2/ Batek zer egingo du
gauza ez danean,
bere argitasunak
urri daukanean,
umorea ta poza
galtzen zaizkanean?
Entzuleak aspertzen
ditu azkenean.

- 3/ Gauz auetaz pentsatzen
gaba pasa det bart,
lo ongi egin banu
obe nuen anbat.
Baiña nere bizitza
olaxe deramat,
nekezko langintzari
loturik erabat.

- 4/ Erakutsiaz nere
aurpegi tristea,
erriari ematen
diot albistea:
zugaitz igartua zail
dala berpiztea.
Ikusita errez da
ori sinistea.
- 5/ Batek eduki arren
bekoki illuna,
izan lezake biotz
goxo ta biguna
kantatzeko burura
jaiotzen zaiguna.
Au da guri erriak
eskatzen diguna.
- 6/ Erri batek deitzean,
ari baiezkoa
emanik kunplitzea
degu bidezkoa.
Alkar serbitzea da
gauza legezkoa,
zuzen jokatzekotan
nai ta nai ezkoa.
- 7/ Ongi nagoenean
memoriz ta bozez,
oraindik kantatzen det
gustora ta pozez.
Bertsoa moldatzen da
buruz ta biotzez,
ni ortan nago nere
jakinduri motzez.

- 8/ Ez naiz olerkari bat,
bertsolari soilla,
lan ontan deramakit
emen urte-sailla.
Ez det iritxi gizon
jakintsuen mailla,
artista izatea
ain da gauza zailla.
- 9/ Bertsoak biurtzeko
poesi, olerki,
izketan jakin bear
nik baiño obeki.
Nere berri len ere
jendeak badaki,
naizen pixka izaten
kosta zait ederki.
- 10/ Ai, nik olerki batzuk
egin al banitza!
Saiatuko nintzake
erreza balitza.
Gurutzako geiegi
da olerkaritza,
orrekin ametsetan
alperrik gabiltza.
- 11/ Obe degu lan oiek
besterentzat utzi,
len baiño beragora
ez gaitezen jetxi.
Onak izaten dira
askotatik gutxi,
gu mailla orretara
ez gera iritxi.

- 12/ Ezjakiña izan naiz,
ez det beste penik,
au bildurrikan gabe
esan nezake nik.
Ta ez det uste iñor
sortu litekenik,
danen gustoko lanik
egin lezakenik.

DAMA BATI

- 1/ Beste dama bat zuk bezelako
edertasunak dauzkanik,
billa asita ere billatzen
ez det uste errez danik.
Nere begientzako ez dago
olako lore laztanik,
zu ikusi ta nik ez nezake
esan zerurik ez danik.

- 2/ Gorputza ongi egiña dezu
bere ezur da aragi,
nola anka ta beso ta gerri,
lepo, buru ta aurpegi.
Bizkar tentea, petxu gizena,
izar gisako bi begi,
esan litezken danak esanda
ere ez dira geiegi.

- 3/ Lengoan plazan dantzan zenbiltzan,
begira egon nitzaizun,
zuri aiñako kriskitin-otsik
besteri ez nion entzun.
Mutil sasoiko eder ugari
ondora bildu zitzaizun,
nik ez dakit zuk imana dezun
edo zer gertatzen zaizun.

- 4/ Zu dantzan ala ikusirikan
erabat txoratu nintzan,
abuztuaren laua zan, etzait
aztuko nere bizitzan.
Zure oin txiki, txukun, politak
arin asko an zebiltzan,
une batean nik uste nuen
aidean ote zenbiltzan.
- 5/ Udaberriko egunsentia
dirudien imajiña
dala zurea esango nuke,
ain da garbia ta fiña.
Zeruak berak duen molderik
politenean egiña,
amaika kezka emana eta
amets goxo eragiña.
- 6/ Aspaldi ontan zu zeralako
zer amets egin ditudan,
ez dakit itzez bear bezela
adierazten dizudan.
Zuk nere berri ez dakizu ta
argatikan zaude dudan,
naiago nuke bazenekizu
nik zenbat maite zaitudan.
- 7/ Ikusten dezu zureganako
dedan onginai itxua,
baiña zailla da zer dan esaten
nere kezkaren pixua.
Ori arindu lezakena da
zure maitasun goxua,
ea alaitzen didazun triste
daukadan biotz gaixua.

8/ Zu zera neri biotz xotilla
sutu zenidan txingarra,
animaraiño sartu zitzaidan
maitasunaren indarra.
Larrosa bezin polita eta
zerua bezin ederra
zera, ta pena det zuregandik
aparte bizi bearra.

NERE BILLOBATXOARI, BI URTE ZITUENEAN

- 1/ Goien degu Erregea,
zeru ta lurren Jabea,
gorputz-animen abea.
Auxe da guri besoetara
eman zigun landarea;
amodiozko lorea
da aingerutxo gurea,
jostallu paregabea.

- 2/ Au da lore usaiduna,
etxean sortu zaiguna,
bearrezko zitzaiguna.
Bera jaio zan unca da guk
beti gogoan deguna;
ura izan zan eguna
gure bizitza illuna
argiberritu ziguna.

- 3/ Lo egin da esnaeran,
begitxoen zabaleran,
izar eder bi zuregan
ikusirikan, aurra, nork daki
gu zenbat poztutzen geran?
Zer zoragarria zeran
ez dakit esango dedan
biotzak nai duen eran.

- 4/ Pozezko begirazuna
da egiten didazuna,
badakit maite nazuna.
Ezagun dezu biotz garbia
ta aberatsa dezuna.
Ori da edertasuna,
aurtxoa, zuk daukazuna:
egiazko maitasuna.
- 5/ Ez pentsa, sano izanik,
gaizki aziko zeranik,
zutaz aztuko geranik.
Zureganatzen gaituzu danok
muxu batzuek emanik;
gaur ez nezake esan nik
lur ontan iñor badanik
zu aiña maite dedanik.
- 6/ Aurra, au da txoramena,
gu biotan dagoena,
zorianikan onena.
Ainbeste aldiz poztu didazu
triste nedukan barrena;
eguzkirik ederrena
da gugana datorrena,
maitasunak dakarrena.
- 7/ Gure sukalde gaixoan
zera zorion goxoan,
bizi-leku erosoan.
Ama zureak apaintzen zaitu
ain era kuriosoan,
babestu bere besoan,
zeure aurtzaro osoan,
magal amodiosoan.

- 8/ Ni bai kantari ergela
amak egin ninduela,
zer nintzan etzekiela.
Aurtxoak ere antzeman dio
aitonak maite duela;
magalean daguela,
muxuka asten zait berela,
zergatik ez dakiela.
- 9/ Len lurrean arrastaka,
lau oiñean laprastaka,
gaixoa beti presaka.
Gero txepetxa egan bezela
asi zan txalapartaka;
ikasi zun taka-taka,
orain or dabil saltaka,
etxe guztitik bueltaka.
- 10/ Aingeru kariñosoak
azkartzen ditu pausoak,
nik luzatzean besoak.
Belaun gaiñean artzen det eta
kantatzen dizkat bertsoak;
orduan gure aurtxoak
nolako irripar goxoak,
zer egingo du gaixoak?

AMONATXO BATI

- 1/ Amonatxo bat ezagutzen det
urte sail izugarrian,
eta oraintsu izan naiz bera
bizitzen dan baserrian.
Goizean jun da etxera itzuli
nintzan illunabarrian,
bitarte ori pasa genduen
maitasun ikusgarrian.

- 2/ Nagusi jaunak zion: «Lasarte
gure baserri aldera
etorri da ta egun ederra
pasa bearrean gera».
Kezka neukan da nik egin nion
amona nun zan galdera;
erantzun zidan: «Zai daukazu ta
goazen biok sukaldera».

- 3/ Sartu giñan da antxe zegoen
beko suaren onduan,
silloi aundian exeri eta
erregin baten moduan.
Nik utsune bat neramakien
nere biotz saminduan,
ta amonaren goxotasunak
indarberritu ninduan.

- 4/ Zortzi aur azi zituen ama
dago ongi amonduta,
larogei urte beteak ditu
osasunak lagunduta.
Bere senarra il zitzaion da
bizi da alargunduta,
etxeko martxa seme zarrenak
artu zuen ezkunduta.
- 5/ Amonatxoak bizitzan zenbat
nekaldi ote du artu?
Daneri ongi egin bearrez
gaixoa erabat urtu.
Maitasun eta sinismen bidez
ixpiritu da biurtu,
ura zerura joango dala
aurrez liteke ziurtu.
- 6/ Aldatu zaio garai bateko
gorputzaren egitura,
ximurtu zaizka eskuak eta
aurpegitxo polit ura.
Soiña garbiro jazteko beti
izan du bere oitura,
baiña etzuen erabiliko
gaur askok aiña pintura.
- 7/ Datozen gaitzak jasotzen ditu
pazientziz eta umil,
erreumak jota egon bear du,
ankak omen dauzka debil.
Indargabetu zaigu gaixoa,
txutikan juxtuan dabil,
nik poz ederra artuko nuke
sasoi obean balebil.

- 8/ Beste pena bat: begietako
bista geiena galdua,
beti aurrean jartzen zaiola
lausoa edo gandua.
Bi izartxoren argitasuna
zartzaroak illundua
dio, ta berriz beregantzeko
badu naiko berandua.
- 9/ Sugur xorrotxa, kokotz luzea,
masail da ezpain sartuak,
ta gorputzeko juntura danak
nagitu ta gogortuak,
petxu aldeko bular iturri
aberatsak agortuak,
oiek guztiak berekin dauzka
amona gaixo zartuak.
- 10/ «Laixter ilko naiz» zion amonak,
baiña etzegoen estu;
beste munduan Jaungoikoaren
ondoan nai du babestu.
Eriotzari erantzuteko
beti omen dago prestu,
kontzientzia garbi daukanak
lotsatu bearrik eztu.
- 11/ Aurpegi gorri alai zeukan
naiz eduki zorroztua,
buru gainean ille mototsa
apain asko orraztua.
Garbitasuna zer ederra dan
ez dauka arek aztua,
oraindik ere nabari zaio
lengo txukun arrastua.

- 12/ Soiñeko beltza, tokilla aundia,
ori da bere jazkera,
era berean dotore utsa
mintzaeraren joskera.
Aria zuzen eramaten du
punta batetik bestera,
urra bezin aberatsa da
amona aren euskera.

AZARIA

Emen azariari buruz jarri ditut bertso batzuk. Baiña beraren berri jakin al izateko, artzaia edo baserritarra bear luke izan.

Garai batean, Zaldibiko Artxanberri bertsolaria mendian azariak arrapatzen ibili oi zanez, arek esaten zizkigun bitxo gaizto orrek nolako kalteak egiten dituen mendiko artaldeetan.

•Gure aita zanari ere sarritan entzun izan genizkion azariaren jokabideak zertsu ziran. Franki baserrian beti ezagutu baigenduen artalde itxurazkoa, eta tartean galtzen zitzaizkigun arkume ederrak.

Arek bildur izugarria ziola badakit azariari. Etzituela arkumeak bakarrik itotzen; baita bildots azi samarrak ere.

Eta nik iñoiz entzun izan det azariak ez dirala banaka ibiltzen, bi edo iru baizik. Ori orrela baldin bada, ardi indartsu ustekoak ere larrutuko dituzte aiek, alkarri lagunduaz dotore asko.

- 1/ Bildurti dabil artzai
dabilen gizona,
azaria du kezka
ematen diona.
Artaldean ori da
bitxorik gaiztona,
ankak azkarrak ditu,
gaiñera bixt ona,
animalietan dan
lapurrik lixtona.

- 2/ Azariak baditu
bere alderdiak:
saltalari ona ta
begiak argiak.
Gustokoenak ditu
janari garbiak:
koneju, egazti ta
mendiko erbiak;
edo, aukerik badu,
bildots ta ardiak.
- 3/ Mendingian dabillanak
ardiekin artzai,
mantendu bearko du
amaika tripazai.
Bitxorik maltzurrenak
ditu bere etsai;
azariak badabiltz
gauean ardi-zai,
artzaiak ez lezake
lorik egin lasai.
- 4/ Artzaia illuntzean,
ardiak lagata,
txabolara dijoa,
garaia dala-ta.
Urrengo egunean
naigabe galanta,
taldetik arkumerik
ederrena palta
duela bereala
konturatzen da-ta.

5/ Azari nagusia
joaten da aurrean,
beste bi edo iru
atzetik urrean.
Erreminta ederrak
ditu muturrean;
aiek sartzen badizka
lepo-zintzurrean,
arkume gaixoren bat
laister da lurrean.

6/ Azariak lendik du
lapurraren fama,
ongi ezagutu zun
norbaitek emana.
Deskantsuan igaro
oi du egun dana,
jendea lo dagola
biltzen du zer jana,
gaubeko errelebuan
egiten du lana.

7/ Lapurreta egiten
duen bakoitzean,
bildurtzen da etorri
leioken gaitzean.
Ankak jasotzen ditu
norbait sentitzean;
urrutiratu eta
lasai arkitzean,
gordeko da sasia
edo arkaitzean.

- 8/ Badu argitasuna
buru-begietan,
eta gorri gutxi
bi belarrietan.
Bizi guztian dabil
litxarkerietan,
kalte pranko egin du
gure mendietan,
ta baserrietako
ollotegietan.
- 9/ Iñoiz ollotegira
menditik joatean,
presa du bakarren bat
ostu bitartean.
Ollolak jartzen ditu
karraxi batean,
eta zakurrak zaunkaz
asarre betean,
azariak andikan
aldegin artean.
- 10/ Laixter aldegingo du
etxe arrotzetik,
ollorik galdu gabe
mutur zorrotzetik,
berekin du naikoa
piper da gatzetik.
Alperrikan segiko
diozu atzetik,
ez leike arrapatu
ura isatsetik.

11/ Erbikumeak ere,
kaban daudela,
badakit azariak
jaten dituela.
Ikusten da janari
fin zalea dela,
ondamendi utsa dan
pikaro ergela,
iñork inguruan nai
ez duen pardela.

EZKONTZA EGUN BATEKO BERTSOAK

Abaltzisketan, Garmendi-txiki baserrian, Joxe eta Lurdes ezkontzen ziran; eta Joxe Antonio Zubeldia bertako aita zarrak bertotarako apizio aundia izan bear du noski, eta neri eskatu zizkidaten bertso batzuk, aitak berak kantatzeko ezkontzako egunean, eta aien agindura egindako bertsoak dira emen agertzen diran auek.

Pamelian bost senide omen dira, eta bostak ikasketak egiñak. Gaiñera, danak kanpoan omen zebiltzan, eta guraso zarrak bakarrik etxean, lanean ondo nekatuak.

Aitak ez omen zuen uste iñork etxeko martxari elduko zionik. Nola ikasketak eginda zeuden, danak kanporako ziran etsian omen zegoen.

Baiña egun batetik bestera or gogoratu zaio bere seme Joxeri etxeko martxa artu bear duela.

Orixe jakin zuenean ez omen zan asarre aita zarra. Ura omen zan poza artu zuena noski, berriro ere jarraipena bazuela eta!

Arako ere, ikasketak egiñak izateak ez dio kalterik egingo Joxeri.

- 1/ Une batean nik nai bezela
buruz jantziko banintza,
seme-alaba ezkon berriak,
zuetaz nai nuke mintza.
Zuen guraso zarrak ere gaur
ezti gozotan gabiltza,
biok alkarri lagundutzeko
eman diozute itza,
ta Jaungoikoak bedeinka beza
zuen munduko biritza.

- 2/ Zeuen ezkontza egin dezute
sasoi eder da freskuan,
ezezko itzik ez degu entzun,
bi aldeak baiezkuhan.
Alkarrengana bildu zerate
maitasun egiazkuhan,
etorkizuna jarri dezute
Jaungoikoaren eskuan,
bizitza on bat opa dizutet
biori urte askuan.
- 3/ Atzo neska ta mutil ziñaten,
gaur zerate ezkon berri,
ta egun onen edertasuna
gustatu zait izugarri.
Gaur diozuten maitasun ori
ukatu gabe elkarri,
al badezute, seme-alaba
eder batzuek ekarri,
izan ditezen zartuta gauden
aiton-amonen pozgarri.
- 4/ Eguzkiaren galda beroak
eta ekaitz erasoak
lurrealde ontan sarri ditugu
bizkar gainean jasoak.
Une batzuek mikatzak eta
beste batzuek gozoak,
bizimoduak ez dituela
egun danak erosoak,
ongi dakigu au pamelia
azi degun gurasoak.

- 5/ Onez aurrera zuek zerate
guraso zarren ordezko,
emen dezute bizilekua
egunezko ta gaubezko.
Gaurko gazteak nekazaritza
nola ez duten gogozko,
aizu, Joxe, nik garai batean
ez nuen pentsatzen asko,
zuk izan bear zenduenikan
baserriko maiorazko.
- 6/ Guretzat etzan bizibidea
erreza ta eroso,
ongi pentsatzen jarri ezker,
zailla eta nekoso.
Ondorengoak ongi azitzen
saiatzen da gurasoa,
umeentzako eskeiñi degu
geure bizitza osoa,
baiña ez gera orain bakarrik,
badegu zeñek jaso.
- 7/ Joxe, zuk dezu nekazaritzan
alegintzeko ustea,
pentsatu dezu ezkondu eta
bertan lanean astea.
Nik naiko nuke urte askoan
zuek ongi ikustea,
ta jai ziñan baserriari
luzaro txutik eustea,
onek gaixoak ez du merezi
emen bakarrik uztea.

- 8/ Seme leiala agertu zera
gurasoen onerako,
etxean martxa jarri diguzu
gu zartu geranerako.
Emazte on bat ekarri dezu
zeure aldamenerako,
zu bezelaxe gertu dagona
baserrian lanerako;
borondatea duen pertsonak
balio du danerako.
- 9/ Mendiak baiño itximaxio
geiago du gaur kaliak,
eroso bizi al bagindezke
ez gera neke-zaliak.
Baserri asko ikusten dira
piñu beltzez estaliak,
ta beste batzuk sutan erreak,
desegin da kixkaliak;
al dan garbien zaindu ditzagun
bizirik dauden aliak.
- 10/ Zoritxarrean mendian etxe
geiegi dira ustiak,
kalean ongi bizitzen zala
asko zeuden siñistruak.
Baiña an ere iritxi dira
urte zail eta estuak,
irabaziak urritu dira
ta ugaritu gastuak;
pobrearentzat danean daude
penak eta disgustuak.

EGUNSENTIA

(«Doiñua» «Zuk zer dezu, Arantzazu...»)

Emen agertzen diran lau bertso auek, egusentiarri buruz egiñak dira. Doiñua, berriz, Arantzazun fraileak erabiltzen omen dute, nik jakin dedanez. Oso polita dala uste det au berez. Bertsoak, berriz, sei puntukoak dira. Lau puntu motzak eta bi luzeak sartzen dira doiñu ontan, nik entzun dedan bezela baldin bada beintzat.

- 1/ Egusenti bakoitzean,
Jaungoikoaz oroitzean,
oi epelean nagoelarik
asten naiz ni otoitzean.
Bera leial serbitzean
ta oetik jeikitzean,
asko pozten naiz gorputz-animak
zoriontsu sentitzean.
- 2/ Beti leku berdiñean
eta garai jakiñean
izarrak argi egin oi dute
zeru-sapai urdiñean,
Jainkoaren jardiñean,
lorategi apaiñean,
erakutsiaz egusentia
emen degula gaiñean.
- 3/ Egusenti, argi berri,
zera gure alaigarri,
gauari agur egin diogu
ta zuri ongi etorri.
Bertsolari, abeslari,
denok gera ameslari,
txori gaixoak ere pozikan
asi zaizkizu kantari.

4/ Igaro da gau osoa,
jeiki zaizu gurasoa,
egunsentiak oia uzteko
eman dio abixoa.
Egin dezu lo goxoa,
esnatu zaitez, aurtxoa,
zuri bularra emateko zai
daukazu ama gaixoa.

PAZKO EGUNEAN

Emen agertzen diran bi bertso auk, Orioko elizan kantatzeko egiñak dira, Pazko egunean, meza nagusiko garaian.

Auen doiñua da balearena; emen, Orion, oso ezaguna. Erri guztiak dakiena, alegia. Baiña beste edozein doiñutan ere erabili litezke, zortziko txikia izan ezker.

- 1/ Zerurako bidean
kristau fededunak
jarriko dituela
gure Jesus Jaunak
itxaropen osoak
dira dauzkagunak,
bere gorputz-odolak
artzen ditugunak.

- 2/ Elizkizun eder bat
Pazkoa egunez
askoren pozgarri da
guk uste degunez.
Jauna, zurekin bildu
gera zorionez,
ta agurtzen zaitugu
eskerrak emanaz.

AURDUN GERATU ZAN NESKA BATERI

- 1/ Egun batean ikusi nuen
igande illunabarrez,
izarra baiño ederrago zan
dama gazte bat negarrez.
Bere maitea ere ondoan
an zuen ala bearrez,
ari zotinka ari zitzaion
damu miñaren indarrez,
sasoi danean utsegiteak
egiten baidira errez.
- 2/ Negar benetan egiten zuen,
biotza zitzaion lertu,
eta mutillak zer gertatu zan
bereala zun ulertu.
Bion errua izan zala ta
laguntzeko zegon gertu,
oker txiki bat egin zuten da
gero berandu oartu,
baiña an zegon etorkizuna
nork ez lezake onartu?
- 3/ Ikusirikan neskatxak lotsa-
bideak zetozkiola,
triste zebillen, begiak bera,
malkoak zerizkiola.
Bere amari uste det gauzak
garbi esan zizkiola,
entzunda nago amak arrazoi
aundi bat eman ziola:
zebillenari okerrak sarri
gertatzen zitzaizkiola.

4/ Mutillak zion: «Auxe gertatu
ez balitzaigu obe zan,
eta ezkondu gaitezen azkar
jendeak jakin ez dezan».
Baiña neskatxa lotsati zegon,
naigabez oso bete zan,
aitari zerbait esan nai zion
ta etzekien zer esan,
arek ematen zion bildurra
asarretuko ote zan.

5/ Neskatxa orri kezka berriak
sortu zitzaizkionean,
estu ta larri zegon gaixoa
iñon ezin egonean.
Amari bere utsegiteak
aitortu zizkionean,
amak erantzun zion artzeko
gauzak patxada onean,
berak esango ziola aitari
komeni zitzaionean.

6/ Alabarekin asi balitza
ama bullan da erritan,
etorkizuna jarriko zuten
oso arrisku larritan.
Gorreri asko etzan izango
auzotarren belarritan,
jendea gaizki itzegiteko
zai egoten da sarritan,
olako gauzak zuzendu bear
dira al bada berritan.

- 7/ Neskatxa bati ara okerrak
nola gertatzen zaizkion,
pentsatu gabe baldin badabil
zer ondoren datozkion.
Laguntzaillerik izan ez balu
lan ederrak zetozkion,
ama gaixoak gauzak dotore
diximulatu zizkion,
arek merezi zitun eskerrak,
ez dakit eman dizkion.
- 8/ Amak ezkontza prestatu zuen
andikan illabetera,
egun gutxian zenbat lan egin
zuen kontuak atera.
Buruausteak iritxi ziran
an gurasoen artera:
etxea jantzi, alaba ezkondu,
kastu guztiak batera;
uste det ondo arindu zala
aita zarraren kartera.
- 9/ Ezkondu arren gauzak txokoan
ziran ixilik egonak,
baiña zaindu zun bere garaia
jaio bearrez zegonak,
aur txiki arek ekarri zitun
etxerako zorionak.
Ain azkar nola sortu zan bera
galdetu zuen aitonak,
denborak baiño len jaio zala
erantzun zion amonak.

- 10/ Zorioneko egun batean
jaio zan aurtxo maitea,
aitonak asko etzekiela
denborak ondo betea.
Pentsatu zuen bere garaian
agerpena egitea,
ordua eldu zitzaionean
kax-kax jo zuen atea,
alperrikan zan ari gordean
egoteko esatea.
- 11/ Uste det orain ama gaztea
oso pozik daguala,
biotzez maite duen semea
bere ondoan duala.
Oraindik oso denbora gutxi
da nik ikusi nuala,
zoragarritzko aurtxo eder bat
bere eskutik zuala;
dotore asko jantzita zeukan,
bai polita zeguala.
- 12/ Bi gazte oien utsegiteak
ni ez ninduen arritu,
sasoian dauden zugaitzak errez
oi dira loreberritu.
Orduz len egin zuten okerra
orra or erremeditu,
emakumeak badu ematen
zaion ainbeste meritu,
aur eder ura egin zun amak
eskerrak merezi ditu.

SEI ILLEBETEKO NEGUA

(1985)

- 1/ Aurten ainbeste bider
Ernio zuritzen
ikusi dedanikan
ez naiz oroitzen.
Emen ekaitz gogorra
baztarrak zauritzen
ari ez danik etzait
neri iduritzen.
Lurmenak urritzen,
elurra loditzen,
jelak ugaritzen
dira nabaritzen;
gu neguak oiekin
gaitu saritzen.

- 2/ Lengo San Martiñetan
asi zan negua,
guk uste gendun baiño
zitalagua.
Ortzak erakusteko
bazeukan gogua,
elurra egiteko
ura zan modua!
Goiko bonberua
etzegon berua,
otzaren gradua
etzan ondradua;
toki askotan eman
zun endredua.

3/ Azaroa pasa ta
gero abendua
etorri zan, da goitik
jo zun bandua.
Kanpoa utzi zuen
bapo jipondua,
zigortzeko bildurrez
etzan egondua.
Ura zan mundua
ezin konpondua!
Asarre sendua
zan nabarmendua,
gorrotoa baizeukan
beregandua.

4/ Ibeltzak, bera zala
neguko maixua,
asieratik eman
zun abixua.
Urrengo otsailla,
ura zan bitxua;
etzan aundia baiña
bazuen pixua.
Ondoren martxua,
txarra ta mantxua;
ta beste txotxua
apiril txatxua;
lodiz aurrera sartu
digu kortxua.

- 5/ Esaera bat badu
gure gizarteak:
«Elurak ixten ditu
emen ateak».
Kotxezaleak daude
naigabez beteak,
kamiorako bear
baidira kateak.
Orra elurteak
nolako kalteak.
Eraso torpeak
dituen urteak,
txarkeritik baditu
bere parteak.
- 6/ Ganadu asko dauzkan
baserritarrari,
neguak sartzen dio
amaika ziri.
Elurpeko arbiak
ez dira ageri,
eta etxean ez du
naikoa janari.
Zenbait nekazari
erruki zait neri,
pentsua ugari
gastatzen da ari;
kartera astintzeko
ona da ori.

7/ Artzai ta artaldeak
datozkit gogora,
supritzen ari dira
neurritz kanpora.
Ez presaka urbildu
Aralar ondora,
larrea nekez dator
ain mendi freskora.
Igotzeko gora
badago denbora;
ardia gustora
sartzen da basora,
babesean sortzen dan
belar gozora.

8/ Sei illabete luze
izan dira negu,
kanpoko ondasunak
urri ditugu.
Eguraldi txarrari
egiñez erregu,
onera aldatzeko
eskatzen diogu.
Orrek balio du,
seguru gaude gu;
utzi bere kargu
ta, egiten badu,
udara on bat pozik
artuko degu.

GEZURRA

- 1/ Gauzak esplikatzeko
dira milla modu,
ta al duen guztiak
oien billa jo du.
Egiari indarra
kentzen badiogu,
gure gizatasunak
gutxi balio du.

- 2/ Egiari gezurrak
artu dio gaiña,
ori antolatzeko
badaukagu maiña.
Anka motzak ditula
esan oi da baiña,
ala ere korritzen
du egiak aiña.

- 3/ Gezurti asko bizi
dira poz eztitan,
parre goxo egiñez
nai duten guztitan.
Nola txikietan da
ala aundizkitan,
gezurra da nagusi
zortzitik zazpitan.

- 4/ Familiz-famili ta
gizartez-gizarte,
gezurrak eragin du
edozeinbat kalte.
Nasketak prestatzeko
ditu ainbat arte,
tratu zikin danetan
artzen baidu parte.
- 5/ Errez darabilkigu
gezurrezko itza,
argatik beregandu
digu nagusitza.
Lagun, zuk egi utsez
nai badezu mintza,
ez dezu luzituko,
alperrik zabiltza.
- 6/ Askorentzat egia
izaten da arrotz,
sarritan bere aurka
jartzen gera zorrotz.
Mingaiñez luze gaude,
arrazoi garbiz motz,
gorrotoan bero ta
maitasunean otz.
- 7/ Bizitza ontan gabiltz
modu itxusian,
denok nasturik alkar
ezin ikusian.
Gezurra dabil emen
saldu-erosian,
ta engaiñatzen gaitu
nai duen guzian.

- 8/ Gezurra beti degu
guregandik gertu,
zer dan probatu arte
ezin da ulertu.
Uste gabeko gauzak
izan ditu lortu,
baiña azkenerako
bera oi da lertu.
- 9/ Izakerak ez badu
ekartzen mudantzik,
galdu gera; orretan
nik ez det zalantzik.
Ez dago batasunik
eta konfiantzik,
gaurko bizitzak ez du
lengoaren antzik.
- 10/ Alkar menperatzeko
daukagu afana,
ta orrek ondatzen du
etorkizun dana.
Nunai badabil saltsa
eta azpi jana,
au da besteren onik
ezin eramana.
- 11/ Sarritan ardi beltzak
jazten gera zuriz,
aldatzea komeni
bazaigu irudiz.
Baiña gauzak obetzen
gure jakinduriz,
oso zailla izango
da nere iduriz.

12/ Len arrazoitzen giñan
egiaren argiz,
orain ori baztertzen
gabilitza pikardiz.
Gezurra lasai esan,
gaiñera ausardiz,
ez baidegu jokutzen
kontzientzi garbiz.

BERTSOLARI GAZTEEI

- 1/ Gaur aiña bertsolari
sasoiko ta gazte
sarritan izan danik
nik ez det uste.
Len estu genbiltzanak
lasaitu gaituzte,
oiek gure parteak
egingo dituzte.
Erri ta erbeste,
kantari jai ta aste,
danak bertso eske,
zuek nai zaituzte;
orain zarrak ixilik
egon gindezke.

- 2/ Bertsolari gaztea,
egidazu kaso,
ta mesede izango
dezu akaso.
Lan orrek badu ainbat
kezka ta arazo,
sarritan ibiliko
zera nerbioso.
Zuk biotza jaso,
segi animoso,
kantatu garboso,
apal eta gozo;
umiltasuna gauza
ona da oso.

- 3/ Bertsolaritzak badu
milla eginkizun,
gazte, nik aditzera
eman nai nizun.
Badakizu erriak
zer eskatzen dizun:
zugandik bertso onak
nai lituzke entzun.
Ainbat argitasun
nolatan dituzun,
ez dakit dakizun
nundik datozkizun,
Jaungoikoak zer doai
eman dizkizun.
- 4/ Beraz, eskuan dezu
gaur etorkizuna,
jaiotzatikan berez
datorkizuna.
Ongi beteko dezu
zuk eginkizuna,
nola zeran fiña ta
asko dakizuna.
Badakit zentzuna
argi daukazuna,
kantuz maitasuna
agertzen dezuna.
Ori da gaztearen
edertasuna.

5/ Gaur kanturako zaude
osasun bikaiñez,
noiz arte izango dan
naiz-ta jakiñ ez.
Ikusten da sasoia
daukazula gaiñez,
gaztetasuna zer dan
nork esan mingaiñez?
Amodio fiñez
bertsoak egiñez,
goxo itzegiñez
segi alegiñez,
ta entzuleak bete
poz atsegiñez.

6/ Gure jardina lore
berriak baditu,
gazte, zu ikusteak
arritzen gaitu.
Jainkoak ortarako
bazaitu doaitu,
bertso goxoen bidez
erria alaitu.
Bizitza berritu,
tristurak urritu,
poza ugaritu
ta leial jarraitu;
umiltasunak aundi
egingo zaitu.

7/ Garbi egingo ditut
nere aitormenak,
apaltasuna bear
baitu nor denak.
Umore ona eta
berezko almenak
bear ditu bertsoan
egingo duenak.
Indartsu daudenak
dira nabarmenak,
gu gera onenak
emanda gaudenak;
eziñak menderatzen
gaitu geienak.

8/ Gaztetasun ederra
Jaunak eman zigun,
baiña ura aspaldi
pasa zitzaigun.
Berari erregutzen
diot gau ta egun
premia degunetan
lagundu dezaigun.
Bizi-poza illun
nola jarri zaigun,
osasunez bigun,
gustorik ez inun;
ara zartzaroak zer
ekarri digun.

LANGILLEAREN ETORKIZUNA

- 1/ Langillearen nekeak dira
etorkizun urrikoak,
eta oraindik estutu bear
ditugula gerrikoak
esaten ari zaizkigu gizon
kargu izugarrikoak;
ongi dakite gu ez gerala
oien kategorikoak.

- 2/ Telebistara dotore asko
jantzita agertzen dira,
nik begiratu izan diotet
lepora eta gerrira.
Oien korbatak eman lezazke
nere gerrian bi jira,
ara nolako aldea dagon
gizon aunditik txikira.

- 3/ Gerri aldeak estutu gabe
ezin omen leike bizi,
len ere derrigorak ez ditu
gutxi estutu arazi.
Tirante onik salgai balego
nik nai nituzke erosi,
bestela galtzak laister galduko
ditut gerriko ta guzi.

- 4/ Beraz asmoa agertzen zaigu
neurriak gogortzekoa,
len baiño muga larriagoak
gerorako jartzekoa.
Gure arteko jokabidea
da zelebren antzekoa,
zenbaitek ez du sekulan zorrik
baizik beti artzekoa.
- 5/ Beartsuaren izakeraz ni
nago etsi samartua,
len zailla bazan azken aldira
ez da asko samurtua.
Langillea da guztientzako
egitera beartua,
zer emanikan sortzen badegu
izango da nork artua.
- 6/ Mundu osoa konpontzen asi
bear dala goitik bera,
urte auetan batzuegandik
sarritan entzunak gera.
Baiña gizona iritxi al da
uste ainbat jakitera?
Edo pentsatu izan dituen
gauza danak egitera?
- 7/ Sare estuan sartu giñan da
lasaira ezin pasatu,
errezetikan janez ez gera
bizitzan asko gozatu.
Gu ezjakiñak izan gerala
esaten zertan lotsatu?
Eskolaz jantzi ziranak ere
ez dira guztiz osatu.

- 8/ Gizonak beti jokutzen al du
sustrai garbiz ta zuzenez?
Ni dudan nago, bizitzan asko
naigabetua naizenez.
Batzuek gora igotakoan
azitzen dira izenez,
aundikeria naizta danentzat
mesederako izan ez.
- 9/ Askok txarrera jotzen degu ta
beste batzuek onera,
au ikusten da begiratuaz
azaletik sakonera.
Bakoitza ongi neurtuko balitz
aurrenetik azkenera,
alde galanta billatu leike
gizonetik gizonera.
- 10/ Jauntxo aundien saillean ez da
txikiarentzat sarrerik,
aurreko puntan ez du izango
maitasunezko arrerik.
Denok juxtuak baldin bagiña
ez legoke asarrerik,
baiña ez dago berezko griñak
aldatzen ditun karrerik.
- 11/ Itxura danez laister sartuko
gera Europa batuan,
naziotako buruzagiak
or omen dabiltz tratuan.
Lanikan gabe dauden pobreak
berriz ia zoratuan,
bizitzarako etorkizuna
ezin obeagotuan.

- 12/ Batzuen ustez bearrezko zan
Europa bateratzea,
eta egiten degun lanari
zumua ateratzea.
Baiña oraindik komeniko da
geiago aurreratzea,
nai baldin bada ango askoren
maillara urreratzea.
- 13/ Bizi posturaz aldatze orrek
bai ote du eragiñik?
Indar gabeko astoarentzat
ez dago zama ariñik.
Gari alea galtzen bazaigu
ez daukagu zer egiñik,
errotan ere lasto utsari
etzaio kentzen iriñik.
- 14/ Artu dezagun martxa berria
ikusi arteko beta,
agian gauzak uste dan baiño
obeki irten leizke ta.
Alpertsurikan iñoiz egiten
degu amaika izketa,
ez baida beti zuzen ibiltzen
gure buruko krixketa.

UDAZKEN ON BATI

(1986)

- 1/ Aurten udazken giro
ederrik izan da,
baserritarrak orren
eske ziran-da.
Ganaduak kanpoan
nai bezela janda,
eguzkitan ikusten
genitun etzanda.
Gaixoa joan da
zitunak emanda,
neguaren txanda
iritxia zan-da;
aldegin du betiko
agur esanda.

- 2/ Legorra gendulako
udara osoa,
baserriko bizitza
zan penosoa.
Gero gauza ugari
badute jaso,
udazkena zalako
leial ondrosoa,
aberats gozoa,
eder eroso,
ain balioso
ta kurioso;
lur onek zirudien
paradisoa.

- 3/ Zorrotz begiratuaz
baserri aldera,
nik askori egiten
nien galdera:
iñoiz ibili diran
aurtengo moldera,
eguzki berotikan
euri epelera.
Beti aldaera
onetik obero.
Konturatu gera
zer dan gertaera:
udaberria pasa
udazkenera.
- 4/ Aurten udazken ona
zan gure lurtean,
asieran bezela
Gabon aurrean.
Eguraldi ederrak
ziran indarrean,
egoaizea pil-pil
goiko gaillurrean.
Baso-baztarrean,
giro ederrean,
ardiak larrean
mendi-belarrean,
ikusten zuten dana
jan bearrean.

- 5/ Artzaiak oso alai
dirala diote,
udazkenak tristurak
jan dizkiote.
Arkumeak azitzen
ari zaizkiote,
oiek ongi saltzea
komeni zaiote.
Esne asko dute,
aitortzen digute;
gazta ona merke
egingo balute,
etxe askotan pozik
jango genduke.
- 6/ Udazkena, agertu
ziñan dizdiratsu,
zurekin izan gera
gu zoriontsu.
Zeure ondasun danak
eman dizkiguzu,
eskerrik beroenak
merezi dituzu.
Gu giñan beartsu
ta zu guztiz altsu,
eder da indartsu,
bero eta gartsu;
aurten geienak pozik
utzi gaituzu.



Bertsolariak Eibarren. Ezkerretik asita: Mugartegi, Azpillaga, Jose Lizaso, Uztapide, Basarri, Lasarte, Lazkano, Egileor eta Agirre.

7/ Badakigu kanpoa
bikain dagoena,
abereak zer jana
nunai dutena.
Nik inoiz ezagutu
dedanik onena
zala esango nuke
aurten udazkena.
Eder utsa dena,
goxo nabarmena,
bere oroimena
utziko duena.
Bukatu da, orrekin
daukagu pena.

8/ Giro epel goxoak
igaro zaizkigu,
udazkenak bereak
eman dizkigu.
Orain beste moduzko
gauzak datozkigu,
neguak nagusitza
beregandu digu.
Komeni zakigu
ta lagun bekigu;
eskean beti gu,
ortan badakigu;
ekaitzaren bildurra
darabilkigu.

GIZON DAMUTUA

Bere ibilleraz damututa dagoen gizon batek itzegiten du emen, zer bizimodu erabili duen esanez. Ain ostatu zalea izanik, bere emazteari eta fameliari zenbat pena ta naigabe eman dion bearrrik gabe adierazi nai izan du bertso auetan. Gizonak iñoiz pentsamentuz aldatu izan dira, eta au ere konturatu da alako batean gaizki dabillega aspaldian; da asi bearko duela gizonak bezela familira biltzen noski.

- 1/ Zoritxarrean sartu nintzan bein
ardi galduen saillera,
orain begira jarria nago
nere izate soillera.
Ostatuaren maitale gera,
beti an degu billera,
au izaten da buru gabeko
gizonaren ibillera.
- 2/ Emazte on bat artu nuen bein
ni gogozko ninduen,
bere bizitzan nere ongarri
gauz asko egin duena,
ama on baten eginkizunak
zintzo bete dituen,
seme-alabak eta senarra
maite izan gaituen.
- 3/ Illunabarrez kaleratzen naiz
da ostatuan gelditu,
zabarkerizko bizitzak ez du
guk uste ainbat meritu.
Pekatu asko ditut egiñak
danak esango banitu,
nere andreak biotz ona du
ta barkatuko al ditu.

- 4/ Aldaba xar bat an egoten da
gure etxeko atean,
kax-kax jotzen det iru-lau aldiz
gauetz berandu joatean.
Naiz-eta izan amabietan,
berdin da ordu batean,
andreak ez du lorik egiten
ni etxeratu artean.
- 5/ Ordu txarretan entzun bearrak
ateko aldabaren otsa
neretzat eta nere zai dauden
guztientzako du lotsa.
Buru berer eramaten det
baiña patrikada otza,
sarritan orrek minberatzen du
emaztearen biotza.
- 6/ Tabernan bezin ongi igaro
nezake etxean gaba,
oso pameli polita degu:
iru seme ta alaba.
Lo egin dezan ama gaixoak,
ixildu dedin aldaba,
onez aurrera zintzoxeago
ibiliko naiz, al bada.
- 7/ Nere emazteak ez du merezi
itz bat txarrik esaterik,
bera dan baiño umillagorik
ez baidago izaterik.
Etxeratzen naiz ordu txarretan
eta edariz beterik,
alare ez nau kanpoan uzten
iriki gabe aterik.

- 8/ Ark eginkizun jakiña dauka:
familia txukun zaindu;
ama egin zan ezkeroztikan
kezka ori bere gain du.
Aspertu gabe ari da ortan
borondate ona ain du,
urrez jantziko bagendu ere
ura ez leike ordaindu.
- 9/ Atzo goizeko ordubietan
jo nun etxeko atea,
irikitzera irten zitzaidan
nere emazte maitea;
ta esan zidan: «Garaia da ta
barrura pasa zaitea;
edarizale baziñan ere
zatoz ederki betea».
- 10/ Erantzun nion: «Arrazoi dezu,
errurik asko badet or;
utsa litzake bizibidea
tabernatikan baletor.
Baiña etxean gelditutzeko
garaia laixter badator,
o, emaztea, barka zaidazu
ordu txarretan banator».
- 11/ Emazte on bat konformatzeko
gauz gutxi nola aski dan,
Jainkoak daki zenbat olako
barkatu izan dizkidan.
Lotara ixil joatearren
bi muxu eman zizkidan,
ez dakit aiek nere bizitzan
iñoiz aztuko zaizkidan.

- 12/ Andre gaixoak eman dizkidan
maitasunezko laztanez,
bein ere aztu eziñik nabil,
arritzekoa ez danez.
Mudatu leike gizona, naiz-ta
berez zintzoa izan ez,
emazte batek goxo artzean
«Atoz nerekin» esanez.
- 13/ Laztasunari loturik dabil
bearraren aginduan,
nork ote daki ni naizelako
zenbat neke egin duan?
Zer kontatua edukiko du
bere biotz saminduan,
gaixoak askoz obe zuen ni
ikusi ez baninduan.
- 14/ Asko bear da gaur bizitzari
bere batean eusteko,
seme-alabak azitzeko ta
eskola erakusteko.
Nere andreak ni zintzotuko
naizenik ez du usteko,
baiña promesa egiña daukat
bizio txarrak uzteko.
- 15/ Amaika gizon alperrik galdu
izan duen ostatua,
nekez egiñak errez kentzeko
dago ondo prestatua.
Ez dakit neri nola zitzaidan
orrenbeste gustatua,
bestela ere gure txanponak
bazegon non gastatua.

16/ Gauez parranda egin da gero
egun guztia nekean,
buruz sano dan batek ez dakit
nola pasa lezakean.
Saiatuko naiz bide txar ori
utzi ote nezakean,
etxean danok bizi gaitezen
gustora eta pakean.

NESKAZAR BATI

(Doiñua: «Aizak i, mutil mañontzi»)

- 1/ Askotan kontu kontari
bear izaten da ari,
aitzakiren bat sortzen danean
erreza da ori.
Gaur asiko naiz kantari
ongi dakitela nori:
ni baiño askoz iztunago dan
neskazar bateri.

- 2/ Denbora bere gain du ta
dabil ondo apainduta,
bere bizitzan aletin dana
ortan egin du ta.
Gorputza dauka zainduta
baiña biotza minduta,
berriz bigarren gazte-aldirik
lortu ezin du ta.

- 3/ Gaztetan erromerira
egin zun amaika jira,
ta mutil asko egon oi ziran
berari begira.
Orain ximurtzen ari da,
gertatzen dana ori da,
ez sasoa ta edertasuna
betiko balira.

- 4/ Gorputz-animak bizitzan
alperrik galdu ez ditzan,
arinkerira ez da joango
utsaren peskizan.
Beti or dabil elizan
moja umil baten gisan,
fedea gauza ederra da ta
orrek ura izan.
- 5/ Kantu politak abesten,
txukunagorik berezten,
erri guztia pasata ere
ez dakit errez den.
Gure oiturak babesten
ta euskera aberasten
saiatzen da ta orri ez dio
iñork galerazten.
- 6/ Euskeraren egarria
txikitandik ekarria
duela berak, aspaldi ontan
nago igarria.
Gogozko du aberria,
maite du Euskalerria,
neskazar orren izaera da
kontsolagarria.
- 7/ Indartsu dabil Maria,
sanoa du koloria,
zartuagatik oraindik badu
bere baloria.
Garai bateko loria
txukuna ta dotoria,
zintzarria goiz astintzen duen
despertadoria.

- 8/ Maritxu orri aldizka
politak entzuten zaizka,
gauzak esaten asten danean
badu bere txispa.
Berri-emale artista,
erriko periodista;
zoko guztiak ikusten ditu,
luzea du bista.
- 9/ Berritsuz ez du berdiñik,
or dabil kotor egiñik,
alde batetik bestera iñon
ixildu eziñik.
Nik, bere berri jakiñik,
ez diot eman nai miñik,
edo bestela egunen batez
jango nau gordiñik.
- 10/ Erabiltzen ditu bromak
aukeran datozkionak,
Maritxu orri begira gera
sarritan egonak.
Len jazten zituen gonak,
orain galtzak ditu onak,
modak olaxe aldatzen ditu
aberats dagonak.
- 11/ Pasa zan gaztetasunez
ta aren goxotasunez,
Maritxu berriz oroitu leike
bertsoak entzunez.
Aberatsa da zentzunez,
berezko argitasunez,
ta batez ere izketan duen
egokitasunez.

12/ Ematen dizut abixu,
ez naiz jakintsu ta maixu,
eta etzaitut itz auen bidez
minberatu nai zu.
Pentsamentuz nengon itxu
eta mingaiñez berritxu;
bear ez danik esan badizut
barkatu, Maritxu.

TXANTXANGORRI BATI

- 1/ Txantxangorri txiki bat
sarritan igo da
nik lo egiten dedan
gelako leiora.
Gaur ere or zebillen
bera eta gora,
lagun bat baduela
nerekin pio da,
esan nai zidan: «Egun
berri bat jaio da».
- 2/ Txantxangorria ez da
berez politena,
baiña neri geienbat
gustatzen zaitena.
Nik txori guztietan
bera det maitena,
egunero bixita
egin oi ditena,
barrengo naigabeak
kentzen dizkitena.
- 3/ Egunsentian beti
zitzaidarr agertzen,
zeren billa zebillen
ez nuen ulertzen.
Antzeman nionean
bere naia zer zen,
asi nintzan leioan
janaria jartzen,
geroztik ari gera
konpianza artzen.

- 4/ Aundian ez da zenbait
aiñako alea,
mantentzeko erreza,
neurriko jalea.
Berez kariñosoa,
kristau-maitalea,
gorrotorik gabea
ta pake-zalea;
ori da biotz ona
duen siñalea.
- 5/ Ez du kapoiak aiña
sego edo gantza,
arin dago ta errez
egiten du dantza.
Orain baiño lenago
eman nion antza
txori orrek nerekin
zula konpiantza;
badet alkar maiteko
degun esperantza.
- 6/ Egunsentian ni lo
goxo nagonean,
agertu oi da beti
edo geienez.
Al duen modurikan
egokienez
leioa kaxkax jotzen
asten zaidanean,
esnatzen naiz, gaiñera
umore onean.

7/ Leio-koxkan dagona
goxoki jaten du,
txori ori guk ogiz
nola ez mantendu?
Bere umiltasunak
poza ematen du,
guk ere mundu txar au
genezake ondu,
txantxangorriak aiña
maitasun bagendu.

8/ Neri berak ainbeste
maitasun didanik,
ez derizkiot beste
txori bat badanik.
Ez pentsatu itz auek
gezurrak diranik,
ez nuen uste berak
ainbat nai zidanik,
txoriak buruz olain
argiak ziranik.

9/ Badu bizitasuna
anka-zuztarretan,
eta bizkar gaiñeko
ego azkarretan.
Arritzen naiz gurekin
dadukan arretan,
beti zai or daukagu
bide-baztarretan,
edo etxe ondoko
zugaitz-adarretan.

- 10/ Astinduak emanaz
bere bi egori,
gizonari segika
ibiltzen da ori.
Gizonaren igesi
dabil ainbat txori,
ta txantxangorriari
gezurra diruri
gizona zitziola
grazitan erori.
- 11/ Balego kaiolaren
zaletasunean,
etxean artu leike
goxotasunean,
baiña kalte izango
du osasunean.
Dabillela kanpoan
lasaitasunean,
berak gogozko duen
askatasunean.
- 12/ Ogi txuri biguna
leio-koxkan sarri
dendatik ekarrita
izan dizut jarri,
bera dala jakiñik
zure osagarri.
Ainbat nola ez egin
zuri, txantxangorri,
maitasun utsa zeran
txori gaixo orri?

AMA ETA SEASKA

Emen agertzen dan bertso sail ontan, ama eta seaska aipatzen dira. Izan ere, gure alabak, bere semetxo ori izan zuenean, alako estuasunak pasa baizituen.

Etxean jaio zan aurra; Orion bertan alegia. Ni kanpoan nintzan egun artan gaiñera, ta ez nekien ezer. Baiña gauean, etxeratu orduko, ikusi nuen itxillu ederrik: aurra negarrez eta ama odol-ustuta erabat.

Erriko sendagilleak, ustez biak ongi utzita aldegin omen zuen. Baiña gauzak gaizki irten, eta kontuak.

Nik segituan antzeman nion amari nolabait aurkitzen zala; eta miñik bai al zeukan galdetu nionean, baietz, izugarriak zeukala erantzun zidan. Orduantxe ez giñan lasai.

Alik azkarren Donostira jo genduen: ama ta semea biak artu ta klinikara. An sendagilleak, ikusi orduko, gauzak oso estu zirala esan zigun; denbora gutxiko bizia zeukala eta azkar ibili bearra zegoela.

Berari eskerrak, ongi irten danak, eta ez giñan asarre orduantxe. Orrelaxe oi dira amaren suprimentuak.

Bertso auek *Aranzazu* illerokoan agertu ziran, 1982'ko urrian. Baiña aldatu egin ditut pixka bat liburuan jartzeko eta gauzak obeki esatearren. Diskoan ere emen bezela daude.

- 1/ Seaskatxoa, gelan or zaude
txoko polit apaiñean,
izara txuri, garbi, bigunak
dituzularik soiñean.
Gure aurrak lo goxo egiten
du zure bular gaiñean,
nola eskertu bear zaitu zu
merezi dezun aiñean?

- 2/ Nekatu eta loguretzean,
au da askok dakiena,
aurrarentzako seaska dala
txokorik egokiena.
Zuk atsedentzen diguzu gure
aingerurik garbiena,
Jaunak zerutik biali zigun
izarrikan argiena.
- 3/ Lo artzen dezu seaskatxoak
klin-klin egiten dizula,
amets goxotan irriparezka
ama ondoan dezula.
Aurra, badakit zuk seaskari
biotzez nai diozula,
sentitzen zaitut kontu politak
esaten dizkiozula.
- 4/ Amak benetan maite du aurra
ta bere aitonak berdín,
biak txoramen batean gabiltz
ez dakigula zer egin.
Amak sabela betetzen dío
ta seaskan lo eragin,
gure mutiko maite kutuna
zoriontsu azi dedin.
- 5/ Askorentzako bizitza au da
zorion gutxitxokoa,
nik ortan badet eskarmentua
eta aspalditxokoa.
Baiña, alaba, zuk maite dezu
zure sukalde-txokoa,
zerez baizera ama xamurra
eta magal goxokoa.

- 6/ Seaska garbi jazten diozu
usai goxozko oialez,
amak aurrari gauz asko egin
oi dio biotz leialez.
Aurra jostatzen nekatu eta
errenditzean logalez,
gogoratzen da bere seaskaz
eta amaren magalez.
- 7/ Ama on baten xamurtasunak
zer diran aurrak dakizki,
bular beroa ematen dio,
bere maitasun da guzti.
Odola esne biurtzen zaio
ta biotz goxoa ezti,
petxu ortatik alimentatzen
dan aurra ez dago gaizki.
- 8/ Alaba, gau bat oso estua
bein bazenduen izana,
gaur maite dezun semetxo ori
mundura etorri zana.
Zuk aingeru bat egin zendun ta
zu aingeru orrek ama,
une uraxe bera izan zan
ni aiton egin nintzana.
- 9/ Odol ustuta gelditu ziñan
bertan iltzeko moduan;
Donostin odolberritu eta
esnatu ziñan orduan,
lenen itzean galdetu zendun
aurra ongi al zeguan;
or ikusten da ama on batek
nolako biotza duan.

- 10/ Amak aurraren kezka zuen ta
bera estuasunean,
mediku bati eskerrak laister
jarri zan osasunean.
Ura zan poza bere semea
ongi ikusi zunean!
An artu zuen bere ondoan
gutzizko maitasunean.
- 11/ Ongi dakizu seme eder bat
Jainkoak eman zizuna,
gau eta egun gora ta gora
azitzen ari zaizuna.
Ama izanik au da gogoan
eduki bear dezuna:
maitasun neurri gabea dala
aur orrek zuri dizuna.
- 12/ Ikusten degu mutikotxo
biotz onekoa dana,
suerte on bat izan dezala,
au da opa diodana. .
Maitasun bero gartsu bat izan
dezala amarengana,
alaxen ere ama ordaintzen
izango du naiko lana.

ONDARTZAKO KONTUAK

- 1/ Ondartzan izandua
naiz lengo batean,
jendea ikusirik
bartzarrak betean.
Auxe pentsatu nuen
nik nere artean:
«Giro zeukagu beste
bi illabetea».

- 2/ Beren aurrak artu ta
senar da emazte
ondartzan zoraturik
dabiltza jai ta aste.
Zarrak ere askotxo
ara dijoazte,
batzuek pentsamentuz
beti dira gazte.

- 3/ Batean bi gazteri
galdetu nieten
ea ondartzari zer
billatzen zieten.
Geiena an gozatzen
zirala zioten,
ortik pentsatu zenbat
gustatzen zaioten.

- 4/ Batek zion: «Giroak
ongi laguntzean,
arnasberritzen gera
gu itxas-ertzean.
Zoriona ez dago
jan-edan utsean,
garbitasuna bear
degu gorputzean».
- 5/ Antzeman nion ori
esan zunerako,
zer komeni zitzaion
osasunerako.
Ta esan nion: «Bada
zure onerako,
or daukazu ondartza
nai dezunerako».
- 6/ Lenengo bustitzeko
ur gazitan sartu,
gero ondar gainean
etzanda legortu,
eta eguzkiaren
bitaminak artu,
azala beztu eta
ezurrak indartu.
- 7/ Luzea izaten da
askoren urtea,
udara joan da berriz
etorri artea.
Azala beztutzea
bada birtutea,
beltza jaiotzen danak
dauka suerte.

- 8/ Zenbaitena ez dakit,
jaunak, zer azal dan,
erretzen egoteko
beroaren galdan.
Nik galdetzen det ori
premixkoa al dan;
eguzkia ona da
baiña bere galgan.
- 9/ Plaian saltoka dabiltz
sasoi daukatenak,
eder utsak dirala
pentsatzen dutenak,
erakutsi naiean
beren gauza denak,
baiña batzuk gordean
dira politenak.
- 10/ Estranjeroak ere
onuntza datoxti,
nonbait gure uretan
nai luteke busti.
Ondarrabi, Orio,
Zarautz ta Donosti,
oientzat oso erri
onak dira noski.
- 11/ Badabiltz belgak eta
badabiltz frantzesak,
badira alemanak,
badira inglesak.
Beste sail bat ikusten
dira olandesak,
oiek ondo asetzen
ez daude errezak.

12/ Billutsik ibiltzea
jarri dala modan
diote, nik ez dakit
zer ikusiko dan.
Pentsamentu ariñak
goiko buru-bolan
dauzkagu, ta oiekin
badegu naiko lan.

ETXE ATARIKO ITURRIA

Orion gure etxe atarian dagoen iturri zoragarriari aipamen berezi bat zor nion, eta argatik jarri nizekion emen agertzen diran bertso auk.

Amar zugaitz eder dauzka bere jiran; eta or ikusten da, danen erdian, dalako iturritxo ori.

Badaude aulki edo jarleku dotore batzuk ere, ta zar jendea bertan egoten da sarritan eseri ta lasai, batez ere udaran, eguzkiak berotzen duenetan, zugaitz oien itzalean, gozo asko.

Ixtimazio izugarri izaten du orko urak.

Umeak eta gazteak zenbat edaten ote dute, jolasean dabiltzala izerditu ta egarritzean?

Bi txorro ditu ezker-eskubi diodan iturri orrek. San Juan izeneko ermitaren ondoko arkaitz zulo batean dago putzu aundia, ta andik dator errira tuberian. Oso ona dala badakigu.

1/ Iturritxo maitea,
udara ta negu
arbol azpi onetan
beti zai zauzkagu.
Zure bi txorro goxo
eskeinka dauzkagu,
oien urak eskerrik
merezi ez badu,
zugana gatozenak
biotzik ez degu.

- 2/ Maite dezu ondoko
zugaitzen itzala,
gu ere pozik gera
emen gabiltzala.
Zure urak ase ta
garbitu gaitzala,
ain zera oparoa
eta serbitzala,
Jaungoikoak zerutik
bedeinka zaitzala.
- 3/ Iñoiz natorrenean
zure ingurura,
pentsamentu au jai
izan zait burura;
bearrezkoa sortu
ziñala mundura;
bizitzeko zer jana
bear dan modura,
gorputzak eskatzen du
edateko ura.
- 4/ Premizko zaidanean
ura edatia,
oso atsegin zait zu
emen egotia.
Aurtxoa nintzanean
amaren titia
aurkitu oi nuen nik
olaxe betia;
zuk aren antza dezu,
iturri maitia.

- 5/ Ur garbia amaren
bularraren pare
dala sarritan entzun
izan det len ere.
Ezer ezin liteke
egin ori gabe;
ura usatzen dala
ez aztu bein ere
aurtxo jaio berriak
bataiatzen ere.
- 6/ Zenbat aurtxori mama
ematen diezun,
zenbat janari eder
goxatzen dituzun,
zuk zenbat modutara
serbitzen gaituzun,
ez dakit, iturria,
zeuk jakingo dezun,
guri zenbat mesede
egiten diguzun.
- 7/ Marmario goxotan
jeixten zera bera,
goiko mendi azpitik
beko zugaizpera,
zure ondasun danak
guri eskeintzera;
noizbait etorri gabe
gelditzen bazera,
zer palta dan orduan
konturatzen gera.

8/ Ura txanpaina bezin
galesti balego,
ixtimatuko luke
jendeak geiago,
ta iturri gaixoak
zer luke naiago?
Ni ura maite dedan
damutan ez nago,
edari oberikan
neretzat ez dago.

ZALDI BATI

Emen bertsoz aipatzen dedan gisara, zaldi osoa zan; irendu gabekoa, alegia. Agian, zaldi enteroa esanda obeki ulertuko dute askok.

Ni mutil koskorra nintzala, Ernio-mendin baso lanean ibilia naiz berarekin; da inguru artan beorak ugari antzean sentitzen baziran ere, zaldiak etzioten bein ere kasorik egiten.

Lanetik askatzean, libre uzten genion, da an jardungo zan larrean, pago azpietako belar zakarrak jaten, zerbait bear ta.

Batzuetan, edo al nuen guztian, neuk eramaten nion belarra, itaiarekin ebakita, txabolara, batez ere gauerako bertan izan zezan. Pentsua jaten, berriz, etzuen ikasi sekulan, iñork etzion eman-da.

Izketan etzekien gaixoak, baiña entzuten bai. Nik deitzen nionean, laister joango zitzaidan nengoen tokira. Zaldi zoragarria genduen.

Azkenean, ordea, bukaera txarra egokitu. Gure koñado zanak, igande arratsalde batez Aiako Altzolara eraman da gero gauean etxera zetozela, Laurkin basoan arkaitz aundi batetik bera erori ta lepoa autsi zuen, eta kito.

- 1/ Guk zaldi bat bagendun
konpiantzazkua,
berez txikia baiña
dotore askua.
Zuzen emango nuke
aren arrastua,
gaixo ura oraindik
ez daukat aztua.

- 2/ Xelebrea zan zaldi
aren ixtoria,
izerdia ugari
bazun ixuria.
Biok ere ez gendun
lepogain guria,
ark pentsua palta ta
nik ogi zuria.
- 3/ Zoritxarrean lengo
gerra ondorena
zer zan ikusi zunak
daki ondoena.
Ura zan gosetean
pasa genduen!
Ori da gerrak beti
ekartzen duena.
- 4/ Gezurra esateko
galazko afanik
ez pentsatu nik inoiz
izandu dedanik.
Urte pobre aietan
gustoko zer janik
ez genduen billatu
zaldiak eta nik.
- 5/ Sarritan ibili zan
neke gogorrean,
amaika lan egiña
zan derrigorrean.
Ark izan zuen bere
bizitza pobrean
zer jana urri eta
zigorra sobrean.

- 6/ Naiz beorren batzuen
irrintziak entzun,
zaldiak etzieten
bein ere erantzun.
Bere bizimodua
umil eraman zun,
arrokeririk eta
biziorik etzun.
- 7/ Gaixoak nerekin zun
bere anparoa,
nereganako beti
maitasun beroa.
Umilla zan izanik
zaldi enteroa,
etzan asko amustu
aren punteroa.
- 8/ Artean gaztea zan:
bederatzi urte;
zaldiak sasoi ona
adin ortan dute.
Ainbeste lan klasetan
artua zan parte,
erori ta lepoa
autsi zuen arte.
- 9/ Arkaitz gain batetikan
pasatzen asita,
ankak irrixt egin da
beraiño jausita,
an gelditu zan seko
lepoa autsita;
negar egin nuen nik
ura ikusita.

10/ Aundiak izan arren
nere naigabeak,
aren azken pausoak
etziran obeak.
Deskuidoren bat izan
zulako jabeak,
pagatu zuen zaldi
errurik gabeak.

LENENGO JAUNARTZEA

Maite Goikoetxea Dorronsoro, Ataunen jaio ta bizi dana da. Bertsozale purrukatua izan bear du aur zoragarri onek; eta zortzi urterekin lenengo Jaunartzea egin zuenerako, bere aitak bertso batzuk eskatu zizkidan berarentzat, eta ala moldatu nizkion. Arrigarria ere bada noski adin ortan ain bertsozalea izatea. Izugarri buru ona omen du bertsoak ikasteko. Obe genduke olako asko baleude Euskalerrian.

- 1/ Ixilik banengoke
baiña ezin ordia,
bertso-xorta bat neukan
zuretzat gordia.
Izan ere ain zera
txukun da argia,
mantxarikan gabeko
aingeru garbia.

- 2/ Bertsozale ziñala
aitak esan zidan,
zuretzako batzuek
eskatu zizkidan.
Ez dakit gustokoak
sortuko zaizkidan,
ikusiko det gauzak
nola datozkidan.

- 3/ Bertsoak entzuteko
zaude irrikitzen,
argatikan asi naiz
aoa irikitzen.
Aingeru batekin nor
ez da errukitzen?
Olako gairik ez da
sarri egokitzen.
- 4/ Neurririk gabe maite
dituzu bertsuak,
azi zaituelako
ama magaltsuak.
Bedeinkatu zaitzala
Jaungoiko altsuak,
dana merezi du ain
euskaldun sutsuak.
- 5/ Izketan txukun asko
ikasita zaude,
ta zure gurasoak
oso pozik daude.
Euskera galtzen ari
dalakoan gaude,
ez zu bezelakoak
ugari baleude.
- 6/ Zuk aoan euskera
daukazu indartsu,
zeruetan izarrak
bezin ditziratsu.
Uste gabeko pozak
eman dizkidazu,
ta nere zorionak
artu zaizkidazu.

- 7/ Zure aita dezunak
maite zaitu ziñez,
baita amatxok ere
geiago eziñez.
Txuriz jantzita zaude
ain soiñeko fiñez,
izar bat bezin eder
zaude imajiñez.
- 8/ Esango nizuke zer
egin bear dezun:
gurasoen esanak
beti umil entzun,
da kristau bizitzari
zintzoki erantzun,
gero iñoiz damurik
izan ez dezazun.
- 9/ Jaungoikoak maite du
garbi daguena,
bera baita gurekin
ardura duena.
Zuretzat izango zan
egunik onena,
lenengo Jaunartzea
egin zenduena.
- 10/ Elizara joan ziñan
maitasunez bero,
Jaungoikoa zuregan
dezu arrezkero.
Neskatxa garbi bat du
zurekin espero,
ta izango zera zeuk
nai izan ezkero.

- 11/ Gurutze Santua da
zerekin dezuna,
lepotikan txintxilik
daramakizuna.
Ori da Zaindaria
darabilkizuna,
biotza sinismenez
beteko dizuna.
- 12/ Maite, nik zu euskaldun
fededuntzat zauzkat,
ez nizuke esango
ala ez bazenduzkat.
Zerekin dezulako
bearrezko gauz bat,
eskerrik beroenak
zuretzako dauzkat.

MAITASUNAREN KEZKAK

- 1/ Amodiotan lo egin dunak
bere esnaera goiz-tu,
egunsentian txorien gisan
asten naiz kantu ta txistu.
Itzaltzen ez dan txingarra zendun
nere biotzean piztu,
edo bestela nik egingo nun
amets egin da sinistu.

- 2/ Egun batean auxe da kezka
neri jarri zidazuna:
zer pentsamentu ote dan zure
buruan deramazuna.
Zu zera nere egunsentia,
esna arazten nazuna,
zeuk uste gabe illunpetatik
argira naramazuna.

- 3/ Ikusten danez, zurekin amets
egiñez askotxo gabiltz,
obe genduke suprimentu au
luzarokoa ez balitz.
Batek bear du zuretzat eta
besteak alperrik dabiltz,
naiago nuke zuk maite dezun
bakar orixe ni banintz.

- 4/ Nik gustokoa zu izan arren
zuk ni ala ez banazu,
beste batekin ezkontzeko
eskubidea daukazu.
Asmo orrekin baldin bazaude
mesedez esan zaidazu,
min artuko det baiña kezka bat
kendu egingo didazu.
- 5/ Zure gezurrik aundiena nik
jasoko nuke egitzat,
lenago ere olako zerbait
gertatu dala deritzat.
Zuk berriz nere amodioa
artzen dezu uskeritzat,
neu aurreragi sartu naiz edo
burua galtzen ari zat.
- 6/ Ene maitea, zu neretzako
ziñalakoan nenbillen,
nere biotza txoriak egan
bezin goxoki zebillen.
Baiña jakin det beste bat ere
tarteetan nola dabillen,
errezelatzen asita nago
alperrik ote nabillen.
- 7/ Joan daneko iru urtean
zure itz erdi baten zai
bizi naiz, eta laixter esango
al didazu ez edo bai?
Gu bezelaxe geiago ere
egongo dira ezkongai,
baiña zurekin izan ezean
nik besterekin ez det nai.

- 8/ Maite, benetan esaten dizut:
polit-zalea naiz nerez,
gure etxeko jardiña jantzi
nai nuen lore dotorez.
Baiña mundura doakabea
jaiotzen bada bat berez,
nonaitik badu naigabea ta
zorionikan baterez.
- 9/ Zu iritxiko baziña neri
ezezkoa ematera,
zer pentsamentu dedan buruan
noa garbi esatera:
ni ez nioa maite ez dedan
baten senar izatera,
seguru asko fraile joango naiz
komentu zarren batera.
- 10/ Nitaz etzera zu gogoratzen
aukera nola daukazun,
zeuk ez dakizu oraindik zuri
begira zenbat daukazun.
Ni fraile joaten banaiz badakit
gero zer esango dezun:
«Latoso batek aldegin zun da
pake ederra eman zun!».

ESKALE ZAR BAT

(Doiñua: «Aizak i, mutil maiñontzi»)

- 1/ Eskale, zure bizitza
esanaz nai nuke mintza,
errukarri da zure antzera
dabilen bakoitza.
Frutu gabeko zugaitza
zera ta gaizki zabilta,
beste iñori ez diot opa
zure zorigaitza.

- 2/ Erropa zarrak autsita,
botak alanbrez josita,
oiekin zabiltz berririk ezin
dezu erosi ta.
Bizitzarekin etsita,
ziñan narrasten asita;
negargurea etortzen da, bat
ola ikusita.

- 3/ Beti zabiltz aldaketan
ordekan da aldapetan;
buru gabeak sarritan oi du
nekea anketan.
Amaika zulo merketan
lo egin dezu neketan;
olaxe bizi zera munduko
urte banaketan.

- 4/ Ori da laguntasuna
bizitzeko daukazuna,
orain ez dago billatzen errez
len galdu dezuna.
Bazenduen osasuna,
urrea balio zuna;
ori da esker xelebrea zuk
eman diozuna.
- 5/ Anakak jaso bear dira
illunpetatik argira,
etzaitez joan sasi tartera
pixtien goardira.
Zoaz Mixerikordira,
beste batzuek or dira,
lizun-usaia kenduko dizun
iturri garbira.
- 6/ Zer janik ez dan larrian
goseak il bearrian,
eskale zarra ez dabil oso
planta ederrian.
Orrek Mixerikordian
ez du egon nai gordian,
eta baztarrik-baztar or dabil
mixeri gorrian.
- 7/ Ixtori latzak baditu,
ongi esango banitu,
baiña ez leizke toki gutxian
guztiak kabitu.
Gorputza zaio nagitu,
indarrrik gabe gelditu,
izanez ere alako kargak
erabili ditu.

- 8/ Penagarrizko arratsak
eta egunak garratzak
izaten ditu ola dabillen
pertsonek lardatsak.
Danok ditugu akatsak,
ta bitan kristau narratsak;
gizarajoak berekin dauzka
suprimendu latzak.
- 9/ Ostatu jakinik eztu,
ez daki nora babestu,
eroritzen dan tokian bertan
gelditzeko prestu.
Eziña zaio erreztu
ta orrekin dabil estu,
orra gizona azkenerako
dana aldrebestu.
- 10/ Berogarri bat bakarra
gauberako du patarra,
lo egiteko izango baidu
zerbaiten bearra.
Gorputzean barra-barra
nonai badu bitxo zarra,
aiek astintzen asten danean
jotzen du kitarra.
- 11/ Batean eta bestean
zakuarekin eskean
beti or dabil bizigarria
biltzeko ustean.
Bat orrela ikustean,
ain izaera tristean,
kontentu egon bear genduke
gauden ainbestean.

12/ Eskerako dago trebe,
ez du bildurrik batere,
bide ortatik egiten nonbait
xox batzuen jabe.
Erropak maletik gabe
ibiltzen ditu dotore,
soiñean dauzka bi txamarra ta
iru galtza pare.

EUSKALERRIARI

(Doiñua: «Iguzki denean»)

- 1/ Gu, zazpi senide,
Ama baten besotan
zorionez azi
giñan lur maite ontan.
Ama, zu askotan
zaitut nik gogotan
da asi naiz bertsotan
atsegin osotan,
maitasun gozotan,
zu eskertu asmotan.

- 2/ Zazpi senideok
alkartuko bagiña,
guk Amaren naia
gendukake egiña.
Amodio piña
zer gauz atsegiña,
berez datorren griña.
Gure maite-miña
beti da berdiña:
batu nai ta eziña.

- 3/ Lore batek jantzi
zituen zazpi jardín,
lore ori degu
lore danen erregín.
Guk guztiok berdín
bear degu egin
da saiatu alegín,
euskeraz itzegín,
ori da atsegin,
iñoiz galdu ez dedín.

- 4/ O, Euskalerrria,
politez da ederrez
zu berdintzekorik
aurkitzen ez da errez.
Pozaren indarrez
goxo irriparrez
bazeundeke ezerrez;
sarritan negarrez
zaude zoritxarrez
penaz urtu bearrez.
- 5/ Zenbat soro, baratz,
zelai, mendi ta baso,
zenbat edari on
ainbat janari gozo.
Legor ta itxaso
orniturik oso
zaude zu kurioso;
ta guk animoso
lanari eraso
ta ondasunak jaso.
- 6/ Agur ta laztan bat,
Euskalerrria, zuri,
eta goraintziak
lagun maite batzuri.
Naigabe ugari
sortzen zaigu guri,
au garbi da agiri;
jaso biotz ori,
ez bera erori,
ez malkorik ixuri.

ORIOKO ARRAUNLARIARI OMENALDIA

Oriori zerbait itzegin nai nion eta auxe gogoratu zait: emen estropalariari jarritako bertso batzuk neuzkan eta auek ere liburu ontan agertzea pentsatu det.

Bertso bezela ez dute balore aundirik, baiña irakurri nai dituenarentzat ementxe gelditzen dira bizirik gaur edo biarko.

1901'garren urtetik 1983'garren urtera bitartean, zenbat bandera eta ikurriña ekarri dituzten agertzea nai izan dute oriotarrak Donostiko Kontxatik bakarririk, eta ogei eta bost dira guztira, neri esan didatenez.

Baita ere nai zuten bandera oiek erriratzeko zein patroik artu izan duten parte adieraztea. Eta nik auxe egin det: erritik ekarri zizkidaten bezela agertu ditut patroien izenak. Okerren bat baldin balego, edo norbait aipatu gabe utzi baldin badet, barkatu dezaidatela mesedez, nere errua ez da izan da.

- 1/ Oriotarrak arraunerako
doai aparta badute,
goiko puntara ezin iritxi
ori izan ez balute.
Ogeita bostgarrengo bandera
Kontxatik jaso digute,
iñoiz bada ta omenaldi bat
aurten mereziko dute.

- 2/ Larogei eta bi urte aurten
dira gutxi gora-bera,
Olaizola zan orduan patroii,
ark eman zion asera.
Kontxatik berak ekarri zitun
lenbiziko bost bandera,
eta aurtengoz iritxi dira
ogeitabostgarrenera.

- 3/ Aren ondoren Uranga patro
zutela ziran asiak,
ark ere Kontxan iru bandera
bazitun irabaziak.
Beti estuak izango ziran
estropetako auziak,
eta ez dago irabazterik
jokatzen diran guziak.
- 4/ Irugarrengo patroia emen
agertzen da Mitxelena,
gizon bikain da lasai bat zan au
neuk ezagutu nuena.
Patroi bezela egokia zan,
buru argia zuena,
Kontxatikan lau bandera eder
erriratu zituena.
- 5/ Urdangarin'en izena dator
urrengo bete-betea,
au ere patroia ibilia zan
beste askoren tartean.
Onak bandera bat ekarri zun
Kontxatik beingo batean,
milla ta bederatzireun eta
berrogeigarren urtean.
- 6/ Gerxeago patroia-lanari
ekin zion Sarasuak,
urte gutxian Kontxan bazitun
bost bat bandera jasauk.
Bera zer arraunlari izan dan
badaki erri osuak,
mutillak ondo prestatzen ditu
asko dakien maisuak.



Uztapide eta Lasarte.

- 7/ Urrengo emen beste patroï bat
daukagu Etxeberria,
Kontxatik onek ere bazuen
bandera bat ekarria.
Jokora joan da irabaztea
beti oi da pozgarria,
banderaz ondo aberastua
da Orioko erria.
- 8/ Azken bolada onetan berriz
ibili zaigu Altxerri,
nik bezin ondo badakizute
onen patrontzaren berri.
Berak Kontxatik sei bat bandera
ditu errira ekarri,
beste norbaitek ondu nai badu
marka bikaiña du jarri.
- 9/ Ikusten danez Orio ontan
sortu da patroï ederrik,
danok dakigun gauza da ori,
ez dago esan bearrik.
Baiña koadrillan ez baldin bada
arraunerako indarrik,
txalupa ez da aurrera joaten
patroïarekin bakarrik.
- 10/ Zenbat lan eder egin diguten
pentsatzen bagendu ondo,
guk Oriori ez genioke
aitzakirikan emango.
Patroïak txarrak izan diranik
ez du iñortxok esango,
baiña mutillak ere etziran
nolanaikoak izango.

(Orio'n, azaroaren 13, 1983'garrenean)

Oarra: Oek dira neri erritik ekarri dizkidaten patroïen izenak. Beste norbait balitz tarte ortan, ni ezjakiñean bizi naiz eta barka dezaidala mesedez.

ABENDU ILLARI

- 1/ Urteko illik paketsuena
nola degun Gabon-illa,
ene Jainkoa, egin zaidazu
kantari asi nadilla;
gauza guztien jabe izanik
zera apal ta umilla,
beartsu geran guztiok gabiltz
zure laguntzaren billa.

- 2/ Anai-arreba danok bilduko
bagera alkarrengana,
ikusten degu zure laguntza
guztiz bearrezko dana;
aitortzen degu kristau bizitzan
zure mirabe gerana,
eta erruki zaite gurekin,
Aita zeruan zerana.

- 3/ Aita maitea, mundu argalak
iñoiz nastutzen gaitu gu,
barka zaiguzu bear bezela
serbitzen ez bazaitugu;
orain artean ainbat ondasun
zugandik artu ditugu,
egin dituzun mesede danak
eskertu nai dizkizugu.

- 4/ Itxumen batek sarritan gaitu
illunpera eramanak,
Jauna, gu gera tentazioan
errex erortzen geranak;
zorionsuak izango dira
zure maitale diranak,
obe genduke doai on orren
jabe bagiñake danak.
- 5/ Jaun altsua, zuk urrezko biotz
aberatsa dezulako,
maite gaituzu kristau guztiok
zeureak gaituzulako.
Urte luzean ainbat mesede
zeuk egin diguzulako,
eskerrak eman nai dizkizugu
merezi dituzulako.
- 6/ Gauza guztien egille dana
an dabil zero-goietan,
uso txuriak egan ibilli
oi diran alde aietan;
bere Semea bialduko du
gugana Gabon jaietan,
urteko pestik maitekorrenak
diran egun alaietan.
- 7/ Jesus Aurtxoa etorriko da,
au da gure poztasuna,
len ere berak ekarri zigun
kristauen askatasuna.
Emaizkiguzu Gabon jaietan
pakea ta osasuna,
ta euskaldunak eskatzen degun
egiazko batasuna.

8/ Beti bezela kristau zintzoak
badauzka Euskalerrriak,
bizi diranak maitasunezko
pakearen egarriak.
Al badezute ondo igaro
Gabon da Eguberriak,
danori auxe opa dizute
Lasarte bertsolariak.

(*Aranzazu* 1981, XII)

MAITASUNA ETA FEDEA

- 1/ Itzegiteko ni ez naiz gizon
jakintsua ta trebea,
baiña gai ontan ezin niteke
izan ardura gabea;
bi gauza dira bearrezkoak
maitasuna ta fedea,
gordeko bada gure aurreko
guraso zarren legea.

- 2/ Nere iritziz emen gerora
urte txarrak datozkigu,
denbora eta bizilekua
izango dira testigu;
gure bizitzan ordaintzen ari
gera amaika kastigu,
pasa ditugun estuasunak
nekez aztuko zaizkigu.

- 3/ Mundu illuna negarti dago
naigabez oso betea,
ugaritu da bizi eziña,
borroka ta gosetea;
ondo biziko gerala gero
erreza da esatea,
zail izango da guk uste degun
bezin ondo izatea.

- 4/ Gorrotoa ta indarkeria
dabilela aspaldian,
lengo batean apaiz batek au
zion bere itzaldian;
pakerik lortu eziñik edo
surik ezin itzalian
mundu geiena ikusten dala
ogeigarren gizaldian.
- 5/ Biotz gabeko ekaitz gogor bat
dabil zokorikan zoko,
utsa litzake okerragoak
ez balio erasoko.
Ez ote degu pake-bidera
iñoiz bururik jasoko,
lasaitasun bat artu dezagun
betikotasun osoko?
- 6/ Argalkeriak bide txarrera
uste gabe garamazki,
gu lo gaudela orrek sustraiak
aurreratxo daramazki.
Batek bestea oinperatzea
ez al dago oso gaizki?
Mundu ontako bigurrikeri
danak orretzek dakazki.
- 7/ Alkar ikusi eziñik gabiltz
gure bizitza tristean,
okertu giñan eta ez dakit
noiz zuzendu gindezkean;
Jaungoikoari ari natzaio
batasunaren eskean,
mundu onetan ezin baleike
eman dezaigun bestean.

- 8/ Beartsu gera eta ez gabiltz
aukera erosuetan,
non babesturik ez degu, Jauna,
guk ekaitz-erasuetan;
eskatzen dizut eguneroko
otoitz ta errezuetan,
eriotzean ar gaitzazula
arren zure besuetan.
- 9/ Zeruko Aitak gauzak egingo
ditu txukun da egoki,
ark bakoitzari zer sari eman
guk bezin ondo badaki,
bizi gaitezen maitasunean
eta fedean sendoki,
gero zerua izan dezagun
betiko atsedeen-toki.
- 10/ Mundu onetan gizona beti
pekataria da berez,
ni ala naiz ta beste batzuna
pentsatu izan det nerez;
Jaun Zerukoa, zentzun illuna
argi zaiguzu mesedez,
begiz ikusten ez diran gauzak
ikusi ditzagun fedez.
- 11/ Guretzat beti bearrezko da
aita on baten babesa,
ala ere gu ondo zuzentzen
ez da izango erreza;
zorigaiztoko gaitz bat badegu:
alkar ikusi nai eza;
sarritan orrek ematen digu
txarkerirako laiñeza.

12/ Guraso zarrak zeruan daude
pakezko atsedenean,
mundu ontako ibillaldiak
bukatu ondorenean;
ia gu ere an biltzen geran
betiko zorionean,
Ama onaren magalean da
Aitaren aldamenean.

(*Aranzazu*, 1988, Ilbelta)

KRISTAU ITXAROPENA

- 1/ Gure bizitzak baditu ainbat
tristura ta atsekabe,
mundu-aldi au biurtu zaigu
gorroto-suaren labe.
Zu egitea nai degu gure
gorputz ta animen jabe,
Jauna, ez gera gu iñorako
zure laguntzarik gabe.

- 2/ Pekaturako geronek artzen
ditugu erreztasunak,
ausnartu gabe etorri leizken
pena ta garraztasunak;
maite ditugu aundikeriak
eta aberastasunak,
arren barkatu itzazu, Jauna.
gure ezereztasunak.

- 3/ Bizimoduko aldapa ontan
emen gabiltza iraulka,
iñoiz okerrik gertatzen bada
besteri emanaz kulpa;
estrapozu bat egin orduko
asi oi gera birauka,
ainbat ondasun eman dizkigun
Zeruko Aitaren aurka.

- 4/ Jaun altsua, guk aitortzen degu
pekatariak gerala,
zuk badakizu pekatariak
iñoiz damutzen dirala.
Ni beti nabil itxaropen bat
biotz barruan dedala:
guztion Aita zera ta gutaz
errukituko zerala.
- 5/ Pekatariok umiltasuna
degu benetan premizko,
egiñak egin damu sendo bat
artu dezagun berrizko.
Kristau-maitale neurrigabea
nola degun Jesukristo,
beso zabalik beti an dago
guri barkatzeko listo.
- 6/ Oroi gaitezen Jesus guretzat
nolako Artzaia degun,
zeru-bidean bera izango
degu gidari ta lagun.
Garizumako Aste Santuan
animak garbi ditzagun,
gero betiko gozalekua
zeruan izan dezagun.
- 7/ Ikusirikan tristea zala
pekatarien negarra,
zerutik bera jetxi zitzaigun
Jaungoiko Seme bakarra;
berak emanda artu genduen
zorionaren indarra,
salbaziorik izango bazan
bagendun aren bearra.

- 8/ Gurutze baten gure ongarri
bizia eman zuana,
berriz piztuta an da zeruan
Aitarengana juana.
Zer itz ederra izan zan, Jesus,
zuk bein esan zenduana:
«Beti-betiko salbatuko da
nigan sinisten duana».
- 9/ Jesus, bizia eman zenduen
zuk gurutzean gugatik,
guk ez genduen zuk guretzako
aiña egingo zugatik.
Argibide bat sortu zan zure
eriotzaren mugatik,
sinismenean urri zeudenak
irten zitezen dudatik.
- 10/ Jesus aundiak egin zituen
mirari eder askuak,
pekatarien bizitzarako
guztiak bearrezkuak.
Izan gaitezen aitorle onak
euskaldun egiazkuak,
gero zeruan ospa ditzagun
zorieko Pazkuak.

(Aranzazu, 1982, apirilla)

DROGA

- 1/ Droga-kontua modan dagola
au da entzuten detena,
ontzat artuta dabiltz geroko
gaizki datorkiotena.
Osasunaren kalterako da,
orrek ematen du pena,
zer artzen duten ez dakitela
askotxok artzen dutena.

- 2/ Ez badiogu gure bizitzan
zuzentasunari eltzen,
berriro ere griña gaiztoak
joango dira ugaltzen.
Zoritzarreko droga nastuak
dijoaz emen zabaltzen,
eta gazteak or ari dira
beren osasuna galtzen.

- 3/ Inoiz ekaitzak galdu oi ditu
udaberriko loreak,
drogak alaxe zimurtzen ditu
gazte lirain dotoreak.
Oiek asmatzen ari diranak
ez dira askoz obeak,
lagun urkorik maite ez duten
pikaro biotz gabeak.

- 4/ Gu ere berriz une askotan
engaiñatzen gaitu utsak,
gerez argalak izaki eta
gero olako laguntzak.
Amaika bider eskatu izan
dizkigu guri gorputzak,
bizitzarako kalte aundia
egin lezaketen gauzak.
- 5/ Bertsoen bidez bear bezela
ez da errez agertzea
zer tristea dan kristaua bere
bizieraz aspertzea.
Okerragoa berriz oraindik
Jaungoikoa baztertzea;
obe genuke egin dizkigun
mesedeak eskertzea.
- 6/ Gaur egon arren sendagai onak
eta mediku abillak,
garbitzen zail du benenatuta
dagoan odol debillak.
Joan zan urtean eundikan gora
neskatxak eta mutillak
drogaren bidez Euskalerrian
izan bear zuten illak.
- 7/ Zer balio du edertasunez
gorputza aberasteak,
esku artean baldin badabiltz
droga ta olako nasteak?
Batzuen bidez ez badirade
eskarmentatzen besteak,
orretxek galdu bear dizkigu
loretan dauden gazteak.

- 8/ Gazte, ez gaizki artu guraso
batek esaten dizuna,
al degunetik erakustea
da gure eginkizuna;
zure arbolan dago geroko
frutuen etorkizuna,
eta etzazu alperrik galdu
Jainkoak eman zizuna.
- 9/ Bat arritzen da bere bizitza
ausnartu ta aztertzean,
ustez aunditzat zeduzkan gauzak
ain txikiak agertzean.
Ori gertatu oi da munduko
atsegiñez aspertzean;
gizonak ez du zorionikan
Jaungoikoa baztertzean.
- 10/ Gazte maitea, drogari buruz
auxe esango dizut nik:
Etzazu artu osasunaren
kaltean datorkizunik.
Jarraitu zazu aitona baten
kontseju onak entzunik,
ta ez det uste geroxeago
damu izango dezunik.

(*Aranzazu*, 1982, maiatza)

ARANTZAZURA ERROMES

I

- 1/ Ongi dakigu Jesus aundia
Arantzazun dagoena,
Aitak zerutik bidali zigun
erregalirik onena.
Bere aurrean egin nai degu
benetako aitormena,
eta orduan emango digu
pekatuen barkamena.

- 2/ Ez dezagula bearrik gabe
lagun urkorik zigortu,
nai baditugu begietako
negar-malkoak legortu.
Jaunari eman esker ona ta
bere barkamena artu,
gero zerua izan dezagun
betiko atsedeen-portu.

- 3/ Guztiok joan bear degula,
ortan ez dago disputik,
gorrotoaren morroi egiñik
gabiltzan mundu nastutik.
Arren askatu gaitzazu, Jesus,
betiko lazo estutik,
sari on bana jaso dezagun
zure Aitaren eskutik.

- 4/ Erromes goaz Arantzazura
Jaunarekin alkartzera,
israeldarrak Jerusalem
joaten ziran antzera,
geure animak garbitu eta
zeru-bidean jartzera,
kristau bizitzan bear ditugun
indar berriak artzera.
- 5/ Zeruko Jauna, zuzen gaitzazu
al bazenduke inñundik,
ondasun danak artu ditugu
orain arte zuregandik.
Baiña ordaiñez zuk esker txarra
jaso dezu guregandik,
ala ere zuk, Aita zera-ta,
maite gaituzu oraindik.
- 6/ O, senideak, Jesus gurekin
dabil borondate onez;
berdin gabeko Artzaia degu,
kristau fedea dionez.
Bera maiteko degula beti
egin bear degu promes,
gero zerura eraman gaitzan
Aitarengana erromes.

(Arantzazu, 1982, garagarrilla)

ARANTZAZURA ERROMES

II

- 1/ Gure Andre Maria
aundi ta zabala
or dago, Jesus Aurra
besoan duala.
Ez degu aztu bear,
iñundik al dala,
eztizko biotza ta
urrezko magala
Arantzazuko Amak
guretzat dauzkala.
- 2/ Zer edertasun dan guk
zail da esatea
Jaungoiko-Semearen
Ama izatea.
Maitasunez biotza
dezu zuk betea,
au eskatzen dizugu
guk, Ama maitea:
pekatariotzako
erruki zaitea.
- 3/ Jesus, Arantzazura
gatoz zuregana,
gidari ta zaindari
degu zure Ama.
Badegu sinismena
fedeak emana,
laguntza iritxiko
dala guregana,
Jauna, zurekin degu
itxaropen dana.

- 4/ Jesus, kristau guztiak
zureak dituzu,
zeuk gurutzean ilda
salbatu gaituzu.
Doai bereziak zuk
eman dizkiguzu,
gure utsegiteak
barka zaizkiguzu,
pakezko maitasuna
indartu zaiguzu.
- 5/ Arren eskatzen dizut
zuri, Jesus Jauna:
emaiguzu betiko
kristau-batasuna.
Badakit borondate
ona daukazuna,
naiz gu zabarrak izan
maite gaituzuna,
neurri gabea baida
zure maitasuna.
- 6/ Zeure gorputz-odolak
ardo eta ogi
biurturik eskeintzen
dizkiguzu guri.
Jauna, zuk egin arren
ainbeste mirari,
oraindik ez gera gu
kontura erori
kristau bakoitzak zenbat
zor dizugun zuri.

(*Aranzazu*, 1982, iraila)

AMERIKETAKO ARTZAI BATI

Orain urte batzuk, eskutitz bat etorri zitzaidan Ameriketatik. Onela zion:
«Boisen, 15-12-1984'an.

Manuel, une onetan zuregana zuzendu gura neuke, zuri ezaguera emateko aurreneko aldiz, Gabon egunotan, maitasun bero batekin.

Gure Jesus Aurtxoaren sorkundea ospatzen degu, joan daneko bi milla urtean, sinismena degun guztiok, lur onen gainian. Ori dala-ta, emen bialtzen dautzudaz Gabon gomutakia eta beste sei bertso, zorionak emanaz.

Nik, egia esan, ez zaitut ezagutzen, Manuel. Baiña garbi esango dizut zure zerbait berri non jakin izan dotan eta ni nor naizen.

Ni naiz bizkaitarra, markinarra. Amabi urtean Amerikan bizi naiz artzai, mendirik-mendi, artalde eder batekin.

Irundar artzai batek esan ziran zu nola ziñan oso bertsolari ona eta biotz umillekoa. Nik ere afizio piskat badet bertsoan, bakartade onetan, denbora pasa.

- 1/ Bertso au kantatze'izut
umil da gozatsu,
arren, Jesus Aurtxoa,
jarri, ba, alaitsu!
Belenera zatozen
Salbadoria zu,
penaz bizi danari
poza emaiozu.

- 2/ Bertsotan eskatze'iot
Jesus maiteari,
guregana datorren
Salbadoriari,
pake bat lortu daion
mundu guztiari,
batez bere aurrena
Euskalerruari.

Gabon zoriontsu, Urteberri paketsu!».



Beste orri batean, sei bertso aukeratu zituzten zizkidan:

«BOISE IDAHO'N, 15-12-1984'AN
JARRITAKO BERTSOAK
MANUEL LASARTERI
GABONETAN, MARKIÑAK

- 1/ Milla pasa ta bederatzireun
laroi ta lauko urtian,
bertso batzuek jarri nai ditut
Amerikako partian,
euskaldun odol beroa daukot
biotza bete-betian,
gure izkuntza ez da galduko
bertsolarik din artian.
- 2/ Biotz oneko Lasarte jauna,
orra zuretzat bertsuak,
beren argia bialdu dauste
Jesus Jaun amorusuak.
Auetxek die ain itz sakonak
erdika barik osuak,
Salbadoria bajatoriku ta
guretzat egun gozuak.

- 3/ Jesus onaren etorreria
laister daukagu Belenen,
beren aurrean umil jartzea
komeni zaigu lenbailen.
Pobriena bezelaxe dator
andiena izan arren,
gugatik sortu, gugatikan il
errurikan izan ez arren.
- 4/ Lur gain onetan sortu giñanok
denok gera pekatari,
parkaziyua eskau deiogun
guregan datorrenari.
Sinismendunok aspaldi gaude
maitasunaren egarri,
zeru ta lurren jabe zerana,
pake santu bat ekarri.
- 5/ Gure euskera berdin gabea
lur eder orren gainian,
Euskadi baten lorategia
gorde gorengo neurrian.
Nere itz aubek goguan artu
biotzen erdi-erdian:
jai egun onak ongi ospatu,
agur beste bat artian.
- 6/ Ildako danen alde erregu
egin dezagun kristau lez,
ainbat anima pena supritzen
daude egun eta gauez.
Biar edo etzi beste ainbeste
gertatu lezake gugez,
Gabon jai eta Urteberri on
zuri, Manuel, biotzez.



Oriotik erantzuna nere adiskide Antonio Zarraberi:

«Artu nuen zure karta edo eskutitza, Kolunbiatik bidali zidazuna. Gabon eta Urteberri zoriontsuak opa zizkidazun, eta nik ere zuri alaxe opa dizkizut, Antonio.

Zure eskutitza neregana iritxi zanerako, Gabon eta Urteberri jaiak igarota zeuden. Ilbeltzaren erdi aldera iritxi baizan zure eskutitz ederra gure etxera. Baiña bein ere ez da berandu olako karta goxo bat irakurtzeko, eta poz aundia artu nuen, batez ere zure bertsoak irakurrita; eta Euskalerrinari opa diozun zorionagatik eskerrik asko, Antonio Zarrabe.

Zure sentimentuak orrela baldin badira, euskaldun eta erri maitale agertzen zera, Euskalerritik urruti bizi izan arren; eta orixe bear degu: eutsi beti gurea degun izkuntza gaixoari.

Suerte on bat izan zabiltzan lurralde oietan, eta ea egunen batez alkar ikusteko erarik izaten degun. Nik ere bertso moduko batzuk jarri dizkizut zure oien ordaiñez. Liburu kaxkar bat egiten ari nintzan, ta zurekin gai bat geiago izan det.

Agur eta nai dezun arte. Manuel Lasarte».



Bertso auek bidali nizkion:

- 1/ Pozik bizi naiz jasotzen ditut
ainbeste erregali-ta,
ezagun asko egin ditut nik
lurgain ontan ibilita.
Amerikatik iritxia zait
oso eskutitz polita,
egazkiñean etorria da
artzai batek bidalita.

- 2/ Lengo batean denbora pasa
etxe aldean nengoen,
karta eder bat artu nuen ta
berak arritu ninduen.
Bizkaitar baten bertso berriak
irakurri ta ondoren,
ordaiñak jartzen astera noa
al dedanikan ondoen.
- 3/ Ez dakit zenbat urte dituzun,
ez dakit zure adiñik,
baiña memoriz jantzia zera,
ez daukazu itz ariñik.
Beraz amabi urte dira zuk
Markiñatik aldegiñik,
gaur Kolumbian zaude artalde
on baten jabe egiñik.
- 4/ Amerikatik zaude, artzaia,
sorterriari begira,
zu bakarrikan etzaude ola,
geiago ere badira.
Zuen gorputzak pentsamentua
bezin azkarrak balira,
bisita pranko egin bearko
luteke Euskalerrira.
- 5/ Zu Kolumbian ta ni Orion
tarte aunditxora gaude,
zugana joango nintzake pozik
baiña urrutitxo zaude.
Zuri aukerik sortzen bazaizu
etorri bildurrik gabe,
gure etxean euskaldunentzat
ateak zabalik daude.

- 6/ Artalde baten artzai zerala
didazu kartan esaten,
Antonio, zuk jarraitu beti
artzai umilla izaten.
Ardi gaixoak zintzoki zaindu
otsoak jan ez ditzaten,
larre goxotik eman, bizitza
gustora pasa dezaten.
- 7/ Orain amabi urte nik gauzak
estu nabaitzen nituan,
artzaia, noski zuk ere ongi
ikusiko zenituan:
gure euskerak bere lurrean
zer urte pasa zituan;
gaur ere larri dabil gaixoa
erderak ia ituan.
- 8/ Zuk nai zenduke gure izkuntza
gorengo maillan jartzea,
orretarako komeni zaigu
neurri zorrotzak artzea,
guraso eta aurren artean
euskal giro bat sortzea;
ez da erreza emen askori
ori buruan sartzea.
- 9/ Gure euskerak ez daramaki
oso bizitza lasaia,
baiña oraindik lorategian
badago lore usaia.
Ori txukuntzen eta indartzen
denok bear degu saia,
zuk borondate ona dezu ta
eskertzen zaitut, artzaia.

- 10/ Arreta aundi bat jarri det zure
biotz amodiosora,
eta Jesusi egin diozun
eskari kuriosora:
pake santu bat arren zabaldu
dezala mundu osora,
lendabiziko Euskalerrria
gure lurralde gozora.
- 11/ Ildakoekin ez aztutzeko
egiten dezu erregu,
bizi diranak ere gogoan
artu bearra daukagu.
Gero damurik ez da izango
ori egiten badegu,
lagun urkoa maite duenak
Jainkoa bera maite du.
- 12/ Artzai maitea, bertsoen bidez
biok lagun egin gera,
agian noizbait izango degu
alkar ikusteko era.
Ni il baiño len Euskalerrria
itzultzen baldin bazera,
bisitatxo bat mesedez egin
zaidazu gure etxera.

ITURRIOZKO GARBUNO

- 1/ Iturriotz ta Ergoien orra
Oiarzun'go bi baillara,
zer txukun eta politak diran
bertsoz agertzen zailla da.
Erri ontan bi etxe zarrenak
zein diran sustraia bada:
Iturriotz'ko Garbuno eta
Ergoien'go Pagoaga.

- 2/ Guk uste degu alkarrengandik
aparte samar dirala,
etxe batetik bestera oiñez
ordu erdi bear daña.
Entzun izan da oietan baten
jabeak esan zuala
auzoak ongi eramateko
biak aldexko zirala.

- 3/ Erdi Aroan egindakoak,
lareun edo bosteun urte
badituztela etxe zar oiek
adierazten digute.
Uste gabeko ezbearren bat
gertatzen ez bazaiote,
oraindik ere urte-mordoan
txutikan iraungo dute.

- 4/ Baillara ontan bi auk ere
ezagunak dira oso:
bat Iturriotz-torre da eta
bestea berriz Makutso.
Garai batean etxe-jabeak
ibili ziran penoso,
gerra zital bat sortu zalako
kalteak zituzten jaso.
- 5/ Gerra izan zan Oñaztarrena
eta Ganboatarrena,
ark ekarri zun torre luzedun
etxe batzun ondarena.
Denbora artan nola errege
zan Enrike laugarrena,
zer jokabide artu bear zan
berak eman zun ordena.
- 6/ Gerra-torreak ziruditenak
ziran Enrikerentzako,
ta esan zuen etxe oieri
goiko almenak kentzeko.
Ez dakit zenbat motibo zuen
gisa ortan agintzeko,
edo ori zan bearrezkoa
gorrotoak arintzeko.
- 7/ Bi talde oso bigurrituta
borroka latzak zebiltzan,
eta Enrike laugarrenaren
erabakia ori zan.
Baña Garbuno paketsu zegoen
torre-baserrien gisan,
argatik etzun goiko almenik
moztu bearrikan izan.

- 8/ Arrizko ormak dauzkate danak
txukun bezin dotoreak,
eta zurezko soliberiak,
prontalak eta abeak.
Solairu eder, giertsu, fiñak,
gizen ustelik gabeak,
nunbait orduan aziko ziran
gaur baiño zugaitz obeak.
- 9/ Leio bikotxak dituzte goien,
geientsuenak berdiñak,
pillaretxo bat erdian dala,
arku zorrotzez egiñak.
Esku-lanean artistak ziran
garai artako argiñak,
punteroz eta mailluz labratzen
zituzten arri gordiñak.
- 10/ Torre bakoitzak arkuduna du
be-sarrerako atea,
an ikusten da lengo gizonen
langintza edo artea.
Baiña atea bere aurrean
lendik zuen estalpea,
Garbuno ortan gerora zuten
alabearrez botea.
- 11/ Obra egin da aldatua da
beraz torre-baserria,
izena ere Garbuno kendu
ta Zuberoa jarria.
Arbelaiztarrak bertan moldatu
zuten ostatu berria,
askorentzako orain bera da
jatetxe zoragarria.

12/ Iturriozko Zuberoak gaur
badauka fama galanta,
jendea erruz biltzen da ara
ostatu ona dala-ta.
Jangelak oso ederrak ditu,
sukalde garbi aparta,
jan-edanetik ere aukera,
an ez da ezertxo falta.

NERE BIZITZA ESTUA

(Doiñua: «Ikusten duzu goizean...»)

1/ Gure lur maite onetan
bizi bearrak penetan
samintzen gaitu benetan.
Ene Jainkoa, ez dakit ainbat
sufritzeko nik zer detan;
ogei bat urte auetan,
egunez eta gauetan,
beti nabil naigabetan.

2/ Ezin arindu pausorik,
ezin bigundu besorik,
ezin kantatu bertsorik.
Naigabearen menpe bizi naiz
burua ezin jasorik;
ez daukat egun gozorik,
nabillelako gaixorik,
ez det zorion osorik.

3/ Makaldu zaizkit eskuak,
belaunak ezereztuak,
gerriak aldrebestuak.
Arbola zarrak betiko galdu
zituen orri preskuak;
nere bizitza estuak
ez dauzka egun prestuak,
naigabez aberastuak.

4/ Ezin jarri umorean
beste batzuen parean,
lengo oitura nerean.
Indarberritzen zailla da oso
zartu eta ondorean;
baju nago balorean,
ezagun det kolorean
pasa nintzala lorean.

5/ Konturatu gaitzezela
Jaunak egin giñuzela,
galduak gera bestela.
Antzeman diot nere urteak
aurrera dijoazela;
ondo joan ditezela,
naiz jakin ilko naizela
beste guztiak bezela.

6/ Jesus gugatikan il zan,
animak salbatu zitzan,
beste biderik ez baitzan.
Berarengana bildu gaitezen
eskaeran da eskeintzan;
fededun nai degu izan
munduko gure bizitzan,
bakarrik utzi ez gaitzan.

BERTSO ESKEA

- 1/ Mutiko bat datorkit
bertsoen galdezka,
izketan goxo asi
zait irriparezka.
Oraindik amar urte
besterikan ez ta
euskerarekin dauka
sekulako kezka;
gaur olako gazteak
ez daude parezka.

- 2/ Ain doai aberatsak
nundik datozkizu,
euskeraz egiteko
txukun da eztitsu?
Badauzkat, bai, bertsoak
eta torizkizu,
nik egiñak gogozko
baldin bazaizkizu;
naiago nun lenago
eman banizkizu.

- 3/ Izkuntza erreztu nai
duenak betiko,
bertsoak bearrezko
ditu zurekiko.
Oso bide onetik
zabiltza, mutiko,
zu euskaldun aundi bat
zera nerekiko,
bestela etzenduen
grñ au edukiko.

4/ Euskaltzale sutsu bat
zerala jakiñik,
ez nizuke eman nai
biotzean miñik.
Ez galdu, seme, berez
datorkizun griñik,
Amarentzako dezun
amodio piñik;
ori galtzen duenak
ez du zer egiñik.

5/ Alegindu nai dezu
izkuntza edertzen,
Amarengana zaude
amodioz lertzen.
Olako seme asko
etzaizka agertzen,
bertsolaria ez da
beñere aspertzen,
euskera maite duen
gazte bat eskertzen.

6/ Nola frutua sortu
oi dan arbolean,
zuk euskera alaxe
dezu odolean,
amak eman zizuna
bere sabelean.
Maitasuntsu azia
zaitu magalean,
euskaldun izateko
mundu zabalean.



Uztapide eta Lasarte.

- 7/ Gero ikastekotan
ez utzi euskerik,
gaiñontzean ez dago
bizirik eusterik.
Ez du merezi onek
iltzera uzterik,
zuk ez dezu, gaztetxo,
olako usterik,
au bezin aberatsik
ez baita besterik.
- 8/ Jakiñik ez degula
ezer oberikan,
ezin eduki leike
lotsaz gorderikan.
Erakutsi dezagun
batzuk bederikan,
ez dezagun zigortu
erru gaberikan,
ortarako ez dago
eskubiderikan.
- 9/ Euskeraz itzegiten
gaude nagitxuak,
aur txikiak, zabaldu
zeuen begitxuak.
Erderarenganako
ez izan itxuak,
udaberri-goizetan
txori berritxuak
bezela kanta dezan
gure erritxuak.

- 10/ Euskera indartzea
atsegin litzake,
iñundikan indartu
al bagenezake.
Ni erabat ortantxe
ariko nintzake,
baiña ain naiz txikia
ta gutxi nezake;
aundi batek ere gaur
dana ez lezake.
- 11/ Ikusten ditugu len
euskaldun ziranak,
gaur euskeraz aztuta
arkitzen diranak,
oietako batzuek
pameliko amak.
Jokabide au artzen
badu erri danak,
laister du bukaera
euskera laztanak.
- 12/ Euskera baztertzeak
ematen du pena,
guraso bulartsuak
utzi zigutena.
Au da danen gaiñetik
sentitzen detena,
gauzikan ederrena
da galdu dutena,
amaren magalean
ikasi zutena.

DAMA GAZTE EDER BATI

- 1/ Jaunak egin du milla
gauza arrigarri,
lore au berriz beste
danen edergarri.
Bertso goxo batzuek
nai dizkiot jarri,
jendeak jakin dezan
dama onen berri.

- 2/ Zerutikan lurrera
Jaunak bialita,
jetxi ziñan olako
aingeru polita.
Ark eman zizun gorputz
doatsu ori ta
garbi zaindu ezazu
kontuz ibilita.

- 3/ Lore tartean bizi
diran mariposak
bezela dira zure
antzeko pinposak.
Errian badauzkazu
gazte aproposak,
zure babes goxoan
bizitzeko pozak.

- 4/ Zeu maite zaituztenak
orrenbeste mutil
ikusirikan, egan
or zabiltza pil-pil.
Irripar goxo eta
ugariak kil-kil
egiñez, zu oraintxe
bizi zera trankil.
- 5/ Bat txoratu liteke
daukazun balorez,
edo ikusten zaizun
itxura dotorez.
Soiña apaintzen dezu
nai dezun kolorez,
konparatzen zaituzte
maiatzeko lorez.
- 6/ Izar bi diruditen
begitxo urdiñak,
masail txuri-gorriak
seda bezin piñak.
Gauz polit asko ditu
Jainkoak egiñak,
baiña oso banaka
olako imajiñak.
- 7/ Lagundurik sasoiak
edo osasunak,
dituzu zorionak
eta poztasunak.
Baiña gero etorri
leizke laztasunak,
engañatzen bazaitu
uste ez dezunak.

- 8/ Zure gorputzak oiñak
aidean derabiltz,
lurrik ikuitu gabe
bezelatsu dabiltz.
Ikusten zaitugunak
au esanez gabiltz:
«Ai sasoi eder ori
betikoa balitz!»
- 9/ Gaztetan izaten da
tentazio geitxo,
nik ori ezagutu
nuen aspalditxo.
Mundu ontan badago
edozenbat bitxo,
zeure burua zaintzen
alegindu txintxo.
- 10/ Badakizu sasoiak
ez duela txantxik,
egokitzen bazaizu
bide estu-antxik.
Etzazu artu beintzat
txarrerako martxik,
ez badezu izan nai
gerorako mantxik.
- 11/ Gorputz ederra dezu,
anima ere bai,
zeiñek eman zizkizun
ez aztu nolana.
Ezer pentsatu gabe
ez joan noranai,
ea izaten zeran
ama on baten gai.

12/ Izaten dan neskatzik
kuriosuena,
au da amak mundura
ekarri zuena.
Baiña naiz-ta gorputzez
izan osuena,
kristauak anima du
baliotsuena.

LANA

- 1/ Bederatzi puntuko
bertso batzuetan
ikusiko det ezer
asmatzen detan.
Lan gogortxo bada
utziko det bertan,
alperrik jardun gabe
nekatzen ezertan.
Borrokan da setan,
ainbat lan-klasetan,
beti ametsetan
olako gauzetan
nabil berrogei ta amar
urte luzetan.

- 2/ Nik len ere egin det
gizon baten lana,
orain atsedena da
bear dedana,
bizirik irauteko
komeni zaidana,
medikuak aspaldi
agindu zidana.
Badakit zail dana
kunplitzea dana,
baiña ark esana
mesedeko zana
orain nago ederki
ni antzemana.

3/ Lanerako doaia
Jainkoak emanik,
Ari eskerrak beti
izandu det nik.
Gorputza zigortu det,
baiña orren penik
ez det esango iñoiz
izandu detenik.
Pobrea izanik,
garbiro esanik,
egin gabe lanik
ez dago zer janik;
ez uste au gezurra
nik diodanik.

4/ Iñoiz gozatu oi da
gizona lanean,
nor bere gustokoan
ari danean,
gauzak egoki samar
datozkionean
ta ongi ari dala
derizkionean.
Itxaropenean
sendo dagonean,
poza barrenean
sortzen zaionean,
orduan bizi da bat
zorionean.

5/ Lurraren indarrez ta
gizonaren lanez
mantentzen gera danok,
ikusten danez.
Alguztidun Jaunari
eskerrak emanez,
bizi bear genduke
merezi duanez.
Borondate onez
kargak eramanez,
janez ta edanez
osatzen geranez
zoriontsu gera, nik
uste dedanez.

6/ Mundura sortzen danak
beartsu ta pobre,
atseden gutxi du ta
nekea sobre.
Izan nai dunak bere
buruaren jabe,
pasatzen du amaika
kezka ta naigabe.
Emen ala ere
saiatu ta obe,
gu aulduak gaude,
baiña asko daude
lana egingo ta nun
egiñik gabe.

7/ Ikusirik bizitzak
neke asko dula,
gure itxaropena
ez da mardula.
Badakigu kentzeko
asko dauzkagula,
eta beti tiraka
ari zaizkigula,
nai duenak burla
egiten digula.
Ez aztu sekula
lan egin degula,
zeiñentzat ari geran
ez dakigula.

8/ Langillea naizenik
ez diot ausardiz,
baiña pozik egin det
amaika aldiz.
Zenbaitek ori ez du
ikusit nai begiz,
baiña premizkoa da,
aitortzen det egiz.
Esango det berriz
errespeto aundiz:
segi zentzun argiz,
kontzientzi garbiz,
ogia jan dezagun
geure izerdiz.

NESKA-MUTIL GAZTE BATZUEN ARTEKO GORA-BERAK

- 1/ Andregaitxo bat banuen ustez
umilla eta jatorra,
arekin ere sortu zitzaidan
naigabe latz ta gogorra.
Alkar maite ta utzi bearra
izan gendun derrigorra,
geroztik beti gaixorik dabil
nere biotz sentikorra.

- 2/ Moja joan zala jakindu nuen
baiña ez dakit non denik,
ark aldegin da besterik ez da
sortu neretzat on denik.
Aitarengandik etzun nerekin
ezkondutzeko ordenik,
artu ta berriz diximuloan
kolkoan ezin gorde nik.

- 3/ Egun batean gorde zan eta
geiago ez det itzezin,
iñoiz ikusi al banezake
izango nuke atsegin.
Nik amodioz maite nuena
ezin zoriontsu egin,
naigabe ori daukat barruan
eta ezin dit aldegin.

- 4/ Nerekin baiña obekiago
biziko da gaur akaso,
baiña ni triste utzi ninduen,
biotzik ezin det jaso.
Ain zan umilla bere izatez
ta obeditua oso,
alakoxeak bear luteke
pamelietan guraso.
- 5/ Nik ari nion amodioak
nola etzuen atzenik,
iñola ezin nuen sinistu
bera neretzat etzenik.
Ez nuen uste ain kristau piñik
lur ontan izaten zenik,
ark moja ere luzituko du,
or ez det dudik jartzen nik.
- 6/ Aita zalako ez nintzan egin
maite nuenaren jabe,
nunbait arentzat gaiztoa nintzan
neronek ala nai gabe.
Biotz gogorra zuen neretzat
arroka zar baten pare,
bizimodua nastu dit baiña
barkatzen diot alare.
- 7/ Jai-arratsaldez gu atarian
kontu goxo-apaletan
jardun oi giñan, ta aita berriz
ate-zulotik zeletan.
Bizar luzeak eta zorrotzak
zituen betazaletan,
aren begiak etziran bizi
ni an ikusi-zaletan.

- 8/ Orrela zaintzen badezu beti
zeure etxe-ataria,
egunen batez jasoko dezu
merezi dezun saria.
Eskerrik asko guztiengatik,
aitona kaska txuria,
zu ziñalako joan zan egan
nik maite nuen txoria.
- 9/ Estu ibili ziñan ezkontza
nundikan galeraziko,
nunbait ez gendun zorionikan
guk lur ontan mereziko.
Naigabez bete nazu, aitona,
nere bizitza guziko,
au egin arren zu ere etzera
beti gustora biziko.
- 10/ Begirik jaso eziñik nabil
ni ainbat egun tristeri,
aitona batek etorkizuna
galdu digu bi gazteri.
Gizonak nola izan lezake
orrenbeste zipozkeri?
Zerorrek naiko etzenduena
egin diozu besteri.
- 11/ Banaka bizi bearra alkar
maite genduen bi gazte,
neretzako au samingarria
izan da besteak beste.
Aitaren erruz ez giñalako
egin senar ta emazte,
geroztikako nere urteak
triste asko dijoazte.

- 12/ O, mojatxoa, Jainkoak ez du
biotz txarrik inorentzat,
Berak egiñak gera guztiok
ta naiko gaitu Beretzat.
Ark zeruetan aulki eder bat
edukiko du zuretzat,
ala komeni bada beste bat
gordeko al du neretzat.
- 13/ Zure anima zegoan nunbait
grazi onez doaitua,
nola baiziñan txikitandikan
garbi ibiltzen oitua.
Berdin gabeko umiltasuna
zuen zugan nabaitua,
argatik zizun gure Jainkoak
bere etxera deitua.
- 14/ Jaso begiak Jaunarengana
eta biotzez alaitu,
nik ori nai det naiz-ta bizitza
bakardadean amaitu.
Emengo penak aztuko dira
zeruan biltzen bagaitu,
agur, mojatxo maitagarria,
zuk otoitzean jarraitu.

**BASARRI BATEKO
MUTILZAR EDARIZALE BATI
BERE AUZOTAR BATEN ERREGUZ**

(Doiñua: «Aizak i, mutil maiñontzi»)

- 1/ Auzoko mutil zar bati
bertsoak jartzeko beti
esaten ari ziran, da nik ez
gogorik eduki.
Itzegin leike egoki
nundikan asi baneki,
baiña len ere ori nortsu dan
jendeak badaki.

- 2/ Memoriz ez dabil argi,
ori ikusten da garbi;
bizio txarrak eragin dio
amaika pikardi.
Lenago ainbat izerdi
bota ez balu gaitz erdi;
orain soroak biurtu zaizka
sasi ta belardi.

- 3/ Ikusi nuen lenguan
eta bildurtu ninduan:
gizarajoa neurriak ondo
beteta zeguan.
Obe lotu bagenduan
asto beltzaren onduan;
libre utzi ta jakiña dago
zer egingo duan.

- 4/ Urte txarrak datozkion
itxurak artu nizkion,
bere anaiak ere kontseju
pranko eman zizkion.
Nola ajolik ez dion
guk zer esan genizkion;
ea berriro uste baiño len
aztutzen zaizkion.
- 5/ Etzigun erantzun itzik,
ez bai eta ez ezetzik,
egi galantak entzunagatik
askotan ez-ezik.
Orrek ez du beste gaitzik
alkola gallendu baizik,
ori kendu ta ez du pasako
gustoko bizitzik.
- 6/ Berrogei urteko adiña,
zerbait pentsatzeko diña
baluke, baiña gizarajoak
burua ariña.
Zurrutak dago eragiña,
ainbeste badu egiña,
txikitandikan ekarri zuen
ortarako griña.
- 7/ Ez diot opa gaizkirik,
naigabearen izpirik,
baiña nik ez det inun ikusi
olako piztirik.
Gau t'egun dabil bustirik,
legortzeko ez du astirik;
alare beti ez du edaten
nai duen guztirik.

- 8/ Gizarajoak zurruta
geiegi maitatzen du-ta,
etxe aldeko martxa ikusten
zaio atzenduta.
Bide txarrari elduta,
dabil burua galduta,
ardoa erosten etxeko gauzik
onenak salduta.
- 9/ Jazten ez dauka gasturik,
dabil oso narrasturik,
bere gorputza estaltzea're
askotan azturik.
Aurpegi dana lazturik,
bizarrez ondo bezturik,
sei illabete baditu orain
urrengo mozturik.
- 10/ Tabernan beteta sarri,
beste batzuen mingarri,
iñoiz bidea galduta ere
ibiltzen da larri.
Jakiteko bere berri,
dozen erdi bat zintzarri
erantsi bear litzaizkioke
nere ustez orri.
- 11/ Etxe azpiko aldapan
pausoa ematen du bakan,
gizarajoa an ibiltzen da
asto baten plantan.
Etxeratzen da lau ankan,
atea jotzen du *kan-kan*,
orrek gorputza kastigatzen du
buruaren paltan.



Manuel Lasarte Arribillaga.

- 12/ Zorioneko edariak
ditu indar ugariak,
ez dira beti ondo konpontzen
gizona ta biak.
Nasten ditu memoriak,
gero nunai aberiak,
len ere orrek bultzata asko
dira eroriak.
- 13/ Ara gizona nekean
nola bizi litekean,
edariari ez diolako
utzi nai pakean.
Or dabil karga betean,
itxura narras batean;
batek ez daki osasuna nun
galdu lezakean.
- 14/ Lenago ziñan indartsu,
sasoi onean da gartsu,
orain gorputza zerorren paltaz
galdua daukazu.
Olakoxea zera zu,
pena ematen didazu;
utsegiterik egin badizut
barkatu zaidazu.

LORE EDER BATI

- 1/ Lore eder bat ikusi nuen
lengoan sasi tartean,
udaberriko eguna zan da
zegoan sasoi betean.
Sedazko telak nola egoten
diran eskaparatean,
alaxe zegon euteraldeko
arkaitz inguru batean.

- 2/ Sasi tartean azitzekotan
etzan lore aldrebesa,
ura zan baiño politago bat
billatzen ez da erreza.
Bere burua agertu naian
gaixoak bazuen presa,
erakusteko nolakoa dan
munduko naturaleza.

- 3/ Gauza politikak sortzen dira ta
ura alakoa izan,
ikusi nuen ordurako ni
erabat txoratu nintzan.
Iru-lau erle bere gainean
jostatzen goxo zebiltzan,
loreak ere tentazioak
baditu bere bizitzan.

- 4/ Artean oso gaztea zan da
sendo zeukan osasuna,
xorroak intzez bustiak zeuzkan,
ura aren poztasuna,
eguzkiari erakutsiaz
barrengo ezkotasuna!
Jaunak zerutik bedeinkatu zun
aren berezkotasuna.
- 5/ Bere inguru danak beteta
zeuzkaten lar ta oteak,
zorrotzak eta bildurgarriak
dira aien bigoteak,
ipurditikan muturreraiño
danak arantzaz beteak.
Min eman zidan loretxo ura
tarte artan egoteak.
- 6/ Indarberriak artuta dago
geroko itxaropenean,
baiña gaixoak etsai gogorrak
an dauzka aldamenean.
Igartuko da sasi gaiztoak
menderatzen dutenean,
nik, al banuke, jarriko nuke
jardiñik politenean.
- 7/ Lore maitea, etziñan emen
toki ederrean sortu,
sasi zikiñak naiko zaitu zu
berriro lurpean sartu.
Neguak ez du ori galtzen da
udaberriak indartu,
ona argatik oi du sarritan
gaiztoak mendean artu.

8/ Lore gaixoa, ikusten zaitut
gutziz eder eta guri,
nik ori baiño toki ohea
desio nizuke zuri.
Udaberriko giroan zaude
eguzkia bezin txuri,
zure jazkerak aingeru baten
soiñekotxoa diruri.

GALARTZA ETA RETEGI

(Doiñua: Ameriketako esne saltzaillearena)

- 1/ Borroka gogorrean
or bi pelotari,
aurpegiz-aurpegi:
Ladis Galartza eta
Julian Retegi.
Lendik ere entzuna
nengoen askori
berdin jotzen zutela
ezker da eskubi;
ez da billatzen errez
olako beste bi.

- 2/ Iritxi zan ordua
jokatzen asteko
ta erakusteko
gertu zeudela goiko
maillari eusteko.
Julian etzegoen
nolanai uzteko,
ta arek galdu bear
zuk irabazteko;
garaia zendun, Ladis,
txapela jazteko.

- 3/ Badakizu, Julian,
egin dezun lana,
bistan daguana,
guztion esker ona
merezi duana.
Pelotari bizitza
diozu emana,
jakiñik kirol ori
euskalduna dana;
zu zera ixtorira
pasako zerana.
- 4/ Pelotarenganako
dezu maitasuna
ta leialtasuna;
ori da mesedea
egin diozuna.
Badakit amar txapel
jantzi dituzuna,
kantxan erakutsiaz
nagusitasuna;
aundia da, Julian,
zure nortasuna.
- 5/ Retegiren aldeko
diru aberatsa
igo zan gorantza;
berak irabazteko
zegon esperantza.
Baiña billatu zuen
kontrario latza,
beste orrek baditu
indarra ta gatza;
aurten ikusi gendun
egizko Galartza.

- 6/ Jokotikan ez dala
iñor aberastu
ez dezagun aztu;
arriskutsua da ta
ez geiegi poztu.
Diru aldakorra or
dabil eskuz-esku,
batzuek poltsak bete
ta besteak ustu;
irabazleak lasai,
galtzailleak estu.
- 7/ Ladisek dauzka beso
kelmentsu trebeak,
tatxarik gabeak;
gutxi ikusi dira
jotzaille obeak.
Biak egin zituzten
tanto dotoreak:
dejadak txokora ta
aidezko boleak;
oiek eskatzen ditu
pelotazaleak.
- 8/ Galartzak artzen zuen
pelota botera,
ta goitik atera;
Retegi aidez sartu
ura eramatera,
bestela urreratzen
zan errebotera.
Begira egon nintzan
ango garrotera,
pentsatuaz: «Aurten zer
pasako ote da?».

9/ Julian ongi dago
len dagon moduan,
au artu goguan;
ez dakit bere marka
nork onduko duan.
Ladis, asko saiatu
zera aurtenguan,
txapela eder ori
merezi zenduan,
zugandik orrenbeste
espero genduan.

10/ Pelotari maiteok,
ez esku pelota
bartzarrera bota,
bestela damu izan
liteke gero ta.
Frontoitikan frontoira
or dabil saltoka,
gaixoa ez da mintzen
zuek asko jota;
pozik bizi da, esku
onetan dago ta.

Diodan partidu au 1991'ko apirillaren 28'garren egunez jokatu zuten Donostiko Anoetako pelotalekuan bi finalista aundi auek.

ARKIBIDEA

Sarrera	9
Itzaurrea	13

NERE BIZITZA

Franki baserria	17
Gerra	37
Leitzatik Aiara	44
Aia	46
Ernio mendian, baso -lanean	55
Perratzaille	59
Soldadutza	74
Zarautz	86
Orio	112

BERTSOLARITZA

Bertsolaritza	131
Lengo bertsolariak	132
Xalbador eta Mattin	134
Uztapide	143
Txirrita zanaren pasadizoak	152
Bertsolaritzaren sustraiak	155
Nundik nora	159
Aldakuntzak	168
Bertsolariaren lanak	174
Bertoaren baldintzak	178
Idazlanak	180

ZENBAIT OMENALDI

Urrategiko omenaldia	185
Aiako omenaldia	195

Zegamako omenaldia	201
Orioko omenaldia	206

GURE IBILLERAK

Eriñozu	213
Txakoliña	215
Eiztariak	218
San Martin jaiak	220
Manuel Sagardia zana	224
Elgeta	227
Zaldibi	229
Goizueta	231
Amoroto	233
Irun	235
Bertsolarien jokabide xelebreak	237
Alegi	239
San Martiñak	241
Santa Ageda eguna	244
Karnabalak edo inauteriak	246
San Blasetan	249
Amezketan	252
Ibaeta	255
Otxandiano	257
Santo Domingo	260
Zestoa	262
Narbate	264
Zegama	266
Betelu	268
Oikina	270
Ezkurra	272
Alkiza	274
Saldias	276
San Martiñetan	279
Legorreta	281
Gorriti	284
Berastegi	286
Elgoibar	293

BERTSOAK

Nere buruari	301
Leitzako erriari	305
Nere seaskari	308
Semeari	311
Aiako erriari	314
Ezkontza bateri	318
Leitza-larreko zugaitzak	321
Basarri, Uztapide eta Ernio mendia	324
Eibar eta Zaldibar	326
Berrogei ta bi urte bertsotan	328
Dama bati	332
Nere billobatxoari, bi urte zituenean	335
Amonatxo bati	338
Azaria	342
Ezkontza egun bateko bertsoak	347
Egunsentia	351
Pazko egunean	353
Aurdun geratu zan neska bateri	354
Sei illebeteko negua	358
Gezurra	362
Bertsolari gazteei	366
Langillearen etorkizuna	370
Udazken on bati	374
Gizon damutua	379
Neskazar bati	384
Txantxangorri bati	388
Ama eta seaska	392
Ondartzako kontuak	396
Etxe atariko iturria	400
Zaldi bati	404
Lenengo jaunartzea	408
Maitasunaren kezakak	412
Eskale zar bat	415
Euskalerriari	419
Orioko arraunarieri omenaldia	421
Abendu illari	425
Maitasuna eta fedea	428
Kristau itxaropena	432

Droga	435
Arantzazura erromes I	438
Arantzazura erromes II	440
Ameriketako artzai bati	442
Iturriozko Garbuno	449
Nere bizitza estua	453
Bertso eskea	455
Dama gazte eder bati	460
Lana	464
Neska-mutil gazte batzuen arteko gora-berak	468
Basarri bateko mutilzar edarizale bati bere auzotar baten erreguz	472
Lore eder bati	477
Galartza eta Retegi	480

AUSPOAREN SAIL NAGUSIA

- 1.- Antonio Zavala: TXIRRITA (Bizitza eta bertsoak).
- 2.- «Basarri», Inazio Eizmendi Manterola: NERE BORDATXOTIK (Bertso-bilduma).
- 3.- Manuel Lasarte: BERANDUKO LANAK (Bizitza eta bertsoak).
- 4.- Antonio Zavala: KARLISTEN LEENENGO GERRATEAREN BERTSOAK.
- 5.- Antonio Zavala: PELLO ERROTA (Bizitza eta bertsoak).




1009238

80-2193

AZKUE BIBLIOTEKA
CU. N.º 12 ARDIA
BILBO

76702

1992 MAR. 17



auspoa
